El objetivo principal de esta segunda edición es hacer frente al proceso de cambio —ya permanente y estructural— en que se encuentra el ordenamiento jurídico-penal, a la vez que responder al compromiso adquirido en la primera edición de que el jurista euskaldun «disponga en todo momento de ediciones actualizadas y fiables». Y es que sólo en el año 2003 los cambios legales introducidos en el Código afectan, aproximadamente, a unos 200 artículos por lo que la actualización del texto resultaba ya insoslayable. Simultáneamente se ha aprovechado la ocasión para corregir errores de la edición anterior con base en la experiencia acumulada por el del Código penal a lo largo de estos años. Por último debe señalarse una última razón que nos ha animado a abordar la urgencia de una segunda edición con especial satisfacción: a saber, el que la primera se encuentre —felizmente— agotada.

La labor de actualización se ha llevado a cabo conforme a la misma filosofía de trabajo que inspiró la primera, fruto, por tanto, de la colaboración entre el Instituto de Estudios Vascos (Universidad de Deusto), la Universidad del País Vasco y el IVAP.

El Código Penal incluye todas las modificaciones producidas hasta agosto de 2004 por lo que, en consecuencia, queda el texto actualizado según el nuevo sistema de penas instituido por LO 15/2003. A pesar de que esta última ley no entrará en lo sustancial en vigor hasta el 1 de octubre de 2004, se ofrece en esta segunda edición el texto vigente a partir de la fecha señalada pues no parecía aconsejable aumentar aún más el volumen de la obra que presentamos. Por otra parte han desaparecido los que se incluían en la edición anterior en la medida en que la evolución de los textos jurídicos han convertido en innecesario su manejo, salvo en los casos relativos a las disposiciones sobre la responsabilidad del menor (arts. 19 y 69) y el delito de aborto (art. 144 y sigs.). La información jurídica de complemento respecto de las disposiciones acabadas de señalar se incorpora esta

vez a pie de página. De cualquier manera se ha añadido un listado completo de las modificaciones legales del Código Penal que se han ido produciendo desde la primera edición y que puede resultar de utilidad. Finalmente debe hacerse un último apunte: la puesta al día de los ha incluido además de su revisión sistemática la incorporación asimismo de nuevas entradas en aquellos supuestos en que las modificaciones legales han determinado la aparición de nuevas instituciones jurídicas.

Los autores, 1 de septiembre de 2004

Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal

Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa

Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Si se ha llegado a definir el ordenamiento jurídico como conjunto de normas que regulan el uso de la fuerza, puede entenderse fácilmente la importancia del Código Penal en cualquier sociedad civilizada. El Código Penal define los delitos y faltas que constituyen los presupuestos de la aplicación de la forma suprema que puede revestir el poder coactivo del Estado: la pena criminal. En consecuencia, ocupa un lugar preeminente en el conjunto del ordenamiento, hasta el punto de que, no sin razón, se ha considerado como una especie de «Constitución negativa». El Código Penal ha de tutelar los valores y principios básicos de la convivencia social. Cuando esos valores y principios cambian, debe también cambiar. En nuestro país, sin embargo, pese a las profundas modificaciones de orden social, económico y político, el texto vigente data, en lo que pudiera considerarse su núcleo básico, del pasado siglo. La necesidad de su reforma no puede, pues, discutirse.

A partir de los distintos intentos de reforma llevados a cabo desde la instauración del régimen democrático, el Gobierno ha elaborado el proyecto que somete a la discusión y aprobación de las Cámaras. Debe, por ello, exponer, siquiera sea de modo sucinto, los crite-

Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Antolamendu juridikoa indarraren erabilera arautzen duen arau multzo gisa definitu bada, erraz uler daiteke Zigor Kodeak edozein gizarte zibilizatutan duen garrantzia. Zigor kriminala da, izan ere, estatuaren derrigortze-ahalmenak izan dezakeen gorengo maila. Bada, zigor kriminala ezartzeko beharrezkoak diren delitu eta faltak definitzen ditu Zigor Kodeak. Hori dela eta, Zigor Kodeak lehentasunezko lekua dauka antolamendu multzoan eta, arrazoiarekin ere, ezezko konstituzio gisa hartu da. Zigor Kodeak gizartearen elkarbizitzaren oinarrizko balio eta printzipioak babestu behar ditu. Balio eta printzipio horiek aldatzen direnean, bera ere aldatu behar da. Dena den, gure herrian gizarte, ekonomia eta politikaren ikuspegitik aldarazpen sakonak gertatu arren, indarreko testua XIX. mendekoa da, bere oinarrizko muinean behinik behin. Hori kontuan izanik, argi dago Zigor Kodea eraldatu behar dela.

Demokrazia ezarri zenetik Zigor Kodea eraldatzeko egin diren ahalegin ezberdinak oinarri hartuz, Gobernuak proiektu bat egin du eta Ganberei aurkeztu die, horiek eztabaida eta onets dezaten. Hori dela eta, Gobernuak, modu laburrean bada ere, proiektu ho-

rios en que se inspira, aunque éstos puedan deducirse con facilidad de la lectura de su texto.

El eje de dichos criterios ha sido, como es lógico, el de la adaptación positiva del nuevo Código Penal a los valores constitucionales. Los cambios que introduce en esa dirección el presente proyecto son innumerables, pero merece la pena destacar algunos.

En primer lugar, se propone una reforma total del actual sistema de penas, de modo que permita alcanzar, en lo posible, los objetivos de resocialización que la Constitución le asigna. El sistema que se propone simplifica, de una parte, la regulación de las penas privativas de libertad, ampliando, a la vez, las posibilidades de sustituirlas por otras que afecten a bienes jurídicos menos básicos, y, de otra, introduce cambios en las penas pecuniarias, adoptando el sistema de días-multa y añade los trabajos en beneficio de la comunidad.

En segundo lugar, se ha afrontado la antinomia existente entre el principio de intervención mínima y las crecientes necesidades de tutela en una sociedad cada vez más compleja, dando prudente acogida a nuevas formas de delincuencia, pero eliminando, a la vez, figuras delictivas que han perdido su razón de ser. En el primer sentido, merece destacarse la introducción de los delitos contra el orden socioeconómico o la nueva regulación de los delitos relativos a la ordenación del territorio y de los recursos naturales; en el segundo, la desaparición

rren irizpideak azaldu behar ditu, nahiz eta horiek testuaren irakurketatik erraztasunez atera ahal.

Irizpide horien ardatza, logikoa denez, Zigor Kode berria Konstituzioaren balioei moldatzea izan da. Helburu hori lortzeko, proiektu honek egin dituen aldaketak ezin zenbatu daitezke; hala ere, horietako batzuk aipatzea merezi du.

Lehenengoz, gaur egungo zigorren sistema guztiz eraldatzea proposatzen da, Konstituzioak Zigor Kodeari espetxeratuak berriro gizarteratzeko esleitzen dizkion helburuak, ahal den neurrian, lortzeko. Proposatzen den sistemak, batetik, zigor askatasun-gabetzaileen arauketa errazten du, horien ordez beste zigor batzuk, hain zuzen ere, horren oinarrizkoak ez diren ondasun juridikoak ukitzen dituztenak, ezartzeko aukerak handituz; bestetik, diru zigorretan aldaketak sartzen ditu, isun-egunen sistema eta gizartearentzako lanak ezarriz.

Bigarrenez, gutxieneko esku-hartze printzipioaren eta, geroz eta konplexuagoa izateagatik, gizarteak dituen babeserako beharrizanen artean dagoen aurkakotasunari aurre egin zaio delitugintza era berriak, modu zuhurrean, kontuan hartuz eta oinarria galdu duten delitu-figurak ezabatuz. Delitugintza era berriei dagokienez, merezi du bereiztea gizarte eta ekonomiaren aurkako delituen sarrera edo lurralde-antolamenduaren eta izadiko baliabideen inguruko delituen arauketa berria. Bestalde, oinarria galdu duten delitu-figurei dagokienez, lapurreta-figura kon-

de las figuras complejas de robo con violencia e intimidación en las personas que, surgidas en el marco de la lucha contra el bandolerismo, deben desaparecer dejando paso a la aplicación de las reglas generales.

En tercer lugar, se ha dado especial relieve a la tutela de los derechos fundamentales y se ha procurado diseñar con especial mesura el recurso al instrumento punitivo allí donde está en juego el ejercicio de cualquiera de ellos: sirva de ejemplo, de una parte, la tutela específica de la integridad moral y, de otra, la nueva regulación de los delitos contra el honor. Al tutelar específicamente la integridad moral, se otorga al ciudadano una protección más fuerte frente a la tortura, y al configurar los delitos contra el honor del modo en que se propone, se otorga a la libertad de expresión toda la relevancia que puede y debe reconocerle un régimen democrático.

En cuarto lugar, y en consonancia con el objetivo de tutela y respeto a los derechos fundamentales, se ha eliminado el régimen de privilegio de que hasta ahora han venido gozando las injerencias ilegítimas de los funcionarios públicos en el ámbito de los derechos y libertades de los ciudadanos. Por tanto, se propone que las detenciones, entradas y registros en el domicilio llevadas a cabo por autoridad o funcionario fuera de los casos permitidos por la Ley, sean tratadas como formas agravadas de los correspondientes delitos comunes, y no como hasta ahora lo han venido siendo, esto es, como delitos especiales incomprensible e injustificadamente atenuados.

plexu batzuk desagertu egin dira, lapurtzeko indarkeria eta larderia erabiltzen dituztenak hain zuzen; lapurreta-figura horiek bidelapurreriari aurre egiteko sortuak ziren eta desagertu behar dira, erregela orokorrak aplikatu ahal izateko.

Hirugarrenez, garrantzi berezia eman zaio oinarrizko eskubideen babesari. Horrezaz gain, eskubide horietatik edozeinen egikaritza jokoan dagoen kasuetan, ahaleginak egin dira zigorraren baliabidea tentuz eta neurriz erabil dadin. Adibide gisa aipa ditzakegu: osotasun moralaren babes berezia eta ohorearen aurkako delituen arauketa berria. Osotasun morala modu zehatz batean arautzean, herritarrari babes handiagoa ematen zaio torturaren aurka. Bestalde ere, ohorearen aurkako delituak proposatutako moduan eratzean, adierazpen-askatasunari ematen zaio erregimen demokratiko batek aurreko hori aitortu ahal eta behar dion garrantzi osoa ere.

Laugarrenez, orain arte funtzionario publikoek izan duten pribilegioa, herritarren eskubide eta askatasunetan bidezko ez den moduan eskua sartzean, ezabatu da, oinarrizko eskubideak babestu eta errespetatzeko helburua kontuan hartuz. Hori dela eta, proposatzen da agintaritza edo funtzionario publikoak egindako atxiloketak edo egoitzetan egindako sarrerak zein miaketak delitu arrunt bakoitzaren modu astungarri gisa hartzea, baldin eta legeak baimendutako kasuetatik at egiten badira, eta ez, ordea, orain arte hartu diren gisa, hau da, inolako arrazoirik gabe arinduta dauden delitu berezien gisa.

En quinto lugar, se ha procurado avanzar en el camino de la igualdad real y efectiva, tratando de cumplir la tarea que, en ese sentido, impone la Constitución a los poderes públicos. Cierto que no es el Código Penal el instrumento más importante para llevar a cabo esa tarea; sin embargo, puede contribuir a ella, eliminando regulaciones que son un obstáculo para su realización o introduciendo medidas de tutela frente a situaciones discriminatorias. Además de las normas que otorgan una protección específica frente a las actividades tendentes a la discriminación, ha de mencionarse aquí la nueva regulación de los delitos contra la libertad sexual. Se pretende con ella adecuar los tipos penales al bien jurídico protegido, que no es ya, como fuera históricamente, la honestidad de la mujer, sino la libertad sexual de todos. Bajo la tutela de la honestidad de la mujer se escondía una intolerable situación de agravio, que la regulación que se propone elimina totalmente. Podrá sorprender la novedad de las técnicas punitivas utilizadas; pero, en este caso, alejarse de la tradición parece un acierto.

Bosgarrenez, Konstituzioak botere publikoei ezartzen dien eginkizuna betetzeko ahaleginak egin dira, benetako berdintasunaren bidean aurrera egiteko. Egiatan, Zigor Kodea ez da tresnarik garrantzitsuena eginkizun hori burutzeko; dena den, eginkizun horretan parte har dezake, hori burutzeko oztopo diren arauketak ezabatuz edo bereizkeria egoerei aurre egiteko, babes neurriak sartuz. Hemen, sexu-askatasunaren aurkako delituen arauketa berria aipatu behar da; horrez gain, bereizkeriarako joera duten jardueren aurrean, arauek babes zehatza ematen dute. Arauketa berri horrekin tipo penalak egokitu nahi dira babesturiko ondasun juridikoen arabera; babesturiko ondasun juridiko hori, historian zehar emakumearen onestasuna izan zena, gaur egun herritar guztien sexu-askatasuna da. Emakumearen onestasunaren babespean onartezineko egoera laidogarria ezkutatzen zen, proposatzen den arauketak guztiz ezabatzen duena. Erabilitako zigortze-teknika berriek harridura eragin ahal badute ere, kasu honetan, egoki dirudi tradiziotik urruntzea.

Dejando el ámbito de los principios y descendiendo al de las técnicas de elaboración, el presente proyecto difiere de los anteriores en la pretensión de universalidad. Se venía operando con la idea de que el Código Penal constituyese una regulación completa del poder punitivo del Estado. La realización de esa idea partía ya de un déficit, dada la importancia que en nuestro país reviste la potestad sancionadora

Printzipioen eremua alde batera utziz, eta egiteko teknikak kontuan hartuz, proiektu hau aurrekoetatik ezberdintzen da, beraren uzien artean unibertsaltasunarena ez baitago. Estatuak zigortzeko duen boterea Zigor Kodeak guztiz arautu behar zuelako ideia zegoen, baina ideia hori gauzatzeko oztopoa zen, hain zuzen ere, Espainian Administrazioak zehatzeko duen ahalaren garrantzia. Horrezaz

de la Administración; pero, además, resultaba innecesaria y perturbadora.

Innecesaria, porque la opción decimonónica a favor del Código Penal y en contra de las leyes especiales se basaba en el hecho innegable de que el legislador, al elaborar un Código, se hallaba constreñido, por razones externas de trascendencia social, a respetar los principios constitucionales, cosa que no ocurría, u ocurría en menor medida, en el caso de una ley particular. En el marco de un constitucionalismo flexible, era ése un argumento de especial importancia para fundamentar la pretensión de universalidad absoluta del Código. Hoy, sin embargo, tanto el Código Penal como las leyes especiales se hallan jerárquicamente subordinados a la Constitución y obligados a someterse a ella, no sólo por esa jerarquía, sino también por la existencia de un control jurisdiccional de la constitucionalidad. Consiguientemente, las leyes especiales no pueden suscitar la prevención que históricamente provocaban.

Perturbadora, porque, aunque es innegable que un Código no merecería ese nombre si no contuviese la mayor parte de las normas penales y, desde luego los principios básicos informadores de toda la regulación, lo cierto es que hay materias que difícilmente pueden introducirse en él. Pues, si una pretensión relativa de universalidad es inherente a la idea de Código, también lo son las de estabilidad y fijeza, y existen ámbitos en que, por la especial situación del resto del ordenamiento, o por la naturaleza misma de las cosas, esa estabilidad y fijeza son imposibles.

gain, ideia hori ez zen beharrezkoa, eta nahasgarri gertatzen zen.

Ez zen beharrezkoa, Zigor Kodearen aldeko eta lege berezien aurkako hemeretzigarren mendeko aukerak hurrengo egitate ukaezinak oinarri gisa hartzen zituelako: alde batetik, legegileak, kode bat egitean, Konstituzioaren printzipioak errespetatu behar zituen, gizartean garrantzia zuten kanpo-arrazoiengatik; bestetik, aurreko hori ez zen gertatzen lege berezi baten kasuan, edo neurri txikiagoan gertatzen zen halakoetan. Kodearen erabateko unibertsaltasuna oinarritzeko aurreko argumentu hori garrantzi berezikoa zen, konstituzionalismo malgu baten esparruan. Hala ere, gaur egun, Zigor Kodea eta lege bereziak hierarkikoki Konstituzioaren menpe daude eta Konstituzioaren menpe jartzera behartuta daude, bai hierarkia horrengatik, bai eta jurisdikziozko kontrola egoteagatik ere. Horren ondorioz, lege bereziek ezin dute sortu historian zehar eragin izan duten kezka.

Ukaezin gertatzen da, kode batek izen hori merezi izateko, zigor-arau gehienak eta edozein zigor-arauketa janzten duten printzipioak bildu behar izatea; alabaina, aurreko ideia hori nahasgarri gertatzen da, kode batean nekez sartu ahal diren gaiak egoteagatik. Kodeari unibertsaltasun uziaz gain, egonkortasun eta irmotasun gogoak datxezkio, baina eremu batzuetan egonkortasun eta irmotasun horiek ezinezkoak dira, bai gainerako antolamenduaren egoera bereziarengatik, bai eta gauzen izaerarengatik ere. Kanbioen kontrolari buruzko delituak izango li-

Tal es, por ejemplo, el caso de los delitos relativos al control de cambios. En ellos, la modificación constante de las condiciones económicas y del contexto normativo, en el que, quiérase o no, se integran tales delitos, aconseja situar las normas penales en dicho contexto y dejarlas fuera del Código: por lo demás, ésa es nuestra tradición, y no faltan, en los países de nuestro entorno, ejemplos caracterizados de un proceder semejante.

Así pues, en ese y en otros parecidos, se ha optado por remitir a las correspondientes leyes especiales la regulación penal de las respectivas materias. La misma técnica se ha utilizado para las normas reguladoras de la despenalización de la interrupción voluntaria del embarazo. En este caso, junto a razones semejantes a las anteriormente expuestas, podría argüirse que no se trata de normas incriminadoras, sino de normas que regulan supuestos de no incriminación. El Tribunal Constitucional exigió que, en la configuración de dichos supuestos, se adoptasen garantías que no parecen propias de un Código Penal, sino más bien de otro tipo de norma.

No se pretende haber realizado una obra perfecta, sino, simplemente, una obra útil. El Gobierno no tiene aquí la última palabra, sino solamente la primera. Se limita, pues, con este proyecto, a pronunciarla, invitando a todas las fuerzas políticas y a todos los ciudadanos a colaborar en la tarea de su perfeccionamiento. Solamente si todos deseamos tener un Código Penal mejor y contribuimos a conseguirlo podrá lograrse un objetivo cuya importancia

rateke aipatu dugun horren guztiaren adibide. Delitu horietan, ekonomia-baldintzen etengabeko aldarazpenak eta delituon nahitaezko arau-testuinguruarenak eragiten dute zigor-arauak testuinguru horretan kokatzea eta, horrela, Zigor Kodetik kanpo uztea. Hori da Espainiako tradizioa, eta Espainiaren inguruko herrietan ere horren antzeko jardueren adibideak ikusten ditugu.

Hainbatez, erabaki da egokiak diren lege berezien esku uztea gai bakoitzari dagokion zigor-arauketa. Teknika berbera erabili da, haurdunaldia borondatez geldiarazteari zigorra kentzen dioten arauen inguruan. Kasu horretan, aurretik azaldutako horren antzeko arrazoiez gain, esan daiteke ez direla arau hobendagarriak, hobendapen eza arautzen duten arauak baizik. Konstituzio Auzitegiak galdatu zuen kasu horiek eratzean Zigor Kodekoak baino gehiago beste arau mota batekoak ziruditen bermeak ezartzeko.

Helburua ez da izan lan bikaina egitea, lan erabilgarria baizik. Gobernuak ez du azken hitza, lehenengoa baino. Horren ondorioz, Gobernuak, proiektu honen arabera, indar politiko eta herritar guztiak gonbidatu behar ditu, Zigor Kodea hobetu eta eginkizun horretan elkarlanean aritzeko. Guztiok Zigor Kode hobea izan nahi badugu, eta gure parte-hartzearekin lortzen badugu, helburu oso garrantzitsua lortuko dugu elkarbizitzarako eta Konstituzioak aldarrikatzen

para la convivencia y el pacífico disfrute de los derechos y libertades que la Constitución proclama difícilmente podría exagerarse.

dituen eskubide eta askatasunak modu baketsuan izateko.

TÍTULO PRELIMINAR
DE LAS GARANTÍAS PENALES Y DE LA APLICACIÓN DE LA LEY PENAL

Artículo 1

1. No será castigada ninguna acción ni omisión que no esté prevista como delito o falta por Ley anterior a su perpetración.

2. Las medidas de seguridad sólo podrán aplicarse cuando concurran los presupuestos establecidos previamente por la Ley.

Artículo 2

1. No será castigado ningún delito ni falta con pena que no se halle prevista por Ley anterior a su perpetración. Carecerán, igualmente, de efecto retroactivo las Leyes que establezcan medidas de seguridad.

2. No obstante, tendrán efecto retroactivo aquellas leyes penales que favorezcan al reo, aunque al entrar en vigor hubiera recaído sentencia firme y el sujeto estuviese cumpliendo condena. En caso de duda sobre la determinación de la Ley más favorable, será oído el reo. Los hechos cometidos bajo la vigencia de una Ley temporal serán juzgados, sin embargo, conforme a

ATARIKO TITULUA
ZIGOR-BERMEAK ETA ZIGOR-LEGEAREN APLIKAZIOA

1. artikulua

1. Ez da egiterik zigortuko, ezta ez-egiterik ere, horiek gauzatu baino lehenagoko lege batean delitu edo falta gisa ezarrita ez badaude.

2. Segurtasun-neurriak ezarri ahal izango dira, legeak aurretik ezarritako baldintzak betetzen direnean bakarrik.

2. artikulua

1. Ez da deliturik ez faltarik zigortuko, horiek egin baino lehenagoko lege batek ezarritako zigorraz ez bada. Segurtasun-neurriak ezartzen dituzten legeek ere ez dute atzeraeraginik izango.

2. Dena den, errudunarentzat mesedegarriak diren legeek atzeraeragina izango dute, horiek indarrean sartu orduko epaia irmoa izan arren, eta subjektua kondena betetzen egon arren. Errudunarentzat mesedegarrien den legeari buruz zalantzak egonez gero, errudunak esan beharrekoa entzun beharko da. Aldi baterako lege bat indarrean dagoen bitartean gauzatutako

ella, salvo que se disponga expresamente lo contrario.

Artículo 3

1. No podrá ejecutarse pena ni medida de seguridad sino en virtud de sentencia firme dictada por el Juez o Tribunal competente, de acuerdo con las leyes procesales.

2. Tampoco podrá ejecutarse pena ni medida de seguridad en otra forma que la prescrita por la Ley y reglamentos que la desarrollan, ni con otras circunstancias o accidentes que los expresados en su texto. La ejecución de la pena o de la medida de seguridad se realizará bajo el control de los Jueces y Tribunales competentes.

Artículo 4

1. Las leyes penales no se aplicarán a casos distintos de los comprendidos expresamente en ellas.

2. En el caso de que un Juez o Tribunal, en el ejercicio de su jurisdicción, tenga conocimiento de alguna acción u omisión que, sin estar penada por la Ley, estime digna de represión, se abstendrá de todo procedimiento sobre ella y expondrá al Gobierno las razones que le asistan para creer que debiera ser objeto de sanción penal.

3. Del mismo modo acudirá al Gobierno exponiendo lo conveniente sobre la derogación o modificación del precepto o la concesión de indulto, sin perjuicio de ejecutar desde luego la sentencia, cuando de la rigurosa aplicación de las disposiciones de la Ley

egitateak epaituko dira, ordea, lege horren arabera, salbu eta aurkakoa beren beregi xedatzen denean.

3. artikulua

1. Ezin izango da zigorrik ez segurtasun-neurririk betearazi, epaile edo auzitegi eskudunak prozesu-legeen arabera emandako epai irmoaz ez bada.

2. Halaber, ezin izango da zigorrik ez segurtasun-neurririk betearazi, legeak eta legea garatzen duten erregelamenduek ezarri moduan eta lege eta araudi horien testuan ezarritako inguruabarrekin edo ezaugarriekin ez bada. Zigorraren edo segurtasun-neurriaren betearazpena auzitegi eta epaile eskudunen kontrolpean egingo da.

4. artikulua

1. Zigor-legeak ez zaizkie aplikatuko beraien baitara beren beregi bilduta ez dauden kasuei.

2. Epaile edo auzitegiak, bere jurisdikzioan diharduela, legeak zigortu ez duen egite edo ez-egite bat dagoela jakiten badu, eta zigortzeko modukoa dela uste badu, ez du prozedurarik hasiko egite edo ez-egite horren inguruan eta Gobernuari azalduko dio zeintzuk diren egite edo ez-egite horri zigorra ezartzeko dauden arrazoiak.

3. Era berean, Gobernura joko du manuaren indargabetze zein aldarazteari edo indultu emateari buruz egokia dena azalduz, epaia berehala betearazteari kalterik egin gabe, baldin eta legearen xedapenak modu zorrotzean aplikatzearen ondorioz egite edo ez-egi-

resulte penada una acción u omisión que, a juicio del Juez o Tribunal, no debiera serlo, o cuando la pena sea notablemente excesiva, atendidos el mal causado por la infracción y las circunstancias personales del reo.

4. Si mediara petición de indulto, y el Juez o Tribunal hubiere apreciado en resolución fundada que por el cumplimiento de la pena puede resultar vulnerado el derecho a un proceso sin dilaciones indebidas, suspenderá la ejecución de la misma en tanto no se resuelva sobre la petición formulada.

También podrá el Juez o Tribunal suspender la ejecución de la pena, mientras no se resuelva sobre el indulto cuando, de ser ejecutada la sentencia, la finalidad de éste pudiera resultar ilusoria.

Artículo 5

No hay pena sin dolo o imprudencia.

Artículo 6

1. Las medidas de seguridad se fundamentan en la peligrosidad criminal del sujeto al que se impongan, exteriorizada en la comisión de un hecho previsto como delito.

2. Las medidas de seguridad no pueden resultar ni más gravosas ni de mayor duración que la pena abstractamente aplicable al hecho cometido, ni exceder el límite de lo necesario para prevenir la peligrosidad del autor.

te bat zigortzen bada, eta epaile edo auzitegiak uste badu egite edo ez-egite hori ez dela zigortu behar; edo, zigorra modu nabarian gehiegizkoa bada, arau-hausteak eragindako kaltea eta errudunaren beraren inguruabarrak kontuan izanik.

4. Indultu-eskaera egiten bada, epaile edo auzitegiak zigorraren betearazpena eten egingo du, indultu-eskaerak erabaki bat jasotzen ez duen bitartean, baldin eta oinarridun ebazpenaz adierazten badu, bere ustez, zigorraren betearazpenak prozesuan bidegabeko luzapenik ez izateko eskubidea hauts dezakeela.

Epaile edo auzitegiak zigorraren betearazpena ere eten ahal izango du, indultu-eskaerak erabaki bat jasotzen ez duen bitartean, baldin eta epaia betearaztearen ondorioz indultuaren helburua zentzugabekoa gertatu ahal bada.

5. artikulua

Dolo edo zuhurtziagabekeriarik gabe ez dago zigorrik.

6. artikulua

1. Segurtasun-neurriak oinarritzen dira, horien ezarpena jasan duen subjektuaren arriskutsutasun kriminalean. Arriskutsutasun kriminal hori agertzen da delitu gisa ezarritako egitatea gauzatzen denean.

2. Segurtasun-neurriak ezin dira izan astunagoak edo luzeagoak gauzatu egitateari dagokion zigor abstraktua baino, eta ezin dute gainditu egilearen arriskutsutasuna aurretik zaintzeko beharrezkoa denaren muga.

Artículo 7

A los efectos de determinar la Ley penal aplicable en el tiempo, los delitos y faltas se consideran cometidos en el momento en que el sujeto ejecuta la acción u omite el acto que estaba obligado a realizar.

Artículo 8

Los hechos susceptibles de ser calificados con arreglo a dos o más preceptos de este Código, y no comprendidos en los artículos 73 a 77, se castigarán observando las siguientes reglas:

1.ª El precepto especial se aplicará con preferencia al general.

2.ª El precepto subsidiario se aplicará sólo en defecto del principal, ya se declare expresamente dicha subsidiariedad, ya sea ésta tácitamente deducible.

3.ª El precepto penal más amplio o complejo absorberá a los que castiguen las infracciones consumidas en aquél.

4.ª En defecto de los criterios anteriores, el precepto penal más grave excluirá los que castiguen el hecho con pena menor.

Artículo 9

Las disposiciones de este Título se aplicarán a los delitos y faltas que se hallen penados por leyes especiales. Las restantes disposiciones de este Código se aplicarán como supletorias en lo no previsto expresamente por aquéllas.

7. artikulua

Denboran zehar aplikatu behar den zigor-legea zehazteko, delitu eta faltak egindakotzat hartzen dira subjektuak ekintza gauzatzen duenean, edo gauzatu behar zuen egintza gauzatzen ez duenean.

8. artikulua

Kode honen bi manu edo gehiagoren arabera kalifikatu ahal diren egitateak hurrengo erregela hauen arabera zigortuko dira, baldin eta egitate horiek 73. artikulutik 77.erakoen barnean ez badaude:

1.) Manu orokorraren aurrean, bereziak du aplikatzeko lehentasuna.

2.) Manu subsidiarioa manu nagusirik ez dagoenean bakarrik aplikatuko da, bai beren beregi subsidiarioa dela adierazten bada, bai isilbidez subsidiarioa dela ondorioztatu ahal bada.

3.) Manu penal zabalenak edo konplexuenak baitaratuko ditu bere baitan irentsitako arau-hausteak zigortzen dituzten manuak.

4.) Aurreko irizpiderik ezean, manu penal astunenak baztertuko ditu egitatea zigor arinagoarekin zigortzen duten manuak.

9. artikulua

Titulu honen xedapenak aplikatuko zaizkie lege bereziek zigortzen dituzten delitu eta faltei. Kode honen gainerako xedapenak, ordeztaile gisa, aplikatuko zaizkie lege bereziek beren beregi arautzen ez dituzten kasuei.

LIBRO I

DISPOSICIONES GENERALES SOBRE LOS DELITOS Y LAS FALTAS, LAS PERSONAS RESPONSABLES, LAS PENAS, MEDIDAS DE SEGURIDAD Y DEMÁS CONSECUENCIAS DE LA INFRACCIÓN PENAL

I. LIBURUA

DELITU ETA FALTEI, PERTSONA ERANTZULEI, ZIGORREI, SEGURTASUN-NEURRIEI ETA ARAU-HAUSTE PENALAREN GAINERAKO ONDORIOEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

TÍTULO I
DE LA INFRACCIÓN PENAL

I. TITULUA
ARAU-HAUSTE PENALA

CAPÍTULO I
De los delitos y faltas

I. KAPITULUA
Delituak eta faltak

Artículo 10

Son delitos o faltas las acciones y omisiones dolosas o imprudentes penadas por la Ley.

10. artikulua

Delitu edo faltak dira legeak zigortzen dituen dolo edo zuhurtziagabekeriazko egite eta ez-egiteak.

Artículo 11

Los delitos o faltas que consistan en la producción de un resultado sólo se entenderán cometidos por omisión cuando la no evitación del mismo, al infringir un especial deber jurídico del autor, equivalga, según el sentido del texto de la Ley, a su causación. A tal efecto se equiparará la omisión a la acción:

a) Cuando exista una específica obligación legal o contractual de actuar.

b) Cuando el omitente haya creado una ocasión de riesgo para el bien jurídicamente protegido mediante una acción u omisión precedente.

11. artikulua

Emaitza sortzea den delitu edo faltak, bakarrik joko dira ez-egiteagatik gauzatutzat, emaitza saiheste eza emaitza sortzea bestekoa bada, egilearen eginbehar juridiko berezi bat hausteagatik, legearen testuak duen esanahiaren arabera. Ondore horretarako, ez-egitea egitearekin parekatuko da hurrengo kasuetan:

a) Legez edo kontratuz jarduteko betebehar zehatza dagoenean.

b) Ez-egileak arrisku egoera sortu duenean, zuzenbideak babestutako ondasunarentzat, aurreko egite edo ez-egite baten bidez.

Artículo 12

Las acciones u omisiones imprudentes sólo se castigarán cuando expresamente lo disponga la Ley.

Artículo 13

1. Son delitos graves las infracciones que la Ley castiga con pena grave.

2. Son delitos menos graves las infracciones que la Ley castiga con pena menos grave.

3. Son faltas las infracciones que la Ley castiga con pena leve.

4. Cuando la pena, por su extensión, pueda incluirse a la vez entre las mencionadas en los dos primeros números de este artículo, el delito se considerará, en todo caso, como grave.

Artículo 14

1. El error invencible sobre un hecho constitutivo de la infracción penal excluye la responsabilidad criminal. Si el error, atendidas las circunstancias del hecho y las personales del autor, fuera vencible, la infracción será castigada, en su caso, como imprudente.

2. El error sobre un hecho que cualifique la infracción o sobre una circunstancia agravante, impedirá su apreciación.

3. El error invencible sobre la ilicitud del hecho constitutivo de la infracción penal excluye la responsabilidad

12. artikulua

Zuhurtziagabekeriazko egite nahiz ez-egiteak zigortuko dira legeak hala xedatzen duenean bakarrik.

13. artikulua

1. Delitu astunak dira legeak zigor astunarekin zigortzen dituen arau-hausteak.

2. Astuntasun txikiagoko delituak dira legeak astuntasun txikiagoko zigorrarekin zigortzen dituen arau-hausteak.

3. Faltak dira legeak zigor arinarekin zigortzen dituen arau-hausteak.

4. Zigorra, bere hedadura dela eta, aldi berean, artikulu honen 1 eta 2. paragrafoetan aipatu zigorren artean sartu ahal bada, delitua astuntzat hartuko da, edozein kasutan.

14. artikulua

1. Arau-hauste penala osatzen duten egitateetatik edozeini buruzko oker gaindiezinak erantzukizun kriminala baztertzen du. Okerra gaindi daitekeenean, egitatearen eta egilearen beraren inguruabarrak kontuan izanik, arau-haustea zuhurtziagabekeriazkotzat hartuko da, eta hala zigortuko da, hala badagokio.

2. Arau-haustea kualifikatzen duen egitateari edo inguruabar astungarri bati buruzkoa bada okerra, orduan, egitate edo inguruabar hori ez da aintzat hartuko.

3. Egitate baten ez-zilegitasunari buruzko oker gaindiezina egon eta egitate hori arau-hauste penala bada, orduan,

criminal. Si el error fuera vencible, se aplicará la pena inferior en uno o dos grados.

Artículo 15

1. Son punibles el delito consumado y la tentativa de delito.

2. Las faltas sólo se castigarán cuando hayan sido consumadas, excepto las intentadas contra las personas o el patrimonio.

Artículo 16

1. Hay tentativa cuando el sujeto da principio a la ejecución del delito directamente por hechos exteriores, practicando todos o parte de los actos que objetivamente deberían producir el resultado, y sin embargo éste no se produce por causas independientes de la voluntad del autor.

2. Quedará exento de responsabilidad penal por el delito intentado quien evite voluntariamente la consumación del delito, bien desistiendo de la ejecución ya iniciada, bien impidiendo la producción del resultado, sin perjuicio de la responsabilidad en que pudiera haber incurrido por los actos ejecutados, si éstos fueren ya constitutivos de otro delito o falta.

3. Cuando en un hecho intervengan varios sujetos, quedarán exentos de responsabilidad penal aquél o aquéllos que desistan de la ejecución ya iniciada, e impidan o intenten impedir, seria, firme y decididamente, la consumación, sin perjuicio de la responsabilidad en que pudieran haber incurrido

okerrak erantzukizun kriminala baztertuko du. Okerra gaindigarria bada, delituari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoa ezarriko da.

15. artikulua

1. Zigortzeko modukoak dira delitu burutua eta delitu-saiakuntza.

2. Faltak zigortuko dira burutu direnean bakarrik, pertsona edo ondarearen aurka egindako falta-saiakuntzak izan ezik.

16. artikulua

1. Delitu-saiakuntza dago, subjektuak zuzenean delituaren egikaritzari ekiten dionean kanpoko egitateen bidez, emaitza modu objektiboan sorrarazi beharko luketen egitate guztiak edo egitate batzuk gauzatuz, eta emaitza sortzen ez bada egilearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

2. Delitu-saiakuntzaren ondorioz sorturiko erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da delitua burutzea borondatez galarazten duena, bai hasitako delituan atzera eginez, bai eta emaitza sortzea eragotziz ere; horrek ez dio kalterik egingo egintza gauzatuen ondorioz dagokion erantzukizunari, jadanik egintza horiek beste delitu edo falta bat badira.

3. Egitate batean subjektu batek baino gehiagok esku hartzen dutenean, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko dira hasitako gauzatzean atzera egin eta egitatea burutzea benaz, irmotasunez eta etsi-etsian eragotzi edo eragozten ahalegintzen direnak; horrek ez dio kalterik egingo egintza gauzatuen ondorioz

por los actos ejecutados, si éstos fueren ya constitutivos de otro delito o falta.

Artículo 17

1. La conspiración existe cuando dos o más personas se conciertan para la ejecución de un delito y resuelven ejecutarlo.

2. La proposición existe cuando el que ha resuelto cometer un delito invita a otra u otras personas a ejecutarlo.

3. La conspiración y la proposición para delinquir sólo se castigarán en los casos especialmente previstos en la Ley.

Artículo 18

1. La provocación existe cuando directamente se incita por medio de la imprenta, la radiodifusión o cualquier otro medio de eficacia semejante, que facilite la publicidad, o ante una concurrencia de personas, a la perpetración de un delito.

Es apología, a los efectos de este Código, la exposición, ante una concurrencia de personas o por cualquier medio de difusión, de ideas o doctrinas que ensalcen el crimen o enaltezcan a su autor. La apología sólo será delictiva como forma de provocación y si por su naturaleza y circunstancias constituye una incitación directa a cometer un delito.

2. La provocación se castigará exclusivamente en los casos en que la Ley así lo prevea.

Si a la provocación hubiese seguido la perpetración del delito, se castigará como inducción.

dagokien erantzukizunari, jadanik egintza horiek beste delitu edo falta bat badira.

17. artikulua

1. Konspirazioa dago, pertsona bi edo gehiago delitu bat egiteko ados jarri eta delitu egitea erabakitzen dutenean.

2. Proposamena dago, delitu egitea erabaki duenak delitu egitera pertsona bat edo batzuk gonbidatzen dituenean.

3. Delitu egiteko konspirazioa eta proposamena legeak beren beregi araututako kasuetan bakarrik zigortuko dira.

18. artikulua

1. Zirikatzea dago, delitu bat egitera zuzenean bultzatzen denean inprimatze, irrati-hedatze edo horien antzeko eragingarritasuna duten bideetatik beste edozein erabiliz, baldin eta publizitatea errazten duen bidea bada, bai eta delitu bat egitera bultzatzen denean pertsona multzo baten aurrean ere.

Apologia da, kode honen ondoreetarako, krimena edo haren egilea goratzen duten ideiak edota doktrinak azaltzea, pertsona multzo baten aurrean jardunda, edozein hedabide erabilita ere. Apologia zirikatze-era gisa bakarrik joko da delitutzat, betiere, haren izaera eta inguruabarrak kontuan izanik, delitu egitera zuzenean bultzatzea den neurrian.

2. Legeak arautu kasuetan bakarrik zigortuko da zirikatzea.

Zirikatzearen ostean delitu egiten bada, zirikatze hori indukzio gisa zigortuko da.

CAPÍTULO II

De las causas que eximen de la responsabilidad criminal

Artículo 19*

Los menores de dieciocho años no serán responsables criminalmente con arreglo a este Código.

Cuando un menor de dicha edad cometa un hecho delictivo podrá ser responsable con arreglo a lo dispuesto en la ley que regule la responsabilidad penal del menor.

Artículo 20

Están exentos de responsabilidad criminal:

1.º El que al tiempo de cometer la infracción penal, a causa de cualquier anomalía o alteración psíquica, no pueda comprender la ilicitud del hecho o actuar conforme a esa comprensión.

El trastorno mental transitorio no eximirá de pena cuando hubiese sido provocado por el sujeto con el propósito de cometer el delito o hubiera previsto o debido prever su comisión.

2.º El que al tiempo de cometer la infracción penal se halle en estado de

* La Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, reguladora de la responsabilidad penal de menores, ha entrado en vigor el 13 de enero de 2001, aunque no lo ha hecho en su totalidad. Con arreglo a la Ley Orgánica 9/2002, hasta el 1 de enero de 2007 no será de aplicación el derecho penal de menores a franja de edad de 18 a 21 años.

II. KAPITULUA

Erantzukizun kriminaletik salbuesten duten arrazoiak

19. artikulua*

Hemezortzi urte baino gutxiago dutenek ez dute erantzukizun kriminalik izango kode honen arabera.

Adin hori baino gutxiago duenak delitua gauzatzen duenean, bera izan daiteke erantzule adingabearen erantzukizun penala arautzen duen legearen arabera.

20. artikulua

Erantzukizun kriminaletik salbuetsita daude hurrengo hauek:

1.) Arau-hauste penala egitean, egitatea zilegizkoa ez dela ulertu ezin duena edo ulermen horren arabera jardun ezin duena, edozein anomalia edo aldakuntza psikikok eraginda.

Buru-nahaste iragankorrak ez du zigorretik salbuetsiko subjektuak berak hori eragin duenean delitua egiteko asmoz, edota subjektuak delitua egitea aurreikusi duenean edo aurreikusi behar izango zuenean.

2.) Arau-hauste penala egitean guztiz toxikatuta dagoena, edari alkoholdun,

* Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, Adingabeen Erantzukizun Penala Arautu duena, 2001eko urtarrilaren 13an jarri da indarrean, zati batez behintzat. 9/2002 Lege Organikoaren arabera, adingabeen zuzenbide penala ez dago aplikatzerik 18 urtetik 21 urtera arteko gazteei 2007ko urtarrilaren 1a arte.

intoxicación plena por el consumo de bebidas alcohólicas, drogas tóxicas, estupefacientes, sustancias psicotrópicas u otras que produzcan efectos análogos, siempre que no haya sido buscado con el propósito de cometerla o no se hubiese previsto o debido prever su comisión, o se halle bajo la influencia de un síndrome de abstinencia, a causa de su dependencia de tales sustancias, que le impida comprender la ilicitud del hecho o actuar conforme a esa comprensión.

3.º El que, por sufrir alteraciones en la percepción desde el nacimiento o desde la infancia, tenga alterada gravemente la conciencia de la realidad.

4.º El que obre en defensa de la persona o derechos propios o ajenos, siempre que concurran los requisitos siguientes:

Primero. Agresión ilegítima. En caso de defensa de los bienes se reputará agresión ilegítima el ataque a los mismos que constituya delito o falta y los ponga en grave peligro de deterioro o pérdida inminentes. En caso de defensa de la morada o sus dependencias, se reputará agresión ilegítima la entrada indebida en aquélla o éstas.

Segundo. Necesidad racional del medio empleado para impedirla o repelerla.

Tercero. Falta de provocación suficiente por parte del defensor.

5.º El que, en estado de necesidad, para evitar un mal propio o ajeno lesio-

droga toxiko, sorgorgarri, gai psikotropiko edo horien antzeko ondoreak sortzen dituzten bestelako gaiak kontsumitzeagatik, baldin eta subjektuak egoera hori eragin ez badu arau-hauste penala egiteko asmoz, edota subjektuak delitu egitea aurreikusi ez badu, edo aurreikusi behar izan ez balu; edota abstinentzia-sindromepean dagoena, gai horiekiko mendekotasunak eraginda, baldin eta sindrome horrek egitatea zilegia ez dela ulertzea edo ulermen horren arabera jardutea eragozten badio.

3.) Errealitatearen kontzientzia modu larrian aldatuta duena, jaiotzatik edo haurtzarotik oharmenean aldakuntzak jasateagatik.

4.) Pertsona edo norberaren nahiz beste baten eskubideak defendatzeko jarduten duena, baldin eta hurrengo betekizun hauek pilatzen badira:

Lehenengoa. Bidezkoa ez den erasoa. Ondasunak defendatzeko kasuan, bidezko ez den erasotzat hartuko da beraien aurkako erasoa, baldin eta eraso hori delitua edo falta bada, eta ondasunok narriatzeko edo galtzeko arrisku larrian jartzen baditu. Bizilekua edo beraren gelak defendatzeko kasuan, bidezko ez den erasotzat hartuko da bizilekuan edo beraren geletan bidegabe sartzea.

Bigarrena. Bidezko ez den erasoa eragotzi edo horri aurre egiteko erabili den bidearen zentzuzko beharrizana.

Hirugarrena. Defendatzaileak behar besteko zirikatzerik ez egitea.

5.) Beharrizan-egoeran izanik, bere edo beste baten aurkako kaltea saihes-

ne un bien jurídico de otra persona o infrinja un deber, siempre que concurran los siguientes requisitos:

Primero. Que el mal causado no sea mayor que el que se trate de evitar.

Segundo. Que la situación de necesidad no haya sido provocada intencionadamente por el sujeto.

Tercero. Que el necesitado no tenga, por su oficio o cargo, obligación de sacrificarse.

6.º El que obre impulsado por miedo insuperable.

7.º El que obre en cumplimiento de un deber o en el ejercicio legítimo de un derecho, oficio o cargo.

En los supuestos de los tres primeros números se aplicarán, en su caso, las medidas de seguridad previstas en este Código.

teko beste pertsona baten ondasun juridiko bat lesionatzen duena, edo eginbehar bat hausten duena, betiere hurrengo betekizun hauek pilatzen direnean:

Lehenengoa. Eragindako kaltea saihestu nahi dena baino handiagoa ez izatea.

Bigarrena. Subjektuak beharrizan--egoera asmoarekin eragin ez izatea.

Hirugarrena. Beharrizana duenak bere burua sakrifikatzeko betebeharrik ez izatea, bere ogibide edo kargua dela eta.

6.) Beldur gaindiezinak bultzatuta jokatzen duena.

7.) Eginbeharra betetzean, edota bidezko eran eskubidea egikaritu nahiz ogibide edo karguan aritzean jokatzen duena.

Lehenengo hiru zenbakien kasuetan, hala denean, kode honetako segurtasun-neurriak ezarriko dira.

CAPÍTULO III

De las circunstancias que atenúan la responsabilidad criminal

Artículo 21

Son circunstancias atenuantes:

1.ª Las causas expresadas en el capítulo anterior, cuando no concurrieren

III. KAPITULUA

Erantzukizun kriminala arintzen duten inguruabarrak

21. artikulua

Inguruabar aringarriak dira hurrengo hauek:

1.) Aurreko kapituluan azaldu arrazoiak, bakoitzaren kasuan erantzukizu-

todos los requisitos necesarios para eximir de responsabilidad en sus respectivos casos.

2.ª La de actuar el culpable a causa de su grave adicción a las sustancias mencionadas en el número 2.º del artículo anterior.

3.ª La de obrar por causas o estímulos tan poderosos que hayan producido arrebato, obcecación u otro estado pasional de entidad semejante.

4.ª La de haber procedido el culpable, antes de conocer que el procedimiento judicial se dirige contra él, a confesar la infracción a las autoridades.

5.ª La de haber procedido el culpable a reparar el daño ocasionado a la víctima, o disminuir sus efectos, en cualquier momento del procedimiento y con anterioridad a la celebración del acto del juicio oral.

6.ª Cualquier otra circunstancia de análoga significación que las anteriores.

netik salbuesteko behar diren betekizun guztiak gertatzen ez direnean.

2.) Errudunak jardutea, aurreko artikuluaren 2. zenbakian aipatutako gaiekiko duen mendekotasun larriak eraginda.

3.) Arrazoi edo bultzagarri oso indartsuengatik jardutea, halakoek euren indarraren ondorioz zoroaldia, itsualdia edo horien antzeko tenorekoa den beste grinaldi bat sorrarazi badute.

4.) Errudunak, prozedura judiziala beraren aurka doala jakin aurretik, agintaritzari aitortzea egin duen arau-haustea.

5.) Errudunak, prozeduraren edozein unetan, eta ahozko epaiketa egin aurretik, biktimari eragindako kaltea konpondu edo horren ondoreak murrizteari ekitea.

6.) Aurrekoen antzeko esanahia duten inguruabarretatik beste edozein.

CAPÍTULO IV

De las circunstancias que agravan la responsabilidad criminal

Artículo 22

Son circunstancias agravantes:

1.ª Ejecutar el hecho con alevosía.

Hay alevosía cuando el culpable comete cualquiera de los delitos contra

IV. KAPITULUA

Erantzukizun kriminala astuntzen duten inguruabarrak

22. artikulua

Inguruabar astungarriak dira hurrengo hauek:

1.) Egitatea maltzurkeriaz gauzatzea.

Maltzurkeria dago errudunak, pertsonen aurkako delituetatik edozeine-

las personas empleando en la ejecución medios, modos o formas que tiendan directa o especialmente a asegurarla, sin el riesgo que para su persona pudiera proceder de la defensa por parte del ofendido.

tan, horiek zuzenean edo beren beregi ziurtatzeko asmatu bideak, moduak edo erak erabiltzen baditu, berarentzat arriskurik sor ez dadin ofendituak egiten duen defentsatik.

2.ª Ejecutar el hecho mediante disfraz, con abuso de superioridad o aprovechando las circunstancias de lugar, tiempo o auxilio de otras personas que debiliten la defensa del ofendido o faciliten la impunidad del delincuente.

2.) Egitatea gauzatzea mozorroa erabiliz nahiz nagusitasun-abusuz; edo leku- zein denbora-inguruabarrak edota beste pertsona batzuen laguntza aprobetxatuz gauzatzea, halakoek ofendituaren defentsa ahuldu edo delitugilearen zigorgabetasuna errazten badute.

3.ª Ejecutar el hecho mediante precio, recompensa o promesa.

3.) Prezio, sari edo hitzematearen bidez egitatea gauzatzea.

4.ª Cometer el delito por motivos racistas, antisemitas u otra clase de discriminación referente a la ideología, religión o creencias de la víctima, la etnia, raza o nación a la que pertenezca, su sexo u orientación sexual, o la enfermedad o minusvalía que padezca.

4.) Delitu egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriako beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu zein sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoa bada.

5.ª Aumentar deliberada e inhumanamente el sufrimiento de la víctima, causando a ésta padecimientos innecesarios para la ejecución del delito.

5.) Nahita eta bihotz-gogorrez handitzea biktimaren sufrimendua, delitu egiteko behar ez diren pairamenak eraginez.

6.ª Obrar con abuso de confianza.

6.) Konfiantza-abusuz aritzea.

7.ª Prevalerse del carácter público que tenga el culpable.

7.) Errudunak duen izaera publikoaz baliatzea.

8.ª Ser reincidente.

8.) Berrerorlea izatea.

Hay reincidencia cuando, al delinquir, el culpable haya sido condenado ejecutoriamente por un delito comprendido en el mismo título de este Código, siempre que sea de la misma naturaleza.

Berrerortzea dago, errudunak, delitu egiten duenerako, betearazi beharreko kondena jaso badu kode honen titulu berera bildutako delitu baten ondorioz, baldin eta delitu hori izaera berekoa bada.

A los efectos de este número no se computarán los antecedentes penales cancelados o que debieran serlo.

Zenbaki honen ondoreetarako, ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen zigor-aurrekariak ez dira zenbatuko.

CAPÍTULO V
De la circunstancia mixta de parentesco

Artículo 23

Es circunstancia que puede atenuar o agravar la responsabilidad, según la naturaleza, los motivos y los efectos del delito, ser o haber sido el agraviado cónyuge o persona que esté o haya estado ligada de forma estable por análoga relación de afectividad, o ser ascendiente, descendiente o hermano por naturaleza o adopción del ofensor o de su cónyuge o conviviente.

V. KAPITULUA
Ahaidetasun-inguruabar mistoa

23. artikulua

Erantzukizuna arindu edo astundu ahal duen inguruabarra da, delituaren izaera, zio eta ondoreen arabera, laidotua ofentsagilearen ezkontidea, ezkontide izandakoa edo antzeko maitasun-harremanez harekin egonkor loturik dagoen edo egon den pertsona izatea; edota, odol nahiz adopzio bidezko ahaidetasuna dela medio, ofentsagilearen nahiz horren ezkontidearen edo harekin bizi denaren aurreko, ondorengo, neba edo arreba izatea.

CAPÍTULO VI
Disposiciones generales

Artículo 24

1. A los efectos penales se reputará autoridad al que por sí solo o como miembro de alguna corporación, tribunal u órgano colegiado tenga mando o ejerza jurisdicción propia. En todo caso, tendrán la consideración de autoridad los miembros del Congreso de los Diputados, del Senado, de las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas y del Parlamento Europeo. Se reputará también autoridad a los funcionarios del Ministerio Fiscal.

VI. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

24. artikulua

1. Zigor-ondoreetarako, agintaritzat hartuko da, bera bakarrik edo korporazio, auzitegi nahiz kide anitzeko organo baten kide gisa agintea izan edo berezko jurisdikzioan jarduten duena. Edozein modutan, Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Autonomia Erkidegoetako legebiltzarretako eta Europako Parlamentuko kideak agintaritzat hartuko dira. Fiskaltzaren kideak ere agintaritzat hartuko dira.

2. Se considerará funcionario público todo el que por disposición inmediata de la Ley o por elección o por nombramiento de autoridad competente participe en el ejercicio de funciones públicas.

Artículo 25

A los efectos de este Código se considera incapaz a toda persona, haya sido o no declarada su incapacitación, que padezca una enfermedad de carácter persistente que le impida gobernar su persona o bienes por sí misma.

Artículo 26

A los efectos de este Código se considera documento todo soporte material que exprese o incorpore datos, hechos o narraciones con eficacia probatoria o cualquier otro tipo de relevancia jurídica.

2. Funtzionario publikotzat hartuko da, legearen zuzeneko xedapenaren bidez, hautaketa bidez edo agintaritza eskudunak egiten duen izendapenaren bidez, funtzio publikoak betetzen dituenetatik edozein.

25. artikulua

Kode honen ondoreetarako, ezgaitzat hartuko da, beraren ezgaikuntza adierazia izan ala ez, gaixotasun iraunkorrak jotako pertsonetatik edozein, baldin eta ezgaitasun horrek beraren burua edo ondasunak gobernatzen eragozten badio.

26. artikulua

Kode honen ondoreetarako, agiritzat hartzen da datuak, egitateak edo kontaketak adierazi edo barneratzen dituzten euskarri materialetatik edozein, baldin eta datu, egitate edo kontaketok froga-eragingarritasuna edo beste edozein motatako garrantzi juridikoa badute.

TÍTULO II

DE LAS PERSONAS CRIMINALMENTE RESPONSABLES DE LOS DELITOS Y FALTAS

Artículo 27

Son responsables criminalmente de los delitos y faltas los autores y los cómplices.

II. TITULUA

DELITU ETA FALTEI DAGOKIENEZ ERANTZUKIZUN KRIMINALA DUTEN PERTSONAK

27. artikulua

Delitu eta faltengatik erantzukizun kriminala dute egile eta sopikunek.

Artículo 28

Son autores quienes realizan el hecho por sí solos, conjuntamente o por medio de otro del que se sirven como instrumento.

También serán considerados autores:

a) Los que inducen directamente a otro u otros a ejecutarlo.

b) Los que cooperan a su ejecución con un acto sin el cual no se habría efectuado.

Artículo 29

Son cómplices los que, no hallándose comprendidos en el artículo anterior, cooperan a la ejecución del hecho con actos anteriores o simultáneos.

Artículo 30

1. En los delitos y faltas que se cometan utilizando medios o soportes de difusión mecánicos no responderán criminalmente ni los cómplices ni quienes los hubieren favorecido personal o realmente.

2. Los autores a los que se refiere el artículo 28 responderán de forma escalonada, excluyente y subsidiaria de acuerdo con el siguiente orden:

1.º Los que realmente hayan redactado el texto o producido el signo de que se trate, y quienes les hayan inducido a realizarlo.

28. artikulua

Egile dira, egitatea eurek bakarrik, taldeka edo beste edonor bitarteko gisa erabiliz, gauzatzen dutenak.

Egiletzat hartuko dira hurrengo hauek ere:

a) Beste bat edo beste batzuk egitatea gauzatzera zuzenean induzitzen dituztenak.

b) Egitatea gauzatzeko egintza baten bitartez laguntzen dutenak, baldin eta egintza hori ezinbestekoa bazen egitatea gauzatu zedin.

29. artikulua

Sopikunak dira, aurreko artikulura bilduta egon barik, egitatea gauzatzen, aurreko edo aldi bereko egintzekin laguntzen dutenak.

30. artikulua

1. Hedapenerako bide edo euskarri mekanikoak erabiliz egindako delitu eta falten ondorioz, ez dute modu kriminalean erantzungo sopikunek ezta, euren kabuz edo euren ondasunez, delitu eta falta horiek faboratu dituztenek.

2. 28. artikuluak aipatu egileek modu mailakatu, baztergarri eta subsidiarioan erantzungo dute, hurrengo hurrenkera honen arabera:

1.) Testua edo zeinua benetan idatzi edo sortu dutenek eta eurak hori egitera induzitu dituztenek.

2.º Los directores de la publicación o programa en que se difunda.

3.º Los directores de la empresa editora, emisora o difusora.

4.º Los directores de la empresa grabadora, reproductora o impresora.

3. Cuando por cualquier motivo distinto de la extinción de la responsabilidad penal, incluso la declaración de rebeldía o la residencia fuera de España, no pueda perseguirse a ninguna de las personas comprendidas en alguno de los números del apartado anterior, se dirigirá el procedimiento contra las mencionadas en el número inmediatamente posterior.

Artículo 31

1. El que actúe como administrador de hecho o de derecho de una persona jurídica, o en nombre o representación legal o voluntaria de otro, responderá personalmente, aunque no concurran en él las condiciones, cualidades o relaciones que la correspondiente figura de delito o falta requiera para poder ser sujeto activo del mismo, si tales circunstancias se dan en la entidad o persona en cuyo nombre o representación obre.

2. En estos supuestos, si se impusiere en sentencia una pena de multa al autor del delito, será responsable del pago de la misma de manera directa y solidaria la persona jurídica en cuyo nombre o por cuya cuenta actuó.

2.) Testua edo zeinua hedatu duen argitalpen edo saioaren zuzendariek.

3.) Enpresa argitaratzaile, zabaltzaile edo hedatzailearen zuzendariek.

4.) Enpresa irarle, erreproduzitzaile edo inprimatzailearen zuzendariek.

3. Aurreko paragrafoko zenbakietatik batean agertzen diren pertsonetatik bat ere ezin bada pertsegitu, erantzukizun penala azkentzea ez den beste edozein zio dela eta, auzi-iheslari adierazpena eta Espainiatik kanpo bizilekua izatea barne direlarik, orduan, prozedura bideratuko da hurrengo zenbakian aipatzen diren pertsonen aurka.

31. artikulua

1. Norbaitek, pertsona juridiko baten egitezko zein zuzenbideko administratzaile gisa, edo beste inoren izenean nahiz horren legezko nahiz borondatezko ordezkari gisa, jarduten badu, orduan, erantzukizun pertsonala izango du, nahiz eta berari dagokion delitu edo faltaren subjektu aktiboa izateko baldintza, ezaugarri edo harremanak bete ez, baldin eta inguruabarrok gertatzen badira zein erakunde edo pertsonaren izenean nahiz ordezkari gisa jardun eta horrengan berarengan.

2. Kasu horietan, epai bidez isun-zigorra ezartzen bazaio delituaren egileari, isunaren ordainketaren gainean zuzeneko erantzukizun solidarioa izango du hark zein pertsona juridikoren izenean edo kontura jardun eta pertsona juridiko horrek.

TÍTULO III
DE LAS PENAS

CAPÍTULO I
De las penas, sus clases y efectos

SECCIÓN I

Artículo 32

Las penas que pueden imponerse con arreglo a este Código, bien con carácter principal bien como accesorias, son privativas de libertad, privativas de otros derechos y multa.

Artículo 33

1. En función de su naturaleza y duración, las penas se clasifican en graves, menos graves y leves.

2. Son penas graves:

a) La prisión superior a cinco años.

b) La inhabilitación absoluta.

c) Las inhabilitaciones especiales por tiempo superior a cinco años.

d) La suspensión de empleo o cargo público por tiempo superior a cinco años.

e) La privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores por tiempo superior a ocho años.

f) La privación del derecho a la tenencia y porte de armas por tiempo superior a ocho años.

III. TITULUA
ZIGORRAK

I. KAPITULUA
Zigorrak, zigor-motak eta ondoreak

I. ATALA

32. artikulua

Kode honen arabera, bai nagusi legez bai erantsi gisa, ezar daitezkeen zigorrak dira askatasunaz gabetzen dutenak, beste eskubide batzuez gabetzen dutenak eta isuna.

33. artikulua

1. Zigorrak nolakoak diren eta zein iraupen duten aintzat hartuta, honela sailkatzen dira: zigor astunak, ez hain astunak eta arinak.

2. Zigor astunak hurrengo hauek dira:

a) Bost urte baino gehiagoko espetxealdia.

b) Erabateko desgaikuntza.

c) Bost urte baino gehiagorako desgaikuntza bereziak.

d) Norbaiti enplegu edo kargualdi publikoa etetea bost urte baino gehiagorako.

e) Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzea zortzi urte baino gehiagorako.

f) Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea zortzi urte baino gehiagorako.

g) La privación del derecho a residir en determinados lugares o acudir a ellos, por tiempo superior a cinco años.

h) La prohibición de aproximarse a la víctima o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, por tiempo superior a cinco años.

i) La prohibición de comunicarse con la víctima o con aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, por tiempo superior a cinco años.

3. Son penas menos graves:

a) La prisión de tres meses a cinco años.

b) Las inhabilitaciones especiales hasta cinco años.

c) La suspensión de empleo o cargo público hasta cinco años.

d) La privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores de un año y un día a ocho años.

e) La privación del derecho a la tenencia y porte de armas de un año y un día a ocho años.

f) La privación del derecho a residir en determinados lugares o acudir a ellos, por tiempo de seis meses a cinco años.

g) La prohibición de aproximarse a la víctima o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, por tiempo de seis meses a cinco años.

g) Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzea bost urte baino gehiagorako.

h) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbiltzeko debekua, bost urte baino gehiagorako.

i) Biktimarekin edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonekin komunikatzeko debekua, bost urte baino gehiagorako.

3. Zigor ez hain astunak hurrengo hauek dira:

a) Hiru hilabetetik bost urte arteko espetxealdia.

b) Bost urte arteko desgaikuntza bereziak.

c) Norbaiti enplegu edo kargualdi publikoa etetea bost urte arte.

d) Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzea urtebete eta egun batetik zortzi urte arte.

e) Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea urtebete eta egun batetik zortzi urte arte.

f) Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzea sei hilabetetik bost urte arte.

g) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbiltzeko debekua, sei hilabetetik bost urte arte.

h) La prohibición de comunicarse con la víctima o con aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, por tiempo de seis meses a cinco años.

i) La multa de más de dos meses.

j) La multa proporcional, cualquiera que fuese su cuantía.

k) Los trabajos en beneficio de la comunidad de 31 a 180 días.

4. Son penas leves:

a) La privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores de tres meses a un año.

b) La privación del derecho a la tenencia y porte de armas de tres meses a un año.

c) La privación del derecho a residir en determinados lugares o acudir a ellos, por tiempo inferior a seis meses.

d) La prohibición de aproximarse a la víctima o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, por tiempo de un mes a menos de seis meses.

e) La prohibición de comunicarse con la víctima o con aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, por tiempo de un mes a menos de seis meses.

f) La multa de diez días a dos meses.

g) La localización permanente.

h) Los trabajos en beneficio de la comunidad de uno a 30 días.

h) Biktimarekin edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonekin komunikatzeko debekua, sei hilabetetik bost urte arte.

i) Bi hilabete baino gehiagoko isuna.

j) Proportziozko isuna, horren zenbatekoa edozein izanda ere.

k) 31 egunetik 180 arte gizartearentzako lanak egitea.

4. Zigor arinak hurrengoak dira:

a) Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzea hiru hilabetetik urtebete arte.

b) Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea hiru hilabetetik urtebete arte.

c) Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzea sei hilabete baino denbora gutxiagorako.

d) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbiltzeko debekua, hilabetetik sei hilabete baino gutxiagorako.

e) Biktimarekin edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonekin komunikatzeko debekua, hilabetetik sei hilabete baino gutxiagorako.

f) Hamar egunetik bi hilabeterako isuna.

g) Lokalizazio iraunkorra

h) Egun batetik 30 arte gizartearentzako lanak egitea.

5. La responsabilidad personal subsidiaria por impago de multa tendrá naturaleza menos grave o leve, según la que corresponda a la pena que sustituya.

6. Las penas accesorias tendrán la duración que respectivamente tenga la pena principal, excepto lo que dispongan expresamente otros preceptos de este Código.

Artículo 34

No se reputarán penas:

1. La detención y prisión preventiva y las demás medidas cautelares de naturaleza penal.

2. Las multas y demás correcciones que, en uso de atribuciones gubernativas o disciplinarias, se impongan a los subordinados o administrados.

3. Las privaciones de derechos y las sanciones reparadoras que establezcan las leyes civiles o administrativas.

5. Isuna ez ordaintzeagatik erantzukizun pertsonal subsidiarioa sortzen bada, erantzukizun hori ez hain astuna edo arina izango da, ordezturiko zigorraren izaeraren arabera.

6. Zigor erantsiek iraungo dute zigor nagusiak kasuan-kasuan dirauen beste, salbu eta kode honetako beste manu batzuek beren beregi besterik xedatzen dutenean.

34. artikulua

Ez dira zigortzat hartuko hurrengo hauek:

1. Atxiloketa, aurreneurrizko espetxealdia eta zigor-izaerako beste kautela-neurriak.

2. Gobernu- edo diziplina-aginpideak erabiliz, menpekoei eta administratuei ezartzen zaizkien isunak eta gainerako zuzengarriak.

3. Lege zibilek edo administrazio-legeek ezarri eskubide-gabetze eta konpontze-zehapenak.

SECCIÓN II

II. ATALA

-

Artículo 35

Son penas privativas de libertad la prisión, la localización permanente y la responsabilidad personal subsidiaria por impago de multa.

35. artikulua

Zigor askatasun-gabetzaileak dira espetxealdia, lokalizazio iraunkorra, eta isuna ez ordaintzeagatik sorturiko erantzukizun pertsonal subsidiarioa.

Artículo 36

1. La pena de prisión tendrá una duración mínima de tres meses y máxima

36. artikulua

1. Espetxealdi-zigorrak, gutxienez, hiru hilabete iraungo du, eta, gehie-

de 20 años, salvo lo que excepcionalmente dispongan otros preceptos de este Código.

Su cumplimiento, así como los beneficios penitenciarios que supongan acortamiento de la condena, se ajustarán a lo dispuesto en las leyes y en este Código.

2. Cuando la duración de la pena de prisión impuesta sea superior a cinco años, la clasificación del condenado en el tercer grado de tratamiento penitenciario no podrá efectuarse hasta el cumplimiento de la mitad de la pena impuesta.

El juez de vigilancia, previo pronóstico individualizado y favorable de reinserción social y valorando, en su caso, las circunstancias personales del reo y la evolución del tratamiento reeducador, cuando no se trate de delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII del libro II de este Código o cometidos en el seno de organizaciones criminales, podrá acordar razonadamente, oídos el Ministerio Fiscal, Instituciones Penitenciarias y las demás partes, la aplicación del régimen general de cumplimiento.

nez, 20 urte, kode honen beste manu batzuek salbuespen gisa besterik xedatzen dutenean izan ezik.

Espetxealdi-zigorraren betetzea, bai eta kondena laburtzea dakarten espetxe-onurak ere, legeetan eta kode honetan xedatutakoari egokituko zaizkio.

2. Ezarritako espetxealdi-zigorrak bost urte baino gehiagoko iraupena duenean, ezin izango da kondenatua sailkatu espetxe-tratamendurako hirugarren graduan, ezarritako zigorraren erdia bete arte.

Zaintza-epaileak, errudunaren birgizarteratzeari buruzko aurretiazko iragarpen bakoiztua baiezkoa izanez gero, eta, hala denean, haren inguruabar pertsonalak eta berrezibidearen bilakaera balioetsiz, erabaki dezake, horretarako arrazoiak emanez, zigorra betetzeari buruzko eraentza orokorra ezartzea, betiere kode honetako II. liburuaren XXII. tituluko V. kapituluaren bigarren ataleko terrorismo-delituak edo antolakunde kriminalen barruan egindakoak ez direnean, eta Fiskaltzak, Espetxeetako Erakundeak eta gainerako alderdiek esan beharrekoa entzun ondoren.

Artículo 37

1. La localización permanente tendrá una duración de hasta 12 días. Su cumplimiento obliga al penado a permanecer en su domicilio o en lugar determinado fijado por el juez en sentencia.

2. Si el reo lo solicitare y las circunstancias lo aconsejaren, oído el mi-

37. artikulua

1. Lokalizazio iraunkorrak hamabi egun arteko iraupena izango du. Hori betetzeak zigortua behartzen du beraren egoitzan edo epaileak epaian finkatutako leku zehatzean egotera.

2. Errudunak hala eskatu eta inguruabarren arabera komenigarri denean,

nisterio fiscal, el juez o tribunal sentenciador podrá acordar que la condena se cumpla durante los sábados y domingos o de forma no continuada.

3. Si el condenado incumpliera la pena, el juez o tribunal sentenciador deducirá testimonio para proceder de conformidad con lo que dispone el artículo 468.

Artículo 38

1. Cuando el reo estuviere preso, la duración de las penas empezará a computarse desde el día en que la sentencia condenatoria haya quedado firme.

2. Cuando el reo no estuviere preso, la duración de las penas empezará a contarse desde que ingrese en el establecimiento adecuado para su cumplimiento.

behin Fiskaltzak esan beharrekoa entzun eta gero, epaile edo auzitegi epai-emaileak erabaki dezake kondena larunbat eta igandeetan edo modu jarraigabean betetzea.

3. Kondenatuak ez badu zigorra betetzen, epaile edo auzitegi epai-emaileak lekukotza emango du, 468. artikuluak xedatzen duenarekin bat etorriz jarduteko.

38. artikulua

1. Erruduna preso dagoenean, epai kondenatzailea irmo den egunetik hasiko da zenbatzen zigorren iraupena.

2. Preso ez dagoenean, erruduna zigorra betetzeko egokia den establezimenduan sartzen denetik hasiko da zenbatzen zigorren iraupena.

SECCIÓN III

III. ATALA

Artículo 39

Son penas privativas de derechos:

a) La inhabilitación absoluta.

b) Las de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión, oficio, industria o comercio, u otras actividades determinadas en este Código, o de los derechos de patria potestad, tutela, guarda o curatela, derecho de sufragio pasivo o de cualquier otro derecho.

39. artikulua

Eskubideez gabetzeko zigorrak hurrengo hauek dira:

a) Erabateko desgaikuntza.

b) Enplegu edo kargu publikorako, lanbide, ogibide, industria edo merkataritzarako nahiz kode honetan zehaztutako beste jarduera batzuetarako desgaikuntza berezia, edota guraso-ahalaren eskubidea nahiz tutoretza-, zaintza- zein kuradoretza-eskubideak, hautagai izateko eskubidea eta beste edozein eskubide egikaritzeko desgaikuntza berezia.

c) La suspensión de empleo o cargo público.

d) La privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores.

e) La privación del derecho a la tenencia y porte de armas.

f) La privación del derecho a residir en determinados lugares o acudir a ellos.

g) La prohibición de aproximarse a la víctima o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal.

h) La prohibición de comunicarse con la víctima o con aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal.

i) Los trabajos en beneficio de la comunidad.

Artículo 40

1. La pena de inhabilitación absoluta tendrá una duración de seis a 20 años; las de inhabilitación especial, de tres meses a veinte años, y la de suspensión de empleo o cargo público, de tres meses a seis años.

2. La pena de privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores, y la de privación del derecho a la tenencia y porte de armas, tendrán una duración de tres meses a 10 años.

3. La pena de privación del derecho a residir o acudir a ellos tendrá una duración de hasta 10 años. La prohibición de aproximarse a la víctima o a aque-

c) Norbaiti enplegu edo kargualdi publikoa etetea.

d) Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzea.

e) Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea.

f) Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzea.

g) Biktimarengana edo epaileak nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide zein beste pertsonengana hurbiltzeko debekua.

h) Biktimarekin edo epaileak nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide zein beste pertsonekin komunikatzeko debekua.

i) Gizartearentzako lanak egitea.

40. artikulua

1. Erabateko desgaikuntza-zigorrak sei urtetik 20 arte iraungo du; desgaikuntza bereziko zigorrek, hiru hilabetetik hogei urte arte; eta enplegu edo kargualdi publikoa eteteko zigorrak, hiru hilabetetik sei urte arte.

2. Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzen duen zigorrak, bai eta armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzen duenak ere, hiru hilabetetik 10 urte arte iraungo du.

3. Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzen duen zigorrak 10 urte arte iraungo du. Biktimarengana edo

llos de sus familiares u otras personas, o de comunicarse con ellas, tendrá una duración de un mes a 10 años.

4. La pena de trabajos en beneficio de la comunidad tendrá una duración de un día a un año

5. La duración de cada una de estas penas será la prevista en los apartados anteriores, salvo lo que excepcionalmente dispongan otros preceptos de este Código.

Artículo 41

La pena de inhabilitación absoluta produce la privación definitiva de todos los honores, empleos y cargos públicos que tenga el penado, aunque sean electivos. Produce, además, la incapacidad para obtener los mismos o cualesquiera otros honores, cargos o empleos públicos, y la de ser elegido para cargo público, durante el tiempo de la condena.

Artículo 42

La pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público produce la privación definitiva del empleo o cargo sobre el que recayere, aunque sea electivo, y de los honores que le sean anejos. Produce, además, la incapacidad para obtener el mismo u otros análogos, durante el tiempo de la condena. En la sentencia habrán de especificarse los empleos, cargos y honores sobre los que recae la inhabilitación.

epaileak nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide zein beste pertsonengana hurbiltzeko edota horiekin komunikatzeko debekuak hilabetetik 10 urte arte iraungo du.

4. Gizartearentzako lan egiteari buruzko zigorrak egun batetik urtebete arte iraungo du.

5. Zigor horietako bakoitzaren iraupena aurreko paragrafoetan ezarritakoa izango da, kode honen beste manu batzuek salbuespen gisa besterik xedatzen dutenean izan ezik.

41. artikulua

Erabateko desgaikuntza-zigorrak zigortuak dituen ohore, enplegu eta kargu publiko guztiez behin betiko gabetzea dakar, nahiz eta hautapenekoak izan. Horrezaz gain, zigorrak ezgaitasuna dakar horiek guztiak lortzeko edo beste edozein ohore, kargu edo enplegu publiko lortzeko eta kargu publiko baterako hautagai izateko, kondenaren aldi bitartean.

42. artikulua

Enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza bereziko zigorrak desgaikuntzari dagokion enplegu edo karguaz behin betiko gabetzea dakar, enplegu edo kargu hori hautazkoa izan arren, bai eta enplegu edo kargu horri datxezkion ohoreak kentzea ere. Horrezaz gain, zigor horrek kondenaren aldi bitartean enplegu edo kargu publikoa edo horren antzeko beste batzuk lortzeko ezgaitasuna dakar. Epaian desgaikuntzak barneratzen dituen enplegu, kargu eta ohoreak zehaztu beharko dira.

Artículo 43

La suspensión de empleo o cargo público priva de su ejercicio al penado durante el tiempo de la condena.

Artículo 44

La inhabilitación especial para el derecho de sufragio pasivo priva al penado, durante el tiempo de la condena, del derecho a ser elegido para cargos públicos.

Artículo 45

La inhabilitación especial para profesión, oficio, industria o comercio o cualquier otro derecho, que ha de concretarse expresa y motivadamente en la sentencia, priva al penado de la facultad de ejercerlos durante el tiempo de la condena.

Artículo 46

La inhabilitación especial para el ejercicio de la patria potestad, tutela, curatela, guarda o acogimiento, priva al penado de los derechos inherentes a la primera, y supone la extinción de las demás, así como la incapacidad para obtener nombramiento para dichos cargos durante el tiempo de la condena. El juez o tribunal podrá acordar esta pena respecto de todos o de alguno de los menores que estén a cargo del penado, en atención a las circunstancias del caso.

Artículo 47

La imposición de la pena de privación del derecho a conducir vehículos

43. artikulua

Enplegu edo kargualdi publikoa eteteak zigortua horretan aritzeaz gabetzen du, kondenaren aldi bitartean.

44. artikulua

Hautagai izateko eskubiderako desgaikuntza bereziak zigortua, kondenaren aldi bitartean, kargu publikoetarako hautagai izateko eskubideaz gabetzen du.

45. artikulua

Lanbide, ogibide, industria, merkataritza edo beste edozein eskubidetarako desgaikuntza berezia, beren beregi eta zioak emanez, azaldu behar da epaian. Bada, desgaikuntza bereziak ahalmenaz gabetzen du zigortua, eskubide horiek kondenaren aldi bitartean egikaritzeko.

46. artikulua

Guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza eta harrera egikaritzeko desgaikuntza bereziak lehenengoari datxezkion eskubideez gabetzen du zigortua, eta gainerakoak azkentzen ditu; era berean, desgaikuntza bereziak, kondenaren aldi bitartean, kargu horietarako izendapena lortzeko ezgaitasuna dakar. Epaile edo auzitegiak zigor hori erabaki dezake, zigortuaren ardurapean dauden adingabe guztiei edo horietako bati begira, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta.

47. artikulua

Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabe-

a motor y ciclomotores inhabilitará al penado para el ejercicio de ambos derechos durante el tiempo fijado en la sentencia.

La imposición de la pena de privación del derecho a la tenencia y porte de armas inhabilitará al penado para el ejercicio de este derecho por el tiempo fijado en la sentencia.

Artículo 48

1. La privación del derecho a residir en determinados lugares o acudir a ellos impide al penado residir o acudir al lugar en que haya cometido el delito, o a aquel en que resida la víctima o su familia, si fueren distintos.

2. La prohibición de aproximarse a la víctima, o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal, impide al penado acercarse a ellos, en cualquier lugar donde se encuentren, así como acercarse a su domicilio, a sus lugares de trabajo y a cualquier otro que sea frecuentado por ellos, quedando en suspenso, respecto de los hijos, el régimen de visitas, comunicación y estancia que, en su caso, se hubiere reconocido en sentencia civil hasta el total cumplimiento de esta pena.

3. La prohibición de comunicarse con la víctima, o con aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal, impide al penado establecer con ellos, por cualquier medio de comunicación o medio informático o telemático, contacto escrito, verbal o visual.

tzen duen zigorra ezarriz gero, zigortua bi eskubide horiek egikaritzeko desgaituta gelditzen da, epaian zehaztutako denboran.

Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarriz gero, zigortuak, epaian zehaztutako denboran, eskubide hori egikaritzeko desgaikuntza izango du.

48. artikulua

Leku jakin batzuetan bizilekua izateko eskubidea edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzen duen zigorrak eragozten dio zigortuari delitu egin duen lekuan edo, leku bera ez bada, biktimak nahiz beraren familiak bizilekua duten lekuan, bizilekua izatea edo bertara joatea.

2. Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaideengana edo beste pertsona batzuengana hurbiltzeko debekuak zigortuari eragozten dio horiei hurreratzea, edozein lekutan badaude ere, bai eta pertsona horien egoitzara, lan egiten duten lekuetara edo sarritan joaten diren lekuetara hurreratzea ere; seme-alabei begira, eten egiten da, zigorra oso-osorik bete arte, bisita-, komunikazio eta egonaldi-eraentza, epai zibilak, hala denean, eraentza hori aitortu duenean.

3. Biktimarekin edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonekin komunikatzeko debekuak eragozten dio zigortuari, edozein komunikazio-bide edo informatika- zein telematika-bide erabiliz, harreman idatziak, hitzezkoak edo begizkoak izatea.

4. El Juez o Tribunal podrá acordar que el control de estas medidas se realice a través de aquellos medios electrónicos que lo permitan.

Artículo 49

Los trabajos en beneficio de la comunidad, que no podrán imponerse sin consentimiento del penado, le obligan a prestar su cooperación no retribuida en determinadas actividades de utilidad pública, que podrán consistir, en relación con delitos de similar naturaleza al cometido por el penado, en labores de reparación de los daños causados o de apoyo o asistencia a las víctimas. Su duración diaria no podrá exceder de ocho horas y sus condiciones serán las siguientes:

1.ª La ejecución se desarrollará bajo el control del Juez de Vigilancia Penitenciaria, que, a tal efecto, podrá requerir informes sobre el desempeño del trabajo a la Administración, entidad pública o asociación de interés general en que se presten los servicios.

2.ª No atentará a la dignidad del penado.

3.ª El trabajo en beneficio de la comunidad será facilitado por la Administración, la cual podrá establecer los convenios oportunos a tal fin.

4.ª Gozará de la protección dispensada a los penados por la legislación penitenciaria en materia de Seguridad Social.

5.ª No se supeditará al logro de intereses económicos.

4. Epaile edo auzitegiak erabaki dezake neurri horien gaineko kontrola bide elektronikoetatik egitea, bideok hori ahalbidetzen badute.

49. artikulua

Gizartearentzako lanak ezartzeko, beharrezkoa da zigortuaren adostasuna, eta lan horiek zigortua behartzen dute herri-onurako jarduera jakin batzuetan ordaindu gabeko laguntza ematera; jarduerok izan daitezke, zigortuak egindako delituaren antzeko izaera dutenei begira, eragindako kalteak konpontzea edota biktimak sorotsi nahiz horiei laguntza ematea. Zigortua gizartearentzako lanetan ezin da egunean zortzi ordu baino gehiago aritu, eta lana honako baldintza hauetan egingo da:

1.) Lana egingo da, espetxe-zaintzarako epailearen kontrolpean; ondore horretarako, txostenak eskatu ahal izango dizkio, zigortuak egiten dituen lanen inguruan, zerbitzugintzan ari den administrazio, erakunde publiko edo interes orokorreko elkarteari.

2.) Lana ez da zigortuaren duintasunaren aurkakoa izango.

3.) Administrazioak gizartearentzako lana hornituko du. Helburu horretarako, hitzarmen egokiak ezarri ahal izango ditu Administrazioak.

4.) Gizarte Segurantzaren arloan espetxe-legeriak zigortuei eskaintzen dien babes bera izango du.

5.) Lana ez da interes ekonomikoak lortzeko helburupean jarriko.

6.ª Los servicios sociales penitenciarios, hechas las verificaciones necesarias, comunicarán al Juez de Vigilancia Penitenciaria las incidencias relevantes de la ejecución de la pena y, en todo caso, si el penado:

a) Se ausenta del trabajo durante al menos dos jornadas laborales, siempre que ello suponga un rechazo voluntario por su parte al cumplimiento de la pena.

b) A pesar de los requerimientos del responsable del centro de trabajo, su rendimiento fuera sensiblemente inferior al mínimo exigible.

c) Se opusiera o incumpliera de forma reiterada y manifiesta las instrucciones que se le dieren por el responsable de la ocupación referidas al desarrollo de la misma.

d) Por cualquier otra razón, su conducta fuere tal que el responsable del trabajo se negase a seguir manteniéndolo en el centro.

Una vez valorado el informe, el Juez de Vigilancia Penitenciaria podrá acordar su ejecución en el mismo centro, enviar al penado para que finalice la ejecución de la misma en otro centro o entender que el penado ha incumplido la pena.

En caso de incumplimiento, se deducirá testimonio para proceder de conformidad con el artículo 468.

7.ª Si el penado faltara del trabajo por causa justificada no se entenderá

6.) Espetxeetako gizarte-zerbitzuek, behin beharrezko egiaztapenak egin eta gero, espetxe-zaintzarako epaileari komunikatuko dizkiote zigorra betearaztean izandako gorabehera garrantzitsuak, eta, beti, zigortuak hurrengoetatik bat egin izana:

a) Lanetik alde egin izana, gutxienez, bi lan-saiotan zehar, baldin eta horren bitartez zigortuak erakusten badu nahita uko egiten diola zigorra betetzeari.

b) Lan-zentroko arduradunak agindeiak egin arren, zigortuaren lan-etekinak eska daitezkeen gutxienekoak baino askoz txikiagoak izatea.

c) Zereginaren gaineko ardura duenak horren garapenari buruz jarraibideak eman eta zigortua jarraibide horien aurka behin eta berriz eta modu argian agertzea, edota jarraibideok ez betetzea.

d) Edozein arrazoiren ondorioz, eta zigortuaren jokabidea dela medio, lanaren gaineko ardura duenak ezezkoa ematea zigortua zentroan egoteari.

Behin txostena balioetsi eta gero, espetxe-zaintzarako epaileak erabaki dezake zigorra zentroan bertan betearaztea, zigortua beste zentro batera eramatea, bertan betearazpena buka dezan, edota zigortuak zigorra urratu duela ulertzea.

Urratze-kasuan, lekukotza emango da, 468. artikuluarekin bat etorriz jardun ahal izateko.

7.) Zigortua lanera ez badoa bidezkoa den arrazoiaren ondorioz, ez da

como abandono de la actividad. No obstante, el trabajo perdido no se le computará en la liquidación de la condena, en la que se deberán hacer constar los días o jornadas que efectivamente hubiese trabajado del total que se le hubiera impuesto.

ulertuko zigortu horrek jarduera bertan behera utzi duenik. Hala ere, galdutako lana ez zaio zenbatuko kondena likidatzean; bertan adierazi beharko da, ezarritako egun edo lan-saio guztietatik, zigortuak zenbatetan egin duen lan.

SECCIÓN IV

IV. ATALA

-

Artículo 50

1. La pena de multa consistirá en la imposición al condenado de una sanción pecuniaria.

2. La pena de multa se impondrá, salvo que la Ley disponga otra cosa, por el sistema de días-multa.

3. Su extensión mínima será de 10 días, y la máxima, de dos años.

4. La cuota diaria tendrá un mínimo de dos y un máximo de 400 euros. A efectos de cómputo, cuando se fije la duración por meses o por años, se entenderá que los meses son de treinta días y los años de trescientos sesenta.

5. Los Jueces o Tribunales determinarán motivadamente la extensión de la pena dentro de los límites establecidos para cada delito y según las reglas del capítulo II de este Título. Igualmente, fijarán en la sentencia, el importe de estas cuotas, teniendo en cuenta para ello exclusivamente la situación económica del reo, deducida de su patrimonio, ingresos, obligacio-

50. artikulua

1. Isun-zigorra kondenatuari diru zehapen bat ezartzea da.

2. Isun-zigorra, legeak besterik xedatu ezean, isun-egunen sistemaren bidez ezarriko da.

3. Isunaren iraupena, gutxienez, 10 egunekoa izango da, eta, gehienez, bi urtekoa.

4. Eguneko kuota, gutxienez, bi eurokoa da, eta, gehienez, 400 eurokoa. Zenbaketa egiteko, iraupena hilabeteka edo urteka ezartzen denean, hilak hogeita hamar egunekoak eta urteak hirurehun eta hirurogeikoak direla ulertzen da.

5. Epaile edo auzitegiek zigorraren iraupena zioak emanez zehaztuko dute, delitu bakoitzari ezarritako mugen barnean eta titulu honen II. kapituluaren erregelen arabera. Era berean, epaile edo auzitegiek epaian kuoten zenbatekoa ezarriko dute. Horretarako, egoera ekonomikoa besterik ez da kontuan hartuko, errudunaren ondarea, sarrerak, betebeharrak, familia-zamak eta

nes y cargas familiares y demás circunstancias personales del mismo.

6. El tribunal, por causa justificada, podrá autorizar el pago de la multa dentro de un plazo que no exceda de dos años desde la firmeza de la sentencia, bien de una vez o en los plazos que se determinen. En este caso, el impago de dos de ellos determinará el vencimiento de los restantes.

Artículo 51

Si, después de la sentencia, variase la situación económica del penado, el Juez o Tribunal, excepcionalmente y tras la debida indagación de dicha situación, podrá modificar tanto el importe de las cuotas periódicas como los plazos para su pago.

Artículo 52

1. No obstante lo dispuesto en los artículos anteriores y cuando el Código así lo determine, la multa se establecerá en proporción al daño causado, el valor del objeto del delito o el beneficio reportado por el mismo.

2. En estos casos, los Jueces y Tribunales impondrán la multa dentro de los límites fijados para cada delito, considerando para determinar en cada caso su cuantía, no sólo las circunstancias atenuantes y agravantes del hecho, sino principalmente la situación económica del culpable.

3. Si, después de la sentencia, empeorase la situación económica del penado, el juez o tribunal, excepcionalberari dagozkion bestelako inguruabarrak oinarri hartuta.

6. Auzitegiak, bidezko arrazoia dela medio, isuna denbora-tarte batean zehar ordaintzea baimen dezake, eta tarte hori ezin da izan bi urtetik gorakoa, epaia irmoa denetik zenbatuta. Ordainketa behingoz edo zehaztutako epeetan egingo da; kasu horretan, epe horietatik bitan ez ordaintzeak gainerakoen mugaeguneratzea ekarriko du.

51. artikulua

Epaiaren ostean zigortuaren egoera ekonomikoa aldatzen bada, epaile edo auzitegiak, salbuespen gisa eta egoera hori behar bezala ikertu ondoren, aldizkako kuoten zenbatekoa edota horien ordainketarako epeak alda ditzake.

52. artikulua

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, kodeak horrela ezartzen badu, delituak eragindako kaltearen, delituaren objektuak duen balioaren edo delituak dakarren onuraren arabera ezarriko da isuna.

2. Kasu horietan, epaile eta auzitegiek isuna ezarriko dute, delitu bakoitzarentzat finkatutako mugen barruan, eta kasuan-kasuan isunen zenbatekoa zehazteko, egitatea arintzen edo astuntzen duten inguruabarrez gain, nagusiki, errudunaren egoera ekonomikoa hartuko dute kontuan.

3. Epaiaren ostean zigortuaren egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, epaile edo auzitegiak, salbuespen gisa

mente y tras la debida indagación de dicha situación, podrá reducir el importe de la multa dentro de los límites señalados por la ley para el delito de que se trate, o autorizar su pago en los plazos que se determinen.

Artículo 53

1. Si el condenado no satisficiere, voluntariamente o por vía de apremio, la multa impuesta, quedará sujeto a una responsabilidad personal subsidiaria de un día de privación de libertad por cada dos cuotas diarias no satisfechas, que, tratándose de faltas, podrá cumplirse mediante localización permanente. En este caso, no regirá la limitación que en su duración establece el artículo 37.1 de este Código.

También podrá el Juez o Tribunal, previa conformidad del penado, acordar que la responsabilidad subsidiaria se cumpla mediante trabajos en beneficio de la comunidad. En este caso, cada día de privación de libertad equivaldrá a una jornada de trabajo.

2. En los supuestos de multa proporcional los Jueces y Tribunales establecerán, según su prudente arbitrio, la responsabilidad personal subsidiaria que proceda, que no podrá exceder, en ningún caso, de un año de duración. También podrá el Juez o Tribunal acordar, previa conformidad del penado, que se cumpla mediante trabajos en beneficio de la comunidad.

3. Esta responsabilidad subsidiaria no se impondrá a los condenados a pena privativa de libertad superior a cinco años.

eta egoera hori behar bezala ikertu ondoren, isunaren zenbatekoa txikitu ahal izango du, kasuan kasuko delituarentzat legeak finkatutako mugen barruan, edo zehaztu epeetan hura ordaintzea baimendu ahal izango du.

53. artikulua

1. Kondenatuak ez badu isuna ordaintzen, bere borondatez edo premiamenduaren bidez, erantzukizun pertsonal subsidiarioa izango du; erantzukizun hori eguneko bi kuota ez ordaintzeagatik askatasuna egun batez gabetzea da, eta, falten kasuan, lokalizazio iraunkorraren bidez bete daiteke. Kasu horretan, ez da aplikatuko kode honen 37.1 artikuluak haren iraupenari buruz ezarritako muga.

Epaile edo auzitegiak, zigortua ados badago, erabaki dezake erantzukizun pertsonal subsidiarioa gizartearentzako lanak eginez betetzeko. Kasu horretan askatasunik gabeko egun bakoitzak eta egun bateko lansaioak balio bera izango dute.

2. Proportziozko isunaren kasuan, epaile eta auzitegiek, euren sen onaren arabera, urtebete baino gehiago iraun ezin duen erantzukizun subsidiarioa ezarriko dute. Epaile edo auzitegiak, zigortua ados badago, erabaki dezake isun proportzionala gizartearentzako lanak eginez betetzeko.

3. Erantzukizun subsidiario hori ez zaie ezarriko, zigor askatasun-gabetzailearengatik bost urte baino gehiagorako kondenatuta daudenei.

4. El cumplimiento de la responsabilidad subsidiaria extingue la obligación de pago de la multa, aunque mejore la situación económica del penado.

4. Erantzukizun subsidiarioa betetakoan, isuna ordaintzeko betebeharra azkentzen da, nahiz eta zigortuaren egoerak ekonomikoak hobera egin.

Sección V

V. atala

Artículo 54

Las penas de inhabilitación son accesorias en los casos en que, no imponiéndolas especialmente, la Ley declare que otras penas las llevan consigo.

54. artikulua

Desgaikuntza-zigorrak erantsiak dira, legeak, halakoak beren beregi ezarri barik, adierazten duenean beste zigor batzuek haiek barneratzen dituztela.

Artículo 55

La pena de prisión igual o superior a diez años llevará consigo la inhabilitación absoluta durante el tiempo de la condena, salvo que ésta ya estuviere prevista como pena principal para el supuesto de que se trate.

55. artikulua

Hamar urte edo gehiagorako espetxealdi-zigorrak erabateko desgaikuntza ekarriko du, kondenaren aldi bitartean, salbu eta erabateko desgaikuntza-zigor nagusi gisa ezarrita dagoenean.

Artículo 56

1. En las penas de prisión inferiores a diez años, los Jueces o Tribunales impondrán, atendiendo a la gravedad del delito, como penas accesorias, alguna o algunas de las siguientes:

1.º Suspensión de empleo o cargo público.

2.º Inhabilitación especial para el derecho de sufragio pasivo durante el tiempo de la condena.

3.º Inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión, oficio, industria o comercio o cualquier otro derecho, si éstos hubieran tenido rela-

56. artikulua

Hamar urte baino gutxiagoko espetxealdi-zigorretan, epaile edo auzitegiek, delituaren astuntasuna kontuan hartuz, hurrengo hauetako bat edo batzuk ezarriko dituzte zigor erantsi gisa:

1.) Enplegu edo kargualdi publikoa etetea.

2.) Kondenaren aldi bitartean hautagai izateko desgaikuntza berezia.

3.) Enplegu nahiz kargu publikorako, lanbide, ogibide, industria edo merkataritzarako nahiz beste edozein eskubidetarako desgaikuntza berezia,

ción directa con el delito cometido, debiendo determinarse expresamente en la sentencia esta vinculación, sin perjuicio de la aplicación de lo previsto en el artículo 579 de este Código.

2. Lo previsto en este artículo se entiende sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en otros preceptos de este Código respecto de la imposición de estas penas.

Artículo 57

1. Los Jueces o Tribunales, en los delitos de homicidio, aborto, lesiones, contra la libertad, de torturas y contra la integridad moral, la libertad e indemnidad sexuales, la intimidad, el derecho a la propia imagen y la inviolabilidad del domicilio, el honor, el patrimonio y el orden socioeconómico, atendiendo a la gravedad de los hechos o al peligro que el delincuente represente, podrán acordar en sus sentencias la imposición de una o varias de las prohibiciones contempladas en el artículo 48, por un tiempo que no excederá de diez años si el delito fuera grave o de cinco si fuera menos grave.

No obstante lo anterior, si el condenado lo fuera a pena de prisión y el juez o tribunal acordara la imposición de una o varias de dichas prohibiciones, lo hará por un tiempo superior entre uno y 10 años al de la duración de la pena de prisión impuesta en la sentencia, si el delito fuera grave, y entre uno y cinco años, si fuera menos grave.

eskubideok zuzeneko lotura izan badute egindako delituarekin; lotura hori epaian zehaztu beharko da beren beregi, kode honen 579. artikuluan agindutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe.

2. Artikulu honetan ezarritakoa ulertzen da, kode honen beste manu batzuek zigor horiek ezartzearen inguruan xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe.

57. artikulua

1. Epaile edo auzitegiek, giza hilketa, abortu eta lesio-delituetan, askatasunaren aurkako delituan, tortura-delituan, eta osotasun moralaren, sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren, bizitza pribatuaren eta norberaren irudirako eskubidearen aurkako delituetan, bai eta egoitzaren bortxaezintasunaren, ohorearen eta ondarearen aurkako delituetan, eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkakoetan ere, egitateen larritasuna edo delitugilearen arriskutsutasuna kontuan hartuta, euren epaietan erabaki dezakete 48. artikuluan arautu debekuetatik bat edo batzuk ezartzea, hamar urte baino gehiago iraun ezin duen epealdirako, delitua astuna bada, edo bost urte baino gehiago iraun ezin duen epealdirako, delitua hain astuna ez bada.

Aurrekoa gorabehera, kondenatuari espetxealdi-zigorra ezarri bazaio eta epaile edo auzitegiak debeku horietatik bat edo batzuk ezartzea erabakitzen badu, orduan, debekuok epaian ezarri espetxealdi-zigorra baino urtebetetik 10 urte arte luzeagoak izango dira, delitua astuna bada, eta urtebetetik bost urte arte luzeagoak, delitua hain

ve. En este supuesto, la pena de prisión y las prohibiciones antes citadas se cumplirán necesariamente por el condenado de forma simultánea.

2. En los supuestos de los delitos mencionados en el primer párrafo del apartado 1 de este artículo cometidos contra quien sea o haya sido el cónyuge, o sobre persona que esté o haya estado ligada al condenado por una análoga relación de afectividad aun sin convivencia, o sobre los descendientes, ascendientes o hermanos por naturaleza, adopción o afinidad, propios o del cónyuge o conviviente, o sobre los menores o incapaces que con él convivan o que se hallen sujetos a la potestad, tutela, curatela, acogimiento o guarda de hecho del cónyuge o conviviente, o sobre persona amparada en cualquier otra relación por la que se encuentre integrada en el núcleo de su convivencia familiar, así como sobre las personas que por su especial vulnerabilidad se encuentran sometidas a su custodia o guarda en centros públicos o privados se acordará, en todo caso, la aplicación de la pena prevista en el apartado 2 del artículo 48 por un tiempo que no excederá de diez años si el delito fuera grave o de cinco si fuera menos grave, sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo segundo del apartado anterior.

3. También podrán imponerse las prohibiciones establecidas en el artículo 48, por un período de tiempo que no excederá de seis meses, por la comi-

astuna ez bada. Kasu horretan, zigortuak aldi berean beteko ditu, nahitaez, espetxealdi-zigorra eta lehen aipatutako debekuak.

2. Artikulu honen lehenengo paragrafoak aipatu delituen kasuan, delituok egin badira ezkontidea den edo izan denaren aurka, edota antzeko maitasun-harremanez kondenatuarekin egonkor loturik dagoen edo egon izan den pertsonaren aurka, elkarrekin bizi ez arren; edota odol, adopzio nahiz ezkontza bidezko ahaidetasuna dela medio, kondenatuaren nahiz horren ezkontidearen edo harekin bizi denaren ondorengo, aurreko edo neba-arreben aurka; edota kondenatuarekin bizi diren nahiz haren ezkontidearen edo harekin bizi denaren guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo egitezko harreraren menpe dauden adingabe edo ezgaien aurka; edota beste edozein pertsonaren aurka, pertsona hori kondenatuaren familia-elkarbizitzaren gunean sartuta badago edozein motatako harremanen bidez; bai eta, euren ahulezia dela medio, zentro publiko nahiz pribatuetan kondenatuaren zaintza edo jagoletzapean daudenen aurka; orduan, beti erabakiko da 48. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako zigorra ezartzea, hamar urte baino gehiago iraun ezin duen epealdirako, delitua astuna bada, edo bost urte baino gehiago iraun ezin duen epealdirako, delitua hain astuna ez bada, aurreko paragrafoaren bigarren lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. 48. artikuluko debekuak ezarri ahal izango dira, berebat, sei hilabete baino gehiago iraun ezin duen epealdirako, baldin eta arau-haustea egin bada

sión de una infracción calificada como falta contra las personas de los artículos 617 y 620.

eta arau-hauste hori pertsonen aurkako falta gisa kalifikatuta badago 617 eta 620. artikuluetan.

Sección VI

VI. atala

Artículo 58

1. El tiempo de privación de libertad sufrido provisionalmente será abonado en su totalidad por el juez o tribunal sentenciador para el cumplimiento de la pena o penas impuestas en la causa en que dicha privación fue acordada.

2. El abono de prisión provisional en causa distinta de la que se decretó será acordado de oficio o a petición del penado y previa comprobación de que no ha sido abonada en otra causa, por el Juez de Vigilancia Penitenciaria de la jurisdicción de la que dependa el centro penitenciario en que se encuentre el penado, previa audiencia del ministerio fiscal.

3. Sólo procederá el abono de prisión provisional sufrida en otra causa cuando dicha medida cautelar sea posterior a los hechos delictivos que motivaron la pena a la que se pretende abonar.

4. Las reglas anteriores se aplicarán también respecto de las privaciones de derechos acordadas cautelarmente.

58. artikulua

1. Epaile edo auzitegi epai-emaileak oso-osorik kenduko du askatasunik gabe behin-behinean jasandako denbora, gabetze hori zein auzitan erabaki eta auzi horretan ezarritako zigorra edo zigorrak betetzeko denboratik.

2. Behin-behineko espetxealdia beste auzi batean erabaki bada, denbora hori kentzeko erabakia ofizioz edo zigortuak hala eskatuta hartuko da, eta, horretarako, aurretiaz egiaztatuko da beste auzi batean ez dela denbora hori kendu; zigortua zein espetxetan egon eta espetxe horren gaineko jurisdikzioari dagokion espetxe-zaintzako epaileak hartuko du erabakia, behin Fiskaltzak esan beharrekoa entzun eta gero.

3. Behin-behineko espetxealdia beste auzi batean jasan bada, denbora hori kendu ahal izango da, bakarrik, zein zigor kendu nahi eta zigor hori eragin duten delitu-egitateak kautela-neurri horren aurrekoak badira.

4. Aurreko erregelak aplikatuko dira, orobat, kautela moduan erabakitako eskubide-gabetzeetan ere.

Artículo 59

Cuando las medidas cautelares sufridas y la pena impuesta sean de dis-

59. artikulua

Jasandako kautela-neurriak eta ezarritako zigorra izaera ezberdinekoak

tinta naturaleza, el Juez o Tribunal ordenará que se tenga por ejecutada la pena impuesta en aquella parte que estime compensada.

Artículo 60

1. Cuando, después de pronunciada sentencia firme, se aprecie en el penado una situación duradera de trastorno mental grave que le impida conocer el sentido de la pena, el Juez de Vigilancia Penitenciaria suspenderá la ejecución de la pena privativa de libertad que se le hubiera impuesto, garantizando que reciba la asistencia médica precisa, para lo cual podrá decretar la imposición de una medida de seguridad privativa de libertad de las previstas en este Código que no podrá ser, en ningún caso, más gravosa que la pena sustituida. Si se tratase de una pena de distinta naturaleza, el Juez de Vigilancia Penitenciaria apreciará si la situación del penado le permite conocer el sentido de la pena y, en su caso, suspenderá la ejecución imponiendo las medidas de seguridad que estime necesarias.

El Juez de Vigilancia comunicará al ministerio fiscal, con suficiente antelación, la próxima extinción de la pena o medida de seguridad impuesta, a efectos de lo previsto por la disposición adicional primera de este Código.

2. Restablecida la salud mental del penado, éste cumplirá la sentencia si la pena no hubiere prescrito, sin perjuicio de que el Juez o Tribunal, por razones de equidad, pueda dar por extinguida la condena o reducir su duración,

badira, epaile edo auzitegiak aginduko du ezarri zigorraren zati bat, bere iritziz ordaindurik dagoen zatian, betetzat jotzea.

60. artikulua

1. Epai irmoa eman eta gero, zigortuari buru-nahaste iraunkor eta larria antzematen zaionean, eta, horren ondorioz, zigorraren esanahia ulertu ezin duenean, espetxe-zaintzarako epaileak askatasunaz gabetzeko ezarri zigorraren betearazpena etengo du, zigortuak nahitaezko osasun-laguntza jasotzen duela bermatuz; horretarako, kode honek arautzen dituen segurtasun-neurrien artean, askatasunaz gabetzen duten horietatik bat ezar dezake, eta neurri hori ezin da inoiz izan ordeztutako zigorra baino astunagoa. Izaera desberdineko zigorra izanez gero, espetxe-zaintzarako epaileak kontuan hartuko du zigortuaren egoerak ahalbidetzen duen ala ez hark zigorraren esanahia ulertzea, eta, hala denean, betearazpena etengo du, beharrezkotzat jotzen dituen segurtasun-neurriak ezarriz.

Zaintza-epaileak, behar besteko aurrerapenarekin, Fiskaltzari komunikatuko dio, kode honen lehenengo xedapen gehigarriaren ondoreetarako, ezarri zigorra edo segurtasun-neurria epe laburrera azkenduko dela.

2. Zigortuak, behin buru-osasuna berreskuratu eta gero, zigorra beteko du, zigorraren preskripzioa gertatu ez bada; horrek ez dio kalterik egingo epaile edo auzitegiak, ekitateagatik, kondena azkendutzat emateari edo

en la medida en que el cumplimiento de la pena resulte innecesario o contraproducente.

kondenaren iraupena laburtzeari, zigorra betetzea beharrezkoa ez den neurrian edo hura betetzea ez betetzea baino kaltegarriagoa den neurrian.

CAPÍTULO II
De la aplicación de las penas

SECCIÓN I

II. KAPITULUA
Zigorren ezarpena

I. ATALA

Artículo 61

Cuando la Ley establece una pena, se entiende que la impone a los autores de la infracción consumada.

61. artikulua

Legeak zigorra ezartzen duenean, arau-hauste burutuaren egileei ezartzen diela ulertu behar da.

Artículo 62

A los autores de tentativa de delito se les impondrá la pena inferior en uno o dos grados a la señalada por la Ley para el delito consumado, en la extensión que se estime adecuada, atendiendo al peligro inherente al intento y al grado de ejecución alcanzado.

62. artikulua

Legeak delitu burutuarentzat ezarri zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoa ezarriko zaie delitu-saiakuntzarako egileei. Horretarako, zigorra ezarriko da neurriz egoki uste den hainbatean, saiakuntzak berez ekarritako arriskua eta lortutako egikaritza maila kontuan hartuz.

Artículo 63

A los cómplices de un delito consumado o intentado se les impondrá la pena inferior en grado a la fijada por la Ley para los autores del mismo delito.

63. artikulua

Delitu burutuaren sopikunei edo delitu egiten saiatzen denaren sopikunei, delitu horren egileei legeak ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaie.

Artículo 64

Las reglas anteriores no serán de aplicación en los casos en que la tenta-

64. artikulua

Aurreko erregelak ez dira aplikatuko, legeak delitu-saiakuntza eta sopi-

tiva y la complicidad se hallen especialmente penadas por la Ley.

Artículo 65

1. Las circunstancias agravantes o atenuantes que consistan en cualquier causa de naturaleza personal agravarán o atenuarán la responsabilidad sólo de aquellos en quienes concurran.

2. Las que consistan en la ejecución material del hecho o en los medios empleados para realizarla, servirán únicamente para agravar o atenuar la responsabilidad de los que hayan tenido conocimiento de ellas en el momento de la acción o de su cooperación para el delito.

3. Cuando en el inductor o en el cooperador necesario no concurran las condiciones, cualidades o relaciones personales que fundamentan la culpabilidad del autor, los jueces o tribunales podrán imponer la pena inferior en grado a la señalada por la ley para la infracción de que se trate.

Artículo 66

1. En la aplicación de la pena, tratándose de delitos dolosos, los jueces o tribunales observarán, según haya o no circunstancias atenuantes o agravantes, las siguientes reglas:

1.ª Cuando concurra sólo una circunstancia atenuante, aplicarán la pena en la mitad inferior de la que fije la ley para el delito.

2.ª Cuando concurran dos o más circunstancias atenuantes, o una o varias muy cualificadas, y no concurra

kuntza modu berezian zigortzen dituen kasuetan.

65. artikulua

1. Izaera pertsonaleko arrazoietan dautzan inguruabar astungarri edo aringarriek eurei dagozkien pertsonen erantzukizuna bakarrik astundu edo arinduko dute.

2. Egitatearen egikaritza materialean edo egikaritza hori gauzatzeko erabili diren bideetan dautzanek, bakarrik balioko dute, ekintza edo laguntzaren unean inguruabar horien berri izan dutenen erantzukizuna astuntzeko edo arintzeko.

3. Induzitzaileak edo ezinbesteko laguntzaileak ez dituenean betetzen egilearen erruduntasuna oinarritzen duten baldintza, ezaugarri edo harreman pertsonalak, epaile edo auzitegiek ezar dezakete legeak kasuan kasuko arau-haustearentzat ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa.

66. artikulua

1. Zigorra ezartzean, dolozko delituen kasuan, epaile edo auzitegiek hurrengo erregelak beteko dituzte, inguruabar aringarriak edo astungarriak dauden ala ez kontuan harturik:

1.) Inguruabar aringarri bat bakarrik gertatzen bada, legeak delituarentzat finkatutako zigorra beheko erdian ezarriko dute.

2.) Inguruabar aringarri bi edo gehiago gertatzen badira, edo inguruabar aringarri bat edo batzuk, baina oso kualifi-

agravante alguna, aplicarán la pena inferior en uno o dos grados a la establecida por la ley, atendidos el número y la entidad de dichas circunstancias atenuantes.

3.ª Cuando concurra sólo una o dos circunstancias agravantes, aplicarán la pena en la mitad superior de la que fije la ley para el delito.

4.ª Cuando concurran más de dos circunstancias agravantes y no concurra atenuante alguna, podrán aplicar la pena superior en grado a la establecida por la ley, en su mitad inferior.

5.ª Cuando concurra la circunstancia agravante de reincidencia con la cualificación de que el culpable al delinquir hubiera sido condenado ejecutoriamente, al menos, por tres delitos comprendidos en el mismo título de este Código, siempre que sean de la misma naturaleza, podrán aplicar la pena superior en grado a la prevista por la ley para el delito de que se trate, teniendo en cuenta las condenas precedentes, así como la gravedad del nuevo delito cometido.

A los efectos de esta regla no se computarán los antecedentes penales cancelados o que debieran serlo.

6.ª Cuando no concurran atenuantes ni agravantes aplicarán la pena establecida por la ley para el delito cometido, en la extensión que estimen adecuada, en atención a las circunstancias personales del delincuente y a la mayor o menor gravedad del hecho.

katuak, eta ez bada inolako inguruabar astungarririk gertatzen, legeak finkatu zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoa ezarriko dute, inguruabar aringarrien kopurua eta garrantzia kontuan hartuta.

3.) Inguruabar astungarri bat edo bi bakarrik gertatzen badira, legeak delituarentzat finkatutako zigorra goiko erdian ezarriko dute.

4.) Inguruabar astungarri bi baino gehiago gertatzen badira, eta ez bada inolako inguruabar aringarririk gertatzen, legeak aipatu zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarri ahal izango dute, beheko erdian.

5.) Berrerortze-inguruabar astungarria gertatzen bada, kualifikatuta gainera, errudunak, delitua egin duenerako, betearazi beharreko kondena jaso duelako, gutxienez, kode honen titulu bereko hiru delitu direla medio, delituok izaera bera edukita, orduan, legeak kasuan kasuko delituarentzat agindu zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarri ahal izango dute, aurreko kondenak eta egindako delitu berriaren larritasuna kontuan hartuta.

Erregela honen ondoreetarako ez dira zenbatuko ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen zigor-aurrekariak.

6.) Inguruabar aringarri eta astungarririk gertatzen ez bada, legeak delituarentzat agindu zigorra bera ezarriko dute, euren ustez egoki den hedadurarekin, delitugilearen inguruabar pertsonalak eta egitatearen larritasun handiagoa edo txikiagoa kontuan hartuta.

7.ª Cuando concurran atenuantes y agravantes, las valorarán y compensarán racionalmente para la individualización de la pena. En el caso de persistir un fundamento cualificado de atenuación aplicarán la pena inferior en grado. Si se mantiene un fundamento cualificado de agravación, aplicarán la pena en su mitad superior.

8.ª Cuando los jueces o tribunales apliquen la pena inferior en más de un grado podrán hacerlo en toda su extensión.

2. En los delitos imprudentes, los jueces o tribunales aplicarán las penas a su prudente arbitrio, sin sujetarse a las reglas prescritas en el apartado anterior.

Artículo 67

Las reglas del artículo anterior no se aplicarán a las circunstancias agravantes o atenuantes que la Ley haya tenido en cuenta al describir o sancionar una infracción, ni a las que sean de tal manera inherentes al delito que sin la concurrencia de ellas no podría cometerse.

Artículo 68

En los casos previstos en la circunstancia primera del artículo 21, los Jueces o Tribunales impondrán la pena inferior en uno o dos grados a la señalada por la Ley, atendidos el número y la entidad de los requisitos que falten o concurran, y las circunstancias personales de su autor, sin perjuicio de la aplicación del artículo 66 del presente Código.

7.) Aringarriak eta astungarriak batera gertatzen badira, horiek zentzuz balioetsi eta konpentsatuko dituzte, zigorra bakoizteko. Erantzukizuna arintzeko oinarri kualifikatuak iraunez gero, gradu bat gutxiagoko zigorra ezarriko dute. Erantzukizuna astuntzeko oinarri kualifikatuak iraunez gero, zigorra goiko erdian ezarriko dute.

8.) Epaile edo auzitegiek ezarri zigorra gradu bat baino txikiagoa denean, hori egoki uste den hainbatean egin ahal izango dute.

2. Zuhurtziagabekeriazko delituetan, epaile edo auzitegiek euren sen onaren arabera ezarriko dituzte zigorrak, aurreko paragrafoan agindutako erregelak bete gabe.

67. artikulua

Aurreko artikuluaren erregelak ez zaizkie aplikatuko legeak arau-hauste bat deskribatzean edo zigortzean kontuan izan dituen inguruabar astungarri edo aringarriei, ezta delituari datxezkion inguruabarrei, baldin eta delitu egiteko nahitaezkoak badira.

68. artikulua

21. artikuluko lehenengo inguruabarrean ezarri kasuetan, epaile edo auzitegiek legeak adierazi zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoa ezarriko dute, eta, horretarako, kontuan izango dituzte diren edo ez diren betekizunen kopuru eta garrantzia, eta egilearen beraren inguruabarrak, kode honen 66. artikulua aplikatzeari kalterik egin gabe.

Artículo 69*

Al mayor de dieciocho años y menor de veintiuno que cometa un hecho delictivo, podrán aplicársele las disposiciones de la ley que regule la responsabilidad penal del menor en los casos y con los requisitos que ésta disponga.

69. artikulua*

Hemezortzi urtekoa baino nagusiagoa eta hogeita bat urtekoa baino gazteagoa denari, egitatea gauzatuz gero, aplikatu ahal izango zaizkio adingabearen erantzukizun penala arautzen duen legearen xedapenak, lege horretan ezarritako kasuetan eta beraren betekizunei jarraituz.

Artículo 70

1. La pena superior o inferior en grado a la prevista por la Ley para cualquier delito tendrá la extensión resultante de la aplicación de las siguientes reglas:

1.ª La pena superior en grado se formará partiendo de la cifra máxima señalada por la Ley para el delito de que se trate y aumentando a ésta la mitad de su cuantía, constituyendo la suma resultante su límite máximo. El límite mínimo de la pena superior en grado será el máximo de la pena señalada por la ley para el delito de que se trate, incrementado en un día o en un día multa según la naturaleza de la pena a imponer.

2.ª La pena inferior en grado se formará partiendo de la cifra mínima señalada por la Ley para el delito de

70. artikulua

1. Legeak edozein delitutarako ezarritako zigorra baino gradu bat gehiagoko edo gutxiagoko zigorraren hedadura hurrengo erregelen aplikazioak zehaztuko du:

1.) Gradu bat gehiagoko zigorra eratzeko legeak delitu bakoitzari ezarri gehieneko zenbakiari beraren zenbatekoaren erdia gehituko zaio, eta hortik ateratzen den batura goiko graduko zigorraren gehieneko muga izango da. Gradu bat gehiagoko zigorraren gutxieneko muga izango da legeak kasuan kasuko delituarentzat ezarri zigorraren gehienekoa, egun bat edo isun-egun bat gehituta, ezarri beharreko zigorraren izaera kontuan hartuta.

2.) Gradu bat gutxiagoko zigorra eratzeko legeak delitu bakoitzari ezarri gutxieneko zenbakiari beraren zenbate-

* La Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, reguladora de la responsabilidad penal de menores, ha entrado en vigor el 13 de enero de 2001, aunque no lo ha hecho en su totalidad. Con arreglo a la Ley Orgánica 9/2002, hasta el 1 de enero de 2007 no será de aplicación el derecho penal de menores a franja de edad de 18 a 21 años.

* Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, Adingabeen Erantzukizun Penala Arautu duena, 2001eko urtarrilaren 13an jarri da indarrean, zati batez behintzat. 9/2002 Lege Organikoaren arabera, adingabeen zuzenbide penala ez dago aplikatzerik 18 urtetik 21 urtera arteko gazteei 2007ko urtarrilaren 1a arte.

que se trate y deduciendo de ésta la mitad de su cuantía, constituyendo el resultado de tal deducción su límite mínimo. El límite máximo de la pena inferior en grado será el mínimo de la pena señalada por la ley para el delito de que se trate, reducido en un día o en un día multa según la naturaleza de la pena a imponer.

2. A los efectos de determinar la mitad superior o inferior de la pena o de concretar la pena inferior o superior en grado, el día o el día multa se considerarán indivisibles y actuaran como unidades penológicas de más o menos, según los casos.

3. Cuando, en la aplicación de la regla 1.ª del apartado 1 de este artículo, la pena superior en grado exceda de los límites máximos fijados a cada pena en este Código, se considerarán como inmediatamente superiores:

1.º Si la pena determinada fuera la de prisión, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de treinta años.

2.º Si fuera la de inhabilitación absoluta o especial, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de treinta años.

3.º Si fuera de suspensión de empleo o cargo público, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de ocho años.

koaren erdia kenduko zaio, eta hortik ateratzen den kendura beheko graduko zigorraren gutxieneko muga izango da. Gradu bat gutxiagoko zigorraren gehieneko muga izango da legeak kasuan kasuko delituarentzat ezarri zigorraren gutxienekoa, egun bat edo isun-egun bat kenduta, ezarri beharreko zigorraren izaera kontuan hartuta.

2. Zigorraren goiko edo beheko erdia zehazteko, edota gradu bat gutxiagoko edo gehiagoko zigorra zehazteko, eguna edo isun-eguna zatiezinak direla ulertuko da, eta, kasuan-kasuan, batzeko edo kentzeko zigor-unitate gisa aplikatuko dira.

3. Artikulu honen 1. paragrafoko 1. erregela aplikatuz, gradu bat gehiagoko zigorrak gainditzen baditu kode honetako zigor bakoitzari ezarri zaizkion gehieneko mugak, orduan, zigor hauek izango dira haiek baino handiagoxeak:

1.) Zehazturiko zigorra espetxealdikoa bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena hogeita hamar urtekoa izango delako klausularekin.

2.) Zehazturiko zigorra erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezia bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena hogeita hamar urtekoa izango delako klausularekin.

3.) Norbaiti enplegu edo kargualdi publikoa etetea bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena zortzi urtekoa izango delako klausularekin.

4.º Tratándose de privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de quince años.

5.º Tratándose de privación del derecho a la tenencia y porte de armas, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de 20 años.

6.º Tratándose de privación del derecho a residir en determinados lugares o acudir a ellos, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de 20 años.

7.º Tratándose de prohibición de aproximarse a la víctima o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de 20 años.

8.º Tratándose de prohibición de comunicarse con la víctima o con aquellos de sus familiares u otras personas que determine el juez o tribunal, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de 20 años.

9.º Si fuera de multa, la misma pena, con la cláusula de que su duración máxima será de treinta meses.

4.) Zehazturiko zigorrak ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzen badu, zigor berbera handiagoxetzat hartuko da, beraien iraupena hamabost urtekoa izango delako klausularekin.

5.) Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena 20 urtekoa izango delako klausularekin.

6.) Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzea bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena 20 urtekoa izango delako klausularekin.

7.) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbiltzeko debekua bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena 20 urtekoa izango delako klausularekin.

8.) Biktimarekin edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonekin komunikatzeko debekua bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena 20 urtekoa izango delako klausularekin.

9.) Zehazturiko zigorra isuna bada, zigor bera hartuko da handiagoxetzat, beraren gehieneko iraupena hogeita hamar hilabetekoa izango delako klausularekin.

Artículo 71

1. En la determinación de la pena inferior en grado, los Jueces o Tribuna-

71. artikulua

1. Delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa zehaz-

les no quedarán limitados por las cuantías mínimas señaladas en la Ley a cada clase de pena, sino que podrán reducirlas en la forma que resulte de la aplicación de la regla correspondiente, sin que ello suponga la degradación a falta.

2. No obstante, cuando por aplicación de las reglas anteriores proceda imponer una pena de prisión inferior a tres meses, ésta será en todo caso sustituida conforme a lo dispuesto en la sección 2.ª del capítulo III de este Título, sin perjuicio de la suspensión de la ejecución de la pena en los casos en que proceda.

Artículo 72

Los jueces o tribunales, en la aplicación de la pena, con arreglo a las normas contenidas en este capítulo, razonarán en la sentencia el grado y extensión concreta de la impuesta.

tean, epaile edo auzitegientzat ez dira muga izango legeak zigor-mota bakoitzari ezartzen dizkion gutxieneko zenbatekoak; epaile eta auzitegiek zigor horiek laburtu ahal izango dituzte, erregela egokiaren aplikazioak zehazten duen eran, eta horrek ez du ekarriko delitutik faltara jaistea.

2. Dena den, aurreko erregelen aplikazioa dela eta, hiru hilabete baino gutxiagoko espetxealdi-zigorra ezarri behar denean, zigor hori titulu honen III. kapituluko 2. atalean xedatutakoaren arabera ordeztuko da; horrek ez dio kalterik egingo zigorraren betearazpena eteteari, bidezko gertatzen den kasuetan.

72. artikulua

Epaile edo auzitegiek, kapitulu honetan jasotako arauekin bat etorriz zigorra ezartzen dutenean, epaian azalduko dituzte zigorraren gradu eta norainoko zehatza ezartzeko izan dituzten arrazoiak.

Sección II

II. atala

Artículo 73

Al responsable de dos o más delitos o faltas se le impondrán todas las penas correspondientes a las diversas infracciones para su cumplimiento simultáneo, si fuera posible, por la naturaleza y efectos de las mismas.

73. artikulua

Delitu nahiz falta bi edo gehiagoren erantzuleari ezarriko zaizkio beraren arau-hausteei dagozkien zigor guztiak, batera bete ditzan, baldin eta batera bete badaitezke, zigor horien izaera eta ondoreak direla eta.

Artículo 74

1. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el que, en ejecución de un plan preconcebido o aprovechando idéntica ocasión, realice una pluralidad de acciones u omisiones que ofendan a uno o varios sujetos e infrinjan el mismo precepto penal o preceptos de igual o semejante naturaleza, será castigado como autor de un delito o falta continuados con la pena señalada para la infracción más grave, que se impondrá en su mitad superior, pudiendo llegar hasta la mitad inferior de la pena superior en grado.

2. Si se tratare de infracciones contra el patrimonio, se impondrá la pena teniendo en cuenta el perjuicio total causado. En estas infracciones el Juez o Tribunal impondrá, motivadamente, la pena superior en uno o dos grados, en la extensión que estime conveniente, si el hecho revistiere notoria gravedad y hubiere perjudicado a una generalidad de personas.

3. Quedan exceptuadas de lo establecido en los apartados anteriores las ofensas a bienes eminentemente personales, salvo las constitutivas de acciones contra el honor y la libertad e indemnidad sexuales que afecten al mismo sujeto pasivo. En estos casos, se atenderá a la naturaleza del hecho y del precepto infringido para aplicar o no la continuidad delictiva.

Artículo 75

Cuando todas o algunas de las penas correspondientes a las diversas in-

74. artikulua

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, aldez aurretik pentsatutako plan bat betez edo aukera bera aprobetxatuz, subjektu baten edo batzuen aurkako egite edo ez-egite batzuk gauzatzen dituenari, astunena den arau-hausteari dagokion zigorra ezarriko zaio, goiko erdian, delitu edo falta jarraitu baten egile gisa, baldin eta egite edo ez-egite horiek zigor-manu bera nahiz izaera bereko edo antzeko manuak hausten badituzte; ezarri zigorra gradu bat gehiagokoa izan daiteke, betiere beheko erdian.

2. Arau-hausteak ondarearen aurkakoak badira, zigorra ezartzeko, eragindako kalte osoa hartuko da kontuan. Epaile edo auzitegiak, zioak emanez eta egoki uste duen hainbatean, delituari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi handiagoa ezarriko du, baldin eta egitateak larritasun nabaria badu eta pertsona askori egiten badie kalte.

3. Aurreko paragrafoetan ezartzen denetik salbuetsita geratzen dira pertsonaren bere-berezkoak diren ondasunen aurkako ofentsak, salbu eta ohorearen eta sexu-askatasunaren nahiz-ukigabetasunaren aurkako ekintzak izan eta subjektu pasibo berberarengan eragina dutenean. Kasu horietan, egitatearen eta hautsitako manuaren izaera aintzat hartuko da, delitu-jarraitutasuna aplikatzeko ala ez aplikatzeko.

75. artikulua

Kondenatuak arau-hausteei dagozkien zigor guztiak edo zigor batzuk

fracciones no puedan ser cumplidas simultáneamente por el condenado, se seguirá el orden de su respectiva gravedad para su cumplimiento sucesivo, en cuanto sea posible.

ezin dituenean batera bete, ahal den neurrian, bata bestearen ondoren beteko ditu beraien astuntasunaren hurrenkeraren arabera.

Artículo 76

1. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el máximo de cumplimiento efectivo de la condena del culpable no podrá exceder del triple del tiempo por el que se le imponga la más grave de las penas en que haya incurrido, declarando extinguidas las que procedan desde que las ya impuestas cubran dicho máximo, que no podrá exceder de 20 años. Excepcionalmente, este límite máximo será:

a) De 25 años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos y alguno de ellos esté castigado por la ley con pena de prisión de hasta 20 años.

b) De 30 años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos y alguno de ellos esté castigado por la ley con pena de prisión superior a 20 años.

c) De 40 años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos y, al menos, dos de ellos estén castigados por la ley con pena de prisión superior a 20 años.

d) De 40 años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII del li-

76. artikulua

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, errudunak benetan beteko duen kondenaren gehieneko iraupenak ezin du gainditu errudunari ezarri zaizkion zigorretatik astunenak dirauen denbora baino hiru halakoa. Horrela, bete beharreko beste guztiak azkendutzat hartuko dira, jadanik ezarritako zigorrak gehieneko muga horretaraino iristen direnetik; gehieneko muga hori ezin da izan 20 urte baino gehiagokoa. Salbuespen gisa, gehieneko muga hurrengoa izango da:

a) 25 urtekoa, baldin eta subjektuari kondena ezarri bazaio delitu bi edo gehiago egiteagatik, eta delitu horietatik bati legeak 20 urte arteko espetxealdi-zigorra ezartzen badio.

b) 30 urtekoa, baldin eta subjektuari kondena ezarri bazaio delitu bi edo gehiago egiteagatik, eta delitu horietatik bati legeak 20 urtetik gorako espetxealdi-zigorra ezartzen badio.

c) 40 urtekoa, baldin eta subjektuari kondena ezarri bazaio delitu bi edo gehiago egiteagatik, eta delitu horietatik biri, gutxienez, legeak 20 urtetik gorako espetxealdi-zigorra ezartzen badie.

d) 40 urtekoa, baldin eta subjektuari kondena ezarri bazaio kode honetako II. liburuaren XXII. tituluko V. kapituluaren bigarren ataleko terrorismo-de-

bro II de este Código y alguno de ellos esté castigado por la ley con pena de prisión superior a 20 años.

2. La limitación se aplicará aunque las penas se hayan impuesto en distintos procesos si los hechos, por su conexión o el momento de su comisión, pudieran haberse enjuiciado en uno sólo.

Artículo 77

1. Lo dispuesto en los dos artículos anteriores, no es aplicable en el caso de que un solo hecho constituya dos o más infracciones, o cuando una de ellas sea medio necesario para cometer la otra.

2. En estos casos se aplicará en su mitad superior la pena prevista para la infracción más grave, sin que pueda exceder de la que represente la suma de las que correspondería aplicar si se penaran separadamente las infracciones.

3. Cuando la pena así computada exceda de este límite, se sancionarán las infracciones por separado.

Artículo 78

1. Si a consecuencia de las limitaciones establecidas en el apartado 1 del artículo 76 la pena a cumplir resultase inferior a la mitad de la suma total de las impuestas, el juez o tribunal sentenciador podrá acordar que los beneficios penitenciarios, los permisos de salida, la clasificación en tercer grado y el cómputo de tiempo para la libertad condicional se refieran a la totalidad de las penas impuestas en las sentencias.

litu bi edo gehiago egiteagatik, eta delitu horietatik bati legeak 20 urtetik gorako espetxealdi-zigorra ezartzen badio.

2. Aurreko muga aplikatuko da, nahiz eta zigorrak prozesu ezberdinetan ezarri, baldin eta egitateak, beraien arteko loturarengatik edo egin diren unearengatik, prozesu bakarrean epaitu ahal izan balira.

77. artikulua

1. Aurreko bi artikuluetan ezarritakoa ez da aplikatuko, egitate bakarra arau-hauste bi edo gehiago denean, edo arau-hauste horietako bat bestea egiteko beharrezko bidea denean.

2. Kasu horietan arau-hauste astunenari ezarri zigorra goiko erdian ezarriko da. Zigor horrek ezin du gainditu, arau-hausteak banaturik zigortuz gero ezarri beharreko zigorren baturak dakarren zigorra.

3. Horrela zenbatutako zigorrak muga hori gainditzen duenean, arau-hausteak banaturik zigortuko dira.

78. artikulua

1. 76. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako mugen ondorioz, bete beharreko zigorra guztira ezarritako zigor-baturaren erdia baino txikiagoa bada, epaile edo auzitegi epai-emaileak erabaki dezake espetxe-onurak, irteteko baimenak, hirugarren graduko sailkapena eta baldintzapeko askatasunerako denboraren zenbaketa epaietan ezarritako zigor guztien baturaren araberakoa izatea.

2. Dicho acuerdo será preceptivo en los supuestos previstos en los párrafos a), b), c) y d) del apartado 1 del artículo 76 de este Código, siempre que la pena a cumplir resulte inferior a la mitad de la suma total de las impuestas.

3. En estos casos, el juez de vigilancia, previo pronóstico individualizado y favorable de reinserción social y valorando, en su caso, las circunstancias personales del reo y la evolución del tratamiento reeducador, podrá acordar razonadamente, oídos el Ministerio Fiscal, Instituciones Penitenciarias y las demás partes, la aplicación del régimen general de cumplimiento. Si se tratase de delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII del libro II de este Código, o cometidos en el seno de organizaciones criminales, y atendiendo a la suma total de las penas impuestas, la anterior posibilidad sólo será aplicable:

a) Al tercer grado penitenciario, cuando quede por cumplir una quinta parte del límite máximo de cumplimiento de la condena.

b) A la libertad condicional, cuando quede por cumplir una octava parte del límite máximo de cumplimiento de la condena.

Artículo 79

Siempre que los Jueces o Tribunales impongan una pena que lleve consigo otras accesorias condenaran también expresamente al reo a estas últimas.

2. Erabaki hori manuzkoa izango da, kode honen 76. artikuluko 1. paragrafoaren a), b), c) eta d) lerrokadek ezarritako kasuetan, baldin eta bete beharreko zigorra guztira ezarritako zigor-baturaren erdia baino txikiagoa bada.

3. Kasu horietan, zaintza-epaileak, errudunaren birgizarteratzeari buruzko aurretiazko iragarpen bakoiztua baiezkoa izanez gero, eta, hala denean, haren inguruabar pertsonalak eta berrezibidearen bilakaera balioetsiz, erabaki dezake, horretarako arrazoiak emanez, eta Fiskaltzak, Espetxeetako Erakundeak eta gainerako alderdiek esan beharrekoa entzun ondoren, zigorra betetzeari buruzko eraentza orokorra ezartzea. Kode honetako II. liburuaren XXII. tituluko V. kapituluaren bigarren ataleko terrorismo-delituak edo antolakunde kriminalen barruan egindakoak izanez gero, eta guztira ezarritako zigor-batura kontuan hartuta, aurreko aukera hori aplikatu ahal izango zaio, bakar-bakarrik:

a) Espetxeko hirugarren graduari, baldin eta kondenaren betetzeak duen gehieneko mugatik bostena besterik ez dagoenean betetzeko.

b) Baldintzapeko askatasunari, baldin eta kondenaren betetzeak duen gehieneko mugatik zortzirena besterik ez dagoenean betetzeko.

79. artikulua

Epaile edo auzitegiek ezartzen dutenean zigor erantsiak barneratzen dituen zigorra, erruduna kondenatuko dute, beren beregi, zigor erantsiak betetzera.

CAPÍTULO III

De las formas sustitutivas de la ejecución de las penas privativas de libertad y de la libertad condicional

SECCIÓN I

Artículo 80

1. Los Jueces o Tribunales podrán dejar en suspenso la ejecución de las penas privativas de libertad no superiores a dos años mediante resolución motivada.

En dicha resolución se atenderá fundamentalmente a la peligrosidad criminal del sujeto, así como la existencia de otros procedimientos penales contra éste.

2. El plazo de suspensión será de dos a cinco años para las penas privativas de libertad inferiores a dos años, y de tres meses a un año para las penas leves y se fijará por los Jueces o Tribunales, previa audiencia de las partes, atendidas las circunstancias personales del delincuente, las características del hecho y la duración de la pena.

3. La suspensión de la ejecución de la pena no será extensiva a la responsabilidad civil derivada del delito o falta penados.

4. Los Jueces y Tribunales sentenciadores podrán otorgar la suspensión de cualquier pena impuesta sin suje-

III. KAPITULUA

Zigor askatasun-gabetzaileak betearazteko ordezko erak eta baldintzapeko askatasuna

I. ATALA

-

80. artikulua

1. Epaile edo auzitegiek, ziodun ebazpenaren bitartez, eten dezakete bi urtekoak baino luzeagoak ez diren zigor askatasun-gabetzaileen betearazpena.

Ebazpen horretan kontuan hartuko da, gehienbat, subjektuaren arriskutsutasun kriminala, bai eta beraren kontra beste zigor-prozedura batzuk izatea ere.

2. Bi urte baino denbora laburragorako zigor askatasun-gabetzaileen kasuan, etendura-epea bi urtetik bost artekoa izango da, eta hiru hilabetetik urtebete artekoa zigor arinen kasuan. Epaile edo auzitegiek ezarriko dute etendura-epea, alderdiek esan beharrekoa entzun eta gero, delitugilearen beraren inguruabarrak, egitatearen berezitasunak eta zigorraren iraupena kontuan izanik.

3. Zigorraren betearazpena eteten denean, etendura hori ez da zabalduko delitu edo falta zigortuaren ondoriozko erantzukizun zibilera.

4. Epaile eta auzitegi epai-emaileek inolako betekizunik gabe erabaki dezakete ezarrita dauden zigorretatik edo-

ción a requisito alguno en el caso de que el penado esté aquejado de una enfermedad muy grave con padecimientos incurables, salvo que en el momento de la comisión del delito tuviera ya otra pena suspendida por el mismo motivo.

Artículo 81

Serán condiciones necesarias para dejar en suspenso la ejecución de la pena, las siguientes:

1.ª Que el condenado haya delinquido por primera vez. A tal efecto no se tendrán en cuenta las anteriores condenas por delitos imprudentes ni los antecedentes penales que hayan sido cancelados, o debieran serlo, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 136 de este Código.

2.ª Que la pena o penas impuestas, o la suma de las impuestas, no sea superior a los dos años, sin incluir en tal cómputo la derivada del impago de la multa.

3.ª Que se hayan satisfecho las responsabilidades civiles que se hubieren originado, salvo que el Juez o Tribunal sentenciador, después de oír a los interesados y al Ministerio, declare la imposibilidad total o parcial de que el condenado haga frente a las mismas.

Artículo 82

Declarada la firmeza de la sentencia y acreditados los requisitos establecidos en el artículo anterior, los Jueces o Tribunales se pronunciarán con la mazein etetea, baldin eta zigortuak gaixotasun oso larria badu, sendaezinezko jasankizunekin, salbu eta delitu egitean beste zigor bat arrazoi berberagatik duenean etenda.

81. artikulua

Zigorraren betearazpena eteteko, beharrezko baldintzak izango dira honako hauek:

1.) Kondenatuak delitu egin duen lehenengo aldia izatea. Ondore horretarako, ez dira kontuan hartuko zuhurtziagabekeriazko delituen ondorioz aurretik ezarrita dauden kondenak ezta, kode honen 136. artikuluaren arabera, ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen zigor-aurrekariak ere.

2.) Ezarritako zigorra edo zigorrak, edo ezarritako zigorren batura, bi urtekoa baino luzeagoa ez izatea, zenbaketa horretan isunaren ordainketa ezak eratortzen duena sartu gabe.

3.) Sorrarazitako erantzukizun zibilak ordainduta egotea, salbu eta epaile edo auzitegi epai-emaileak, interesdunek eta Fiskaltzak esan beharrekoak entzun eta gero, adierazten duenean kondenatuak ezin diola aurre egin erantzukizun zibil osoari edo erantzukizun zibil horren zati bati.

82. artikulua

Epaiaren irmotasuna adierazi eta aurreko artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatu eta gero, epaile edo auzitegiek ahalik eta arinen erabakiko dute

yor urgencia sobre la concesión o no de la suspensión de la ejecución de la pena.

Artículo 83

1. La suspensión de la ejecución de la pena quedará siempre condicionada a que el reo no delinca en el plazo fijado por el Juez o Tribunal conforme al artículo 80.2 de este Código. En el caso de que la pena suspendida fuese de prisión, el Juez o Tribunal sentenciador, si lo estima necesario, podrá también condicionar la suspensión al cumplimiento de las obligaciones o deberes que le haya fijado de entre las siguientes:

1.ª Prohibición de acudir a determinados lugares.

2.ª Prohibición de aproximarse a la víctima, o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal, o de comunicarse con ellos.

3.ª Prohibición de ausentarse sin autorización del Juez o Tribunal del lugar donde resida.

4.ª Comparecer personalmente ante el Juzgado o Tribunal, o servicio de la Administración que éstos señalen, para informar de sus actividades y justificarlas.

5.ª Participar en programas formativos, laborales, culturales, de educación vial, sexual y otros similares.

6.ª Cumplir los demás deberes que el Juez o Tribunal estime convenientes para la rehabilitación social del penazigorraren betearazpena etetea baimentzen duten ala ez.

83. artikulua

1. Zigorraren betearazpenaren etendura beti egongo da errudunak deliturik ez egiteko baldintzapean, epaile edo auzitegiak kode honen 80.2 artikuluaren arabera ezarritako epean. Horrezaz gain, eteten den zigorra espetxealdikoa bada eta epaile edo auzitegi epai-emaileak beharrezko baderitzo, errudunari jarraian zerrendatuko diren betebehar eta eginbeharren artean ezarritakoak betetzea galdatu ahal izango dio, zigorraren betearazpena eteteko baldintza gisa:

1.) Leku jakin batzuetara joateko debekua.

2.) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbiltzeko edo horiekin komunikatzeko debekua.

3.) Bizilekua duen tokitik irteteko debekua, epaile edo auzitegiaren baimenik izan gabe.

4.) Epaitegira edo auzitegira edo horiek adierazten duten Administrazio-zerbitzura bere buruz agertzea, bere jardueren berri emateko eta jarduera horiek frogatzeko.

5.) Heziketa, lan, kultura, bide-hezkuntza zein sexu-hezkuntzako programetan eta horien antzekoetan parte hartzea.

6.) Zigortua gizartean birgaitzeko, epaile edo auzitegiak egoki deritzen beste eginbeharrak betetzea, baldin eta

do, previa conformidad de éste, siempre que no atenten contra su dignidad como persona.

Si se tratase de los delitos contemplados en los artículos 153 y 173.2 de este Código, el juez o tribunal condicionará en todo caso la suspensión al cumplimiento de las obligaciones o deberes previstos en las reglas 1.ª y 2.ª de este apartado.

2. Los servicios correspondientes de la Administración competente informarán al Juez o Tribunal sentenciador, al menos cada tres meses, sobre la observancia de las reglas de conducta impuestas.

Artículo 84

1. Si el sujeto delinquiera durante el plazo de suspensión fijado, el Juez o Tribunal revocará la suspensión de la ejecución de la pena.

2. Si el sujeto infringiera durante el plazo de suspensión las obligaciones o deberes impuestos, el Juez o Tribunal podrá, previa audiencia de las partes, según los casos:

a) Sustituir la regla de conducta impuesta por otra distinta.

b) Prorrogar el plazo de suspensión, sin que en ningún caso pueda exceder de cinco años.

c) Revocar la suspensión de la ejecución de la pena, si el incumplimiento fuera reiterado.

3. En los supuestos en los que la pena suspendida fuera la de prisión por

zigortua ados badago eta eginbehar horiek ez badira zigortuak pertsona gisa duen duintasunaren aurkakoak.

Kode honen 153 eta 173.2 artikuluetan araututako delituak izanez gero, epaile edo auzitegiak beti ezarriko du betearazpena eteteko baldintza dela paragrafo honen 1.a eta 2.a erregeletan ezarritako betebeharrak edo eginbeharrak betetzea.

2. Eskudun Administrazioaren zerbitzuek, gutxienez hiru hilabetean behin, ezarritako jokarauak betetzen diren ala ez esango diote epaia eman duen epaile edo auzitegiari.

84. artikulua

1. Ezarritako etendura-epean zehar subjektuak delitu egiten badu, epaile edo auzitegiak zigorraren betearazpena etetea ezeztatuko du.

2. Subjektuak hausten baditu etendura-epean zehar ezarritako betebehar edo eginbeharrak, orduan, epaile edo auzitegiak, alderdiek esan beharrekoa entzun eta gero, kasuan-kasuan, hurrengoa egin ahal izango du:

a) Ezarritako jokarauaren ordez beste bat ezartzea.

b) Etendura-epea luzatzea, baina inoiz ere ez bost urte baino gehiagorako.

c) Zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatzea, behin eta berriz eginbehar eta betebeharrak urratzen badira.

3. Kode honen 153 eta 173.2 artikuluetan araututako delituak egiteagatik,

comisión de los delitos contemplados en los artículos 153 y 173.2 de este Código, el incumplimiento por parte del reo de las obligaciones o deberes señalados en los números 1 y 2 del apartado primero del artículo 83 de este Código determinará la revocación de la suspensión de la ejecución de la pena.

Artículo 85

1. Revocada la suspensión, se ordenará la ejecución de la pena.

2. Transcurrido el plazo de suspensión fijado sin haber delinquido el sujeto, y cumplidas, en su caso, las reglas de conducta fijadas por el Juez o Tribunal, éste acordará la remisión de la pena.

Artículo 86

En los delitos que sólo pueden ser perseguidos previa denuncia o querella del ofendido, los Jueces y Tribunales oirán a éste y, en su caso, a quien le represente, antes de conceder los beneficios de la suspensión de la ejecución de la pena.

Artículo 87

1. Aun cuando no concurran las condiciones 1.ª y 2.ª previstas en el artículo 81, el Juez o Tribunal, con audiencia de las partes, podrá acordar la suspensión de la ejecución de las penas privativas de libertad no superiores a cinco años de los penados que hubiesen cometido el hecho delictivo a causa de su dependencia de las sustancias señaladas en el número 2.º del artículo 20,

espetxealdi-zigorra ezarri eta zigor hori etenda geratzen denean, errudunak urratzen baditu kode honen 83. artikuluko 1 eta 2. paragrafoetan aipatu betebeharrak edo eginbeharrak, horrek ekarriko du zigor-betearazpenaren etendura ezeztatzea.

85. artikulua

1. Etendura ezeztatu eta gero, zigorra betearaztea aginduko da.

2. Behin etendura-epea amaituta subjektuak deliturik egin gabe, eta epaile edo auzitegiak ezar ditzakeen jokarauak betetzen baditu, epaile edo auzitegi horrek zigorra kentzea erabakiko du.

86. artikulua

Delitua pertsegitzeko bide bakarra ofendituaren salaketa edo kereila denean, epaile edo auzitegiek, zigorraren betearazpena eteteak dituen onurak eman baino lehenago, ofendituak eta, hala denean, beraren ordezkariak ere esan beharrekoa entzungo dute.

87. artikulua

1. Zigortuak delitu egiten badu, 20. artikuluko 2. zenbakian adierazten diren gaiekiko mendekotasunak eraginda, epaile edo auzitegiak, alderdiek esan beharrekoa entzunda, bost urte baino luzeagoak ez diren zigor askatasun-gabetzaileen betearazpena etetea erabaki dezake, 81. artikuluan ezarritako 1 eta 2. baldintzak gertatzen ez badira ere, baldin eta behar bezalako

siempre que se certifique suficientemente, por centro o servicio público o privado debidamente acreditado u homologado, que el condenado se encuentra deshabituado o sometido a tratamiento para tal fin en el momento de decidir sobre la suspensión.

El juez o tribunal solicitará en todo caso informe del Médico forense sobre los extremos anteriores.

2. En el supuesto de que el condenado sea reincidente, el Juez o Tribunal valorará, por resolución motivada, la oportunidad de conceder o no el beneficio de la suspensión de la ejecución de la pena, atendidas las circunstancias del hecho y del autor.

3. La suspensión de la ejecución de la pena quedará siempre condicionada a que el reo no delinca en el período que se señale, que será de tres a cinco años.

4. En el caso de que el condenado se halle sometido a tratamiento de deshabituación, también se condicionará la suspensión de la ejecución de la pena a que no abandone el tratamiento hasta su finalización. Los centros o servicios responsables del tratamiento estarán obligados a facilitar al Juez o Tribunal sentenciador, en los plazos que señale, y nunca con una periodicidad superior a un año, la información precisa para comprobar el comienzo de aquél, así como para conocer periódicamente su evolución, las modificaciones que haya de experimentar así como su finalización.

5. El Juez o Tribunal revocará la suspensión de la ejecución de la pena

egiaztagiria edo homologazioa duen zentro zein zerbitzu publiko nahiz pribatuak behar beste ziurtatzen badu kondenatuak mendekotasuna gainditu duela edo horretarako sendabidean dagoela, etenduraren gainean erabakia hartzeko unean.

Epaile edo auzitegiak aurreko gorabeherei buruzko txostena eskatuko dio beti mediku forentseari.

2. Kondenatua berrerorlea denean, epaile edo auzitegiak, egitatearen eta egilearen inguruabarrak kontuan izanik, ziodun ebazpenaren bidez balioetsiko du zigorraren betearazpena eteteak dakarren onura ematea egokia denentz.

3. Zigorraren betearazpena eteteko baldintza da beti errudunak deliturik ez egitea adierazten den epealdian. Epealdi hori hiru urtetik bost artekoa izango da.

4. Kondenatua bere mendekotasuna gainditzeko sendabidean dagoenean, zigorraren betearazpena eteteko beste baldintza bat izango da sendabidea amaitu arte ez uztea. Sendabidearen arduradunak diren zentro edo zerbitzuek beharrezko informazioa eman behar diote epaile edo auzitegi epai-emaileari. Informazioa epaile edo auzitegi horrek zehazturiko epeetan eman behar da, eta inola ere urtebete baino gehiagoko aldizkakotasunarekin, sendabidea noiz hasten den egiaztatzeko, eta sendabideak aldian-aldian duen bilakaera, jasan behar dituen aldarazpenak eta beraren amaiera jakiteko.

5. Epaile edo auzitegiak zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatuko

si el penado incumpliere cualquiera de las condiciones establecidas.

Transcurrido el plazo de suspensión sin haber delinquido el sujeto, el Juez o Tribunal acordará la remisión de la pena si se ha acreditado la deshabituación o la continuidad del tratamiento del reo. De lo contrario, ordenará su cumplimiento, salvo que, oídos los informes correspondientes, estime necesaria la continuación del tratamiento; en tal caso podrá conceder razonadamente una prórroga del plazo de suspensión por tiempo no superior a dos años.

du, zigortuak betetzen ez badu ezarritako baldintzetatik edozein.

Behin etendura-epea amaituta, subjektuak deliturik egin gabe, epaile edo auzitegiak zigorra kentzea erabakiko du, baldin eta egiaztatzen bada errudunak mendekotasuna gainditu duela edo sendabidean dirauela. Osterantzean, epaile edo auzitegiak zigorra betetzeko aginduko du, txostenak entzun eta gero, sendabidean irautea beharrezkoa dela uste duenean izan ezik. Kasu horretan, arrazoiak emanez, etendura-epea luza dezake bi urte baino gehiago iraun ezin duen denboran.

Sección II

II. atala

-

Artículo 88

1. Los Jueces o Tribunales podrán sustituir, previa audiencia de las partes, en la misma sentencia, o posteriormente en auto motivado, antes de dar inicio a su ejecución, las penas de prisión que no excedan de un año por multa o por trabajos en beneficio de la comunidad, aunque la Ley no prevea estas penas para el delito de que se trate, cuando las circunstancias personales del reo, la naturaleza del hecho, su conducta y, en particular, el esfuerzo para reparar el daño causado así lo aconsejen, siempre que no se trate de reos habituales, sustituyéndose cada día de prisión por dos cuotas de multa o por una jornada de trabajo. En estos casos el Juez o Tribunal podrá además imponer al penado la

88. artikulua

1. Epaile edo auzitegiek, alderdiei entzunaldia egin eta gero, urtebete baino gehiago ez dirauten espetxealdi-zigorren ordez, isuna edo gizartearentzako lan egitea ezarri ahal izango dute, epaian bertan, edo geroago, auto ziodunean, haien betearazpenari hasiera eman baino arinago, nahiz eta legeak deliturako zigor horiek ezarri ez, baldin eta horretara eragiten badute errudunaren beraren inguruabarrek, egitatearen izaerak, errudunaren jokaerak eta, bereziki, eragindako kaltea konpontzeko ahaleginak, betiere ohiko errudunen kasua ez denean; espetxealdiko egun bakoitzaren ordez, isunaren bi kuota edo lan-saio bat ezarriko da. Kasu horietan, gainera, epaile edo au-

observancia de una o varias de las obligaciones o deberes previstos en el artículo 83 de este Código, de no haberse establecido como penas en la sentencia, por tiempo que no podrá exceder de la duración de la pena sustituida.

Excepcionalmente podrán los Jueces o Tribunales sustituir por multa o por multa y trabajos en beneficio de la comunidad, las penas de prisión que no excedan de dos años a los reos no habituales, cuando de las circunstancias del hecho y del culpable se infiera que el cumplimiento de aquéllas habría de frustrar sus fines de prevención y reinserción social. En estos casos, la sustitución se llevará a cabo con los mismos requisitos y en los mismos términos y módulos de conversión establecidos en el párrafo anterior para la pena de multa.

En el caso de que el reo hubiera sido condenado por el delito tipificado en el artículo 173.2 de este Código, la pena de prisión sólo podrá ser sustituida por la de trabajos en beneficio de la comunidad. En estos supuestos, el juez o tribunal impondrá adicionalmente, además de la sujeción a programas específicos de reeducación y tratamiento psicológico, la observancia de las obligaciones o deberes previstos en los números 1 y 2 del apartado primero del artículo 83 de este Código.

2. En el supuesto de incumplimiento en todo o en parte de la pena sustitutiva, la pena de prisión inicialmente impuesta se ejecutará descontando, en su caso, la parte de tiempo a que equizitegiak kode honen 83. artikuluan ezarritako betebehar edo eginbeharretatik bat edo batzuk betetzeko agindu diezaioke zigortuari, horiek ez badira epaian ezarri zigor moduan; euren iraupena ezin da izan ordeztutako zigorrarena baino luzeagoa.

Ohikoak ez diren errudunen kasuan, salbuespen gisa, epaile edo auzitegiek, bi urte baino gehiago ez dirauten espetxealdi-zigorren ordez, isuna edo isuna eta gizartearentzako lan egitea ezarri ahal izango dute, baldin eta egitatearen eta errudunaren inguruabarretatik antzematen bada zigorrak betetzeak zapuztuko dituela beraiek dituzten aurrezaintzako eta gizartean birsartzeko helburuak. Kasu horietan, ordezpena egingo da, aurreko lerrokadan isun-zigorrari buruz ezarritako betekizun berberekin eta bihurtze-modu eta -modulu berberen arabera.

Errudunari kondena ezarri bazaio kode honen 173.2 artikuluan arautu delituaren ondorioz, espetxealdi-zigorraren ordez gizartearentzako lan egitea bakarrik ezarri ahal izango da. Kasu horietan, epaile edo auzitegiak gehigarri moduan ezarriko du, berreziketarako eta tratamendu psikologikorako programa bereziak betetzeaz gain, kode honen 83. artikuluko lehenengo paragrafoaren 1 eta 2. lerrokadetan agindutako betebehar edo eginbeharrak betetzea.

2. Ordezko zigor osoa edo horren zati bat betetzen ez denean, hasieratik ezarritako espetxealdi-zigorra betearaziko da, eta, hala denean, ordaindutako kuoten besteko denbora-zatia kendu-

valgan las cuotas satisfechas, de acuerdo con la regla de conversión establecida en el apartado precedente.

3. En ningún caso se podrán sustituir penas que sean sustitutivas de otras.

Artículo 89

1. Las penas privativas de libertad inferiores a seis años impuestas a un extranjero no residente legalmente en España serán sustituidas en la sentencia por su expulsión del territorio español, salvo que el juez o tribunal, previa audiencia del Ministerio Fiscal, excepcionalmente y de forma motivada, aprecie que la naturaleza del delito justifica el cumplimiento de la condena en un centro penitenciario en España.

Igualmente, los jueces o tribunales, a instancia del Ministerio Fiscal, acordarán en sentencia la expulsión del territorio nacional del extranjero no residente legalmente en España condenado a pena de prisión igual o superior a seis años, en el caso de que se acceda al tercer grado penitenciario o una vez que se entiendan cumplidas las tres cuartas partes de la condena, salvo que, excepcionalmente y de forma motivada, aprecien que la naturaleza del delito justifica el cumplimiento de la condena en un centro penitenciario en España.

La expulsión se llevará a efecto sin que sea de aplicación lo dispuesto en los artículos 80, 87 y 88 del Código Penal.

La expulsión así acordada llevará consigo el archivo de cualquier proceko da, aurreko paragrafoan ezarritako bihurtze-erregelaren arabera.

3. Ezin izango dira inoiz ere ordeztu beste zigorren ordezkoak diren zigorrak.

89. artikulua

1. Espainian legezko bizilekurik ez duen atzerritarra sei urte baino gutxiagorako askatasunaz gabetzen bada, zigor horren ordez, epaian ezarriko da zigortua Espainiako lurraldetik kanporatua izatea, salbu eta epaile edo auzitegiak, aurretiaz Fiskaltzak esan beharrekoa entzunda, salbuespen gisa eta horretarako arrazoiak emanez, bidezkotzat jotzen duenean, delituaren izaera dela eta, kondena Espainiako espetxe batean betetzea.

Era berean, Espainian legezko bizilekurik ez duen atzerritarrari sei urteko edo sei urte baino gehiagoko kondena ezarri bazaio, epaile edo auzitegiek, Fiskaltzak hala eskaturik, epaian erabakiko dute atzerritar hori nazio-lurraldetik kanporatzea, espetxeko hirugarren gradua lortzen duenean edo kondenaren hiru laurdenak bete dituela ulertzen denean, ezpada, salbuespen gisa eta horretarako arrazoiak emanez, bidezkotzat jotzen duenean, delituaren izaera dela eta, kondena Espainiako espetxe batean betetzea.

Kanporatzea burutuko da, Zigor Kodearen 80, 87 eta 88. artikuluetan xedatutakoa aplikatu gabe.

Horrela erabakitako kanporatzeak berarekin ekarriko du administrazio-pro-

dimiento administrativo que tuviera por objeto la autorización para residir o trabajar en España.

En el supuesto de que, acordada la sustitución de la pena privativa de libertad por la expulsión, ésta no pudiera llevarse a efecto, se procederá al cumplimiento de la pena privativa de libertad originariamente impuesta o del período de condena pendiente.

2. El extranjero no podrá regresar a España en un plazo de 10 años, contados desde la fecha de su expulsión, y, en todo caso, mientras no haya prescrito la pena.

3. El extranjero que intentara quebrantar una decisión judicial de expulsión y prohibición de entrada a la que se refieren los apartados anteriores será devuelto por la autoridad gubernativa, empezando a computarse de nuevo el plazo de prohibición de entrada en su integridad.

4. Las disposiciones establecidas en los apartados anteriores no serán de aplicación a los extranjeros que hubieren sido condenados por la comisión de delitos a que se refieren los artículos 312, 318bis, 515.6ª, 517 y 518 del Código Penal.

zedura guztiak artxibatzea, prozedura horien helburua bada Espainian bizilekua izateko edo bertan lan egiteko baimena lortzea.

Askatasunaz gabetzeko zigorraren ordez, kanporatzea erabaki eta gero, hori ezin bada burutu, hasieratik askatasunaz gabetzeko ezarri den zigorra beteko da, edo, bestela, betetzeko dagoen kondena-epealdia.

2. Atzerritarra ezin izango da Espainiara itzuli hamar urteko epean, kanporaketa egunetik zenbatuta, eta, inoiz ere ez, zigorraren preskripzioa gertatzen ez den bitartean.

3. Atzerritarra epailearen kanporatze-erabakia eta aurreko paragrafoek aipatzen duten sarrera-debekua urratzen saiatzen bada, gobernu-agintaritzak atzerritar horren itzulketa burutuko du, eta sarrera-debekuaren epea zenbatzen hasiko da berriz, oso-osorik.

4. Aurreko paragrafoetan ezarritako xedapenak ez zaizkie atzerritarrei aplikatuko, baldin eta atzerritarrok kondenatuak izan badira, Zigor Kodearen 312, 318bis, 515.6, 517 eta 518. artikuluetan aipatu delituak egiteagatik.

SECCIÓN III

III. ATALA

Artículo 90

1. Se establece la libertad condicional en la pena privativa de libertad para

90. artikulua

1. Zigor askatasun-gabetzaileetan baldintzapeko askatasuna ezartzen da,

aquellos sentenciados en quienes concurran las circunstancias siguientes:

a) Que se encuentren en el tercer grado de tratamiento penitenciario.

b) Que se hayan extinguido las tres cuartas partes de la condena impuesta.

c) Que hayan observado buena conducta y exista respecto de los sentenciados un pronóstico individualizado y favorable de reinserción social, emitido en el informe final previsto en el artículo 67 de la Ley Orgánica General Penitenciaria.

No se entenderá cumplida la circunstancia anterior si el penado no hubiese satisfecho la responsabilidad civil derivada del delito en los supuestos y conforme a los criterios establecidos por el artículo 72.5 y 6 de la Ley Orgánica General Penitenciaria.

Asimismo, en el caso de personas condenadas por delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII del libro II de este Código, o por delitos cometidos en el seno de organizaciones criminales, se entenderá que hay pronóstico de reinserción social cuando el penado muestre signos inequívocos de haber abandonado los fines y los medios de la actividad terrorista y además haya colaborado activamente con las autoridades, bien para impedir la producción de otros delitos por parte de la banda armada, organización o grupo terrorista, bien para atenuar los efectos de su delito, bien para la identificación, captura y procesamiento de responsables de delihurrengo inguruabarrak biltzen dituzten epaituentzat:

a) Espetxe-tratamendurako hirugarren graduan egotea.

b) Ezarritako kondenaren hiru laurdenak bete izatea.

c) Jokabide ona erakutsi eta epaituaren birgizarteratzeari buruzko iragarpen bakoiztua baiezkoa izatea, Espetxeetako Lege Organiko Orokorraren 67. artikuluan agindutako azken txostenean.

Ez da ulertuko aurreko inguruabarra bete denik, baldin eta zigortuak ez badio aurre egin delituak eratorritako erantzukizun zibilari, Espetxeetako Lege Organiko Orokorraren 72. artikuluko 5 eta 6. paragrafoetan ezarritako kasuetan eta paragrafo horietako irizpideekin bat etorriz.

Era berean, pertsonak kondenatuak izan badira, kode honetako II. liburuaren XXII. tituluko V. kapituluaren bigarren ataleko terrorismo-delituak egiteagatik, edo antolakunde kriminalen barruan delituak egiteagatik, ulertuko da zigortuaren birgizarteratzeari buruzko iragarpena dagoela, zigortu horrek terrorismo-jardueraren helburuak eta bitartekoak bertan behera uzteko zeinu zalantzaezinak erakusten dituenean, eta, gainera, agintaritzarekin egitez elkarlanean aritu izan denean, dela banda armatu, antolakunde edo talde terroristek beste delitu batzuk egin ditzaten eragozteko, dela bere delituaren ondoreak biguntzeko, dela terrorismo-delituen erantzuleak identifikatu, harrapatu

tos terroristas, para obtener pruebas o para impedir la actuación o el desarrollo de las organizaciones o asociaciones a las que haya pertenecido o con las que haya colaborado, lo que podrá acreditarse mediante una declaración expresa de repudio de sus actividades delictivas y de abandono de la violencia y una petición expresa de perdón a las víctimas de su delito, así como por los informes técnicos que acrediten que el preso está realmente desvinculado de la organización terrorista y del entorno y actividades de asociaciones y colectivos ilegales que la rodean y su colaboración con las autoridades.

2. El juez de vigilancia, al decretar la libertad condicional de los penados, podrá imponerles motivadamente la observancia de una o varias de las reglas de conducta o medidas previstas en los artículos 83 y 96.3 del presente Código.

Artículo 91

1. Excepcionalmente, cumplidas las circunstancias de los párrafos a) y c) del apartado 1 del artículo anterior, y siempre que no se trate de delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII del libro II de este Código, o cometidos en el seno de organizaciones criminales, el juez de vigilancia penitenciaria, previo informe del Ministerio Fiscal, Instituciones Penitenciarias y las demás partes, podrá conceder la libertad condicional a los sentenciados a penas privativas de libertad que hayan extinguido las dos terceras partes de su condena, siempre

eta auziperatzeko, frogak lortzeko, edota bera kide edo laguntzaile izan duten antolakunde edo elkarteen jarduna edo garapena eragozteko. Hori egiaztatu ahal izango da, zigortuak bere delitu-jarduerei uko egiten diela, bai eta indarkeria bertan behera uzten dutela ere, beren beregi aitortuz, eta delituen biktimei beren beregi barkamena eskatuz; egiazta daiteke, orobat, txosten teknikoen bidez, horiek frogatzen badute espetxeratuak benetan lotura guztiak hautsi dituela antolakunde terroristarekin, eta hori inguratzen duten legez aurkako elkarte eta taldeen jarduera nahiz ingurunearekin, eta agintariekin elkarlanean aritu izan dela.

2. Zaintza-epaileak, zigortuen baldintzapeko askatasuna dekretatzean, zigortu horiei ezar diezaieke, horretarako arrazoiak emanez, kode honen 83 eta 96.3 artikuluetan ezarritako jokarau edo neurrietatik bat edo batzuk bete beharra.

91. artikulua

1. Salbuespen gisa, behin aurreko artikuluko 1. paragrafoaren a) eta c) lerrokadetan ezarritako inguruabarrak bete eta gero, betiere kode honetako II. liburuaren XXII. tituluko V. kapituluaren bigarren ataleko terrorismo-delituak edo antolakunde kriminalen barruan egindakoak ez direnean, espetxe-zaintzarako epaileak baldintzapeko askatasuna eman diezaieke askatasunaz gabetzeko zigorrera kondenatuak izan direnei, aurretiaz Fiskaltzak, Espetxeetako Erakundeak eta gainerako alderdiek txostena emanez, baldin eta epaitu horiek euren kondenaren bi herenak bete ba-

que merezcan dicho beneficio por haber desarrollado continuadamente actividades laborales, culturales u ocupacionales.

2. A propuesta de Instituciones Penitenciarias y previo informe del Ministerio Fiscal y de las demás partes, cumplidas las circunstancias de los párrafos a) y c) del apartado 1 del artículo anterior, el juez de vigilancia penitenciaria podrá adelantar, una vez extinguida la mitad de la condena, la concesión de la libertad condicional en relación con el plazo previsto en el apartado anterior, hasta un máximo de 90 días por cada año transcurrido de cumplimiento efectivo de condena, siempre que no se trate de delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII o cometidos en el seno de organizaciones criminales. Esta medida requerirá que el penado haya desarrollado continuadamente las actividades indicadas en el apartado anterior y que acredite, además, la participación efectiva y favorable en programas de reparación a las víctimas o programas de tratamiento o desintoxicación, en su caso.

Artículo 92

1. No obstante lo dispuesto en los artículos anteriores, los sentenciados que hubieran cumplido la edad de setenta años, o la cumplan durante la extinción de la condena, y reúnan los requisitos establecidos, excepto el haber extinguido las tres cuartas partes de aquélla, o, en su caso, las dos terceras, podrán obtener la concesión de la libertad condicional.

dituzte eta onura hori merezi badute, lan, kultura eta zereginetako jardueretan etengabe aritzeagatik.

2. Espetxeetako Erakundeak hala proposatuta, eta aurretiaz Fiskaltzak eta gainerako alderdiek txostena emanez, behin aurreko artikuluko 1. paragrafoaren a) eta c) lerrokadetako inguruabarrak bete eta gero, espetxe-zaintzarako epaileak, kondenaren erdia bete ondoren, baldintzapeko askatasunaren ematea aurrera dezake, aurreko paragrafoan ezarritako epeari dagokionez, askoz jota, 90 egun, kondena benetan betetzen igaro izan den urtebete bakoitzeko, baldin eta kode honetako II. liburuaren XXII. tituluko V. kapituluaren bigarren ataleko terrorismo-delituak edo antolakunde kriminalen barruan egindakoak ez badira. Neurri horretan, nahitaezkoa izango da zigortua etengabe aritu izatea aurreko paragrafoan aipatu jardueretan, eta, gainera, zigortu horrek egiaztatzea parte hartu duela, egitez eta modu onuragarrian, biktimei eragindako kalteak konpontzeko programetan, edo, hala denean, sendabide- nahiz desintoxikazio-programetan.

92. artikulua

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, epaituek, hirurogeita hamar urte bete dituztenean edo kondena betetzen ari direla hirurogeita hamar urte betetzen dituztenean, baldintzapeko askatasuna lortu ahal izango dute, nahiz eta kondenaren hiru laurdenak edo, hala badagokio, bi herenak bete ez, baldin eta beste betekizunak biltzen badituzte.

El mismo criterio se aplicará cuando, según informe médico, se trate de enfermos muy graves con padecimientos incurables.

2. Constando a la Administración penitenciaria que el interno se halla en cualquiera de los casos previstos en los párrafos anteriores, elevará el expediente de libertad condicional, con la urgencia que el caso requiera, al Juez de Vigilancia Penitenciaria que, a la hora de resolverlo, valorará junto a las circunstancias personales la dificultad para delinquir y la escasa peligrosidad del sujeto.

3. Si el peligro para la vida del interno, a causa de su enfermedad o de su avanzada edad, fuera patente, por estar así acreditado por el dictamen del médico forense y de los servicios médicos del establecimiento penitenciario el Juez de Vigilancia Penitenciaria podrá, previa en su caso la progresión de grado, autorizar la libertad condicional sin más trámite que requerir al centro penitenciario el informe de pronóstico final al objeto de poder hacer la valoración a que se refiere el párrafo anterior, todo ello sin perjuicio del seguimiento y control previstos por el artículo 75 de la Ley orgánica General Penitenciaria.

Artículo 93

1. El período de libertad condicional durará todo el tiempo que le falte al sujeto para cumplir su condena. Si en dicho período el reo delinquiere o inobservare las reglas de conducta impuestas, el Juez de Vigilancia Peniten-

Irizpide bera aplikatuko da, medikuaren txostenaren arabera, oso larri dauden gaixoekin, sendaezinezko jasankizunak badituzte.

2. Espetxeetako Administrazioak jakin badaki barneratua aurreko lerrokadetako kasuetatik edozeinetan dagoela, baldintzapeko askatasunaren espedientea helaraziko dio espetxe-zaintzarako epaileari, kasuan-kasuan beharrezkoa den presarekin; epaile horrek, espedientea ebazteko orduan, inguruabar pertsonalez gain, subjektuak delitu egiteko duen zailtasuna eta arriskutsutasun txikia balioetsiko ditu.

3. Barneratuak duen gaixotasuna edo adina dela eta, horren bizitza arrisku nabarian badago, eta hori egiaztatuta geratu bada, mediku forentseak eta espetxeko osasun-zerbitzuek emandako txostenean, orduan, espetxe-zaintzarako epaileak baldintzapeko askatasuna baimen dezake, hala denean, aurretiaz gradu-bilakaera gertatuta, eta ez da beste izapiderik behar espetxeari azken iragarpenaren txostena eskatzea baino, txosten horren helburua aurreko paragrafoak aipatu balioespena izanik. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo Espetxeetako Lege Organiko Orokorraren 75. artikuluak agindutako jarraipen eta kontrolari.

93. artikulua

1. Baldintzapeko askatasunaren epealdia izango da subjektuari kondena betetzeko gelditzen zaion denborakoa. Epealdi horretan errudunak delitu egiten badu, edo ezarri zaizkion jokarauak betetzen ez baditu, orduan, espe-

ciaria revocará la libertad concedida, y el penado reingresará en prisión en el período o grado penitenciario que corresponda, sin perjuicio del cómputo del tiempo pasado en libertad condicional.

2. En el caso de condenados por delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII del libro II de este Código, el juez de vigilancia penitenciaria podrá solicitar los informes que permitan acreditar que subsisten las condiciones que permitieron obtener la libertad condicional. Si en este período de libertad condicional el condenado delinquiera, inobservara las reglas de conducta o incumpliera las condiciones que le permitieron acceder a la libertad condicional, el juez de vigilancia penitenciaria revocará la libertad concedida, y el penado reingresará en prisión en el período o grado penitenciario que corresponda.

3. En el supuesto previsto en el apartado anterior, el penado cumplirá el tiempo que reste de cumplimiento de la condena con pérdida del tiempo pasado en libertad condicional.

SECCIÓN IV

Artículo 94

A los efectos previstos en la sección 2.ª de este capítulo, se consideran reos habituales los que hubieren cometido tres delitos comprendidos en el mismo título de este Código, siempre que hayan sido condenados por sentencia ejecutoria dictada dentro de los cinco años anteriores a la comisión del nuevo delito.

txe-zaintzarako epaileak emandako askatasuna ezeztatuko du, eta zigortua berriro sartuko da espetxean, dagokion epealdirako edo espetxe-gradu egokian, baldintzapeko askatasunean igarotako denbora zenbatzeari kalterik egin gabe.

2. Norbaitzuk kondenatuak izan badira, kode honetako II. liburuaren XXII. tituluko V. kapituluaren bigarren ataleko terrorismo-delituak egiteagatik, espetxe-zaintzarako epaileak txostenak eska ditzake, txosten horiekin egiaztatu ahal izateko oraindik badirela izan baldintzapeko askatasuna lortzea ahalbidetu zuten baldintzak. Baldintzapeko askatasunaren epealdi horretan, kondenatuak delitu egiten badu, jokarauak betetzen ez baditu edo baldintzapeko askatasuna lortzea ahalbidetu zuten baldintzak hausten baditu, espetxe-zaintzarako epaileak emandako askatasuna ezeztatuko du, eta zigortua espetxean sartuko da berriz, kasuan-kasuan egoki den epealdirako edo espetxe-graduan.

3. Aurreko paragrafoak aipatu kasuan, zigortuak beteko du kondena betetzeko falta den epealdia, eta galduko du baldintzapeko askatasunean igarotakoa.

IV. ATALA

94. artikulua

Kapitulu honen 2. atalean ezarritakoaren ondoreetarako, ohiko erruduntzat hartuko dira, kapitulu bereko hiru delitu baino gehiago egin dituztenak, betiere epaile edo auzitegiek ezarritako kondena irmoa delitu berria egin aurreko bost urteetan ezarri bada.

tido tres o más delitos de los comprendidos en un mismo capítulo, en un plazo no superior a cinco años, y hayan sido condenados por ello.

Para realizar este cómputo se considerarán, por una parte, el momento de posible suspensión o sustitución de la pena conforme al artículo 88 y, por otra parte, la fecha de comisión de aquellos delitos que fundamenten la apreciación de la habitualidad.

delitu edo gehiago egin dituztenak, bost urte arteko epean, baldin eta horren ondorioz kondena jaso badute.

Zenbaketa hori egiteko kontuan hartuko da, alde batetik, zigorra zein unetan eten edo ordeztu daitekeen, 88. artikuluaren arabera; eta, beste alde batetik, zein datatan egin ziren ohikotasuna adierazteko oinarri moduan hartutako delituak.

TÍTULO IV
DE LAS MEDIDAS DE SEGURIDAD

IV. TITULUA
SEGURTASUN-NEURRIAK

CAPÍTULO I
De las medidas de seguridad en general

I. KAPITULUA
Segurtasun-neurriak orokorrean

Artículo 95

1. Las medidas de seguridad se aplicarán por el Juez o Tribunal, previos los informes que estime convenientes, a las personas que se encuentren en los supuestos previstos en el capítulo siguiente de este Código, siempre que concurran estas circunstancias:

1.ª Que el sujeto haya cometido un hecho previsto como delito.

2.ª Que del hecho y de las circunstancias personales del sujeto pueda deducirse un pronóstico de comportamiento futuro que revele la probabilidad de comisión de nuevos delitos.

95. artikulua

1. Epaile edo auzitegiak, egokitzat hartzen dituen txostenak eskatu eta gero, kode honen hurrengo kapituluko kasuetan dauden pertsonei segurtasun-neurriak ezarriko dizkie, baldin eta hurrengo inguruabarrak gertatzen badira:

1.) Subjektuak, delitu gisa ezarritako egitatea gauzatu izana.

2.) Egitateak eta subjektuaren beraren inguruabarrek ondorioztatu ahal izatea etorkizunean subjektuak delitu berriak egin ditzakeela erakusten duen jokabide-iragarpena.

2. Cuando la pena que hubiere podido imponerse por el delito cometido no fuere privativa de libertad, el Juez o Tribunal sentenciador sólo podrá acordar alguna o algunas de las medidas previstas en el artículo 96.3.

Artículo 96

1. Las medidas de seguridad que se pueden imponer con arreglo a este Código son privativas y no privativas de libertad.

2. Son medidas privativas de libertad:

1.ª El internamiento en centro psiquiátrico.

2.ª El internamiento en centro de deshabituación.

3.ª El internamiento en centro educativo especial.

3. Son medidas no privativas de libertad:

1.ª La inhabilitación profesional.

2.ª La expulsión del territorio nacional de extranjeros no residentes legalmente en España.

3.ª La obligación de residir en un lugar determinado.

4.ª La prohibición de residir en el lugar o territorio que se designe. En este caso, el sujeto quedará obligado a declarar el domicilio que elija y los cambios que se produzcan.

5.ª La prohibición de acudir a determinados lugares o territorios, espectáculos deportivos o culturales, o de vi-

2. Egindako delituaren ondorioz ezar zitekeen zigorra, zigor askatasun-gabetzailea ez denean, 96.3 artikuluko neurrietatik bat edo batzuk bakarrik ezarri ahal izango ditu epaile edo auzitegi epai-emaileak.

96. artikulua

1. Kode honen arabera ezar daitezkeen segurtasun-neurriak askatasunaz gabetzen dutenak eta ez dutenak dira.

2. Neurri askatasun-gabetzaileak honako hauek dira:

1.) Pertsona zentro psikiatriko batean barneratzea.

2.) Pertsona mendekotasuna gainditzeko zentroan barneratzea.

3.) Pertsona heziketa bereziko zentroan barneratzea.

3. Askatasunaz gabetzen ez duten neurriak honako hauek dira:

1.) Lanbiderako desgaikuntza.

2.) Legez Espainian bizilekurik ez duten atzerritarrak nazio-lurraldetik kanporatzea.

3.) Leku jakin batean bizilekua izateko betebeharra.

4.) Izendatutako leku edo lurraldean bizilekua izateko debekua. Kasu horretan, subjektuaren betebeharra da aukeratutako egoitza eta horretan izandako aldaketak adieraztea.

5.) Leku nahiz lurralde jakin batzuetara, edo kirol- nahiz kultura-ikuskizun jakin batzuetara joateko debe-

sitar establecimientos de bebidas alcohólicas o de juego.

6.ª La custodia familiar. El sometido a esta medida quedará sujeto al cuidado y vigilancia del familiar que se designe y que acepte la custodia, quien la ejercerá en relación con el Juez de Vigilancia Penitenciaria y sin menoscabo de las actividades escolares o laborales del custodiado.

7.ª La privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores.

8.ª La privación del derecho a la tenencia y porte de armas.

9.ª La prohibición de aproximarse a la víctima, o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal.

10.ª La prohibición de comunicarse con la víctima, o con aquellos de sus familiares u otras personas que determine el Juez o Tribunal.

11.ª La sumisión a tratamiento externo en centros médicos o establecimientos de carácter socio-sanitario.

12.ª El sometimiento a programas de tipo formativo, cultural, educativo, profesional, de educación sexual y otros similares.

Artículo 97

Durante la ejecución de la sentencia, el Juez o Tribunal sentenciador adoptará, mediante un procedimiento contradictorio, previa propuesta del

kua, edota edari alkoholdunen saltokiak zein joko-etxeak bisitatzeko debekua.

6.) Familia-zaintza. Izendatzen den eta zaintza onartzen duen ahaideak neurri horren menpe dagoena jagon eta zaindu beharko du, eta zaintza hori egikarituko du espetxe-zaintzarako epailearekin harremanetan jarrita, zaintzapekoaren eskola- edo lan-jarduerei kalterik egin barik.

7.) Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzea.

8.) Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea.

9.) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbiltzeko debekua.

10.) Biktimarekin edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonekin komunikatzeko debekua.

11.) Medikuntza-zentroetan edo gizarte-osasun izaera duten establezimenduetan kanpoko sendabidearen menpe jartzea.

12.) Heziketa, kultura, hezkuntza, lanbide, sexu-hezkuntza eta horien antzeko egitarauen menpe jartzea.

97. artikulua

Epaia betearazten den bitartean, epaile edo auzitegi epai-emaileak, alderdien aurkakotasuneko prozeduraren bidez, eta espetxe-zaintzarako epaileak

Juez de Vigilancia Penitenciaria, alguna de las siguientes decisiones:

a) Mantener la ejecución de la medida de seguridad impuesta.

b) Decretar el cese de cualquier medida de seguridad impuesta en cuanto desaparezca la peligrosidad criminal del sujeto.

c) Sustituir una medida de seguridad por otra que estime más adecuada, entre las previstas para el supuesto de que se trate. En el caso de que fuera acordada la sustitución y el sujeto evolucionara desfavorablemente, se dejará sin efecto la sustitución, volviéndose a aplicar la medida sustituida.

d) Dejar en suspenso la ejecución de la medida en atención al resultado ya obtenido con su aplicación, por un plazo no superior al que reste hasta el máximo señalado en la sentencia que la impuso. La suspensión quedará condicionada a que el sujeto no delinca durante el plazo fijado, y podrá dejarse sin efecto si nuevamente resultara acreditada cualquiera de las circunstancias previstas en el artículo 95 de este Código.

A estos efectos el Juez de Vigilancia Penitenciaria estará obligado a elevar al menos anualmente, una propuesta de mantenimiento, cese, sustitución o suspensión de la medida de seguridad de la pena privativa de libertad impuesta.

Artículo 98

Para formular la propuesta a que se refiere el artículo anterior el Juez de

proposamena egin eta gero, hurrengo erabakietatik bat hartuko du:

a) Ezarritako segurtasun-neurriaren betearazpenari eustea.

b) Ezarritako segurtasun-neurrietatik edozein buka dadin dekretatzea, subjektuaren arriskutsutasun kriminala desagertu bezain laster.

c) Segurtasun-neurriaren ordez, kasuari ezar dakizkiokeen segurtasun-neurrien artean, egokiagotzat hartzen duen beste bat jartzea. Segurtasun-neurria ordeztea erabakitzen bada, eta subjektuak txarrera egiten badu, bertan behera utzi beharko da ordezte hori, eta berriz ezarriko da ordeztutako neurria.

d) Segurtasun-neurria ezartzeagatik lortutako emaitza kontuan izanik, neurriaren betearazpena etetea. Etete hori ezin da izan epaiak ezarritako gehieneko epea betetzeko falta den epea baino luzeagoa. Etendura ezarritako epearen barnean subjektuak deliturik ez egitera baldintzatuko da, eta ondore barik utzi ahal izango da, baldin eta kode honen 95. artikuluan ezarritako inguruabarretatik edozein berriro egiaztatzen bada.

Ondore horietarako, espetxe-zaintzarako epaileak aurkeztu beharko du, gutxienez urtean behin, ezarritako zigor askatasun-gabetzailearen segurtasun-neurriari eusteko proposamena edo segurtasun-neurri hori bukatu, ordeztu edo eteteko proposamena.

98. artikulua

Segurtasun-neurriaren menpekoari laguntza ematen dioten aditu eta profe-

Vigilancia Penitenciaria deberá valorar los informes emitidos por los facultativos y profesionales que asistan al sometido a medida de seguridad, y, en su caso, el resultado de las demás actuaciones que a este fin ordene.

sionalen txostenak dira espetxe-zaintzarako epaileak balioetsi beharko dituenak aurreko artikuluaren proposamena egiteko; bai eta, hala denean, horretarako agintzen duen jardunaren emaitza ere.

Artículo 99

En el caso de concurrencia de penas y medidas de seguridad privativas de libertad, el Juez o Tribunal ordenará el cumplimiento de la medida, que se abonará para el de la pena. Una vez alzada la medida de seguridad, el Juez o Tribunal podrá, si con la ejecución de la pena se pusieran en peligro los efectos conseguidos a través de aquélla, suspender el cumplimiento del resto de la pena por un plazo no superior a la duración de la misma, o aplicar alguna de las medidas previstas en el artículo 96.3.

99. artikulua

Askatasunaz gabetzen duten zigor eta segurtasun-neurriak elkarrekin pilatzen direnean, epaile edo auzitegiak segurtasun-neurria betetzeko aginduko du. Horrela, subjektua segurtasun-neurria betetzen egon den denbora zigorra betetzeko denboratik kenduko da. Segurtasun-neurria bukatu eta gero, horren bidez lorturiko ondoreak zigorraren betearazpenak arriskuan jartzen baditu, epaile edo auzitegiak zigorra betetzeko falta den denbora eten ahal izango du zigorraren iraupena baino luzeagoa ez den eperako, edo 96.3 artikuluko neurrietatik bat ezarri.

Artículo 100

1. El quebrantamiento de una medida de seguridad de internamiento dará lugar a que el juez ordene el reingreso del sujeto en el mismo centro del que se hubiese evadido o en otro que corresponda a su estado.

2. Si se tratare de otras medidas, el Juez o Tribunal podrá acordar la sustitución de la quebrantada por la de internamiento si ésta estuviese prevista para el supuesto de que se trate y si el quebrantamiento demostrase su necesidad.

100. artikulua

1. Barnealdiko segurtasun-neurria urratzeak ekarriko du epaileak agintzea ihes egin duen subjektua zentro berean edo beraren egoerari dagokion zentroan berriro sar dadila.

2. Segurtasun-neurriak bestelakoak badira, epaile edo auzitegiak erabaki ahal izango du urratutako segurtasun-neurriaren ordez barnealdiko segurtasun-neurria ezartzea, baldin eta barnealdiko segurtasun-neurria kasu horretarako ezarrita badago, eta hausteak segurtasun-neurri horren premia erakusten badu.

3. En ambos casos el Juez o Tribunal deducirá testimonio por el quebrantamiento.

3. Bi kasuotan, epaile edo auzitegiak urratzearen ondoriozko lekukotza emango du.

CAPÍTULO II

De la aplicación de las medidas de seguridad

SECCIÓN I

Artículo 101

1. Al sujeto que sea declarado exento de responsabilidad criminal conforme al número 1.º del artículo 20, se le podrá aplicar, si fuere necesaria, la medida de internamiento para tratamiento médico o educación especial en un establecimiento adecuado al tipo de anomalía o alteración psíquica que se aprecie, o cualquier otra de las medidas previstas en el apartado 3 del artículo 96. El internamiento no podrá exceder del tiempo que habría durado la pena privativa de libertad, si hubiera sido declarado responsable el sujeto, y a tal efecto el Juez o Tribunal fijará en la sentencia ese límite máximo.

2. El sometido a esta medida no podrá abandonar el establecimiento sin autorización del Juez o Tribunal sentenciador, de conformidad con lo previsto en el artículo 97 de este Código.

Artículo 102

1. A los exentos de responsabilidad penal conforme al número 2.º del ar-

II. KAPITULUA

Segurtasun-neurrien ezarpena

I. ATALA

-

101. artikulua

1. Beharrezkoa bada, 20. artikuluaren 1. zenbakiaren arabera erantzukizun kriminaletik salbuetsita dagoen subjektuari barnealdiko segurtasun-neurria ezarri ahal izango zaio, subjektuari antzematen zaion anomalia edo aldakuntza psikiko mota kontuan hartuz, osasun-sendabidea edo hezkuntza berezia jaso dezan establezimendu egokian, edo 96. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako segurtasun-neurrietatik beste edozein ezarri ahal izango zaio. Barnealdia ezin da izan subjektua erantzulea dela adierazi izan balitz zigor askatasun-gabetzaileak iraungo zukeen denbora baino luzeagoa; eta, ondore horretarako, epaile edo auzitegiak gehieneko muga hori epaian ezarriko du.

2. Barnealdiko neurriaren menpe dagoenak ezin izango du establezimendua utzi epaile edo auzitegi epai-emailearen baimenik gabe, kode honen 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

102. artikulua

1. Beharrezkoa bada, 20. artikuluaren 2. zenbakiaren arabera erantzu-

tículo 20 se les aplicará, si fuere necesaria, la medida de internamiento en centro de deshabituación público, o privado debidamente acreditado u homologado, o cualquiera otra de las medidas previstas en el apartado 3 del artículo 96. El internamiento no podrá exceder del tiempo que habría durado la pena privativa de libertad, si el sujeto hubiere sido declarado responsable, y a tal efecto el Juez o Tribunal fijará ese límite máximo en la sentencia.

2. El sometido a esta medida no podrá abandonar el establecimiento sin autorización del Juez o Tribunal sentenciador de conformidad con lo previsto en el artículo 97 de este Código.

Artículo 103

1. A los que fueren declarados exentos de responsabilidad conforme al número 3.º del artículo 20, se les podrá aplicar, si fuere necesaria, la medida de internamiento en un centro educativo especial o cualquier otra de las medidas previstas en el apartado tercero del artículo 96. El internamiento no podrá exceder del tiempo que habría durado la pena privativa de libertad, si el sujeto hubiera sido declarado responsable y, a tal efecto, el Juez o Tribunal fijará en la sentencia ese límite máximo.

2. El sometido a esta medida no podrá abandonar el establecimiento sin autorización del Juez o Tribunal sentenciador de conformidad con lo

kizun penaletik salbuetsita daudenei barnealdiko segurtasun-neurria ezarriko zaie, subjektua behar bezala egiaztatuta edo homologatuta dagoen zentro publiko edo pribatuan sartuz, mendekotasuna gaindi dezan, edo 96. artikuluaren 3. paragrafoan ezarritako segurtasun-neurrietatik beste edozein ezarriko zaie. Barnealdia ezin da izan subjektua erantzulea dela adierazi izan balitz zigor askatasun-gabetzaileak iraungo zukeen denbora baino luzeagoa; eta, ondore horretarako, epaile edo auzitegiak gehieneko muga hori epaian ezarriko du.

2. Barnealdiko neurriaren menpe dagoenak ezin izango du establezimendua utzi epaile edo auzitegi epai-emailearen baimenik gabe, kode honen 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

103. artikulua

1. Beharrezkoa bada, 20. artikuluaren 3. zenbakiaren arabera erantzukizunetik salbuetsita daudenei barnealdiko neurria ezarri ahal izango zaie, subjektua hezkuntza-zentro berezian sartuz, edo 96. artikuluaren hirugarren paragrafoan ezarritako neurrietatik beste edozein ezarri ahal izango zaie. Barnealdia ezin da izan subjektua erantzulea dela adierazi izan balitz zigor askatasun-gabetzaileak iraungo zukeen denbora baino luzeagoa; eta, ondore horretarako, epaile edo auzitegiak gehieneko muga hori epaian ezarriko du.

2. Barnealdiko neurriaren menpe dagoenak ezin izango du establezimendua utzi epaile edo auzitegi epai-emailearen baimenik gabe, kode ho-

previsto en el artículo 97 de este Código.

3. En este supuesto, la propuesta a que se refiere el artículo 97 de este Código deberá hacerse al terminar cada curso o grado de enseñanza.

Artículo 104

1. En los supuestos de eximente incompleta en relación con los números 1.º, 2.º y 3.º del artículo 20, el Juez o Tribunal podrá imponer, además de la pena correspondiente, las medidas previstas en los artículos 101, 102 y 103. No obstante, la medida de internamiento sólo será aplicable cuando la pena impuesta sea privativa de libertad y su duración no podrá exceder de la de la pena prevista por el Código para el delito. Para su aplicación se observará lo dispuesto en el artículo 99.

2. Cuando se aplique una medida de internamiento de las previstas en el apartado anterior o en los artículos 101, 102 y 103, el juez o tribunal sentenciador comunicará al ministerio fiscal, con suficiente antelación, la proximidad de su vencimiento, a efectos de lo previsto por la disposición adicional primera de este Código.

SECCIÓN II

Artículo 105

En los casos previstos en los artículos 101 a 104, el Juez o Tribunal, cuan-

nen 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Kasu horretan, 97. artikuluak aipatzen duen proposamena ikastaldi edo hezkuntza-maila bakoitza amaitutakoan egin beharko da.

104. artikulua

1. Salbuesle osatugabearen kasuetan, kasuan kasuko zigorraz gain, 101, 102 eta 103. artikuluetako neurriak ezarri ahal izango ditu epaile edo auzitegiak, baldin eta salbuesle osatugabearen kasu horiek 20. artikuluko 1, 2 eta 3. zenbakiekin loturik badaude. Dena den, barnealdiko neurria ezartzeko, epaian ezarritako zigorrak zigor askatasun-gabetzailea izan behar du, eta neurri horrek ezin izango du iraun Kodeak delituari ezartzen dion zigorrak baino gehiago. Neurria ezartzeko, 99. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

2. Aurreko paragrafoan edo 101, 102 nahiz 103. artikuluan aipatutako barnealdi-neurrietatik bat ezartzen bada, epaile edo auzitegi epai-emaileak, behar besteko aurrerapenarekin eta kode honen lehenengo xedapen gehigarrian agindutakoaren ondoreetarako, Fiskaltzari komunikatuko dio mugaeguna hurbil dagoela.

II. ATALA

105. artikulua

101. artikulutik 104.erakoetan ezarritako kasuetan, epaile edo auzitegiak,

do imponga la medida privativa de libertad, o durante la ejecución de la misma, podrá acordar razonadamente la obligación de que el sometido a la medida observe una o varias de las siguientes medidas:

1. Por un tiempo no superior a cinco años:

a) Sumisión a tratamiento externo en centros médicos o establecimientos de carácter socio-sanitario.

b) Obligación de residir en un lugar determinado.

c) Prohibición de residir en el lugar o territorio que se designe. En este caso, el sujeto quedará obligado a declarar el domicilio que elija y los cambios que se produzcan.

d) Prohibición de acudir a determinados lugares o territorios, espectáculos deportivos o culturales, o de visitar establecimientos de bebidas alcohólicas o de juego.

e) Custodia familiar. El sometido a esta medida quedará sujeto al cuidado y vigilancia del familiar que se designe y que acepte la custodia, quien la ejercerá en relación con el Juez de Vigilancia y sin menoscabo de las actividades escolares o laborales del custodiado.

f) Sometimiento a programas de tipo formativo, cultural, educativo, profesional, de educación sexual y otros similares.

g) Prohibición de aproximarse a la víctima, o a aquellos de sus familiares u otras personas que determine el

zioak emanez, erabaki ahal izango du, askatasunaz gabetzeko neurria ezartzen duenean, edo hori betearazten den bitartean, neurriaren menpe dagoenak betebeharra izatea hurrengo neurrietatik bat edo batzuk betetzeko:

1. Bost urte baino gehiago irauten ez duen denboraldirako:

a) Medikuntza-zentroetan edo gizarte-osasun izaera duten establezimenduetan kanpoko sendabidearen menpe jartzea.

b) Bizilekua leku jakin batean izateko betebeharra.

c) Izendaturiko leku edo lurraldean bizilekua izateko debekua. Kasu horretan subjektua behartuta egongo da aukeratzen duen egoitza eta gertatzen diren aldaketak adieraztera.

d) Leku nahiz lurralde jakin batzuetara, edo kirol- nahiz kultura-ikuskizun jakin batzuetara joateko debekua, edota edari alkoholdunen saltokiak zein joko-etxeak bisitatzeko debekua.

e) Familia-zaintza. Izendatzen den eta zaintza onartzen duen ahaideak neurri horren menpe dagoena jagon eta zaindu beharko du, eta zaintza hori egikarituko du zaintza-epailearekin harremanetan jarrita, zaintzapekoaren eskola edo lan-jarduerei kalterik egin barik.

f) Heziketa, kultura, hezkuntza, lanbide, sexu-hezkuntza eta horien antzeko egitarauen menpe jartzea.

g) Biktimarengana edo epaile nahiz auzitegiak zehazten dituen biktimaren ahaide edo beste pertsonengana hurbil-

Juez o Tribunal, o de comunicarse con ellos.

2. Por un tiempo de hasta diez años:

a) La privación del derecho a la tenencia y porte de armas.

b) La privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores.

Para decretar la obligación de observar alguna o algunas de las medidas previstas en este artículo, el juez o tribunal sentenciador deberá valorar los informes emitidos por los facultativos y profesionales encargados de asistir al sometido a la medida de seguridad.

El Juez de Vigilancia Penitenciaria o los servicios de la Administración correspondiente informarán al Juez o Tribunal sentenciador.

Artículo 106

En los casos previstos en el artículo anterior, el Juez o Tribunal sentenciador dispondrá que los servicios de asistencia social competentes presten la ayuda o atención que precise y legalmente le corresponda al sometido a medidas de seguridad no privativas de libertad.

Artículo 107

El Juez o Tribunal podrá decretar razonadamente la medida de inhabilitación para el ejercicio de determinado derecho, profesión, oficio, industria o comercio, cargo o empleo, por un tiempo de uno a cinco años, cuando el

tzeko edo horiekin komunikatzeko debekua.

2. Hamar urte arteko denboraldirako:

a) Armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea.

b) Ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetzea.

Artikulu honetan agindu neurrietatik bat edo batzuk betetzeko betebeharra dekreta dadin, epaile edo auzitegi epai-emaileak balioetsiko ditu aditu eta profesionalek emandako txostenak, aditu eta profesional horien ardura denean segurtasun-neurriaren menpe dagoenari laguntza ematea.

Espetxe-zaintzarako epaileak, edo Administrazio eskudunaren zerbitzuek argibideak emango dizkiote epaile edo auzitegi epai-emaileari.

106. artikulua

Aurreko artikuluko kasuetan, epaile edo auzitegi epai-emaileak xedatuko du askatasunaz gabetzen ez duten neurrien menpe dagoenak behar duen eta legez berari dagokion laguntza eman diezaioten gizarte-laguntzako zerbitzu eskudunek.

107. artikulua

Epaile edo auzitegiak, horretarako zioak emanez, dekreta dezake eskubide jakin bat egikaritzeko desgaikuntza neurria, urtebetetik bost artekoa, bai eta lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan, eta kargu edo enplegu jakin

sujeto haya cometido con abuso de dicho ejercicio, o en relación con él, un hecho delictivo, y cuando de la valoración de las circunstancias concurrentes pueda deducirse el peligro de que vuelva a cometer el mismo delito u otros semejantes, siempre que no sea posible imponerle la pena correspondiente por encontrarse en alguna de las situaciones previstas en los números 1.º, 2.º y 3.º del artículo 20.

batean aritzeko desgaikuntza neurria ere, iraupen berdinarekin, baldin eta subjektuak delitu egin badu eskubide horren egikaritzaz abusatuz edo eskubide horren egikaritzaren inguruan, edota delitua egin badu lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan, kargu edo enplegu jakin horretan aritzean edo aritze horren inguruan, eta batera dauden inguruabarrak balioetsita, atera badaiteke subjektuak delitu bera edo horren antzekoak berriro egiteko arriskua dagoela. Hala gertatuko da, subjektuari dagokion zigorra ezin zaionean ezarri, 20. artikuluaren 1, 2 edo 3. zenbakietan ezarritako kasuetatik batean dagoelako.

Artículo 108

1. Si el sujeto fuera extranjero no residente legalmente en España, el juez o tribunal acordará en la sentencia, previa audiencia de aquél, la expulsión del territorio nacional como sustitutiva de las medidas de seguridad que le sean aplicables, salvo que el juez o tribunal, previa audiencia del Ministerio Fiscal, excepcionalmente y de forma motivada, aprecie que la naturaleza del delito justifica el cumplimiento en España.

La expulsión así acordada llevará consigo el archivo de cualquier procedimiento administrativo que tuviera por objeto la autorización para residir o trabajar en España.

En el supuesto de que, acordada la sustitución de la medida de seguridad

108. artikulua

1. Subjektua Espainian legezko bizilekurik ez duen atzerritarra bada, epaile edo auzitegiak, hari entzunaldia egin eta gero, atzerritarra nazio-lurraldetik kanporatzea erabakiko du, atzerritar horri ezar dakizkiokeen segurtasun-neurrien ordez, ezpada epaile edo auzitegiak, aurretiaz Fiskaltzak esan beharrekoa entzunda, salbuespen gisa eta horretarako arrazoiak emanez, bidezkotzat jotzen duenean, delituaren izaera dela eta, kondena Espainian betetzea.

Horrela erabakitako kanporatzeak berarekin ekarriko du administrazio-prozedura guztiak artxibatzea, prozedura horien helburua bada Espainian bizilekua izateko edo bertan lan egiteko baimena lortzea.

Segurtasun-neurriaren ordez, kanporatzea erabaki eta gero, hori ezin

por la expulsión, ésta no pudiera llevarse a efecto, se procederá al cumplimiento de la medida de seguridad originariamente impuesta.

2. El extranjero no podrá regresar a España en un plazo de 10 años, contados desde la fecha de su expulsión.

3. El extranjero que intentara quebrantar una decisión judicial de expulsión y prohibición de entrada a la que se refieren los apartados anteriores será devuelto por la autoridad gubernativa, empezando a computarse de nuevo el plazo de prohibición de entrada en su integridad.

bada burutu, hasieratik ezarritako segurtasun-neurria beteko da.

2. Atzerritarra ezin izango da Espainiara itzuli hamar urteko epean, kanporaketa egunetik zenbatuta.

3. Atzerritarra epailearen kanporatze-erabakia eta aurreko paragrafoek aipatzen duten sarrera-debekua urratzen saiatzen bada, gobernu-agintaritzak atzerritar horren itzulketa burutuko du, eta sarrera-debekuaren epea zenbatzen hasiko da berriz, oso-osorik.

TÍTULO V
DE LA RESPONSABILIDAD CIVIL DERIVADA DE LOS DELITOS Y FALTAS Y DE LAS COSTAS PROCESALES

V. TITULUA
DELITU ETA FALTEN ONDORIOZ SORTURIKO ERANTZUKIZUN ZIBILA. PROZESUKO KOSTUAK

CAPÍTULO I
De la responsabilidad civil y su extensión

I. KAPITULUA
Erantzukizun zibila eta horren hedadura

Artículo 109

1. La ejecución de un hecho descrito por la Ley como delito o falta obliga a reparar, en los términos previstos en las Leyes, los daños y perjuicios por él causados.

2. El perjudicado podrá optar, en todo caso, por exigir la responsabilidad civil ante la Jurisdicción Civil.

109. artikulua

1. Legeak delitu edo falta gisa azaldutako egitatea gauzatzeak behartzen du berak eragindako kalte-galerak konpontzera, legean ezarritakoaren arabera.

2. Edozein kasutan, kaltedunak aukeran izango du erantzukizun zibila jurisdikzio zibilean galdatzea.

Artículo 110

La responsabilidad establecida en el artículo anterior comprende:

1.º La restitución.

2.º La reparación del daño.

3.º La indemnización de perjuicios materiales y morales.

Artículo 111

1. Deberá restituirse, siempre que sea posible, el mismo bien, con abono de los deterioros y menoscabos que el Juez o Tribunal determinen. La restitución tendrá lugar aunque el bien se halle en poder de tercero y éste lo haya adquirido legalmente y de buena fe, dejando a salvo su derecho de repetición contra quien corresponda y, en su caso, el de ser indemnizado por el responsable civil del delito o falta.

2. Esta disposición no es aplicable cuando el tercero haya adquirido el bien en la forma y con los requisitos establecidos por las Leyes para hacerlo irreivindicable.

Artículo 112

La reparación del daño podrá consistir en obligaciones de dar, de hacer o de no hacer que el Juez o Tribunal establecerá atendiendo a la naturaleza de aquél y a las condiciones personales y patrimoniales del culpable, determinando si han de ser cumplidas por él mismo o pueden ser ejecutadas a su costa.

110. artikulua

Aurreko artikuluan ezarritako erantzukizunak hurrengoa dakar:

1.) Itzulketa.

2.) Kaltearen konponketa.

3.) Kalte material eta moralen ordaina ematea.

111. artikulua

1. Ahal denetan, ondasun bera itzuli beharko da, epaile edo auzitegiak zehazten dituen narriadura eta urripenak ordainduz. Itzulketa egingo da, nahiz eta ondasuna, legez eta onustez eskuratuta, hirugarren batek bere esku eduki. Hala ere, hirugarren horrek pertsona egokiaren aurka berreskaera-eskubidea izango du eta, hala denean, delitu edo falten ondorioz erantzukizun zibila duenarengandik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ere bai.

2. Aurreko xedapen hori ezin da aplikatu, hirugarrenak ondasuna eskuratu badu erreibindikaezina izateko legeek ezarritako era eta betekizunak errespetatuta.

112. artikulua

Kaltea konpontzea zerbait emateko, egiteko edo ez egiteko betebeharra izan daiteke. Betebehar horiek epaile edo auzitegiak ezarriko ditu, kaltearen izaera eta errudunaren beraren inguruabarrak nahiz beraren ondarearenak kontuan izanik. Era berean, erabakiko du betebeharrak errudunak berak bete behar dituen ala beraren kontura betearazi ahal diren.

Artículo 113

La indemnización de perjuicios materiales y morales comprenderá no sólo los que se hubieren causado al agraviado, sino también los que se hubieren irrogado a sus familiares o a terceros.

Artículo 114

Si la víctima hubiere contribuido con su conducta a la producción del daño o perjuicio sufrido, los Jueces o Tribunales podrán moderar el importe de su ción o indemnización.

Artículo 115

Los Jueces y Tribunales, al declarar la existencia de responsabilidad civil, establecerán razonadamente, en sus resoluciones las bases en que fundamenten la cuantía de los daños e indemnizaciones, pudiendo fijarla en la propia resolución o en el momento de su ejecución.

113. artikulua

Kalte moral eta materialen ordainak bere barnean hartuko ditu laidotuari eragindakoak, eta beraren ahaideei eta gainerakoei eragindakoak ere bai.

114. artikulua

Biktimak bere jokabidearekin lagundu badu jasandako kalte edo galera sortzen, epaile edo auzitegiek kalte edo galeraren konponketa edo kalte-ordainaren zenbatekoa murriztu ahal izango dute.

115. artikulua

Epaile eta auzitegiek, erantzukizun zibila badela adierazten dutenean, euren ebazpenetan ezarriko dute, horretarako zioak emanez, zein oinarri erabili duten kalteen eta horien ordainen zenbatekoa funtsatzeko; zenbateko hori ebazpenean bertan nahiz hori betearaztean finka dezakete.

CAPÍTULO II

De las personas civilmente responsables

Artículo 116

1. Toda persona criminalmente responsable de un delito o falta lo es también civilmente si del hecho se derivaren daños o perjuicios. Si son dos o más los responsables de un delito o falta lo Jueces o Tribunales señalarán la cuota de que deba responder cada uno.

II. KAPITULUA

Erantzukizun zibila duten pertsonak

116. artikulua

1. Delitu edo faltarengatik erantzukizun kriminala duen pertsona orok erantzukizun zibila ere badu izan, baldin eta egitateak kalte edo galerak ekartzen baditu. Delitu edo faltaren ondorioz erantzuleak bi edo gehiago badira, epaile edo auzitegiek ezarriko dute bakoitzari dagokion erantzukizun-kuota.

2. Los autores y los cómplices, cada uno dentro de su respectiva clase, serán responsables solidariamente entre sí por sus cuotas, y subsidiariamente por las correspondientes a los demás responsables.

La responsabilidad subsidiaria se hará efectiva: primero, en los bienes de los autores, y después, en los de los cómplices.

Tanto en los casos en que se haga efectiva la responsabilidad solidaria como la subsidiaria, quedará a salvo la repetición del que hubiere pagado contra los demás por las cuotas correspondientes a cada uno.

Artículo 117

Los aseguradores que hubieren asumido el riesgo de las responsabilidades pecuniarias derivadas del uso o explotación de cualquier bien, empresa, industria o actividad, cuando, como consecuencia de un hecho previsto en este Código, se produzca el evento que determine el riesgo asegurado, serán responsables civiles directos hasta el límite de la indemnización legalmente establecida o convencionalmente pactada, sin perjuicio del derecho de repetición contra quien corresponda.

Artículo 118

1. La exención de la responsabilidad criminal declarada en los números 1.º, 2.º, 3.º, 5.º y 6.º del artículo 20, no comprende la de la responsabilidad civil, que se hará efectiva conforme a las reglas siguientes:

2. Egile eta sopikunek, nork bere motakoen barnean, euren kuotengatik era solidarioan erantzungo dute, eta gainerako erantzuleei dagozkien kuotengatik, berriz, modu subsidiarioan.

Erantzukizun subsidiarioa ordainduko da, lehenengoz egileen ondasunen bidez, eta gero sopikunen ondasunen bidez.

Erantzukizun solidario nahiz subsidiarioaren bidez ordaintzen den kasuetan, ordaindu duenak berreskaera-eskubidea izango du gainerakoen aurka, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

117. artikulua

Aseguratzaileek edozein ondasun, enpresa, industria edo jardueraren erabilera edo ustiapenetatik sortzen den diruzko erantzukizunen arriskua bereganatzen badute, eta asegurupeko arriskuaren barruan badago kode honetan ezarritako egitatearen ondorioz gertatzen den jazokuntza, orduan, beraiek zuzeneko erantzukizun zibila izango dute, legearen bidez ezarritako edo hitzarmenaren bidez itundutako kalte-ordainaren mugaraino, dagokion pertsonaren aurkako berreskaera-eskubideari kalterik egin gabe.

118. artikulua

1. 20. artikuluaren 1, 2, 3, 5 eta 6. zenbakietan adierazitako erantzukizun kriminalaren salbuespenak ez du erantzukizun zibilarena barneratuko, eta erantzukizun zibil hori ordainduko da hurrengo erregelen arabera:

1.ª En los casos de los números 1.º y 3.º, son también responsables por los hechos que ejecuten los declarados exentos de responsabilidad penal quienes los tengan bajo su potestad o guarda legal o de hecho, siempre que haya mediado culpa o negligencia por su parte y sin perjuicio de la responsabilidad civil directa que pudiera corresponder a los imputables.

Los Jueces o Tribunales graduarán de forma equitativa la medida en que deba responder con sus bienes cada uno de dichos sujetos.

2.ª Son igualmente responsables el ebrio y el intoxicado en el supuesto del número 2.º.

3.ª En el caso del número 5.º serán responsables civiles directos las personas en cuyo favor se haya precavido el mal, en proporción al perjuicio que se les haya evitado, si fuera estimable o, en otro caso, en la que el Juez o Tribunal establezca según su prudente arbitrio.

Cuando las cuotas de que deba responder el interesado no sean equitativamente asignables por el Juez o Tribunal, ni siquiera por aproximación, o cuando la responsabilidad se extienda a las Administraciones Públicas o a la mayor parte de una población y, en todo caso, siempre que el daño se haya causado con asentimiento de la autoridad o de sus agentes, se acordará, en su caso, la indemnización en la forma que establezcan las leyes y reglamentos especiales.

1.) 20. artikuluaren 1 eta 3. zenbakien kasuetan, zigor-erantzukizunetik salbuetsita daudenak norbaiten ahalpean edota legezko nahiz egitezko zaintzapean badaude, orduan, ahal edo zaintzaren ardura duenak ere erantzukizuna izango du, haiek gauzatutako egitateengatik, baldin eta erruz edo zabarkeriaz jardun badu; horrek ez dio kalterik egingo subjektu egozgarriei ezar dakiekeen zuzeneko erantzukizun zibilari.

Epaile edo auzitegiek ekitatez mailakatuko dute horietako subjektu bakoitzak duen erantzukizuna, beraren ondasunekin erantzuteko.

2.) Era berean, 2. zenbakiaren kasuan erantzuleak dira mozkorra eta toxikatua.

3.) 5. zenbakiaren kasuan, kalteari aurre hartzen zaionean pertsona batzuen alde, pertsona horiek zuzeneko erantzukizun zibila izango dute, euren alde kaltea saihestu den proportzioan, baldin eta kaltea antzeman badaiteke; bestela, zuzeneko erantzukizun zibila izango dute, epaile edo auzitegiak, bere sen onaren arabera, ezartzen duen proportzioan.

Interesdunak kuota batzuengatik erantzun behar duenean, eta epaile edo auzitegiak kuota horiek ezin dituenean ekitatez esleitu, ezta hurbilketaren bidez ere; edo erantzukizuna Herri Administrazioari zein herri bateko biztanleriaren gehiengoari zabaltzen zaienean; eta, edozein kasutan, kaltea agintaritzaren edo beraren agenteen adostasunarekin eragin denean, kalte-ordaina legeek eta erregelamendu bereziek ezartzen duten modura egitea erabakiko da, halakorik badenean.

4.ª En el caso del número 6.º, responderán principalmente los que hayan causado el miedo, y en defecto de ellos, los que hayan ejecutado el hecho.

2. En el caso del artículo 14, serán responsables civiles los autores del hecho.

Artículo 119

En todos los supuestos del artículo anterior, el Juez o Tribunal que dicte sentencia absolutoria por estimar la concurrencia de alguna de las causas de exención citadas, procederá a fijar las responsabilidades civiles salvo que se haya hecho expresa reserva de las acciones para reclamarlas en la vía que corresponda.

Artículo 120

Son también responsables civilmente, en defecto de los que lo sean criminalmente:

1.º Los padres o tutores, por los daños y perjuicios causados por los delitos o faltas cometidos por los mayores de dieciocho años sujetos a su patria potestad o tutela y que vivan en su compañía, siempre que haya por su parte culpa o negligencia.

2.º Las personas naturales o jurídicas titulares de editoriales, periódicos, revistas, estaciones de radio o televisión o de cualquier otro medio de difusión escrita, hablada o visual, por los delitos o faltas cometidos utilizando los medios de los que sean titulares, dejando a salvo lo dispuesto en el artículo 212 de este Código.

4.) 6. zenbakiaren kasuan, erantzukizun nagusia izango dute beldurra eragin dutenek, eta, horrelakorik izan ezean, egitatea gauzatu dutenek.

2. 14. artikuluaren kasuan, egitatea gauzatu dutenek izango dute erantzukizun zibila.

119. artikulua

Aurreko artikuluaren kasu guztietan, epaile edo auzitegiak aipaturiko salbuespen-arrazoietatik bat gertatzen dela uste badu, eta horren ondorioz absolbitzeko epaia ematen badu, erantzukizun zibilak ezarriko ditu, salbu eta beren beregi akzioak gorde direnean erantzukizun horiek bide egokian eskatzeko.

120. artikulua

Hurrengo hauek ere erantzukizun zibila dutenak dira, erantzukizun kriminala dutenen lekuan:

1.) Guraso edo tutoreak; hemezortzi urte baino gehiago izan, guraso-ahalpean edo tutoretzapean egon eta horiekin bizi direnek, delitu edo faltak gauzatu eta kalte-galerak eragin badituzte, betiere erantzuleen errua edo zabarkeria dagoenean.

2.) Argitaletxe, egunkari, aldizkari, irrati edo telebista-kateen titularrak edo idatzitako, ahozko edo ikusmenezko beste edozein hedabideren titularrak diren pertsona natural edo juridikoak; euren komunikabideez baliaturik, egindako delitu edo faltengatik, kode honen 212. artikuluan xedatutakoa baztertu barik.

3.º Las personas naturales o jurídicas, en los casos de delitos o faltas cometidos en los establecimientos de los que sean titulares, cuando por parte de los que los dirijan o administren, o de sus dependientes o empleados, se hayan infringido los reglamentos de policía o las disposiciones de la autoridad que estén relacionados con el hecho punible cometido, de modo que éste no se hubiera producido sin dicha infracción.

4.º Las personas naturales o jurídicas dedicadas a cualquier género de industria o comercio, por los delitos o faltas que hayan cometido sus empleados o dependientes, representantes o gestores en el desempeño de sus obligaciones o servicios.

5.º Las personas naturales o jurídicas titulares de vehículos susceptibles de crear riesgos para terceros, por los delitos o faltas cometidos en la utilización de aquéllos por sus dependientes o representantes o personas autorizadas.

Artículo 121

El Estado, la Comunidad Autónoma, la provincia, la isla, el municipio y demás entes públicos, según los casos, responden subsidiariamente de los daños causados por los penalmente responsables de los delitos dolosos o culposos, cuando éstos sean autoridad, agentes y contratados de la misma o funcionarios públicos en el ejercicio de sus cargos o funciones siempre que la lesión sea consecuencia directa del funcionamiento de los servicios públicos que

3.) Establezimenduen titularrak diren pertsona natural edo juridikoak; euren establezimenduetan egiten diren delitu edota faltengatik, establezimendu horiek zuzendu edo administratzen dituztenek, edo euren menpekoek edo enplegatuek, poliziaren erregelamenduak edo agintaritzaren xedapenak hausten dituztenean, betiere, hautsitako erregelamendu edo xedapen horiek gauzatu eta zigortzekoa den egitatearekin loturik daudenean, aipatutako arau-hausterik gabe egitate hori gertatu ez balitz.

4.) Edozein motatako industria edo merkataritzan aritzen diren pertsona natural edo juridikoak; euren enplegatuek edo menpekoek, ordezkariek edo kudeatzaileek betebeharrak edo zerbitzuak betetzean egin dituzten delitu edota faltengatik.

5.) Gainerakoentzat arriskua sor dezaketen ibilgailuen titularrak, pertsona natural edo juridikoak; euren menpekoek edo ordezkariek edo baimendutako pertsonek ibilgailu horiek erabiltzean egiten dituzten delitu edo faltengatik.

121. artikulua

Estatuak, autonomia erkidegoak, probintziak, uharteak, udalerriak eta gainerako herri-erakundeek, kasuan-kasuan, erantzukizun subsidiarioa dute, doloz edo erruz egindako delituen erantzule penalek eragiten dituzten kalteengatik, baldin eta erantzule horiek beren kargu edo funtzioetan diharduten agintaritza, agintaritzaren agente eta kontratudunak, edota funtzionario publikoak badira, betiere, lesioa euren esku utzitako zerbitzu publikoen jardunbidearen zuze-

les estuvieren confiados, sin perjuicio de la responsabilidad patrimonial derivada del funcionamiento normal o anormal de dichos servicios exigible conforme a las normas de procedimiento administrativo, y sin que, en ningún caso, pueda darse una duplicidad indemnizatoria.

Si se exigiera en el proceso penal la responsabilidad civil de la autoridad, agentes y contratados de la misma o funcionarios públicos, la pretensión deberá dirigirse simultáneamente contra la Administración o ente público presuntamente responsable civil subsidiario.

Artículo 122

El que por título lucrativo hubiere participado de los efectos de un delito o falta, está obligado a la restitución de la cosa o al resarcimiento del daño hasta la cuantía de su participación.

neko ondorioa denean. Horrek ez dio kalterik egingo zerbitzu horien ohiko edo ez-ohiko jardunbidearen ondoriozko ondare-erantzukizunari; erantzukizun hori galda daiteke administrazio-prozedurari buruzko arauen arabera, baina ezin izango da inoiz ere kalte-ordaina bi aldiz eman.

Agintaritza, beraren agente eta kontratudunen edo funtzionario publikoen erantzukizun zibila galdatzen bada zigor-zuzenbideko prozesuan, uzia aldi berean bideratu behar da ustez erantzukizun zibil subsidiarioa duen Administrazio edo herri-erakundearen aurka.

122. artikulua

Norbaitek, irabaziaren truk, delitu edo faltaren ondoreetan parte hartu badu, gauza itzultzera edo kalte-ordaina ematera behartuta dago bere partaidetzaren zenbatekoaren neurrian.

CAPÍTULO III
De las costas procesales

Artículo 123

Las costas procesales se entienden impuestas por la Ley a los criminalmente responsables de todo delito o falta.

Artículo 124

Las costas comprenderán los derechos e indemnizaciones ocasionados en las actuaciones judiciales e incluirán siempre los honorarios de la acusación particular en los delitos sólo perseguibles a instancia de parte.

III. KAPITULUA
Prozesuko kostuak

123. artikulua

Legeak edozein delitu edo faltarengatik erantzukizun kriminala duten guztiei prozesuko kostuak ezartzen dizkiela ulertzen da.

124. artikulua

Prozesuko kostuek jardun judizialean sorrarazitako eskubide eta kalte-ordainak barnean hartuko dituzte, bai eta akusazio partikularraren lansariak ere, alderdiak hala eskaturik bakarrik pertsegi daitezkeen delituak badira.

CAPÍTULO IV

Del cumplimiento de la responsabilidad civil y demás responsabilidades pecuniarias

Artículo 125

Cuando los bienes del responsable civil no sean bastantes para satisfacer de una vez todas las responsabilidades pecuniarias, el Juez o Tribunal, previa audiencia al perjudicado, podrá fraccionar su pago, señalando, según su prudente arbitrio y en atención a las necesidades del perjudicado y a las posibilidades económicas del responsable, el período e importe de los plazos.

Artículo 126

1. Los pagos que se efectúen por el penado o el responsable civil subsidiario se imputarán por el orden siguiente:

1.º A la reparación del daño causado e indemnización de los perjuicios.

2.º A la indemnización al Estado por el importe de los gastos que se hubieran hecho por su cuenta en la causa.

3.º A las costas del acusador particular o privado cuando se impusiere en la sentencia su pago.

4.º A las demás costas procesales, incluso las de la defensa del procesado, sin preferencia entre los interesados.

5.º A la multa.

2. Cuando el delito hubiere sido de los que sólo pueden perseguirse a instancia de parte, se satisfarán las costas del acusador privado con preferencia a la indemnización del Estado.

IV. KAPITULUA

Erantzukizun zibila eta diruzko beste erantzukizunak betetzea

125. artikulua

Erantzule zibilak nahikoa ondasunik ez duenean diruzko erantzukizun guztiak batera ordaintzeko, epaile edo auzitegiak, kaltedunari entzunaldia eman eta gero, ordainketa zatitu ahal izango du, eta, bere sen onaren arabera, epeen aldia eta zenbatekoa ezarriko ditu, kaltedunaren beharrizanak eta erantzulearen ahalbide ekonomikoak kontuan izanik.

126. artikulua

1. Zigortuak edo erantzule zibil subsidiarioak eginiko ordainketak hurrengo hurrenkeraren arabera egotziko dira:

1.) Eragindako kaltearen konponketa eta galeren ordaina.

2.) Estatuari dagokion kalte-ordaina, auzian zehar beraren kontura egin diren gastuen zenbatekoan.

3.) Akusatzaile partikular edo pribatuaren kostuak, epaian ezartzen bada kostu horien ordainketa.

4.) Prozesuko gainerako kostuak, auziperatuaren defentsakoak barne, interesdunen arteko lehenespen barik.

5.) Isuna.

2. Alderdiak eskaturik bakarrik pertsegi daitezkeen delituetatik bat denean, akusatzaile pribatuaren kostuak ordainduko dira estatuari dagokion kalte-ordaina baino lehenago.

TÍTULO VI

DE LAS CONSECUENCIAS ACCESORIAS

Artículo 127

1. Toda pena que se imponga por un delito o falta dolosos llevará consigo la pérdida de los efectos que de ellos provengan y de los bienes, medios o instrumentos con que se haya preparado o ejecutado, así como las ganancias provenientes del delito o falta, cualesquiera que sean las transformaciones que hubieren podido experimentar. Los unos y las otras serán decomisados, a no ser que pertenezcan a un tercero de buena fe no responsable del delito que los haya adquirido legalmente.

2. Si por cualquier circunstancia no fuera posible el comiso de los bienes señalados en el apartado anterior, se acordará el comiso por un valor equivalente de otros bienes que pertenezcan a los criminalmente responsables del hecho.

3. El juez o tribunal podrá acordar el comiso previsto en los apartados anteriores de este artículo aun cuando no se imponga pena a alguna persona por estar exenta de responsabilidad criminal o por haberse ésta extinguido, en este último caso, siempre que quede demostrada la situación patrimonial ilícita.

4. Los que se decomisan se venderán, si son de lícito comercio, aplicándose su producto a cubrir las responsabilidades civiles del penado si la ley no previera otra cosa, y, si no lo son, se les dará el destino que se disponga re-

VI. TITULUA

ERANTSITAKO ONDORIOAK

127. artikulua

1. Dolozko delitu edo faltarengatik ezarritako zigor guztiek ekarriko dute delitu edo falta horren efektuen galera, delitu edo falta hori prestatzeko nahiz egikaritzeko erabili diren ondasun, bitarteko edo tresnen galera eta delitu zein falta horretatik datozen irabaziena, edozein transformazio izan badute ere. Batzuk zein besteak konfiskatuko dira, onustedun hirugarrenarenak direnean izan ezik, delituaren ondorioz erantzukizunik ez badu, eta legez eskuratu baditu.

2. Edozein inguruabar dela eta, aurreko paragrafoan aipatu ondasunak ezin badira konfiskatu, balio bera duten beste ondasun batzuk konfiskatuko dira, ondasunok egitatearen erantzule kriminalei dagozkien heinean.

3. Epaile edo auzitegiak artikulu honen aurreko paragrafoetan ezarritako konfiskazioa erabaki dezake, nahiz eta zigorra inori ezarri ez, pertsona hori erantzukizun kriminaletik salbuetsita dagoelako edo erantzukizun kriminala azkendu egin delako; azken kasu horretan, nahitaezkoa da zilegi ez den ondare-egoera egiaztatzea.

4. Konfiskatzen direnak saldu egingo dira, legeak bestelakoa agindu ez eta merkataritza zilegiko objektuak badira, eta salmentan lortzen denarekin zigortuaren erantzukizun zibilak ordainduko dira; aldiz, halakoak ez badi-

glamentariamente y, en su defecto, se inutilizarán.

Artículo 128

Cuando los referidos efectos e instrumentos sean de lícito comercio y su valor no guarde proporción con la naturaleza o gravedad de la infracción penal, o se hayan satisfecho completamente las responsabilidades civiles, podrá el Juez o Tribunal no decretar el decomiso, o decretarlo parcialmente.

Artículo 129

1. El Juez o Tribunal, en los supuestos previstos en este Código, y sin perjuicio de lo establecido en el artículo 31 del mismo, previa audiencia del Ministerio Fiscal y de los titulares o de sus representantes legales, podrá imponer, motivadamente, las siguientes consecuencias:

a) Clausura de la empresa, sus locales o establecimientos, con carácter temporal o definitivo. La clausura temporal no podrá exceder de cinco años.

b) Disolución de la sociedad, asociación o fundación.

c) Suspensión de las actividades de la sociedad, empresa, fundación o asociación por un plazo que no podrá exceder de cinco años.

d) Prohibición de realizar en el futuro actividades, operaciones mercantiles o negocios de la clase de aquellos en cuyo ejercicio se haya cometido, favorecido o encubierto el delito.

ra, erregelamenduen arabera xedatutakoa egingo da beraietan eta, ezer xedatu ezean, deuseztatu egingo dira.

128. artikulua

Aipaturiko efektu eta tresnak merkataritza zilegikoak direnean eta horien balioa arau-hauste penalaren izate edo astuntasunarekin proportzioaren araberakoa ez denean, edo erantzukizun zibilak guztiz ordaindu direnean, epaile edo auzitegiak erabaki dezake konfiskazioa ez dekretatzea, edo zati batean dekretatzea.

129. artikulua

1. Epaile edo auzitegiak, zioak emanez eta kode honen 31. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, hurrengo ondorioak ezarri ahal izango ditu kode honetan ezarritako kasuetan, Fiskaltzari eta titularrei edo horien lege-ordezkariei entzunaldia egin eta gero:

a) Enpresa, beraren lokal edo establezimenduak aldi baterako edo behin betiko ixtea. Dena den, aldi baterako itxiz gero, itxialdiak ezin izango du bost urte baino gehiago iraun.

b) Sozietate, elkarte edo fundazioa desegitea.

c) Sozietate, enpresa, fundazio edo elkartearen jarduerak etetea, baina etendura-epeak ezin izango du bost urte baino gehiago iraun.

d) Etorkizunean jarduerak, merkataritzako eragiketak edo negozioak egitea debekatzea, baldin eta jarduera mota horiek gauzatzean edo merkatari-

vorecido o encubierto el delito. Está prohibición podrá tener carácter temporal o definitivo. Si tuviere carácter temporal, el plazo de prohibición no podrá exceder de cinco años.

e) La intervención de la empresa para salvaguardar los derechos de los trabajadores o de los acreedores por el tiempo necesario y sin que exceda de un plazo máximo de cinco años.

2. La clausura temporal prevista en el subapartado a) y la suspensión señalada en el subapartado c) del apartado anterior, podrán ser acordadas por el Juez Instructor también durante la tramitación de la causa.

3. Las consecuencias accesorias previstas en este artículo estarán orientadas a prevenir la continuidad en la actividad delictiva y los efectos de la misma.

tzako eragiketa zein negozio mota horiek gauzatzean delitua egin, ahalbideratu edo estali bada. Debeku hori aldi baterakoa edo behin betikoa izan daiteke. Aldi baterako debekuak ezin izango du bost urte baino gehiago iraun.

e) Enpresaren gaineko esku-hartzea, langileen eta hartzekodunen eskubideak zaintzeko, beharrezkoa den denboran zehar. Esku-hartze horrek ezin du bost urte baino gehiago iraun.

2. Instrukzioko epaileak erabaki ahal izango du, auziaren izapideak egiten diren bitartean ere, aurreko paragrafoaren a) idatz-zatiko aldi baterako itxiera eta c) idatz-zatiko etendura ezartzea.

3. Artikulu honetan ezarritako ondorio erantsiak bideratuta egongo dira delitugintzan jarduten jarraitzea eta horren ondoreak aurrez zaintzera.

TÍTULO VII
DE LA EXTINCIÓN DE LA RESPONSABILIDAD CRIMINAL Y SUS EFECTOS

CAPÍTULO I
De las causas que extinguen la responsabilidad criminal

Artículo 130

La responsabilidad criminal se extingue:

1.º Por la muerte del reo.

VII. TITULUA
ERANTZUKIZUN KRIMINALA AZKENTZEA ETA HORREN ONDOREAK

I. KAPITULUA
Erantzukizun kriminala azkentzen duten arrazoiak

130. artikulua

Hurrengo hauek dira erantzukizun kriminala azkentzen dutenak:

1.) Errudunaren heriotza.

2.º Por el cumplimiento de la condena.

3.º Por remisión definitiva de la pena, conforme a lo dispuesto en el artículo 85.2 de este Código.

4.º Por el indulto.

5.º Por el perdón del ofendido, cuando la ley así lo prevea. El perdón habrá de ser otorgado de forma expresa antes de que se haya dictado sentencia, a cuyo efecto, el Juez o Tribunal sentenciador deberá oir al ofendido por el delito antes de dictarla.

En los delitos o faltas contra menores o incapacitados, los Jueces o Tribunales, oído el Ministerio Fiscal, podrán rechazar la eficacia del perdón otorgado por los representantes de aquéllos, ordenando la continuación del procedimiento, con intervención del Ministerio Fiscal, o el cumplimiento de la condena.

Para rechazar el perdón a que se refiere el párrafo anterior, el Juez o Tribunal deberá oír nuevamente al representante del menor o incapaz.

6.º Por la prescripción del delito.

7.º Por la prescripción de la pena o de la medida de seguridad.

Artículo 131

1. Los delitos prescriben:

A los veinte años, cuando la pena máxima señalada al delito sea prisión de quince o más años.

2.) Kondena betetzea.

3.) Zigorra behin betiko kentzea, kode honen 85.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

4.) Indultua.

5.) Ofendituaren barkamena, legeak hala ezartzen duenean. Barkamena beren beregi eman behar da epaia eman baino lehenago, eta, horretarako, ofendituak esan beharrekoa entzun beharko du epaile edo auzitegi epai-emaileak, epaia eman aurretik.

Adingabeen edo ezgaituen aurkako delitu edo faltetan, epaile edo auzitegiek, Fiskaltzak esan beharrekoa entzun eta gero, eragingarritasunik gabe utzi ahal izango dute haien ordezkariek emandako barkamena eta, ondoren, aginduko dute, Fiskaltzaren esku-hartzearekin, prozedurak aurrera egitea edo kondena betetzea.

Aurreko lerrokadan aipatzen den barkamena eragingarritasunik gabe uzteko, epaile edo auzitegiak berriz entzun beharko du adingabearen edo ezgaiaren ordezkariak esan beharrekoa.

6.) Delituaren preskripzioa.

7.) Zigorraren edo segurtasun-neurriaren preskripzioa.

131. artikulua

1. Delituen preskripzio-denbora hauxe da:

Hogei urtekoa, baldin eta delituari ezarririko gehieneko zigorra hamabost urteko edo denbora luzeagoko espetxealdia bada.

A los quince, cuando la pena máxima señalada por la Ley sea inhabilitación por más de diez años, o prisión por más de diez y menos de quince años.

A los diez, cuando la pena máxima señalada por la Ley sea prisión o inhabilitación por más de cinco años y que no exceda de diez.

A los cinco, cuando la pena máxima señalada por la ley sea prisión o inhabilitación por más de tres años y que no excede de cinco.

A los tres, los restantes delitos menos graves.

Los delitos de calumnia e injuria prescriben al año.

2. Las faltas prescriben a los seis meses.

3. Cuando la pena señalada por la Ley fuere compuesta, se estará, para la aplicación de las reglas comprendidas en este artículo, a la que exija mayor tiempo para la prescripción.

4. Los delitos de lesa humanidad y de genocidio y los delitos contra las personas y bienes protegidos en caso de conflicto armado, no prescribirán en ningún caso.

Artículo 132

1. Los términos previstos en el artículo precedente se computarán desde el día en que se haya cometido la infracción punible. En los casos de delito

Hamabost urtekoa, baldin eta legeak ezarririko gehieneko zigorra hamar urtekoa baino denbora luzeagoko desgaikuntza bada, edo hamar urte baino denbora luzeagoko eta hamabostekoa baino laburragoko espetxealdia bada.

Hamar urtekoa, baldin eta legeak ezarririko gehieneko zigorra bost urtekoa baino denbora luzeagoko eta hamarrekoa baino laburragoko espetxealdia edo desgaikuntza bada.

Bost urtekoa, baldin eta legeak ezarririko gehieneko zigorra hiru urtekoa baino denbora luzeagoko eta bost baino laburragoko espetxealdia edo desgaikuntza bada.

Hiru urtekoa, gainerako delituen kasuan, hain astunak ez direnak.

Urtebetekoa, kalumnia- eta irain-delituen kasuan.

2. Falten preskripzio-denbora sei hilabetekoa da.

3. Legeak ezarritako zigorra elkartua denean, artikulu honetara bildutako erregelak aplikatzeko, kontuan hartuko da preskripzio-denborarik luzeena behar duen zigorra.

4. Gizateriaren aurkako delituek, genozidio-delituek eta gatazka armatuaren kasuan babesturiko ondasun nahiz pertsonen aurka egindako delituek ez daukate inoiz ere preskripziorik.

132. artikulua

1. Aurreko artikuluan ezarritako epe-mugak zenbatuko dira, zigortzekoa den arau-haustea egiten den egunetik. Delitu jarraituaren eta delitu

continuado, delito permanente, así como en las infracciones que exijan habitualidad, tales términos se computarán, respectivamente, desde el día en que se realizó la última infracción, desde que se eliminó la situación ilícita o desde que cesó la conducta.

En la tentativa de homicidio y en los delitos de aborto no consentido, lesiones, contra la libertad, de torturas y contra la integridad moral, la libertad e indemnidad sexuales, la intimidad, el derecho a la propia imagen y la inviolabilidad de domicilio, cuando la víctima fuere menor de edad, los términos se computarán desde el día en que ésta haya alcanzado la mayoría de edad, y si falleciere antes de alcanzarla, a partir de la fecha de fallecimiento.

2. La prescripción se interrumpirá, quedando sin efecto el tiempo transcurrido, cuando el procedimiento se dirija contra el culpable, comenzando a correr de nuevo el término de la prescripción desde que se paralice el procedimiento o se termine sin condena.

Artículo 133

1. Las penas impuestas por sentencia firme prescriben:

A los treinta años, las de prisión por más de veinte años.

A los veinticinco años, las de prisión de quince o más años sin que excedan de veinte.

iraunkorraren kasuetan, bai eta ohikotasuna behar duten arau-hausteetan ere, epe-muga horiek zenbatuko dira, hurrenez hurren, azken arau-haustea egiten den egunetik, zilegi ez den egoera ezabatu denetik edo jokabidea amaitu denetik.

Giza hilketaren saiakuntzan, eta adostasunik gabeko abortuan, lesio-delituan, askatasunaren aurkako delituan, tortura-delituan, eta osotasun moralaren, sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren, bizitza pribatuaren eta norberaren irudirako eskubidearen aurkako delituetan, bai eta egoitzaren bortxaezintasunaren aurkako delituetan ere, biktima adingabea bada, epe-mugak zenbatuko dira biktimak adin-nagusitasuna lortzen duen egunetik, edo heriotza-egunetik, adin-nagusitasuna lortu aurretik, biktima hiltzen bada.

2. Preskripzio-denbora geldiarazi egingo da, prozedura errudunaren aurka bideratzen denean, eta igarotako denborak ez du ondorerik izango; baina prozedura gerarazten denetik edo prozedura kondena barik amaitzen denetik epe-muga berriz zenbatzen hasiko da.

133. artikulua

1. Epai irmoaren bidez ezarritako zigorren preskripzio-denbora hurrengoa da:

Hogeita hamar urtekoa, hogei urtekoak baino denbora luzeagoko espetxealdi-zigorren kasuan.

Hogeita bost urtekoa, hamabost urteko edo hortik gorako espetxealdi-zigorren kasuan, betiere hogei urtekoak baino luzeagoak ez direnean.

A los veinte, las de inhabilitación por más de diez años y las de prisión por más de diez y menos de quince.

Hogei urtekoa, hamar urte baino denbora luzeagoko desgaikuntzako zigorren kasuan, eta hamar urte baino denbora luzeagoko eta hamabost urte baino denbora laburragoko espetxealdi-zigorren kasuan.

A los quince, las de inhabilitación por más de seis y que no excedan de diez años y las de prisión por más de cinco y que no excedan de diez años.

Hamabost urtekoa, sei urte baino denbora luzeagoko eta hamar urte baino denbora laburragoko desgaikuntzako zigorren kasuan, eta bost urte baino denbora luzeagoko eta hamar urte baino denbora laburragoko espetxealdi-zigorren kasuan.

A los diez, las restantes penas graves.

Hamar urtekoa, gainerako zigor astunen kasuan.

A los cinco, las penas menos graves.

Bost urtekoa, hain astunak ez diren zigorren kasuan.

Al año, las penas leves.

Urtebetekoa, zigor arinen kasuan.

2. Las penas impuestas por los delitos de lesa humanidad y de genocidio y por los delitos contra las personas y bienes protegidos en caso de conflicto armado, no prescribirán en ningún caso.

2. Gizateriaren aurkako delituen ondorioz, genozidio-delituen ondorioz eta gatazka armatuaren kasuan babesturiko ondasun nahiz pertsonen aurka egindako delituen ondorioz, zigorrak ezartzen direnean, zigor horiek ez daukate inoiz ere preskripziorik.

Artículo 134

El tiempo de la prescripción de la pena se computará desde la fecha de la sentencia firme, o desde el quebrantamiento de la condena, si ésta hubiese comenzado a cumplirse.

134. artikulua

Zigorraren preskripzio-denbora epaia irmoa denetik zenbatuko da eta kondena betetzen hasi bada, zigorraren preskripzio-denbora kondena urratu denetik zenbatuko da.

Artículo 135

1. Las medidas de seguridad prescribirán a los diez años, si fueran privativas de libertad superiores a tres

135. artikulua

1. Segurtasun-neurrien preskripzio-denbora hamar urtekoa izango da, askatasunaz hiru urte baino denbora lu-

años, y a los cinco años si fueran privativas de libertad iguales o inferiores a tres años o tuvieran otro contenido.

2. El tiempo de la prescripción se computará desde el día en que haya quedado firme la resolución en la que se impuso la medida o, en caso de cumplimiento sucesivo, desde que debió empezar a cumplirse.

3. Si el cumplimiento de una medida de seguridad fuere posterior al de una pena, el plazo se computará desde la extinción de ésta.

zeagorako gabetzen badute; eta bost urtekoa, askatasunaz hiru urte edo gutxiagorako gabetzen badute, edo bestelako edukia badute.

2. Preskripzio-denbora zenbatuko da segurtasun-neurria ezartzen duen ebazpena irmoa den egunetik eta ondoz ondo betetzearen kasuan, preskripzio-denbora ebazpena betetzen hasi behar zenetik zenbatuko da.

3. Segurtasun-neurri bat zigorraren ostean betetzen bada, epea zigorra azkentzen denetik zenbatuko da.

CAPÍTULO II

De la cancelación de antecedentes delictivos

Artículo 136

1. Los condenados que hayan extinguido su responsabilidad penal tienen derecho a obtener del Ministerio de Justicia, de oficio o a instancia de parte, la cancelación de sus antecedentes penales, previo informe del Juez o Tribunal sentenciador.

2. Para el reconocimiento de este derecho serán requisitos indispensables:

1.º Tener satisfechas las responsabilidades civiles provenientes de la infracción, excepto en los supuestos de insolvencia declarada por el Juez o Tribunal sentenciador, salvo que hubiera mejorado la situación económica del reo.

II. KAPITULUA

Delitu-aurrekariak ezereztea

136. artikulua

1. Kondenatuek erantzukizun penala azkendu badute, eskubidea dute Justizia Ministeriotik euren zigor-aurrekarien ezereztea lortzeko, ofizioz edo kondenatuak hala eskaturik, epaile edo auzitegi epai-emaileak bere txostena eman eta gero.

2. Eskubide hori aintzat hartzeko hurrengo hauek ezinbesteko betekizunak izango dira:

1.) Arau-haustearen ondorioz sorturiko erantzukizun zibilak ordainduta egotea, epaile edo auzitegi epai-emaileak kaudimengabezia dagoela adierazten duen kasuetan izan ezik, salbu eta errudunaren egoera ekonomikoak hobera egin duenean.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, en el caso previsto en el artículo 125 será suficiente que el reo se halle al corriente de los pagos fraccionados que le hubieran sido señalados por el Juez o Tribunal y preste, a juicio de éste, garantía suficiente con respecto a la cantidad aplazada.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, 125. artikuluaren kasuan nahikoa izango da epaile edo auzitegiak adierazi zatikako ordainketak errudunak egunean izatea, eta, epaile edo auzitegiaren iritziz, errudunak geroratutako kopurua ordaintzeko nahikoa berme ematea.

2.º Haber transcurrido, sin delinquir de nuevo el culpable, los siguientes plazos: seis meses para las penas leves; dos años para las penas que no excedan de doce meses y las impuestas por delitos imprudentes; tres años para las restantes penas menos graves; y cinco para las penas graves.

2.) Epe hauek igarotzea, errudunak berriro deliturik egin barik: sei hilabete, zigor arinen kasuan; bi urte, hamabi hilabete baino luzeagoak ez diren zigorren kasuan eta zuhurtziagabekeriazko delituengatik ezarritako zigorren kasuan; hiru urte, hain astunak ez diren zigorren kasuan; eta bost urte, zigor astunen kasuan.

3. Estos plazos se contarán desde el día siguiente a aquél en que quedara extinguida la pena, pero si ello ocurriese mediante la remisión condicional, el plazo, una vez obtenida la remisión definitiva, se computará retrotrayéndolo al día siguiente a aquel en que hubiere quedado cumplida la pena si no se hubiere disfrutado de este beneficio. En este caso, se tomará como fecha inicial para el cómputo de la duración de la pena, el día siguiente al del otorgamiento de la suspensión.

3. Epe horiek zigorra azkentzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko dira; baina, zigorra azkentzen bada baldintzapeko kentzearen bidez, epea zenbatuko da, behin betiko kentzea lortu eta gero, onura hori lortu ezean zigorra beteta geratuko zen egunaren biharamunetik aurrera. Kasu horretan, zigorraren iraupena zenbatzeko hasierako datatzat hartuko da etetea emateko egunaren biharamuna.

4. Las inscripciones de antecedentes penales en las distintas Secciones del Registro Central de Penados y Rebeldes no serán públicas. Durante su vigencia sólo se emitirán certificaciones con las limitaciones y garantías previstas en sus normas específicas y en los casos establecidos por la Ley. En todo caso, se librarán las que solici-

4. Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiaren ataletako zigor-aurrekarien inskripzioak ez dira publikoak izango. Inskripzioak indarrean dauden bitartean, ziurtagiriak emango dira erregistroaren arau bereziek ezarritako muga eta bermeekin eta legeak ezarritako kasuetan bakarrik. Edozein kasutan, epaile edo auzitegiek eskatuta-

ten los Jueces o Tribunales, se refieran o no a inscripciones canceladas, haciendo constar expresamente, si se da, esta última circunstancia.

5. En los casos en que, a pesar de cumplirse los requisitos establecidos en este artículo para la cancelación, bien por solicitud del interesado, bien de oficio por el Ministerio de Justicia, ésta no se haya producido, el Juez o Tribunal, acreditadas tales circunstancias, ordenará la cancelación y no tendrá en cuenta dichos antecedentes.

Artículo 137

Las anotaciones de las medidas de seguridad impuestas conforme a lo dispuesto en este Código o en otras leyes penales serán canceladas una vez cumplida o prescrita la respectiva medida; mientras tanto, sólo figurarán en las certificaciones que el Registro expida con destino a Jueces o Tribunales o autoridades administrativas, en los casos establecidos por la Ley.

ko ziurtagiriak emango dira, ezereztutako edota ezereztu gabeko inskripzioei buruzkoak badira ere, baina ezereztutako inskripzioa denean inguruabar hori beren beregi agerraraziko da.

5. Interesdunak eskaturik nahiz Justizia Ministerioak ofizioz, aurrekariak ezerezteko artikulu honetan ezartzen diren betekizunak gertatzen direnean, ezereztea, ordea, gertatu ez bada, epaile edo auzitegiak aurrekariok ezerezteko aginduko du, inguruabar horiek egiaztatu eta gero, eta ez ditu aurrekari horiek kontuan hartuko.

137. artikulua

Kode honetan edo beste zigor-lege batzuetan xedatutakoaren arabera ezarritako segurtasun-neurrien idatzoharrak ezereztuko dira segurtasun-neurri bakoitza betetzen edo preskripzioa gertatzen denean; bitartean, legeak ezarritako kasuetan, Erregistroak epaile, auzitegi edo Administrazioko agintariei luzatzen dizkien ziurtagirietan bakarrik agertuko dira idatzoharrok.

LIBRO II
DELITOS
Y SUS PENAS

II. LIBURUA
DELITUAK ETA HORIEI
DAGOZKIEN ZIGORRAK

TÍTULO I
DEL HOMICIDIO Y SUS FORMAS

Artículo 138

El que matare a otro será castigado, como reo de homicidio, con la pena de prisión de diez a quince años.

Artículo 139

Será castigado con la pena de prisión de quince a veinte años, como reo de asesinato, el que matare a otro concurriendo alguna de las circunstancias siguientes:

1.ª Con alevosía.

2.ª Por precio, recompensa o promesa.

3.ª Con ensañamiento, aumentando deliberada e inhumanamente el dolor del ofendido.

Artículo 140

Cuando en un asesinato concurran más de una de las circunstancias previstas en el artículo anterior, se impondrá la pena de prisión de veinte a veinticinco años.

Artículo 141

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos previstos en los tres artículos prece-

I. TITULUA
GIZA HILKETA ETA GIZA HILKETAREN FORMAK

138. artikulua

Norbaitek beste bat hiltzen badu, giza hilketaren errudun gisa, hamar urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

139. artikulua

Hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio beste bat hiltzen duenari, erailketaren errudun gisa, baldin eta hurrengo inguruabarretatik bat gertatzen bada:

1.) Maltzurkeria.

2.) Prezio, sari edo hitzematearengatik egitea.

3.) Ankerkeriaren bidez ofendituaren mina nahita eta bihotz-gogorrez handitzea.

140. artikulua

Erailketa batean aurreko artikuluan ezarri inguruabarretatik bat baino gehiago gertatzen denean, hogei urtetik hogeita bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

141. artikulua

Aurreko hiru artikuluetako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, bakoitzari

dentes, será castigada con la pena inferior en uno o dos grados a la señalada en su caso en los artículos anteriores.

Artículo 142

1. El que por imprudencia grave causare la muerte de otro, será castigado, como reo de homicidio imprudente, con la pena de prisión de uno a cuatro años.

2. Cuando el homicidio imprudente sea cometido utilizando un vehículo a motor, un ciclomotor o un arma de fuego, se impondrá asimismo, y respectivamente, la pena de privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores o la privación del derecho a la tenencia y porte de armas, de uno a seis años.

3. Cuando el homicidio fuere cometido por imprudencia profesional se impondrá además la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión, oficio o cargo por un período de tres a seis años.

Artículo 143

1. El que induzca al suicidio de otro será castigado con la pena de prisión de cuatro a ocho años.

2. Se impondrá la pena de prisión de dos a cinco años al que coopere con actos necesarios al suicidio de una persona.

3. Será castigado con la pena de prisión de seis a diez años si la cooperación llegara hasta el punto de ejecutar la muerte.

dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

142. artikulua

1. Norbaitek, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, beste baten heriotza eragiten badu, zuhurtziagabekeriazko giza hilketaren errudun gisa urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Zuhurtziagabekeriazko giza hilketa ibilgailu motordun, motor-bizikleta edo su-arma erabiliz egiten denean, kasuan-kasuan, ibilgailu motordun eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz edo su-armak edukitzeko edo eramateko eskubideaz gabetzen duen zigorra ezarriko da, urtebetetik sei artekoa.

3. Horrezaz gain, giza hilketa lanbide-zuhurtziagabekeriaren ondorioz egiten denean, lanbide, ogibide edo karguan aritzeko desgaikuntza bereziko zigorra ezarriko da, hiru urtetik sei artekoa.

143. artikulua

1. Norbaitek inor bere buruaz beste egitera induzitzen badu, lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio pertsona batek bere buruaz beste egiteko beharrezko egintzekin laguntzen duenari.

3. Sei urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio pertsona baten heriotza egikaritu arte laguntzen duenari.

4. El que causare o cooperare activamente con actos necesarios y directos a la muerte de otro, por la petición expresa, seria e inequívoca de éste, en el caso de que la víctima sufriera una enfermedad grave que conduciría necesariamente a su muerte, o que produjera graves padecimientos permanentes y difíciles de soportar, será castigado con la pena inferior en uno o dos grados a las señaladas en los números 2 y 3 de este artículo.

4. Norbaitek beste baten heriotza eragiten badu edo beste hori hil dadin beharrezkoak eta zuzenekoak diren egintzekin modu aktiboan laguntzen badu, eta biktimak beren beregi, benaz eta zalantzarik gabe hiltzeko laguntza eskatu badio, heriotza eragingo dion gaixotasun larria duenean edo gaixotasun larriaren ondorioz pairamen etengabe eta jasanezinak dituenean, orduan, pertsona horri artikulu honen 2 eta 3. paragrafoetan ezarritako zigorrak baino gradu bat edo bi gutxiagokoak ezarriko zaizkio.

TÍTULO II
DEL ABORTO*

Artículo 144

El que produzca el aborto de una mujer, sin su consentimiento, será castigado

* De conformidad con la disposición derogatoria única del presente código, el artículo 417bis del Código Penal anterior continúa en vigor.

Artículo 417bis

1. No será punible el aborto practicado por un médico, o bajo su dirección, en centro o establecimiento sanitario, público o privado, acreditado y con consentimiento expreso de la mujer embarazada, cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

1.ª Que sea necesario para evitar un grave peligro para la vida o la salud física o psíquica de la embarazada y así conste en un dictamen emitido con anterioridad a la intervención por un médico de la especialidad correspondiente, distinto de aquel por quien o bajo cuya dirección se practique el aborto.

II. TITULUA
ABORTUA*

144. artikulua

Norbaitek andrazko bati, beraren adostasunik gabe, abortua eragiten badio,

* Zigor-kode honen xedapen indargabetzaile bakarraren arabera, 417bis artikuluak —aurreko Zigor Kodearenak— oraindik ere indarrean dirau.

417bis artikulua

1. Abortua ez da zigortzeko modukoa izango, baldin eta medikuak egin edo zuzendu badu, horretarako egiaztaturiko gaixotegi edo osasun-etxe publiko zein pribatu batean egin bada, emakume haurdunak esanbidezko adostasuna eman badu, eta hurrengo inguruabarretatik bat gertatu bada:
1. En todos los casos del artículo anterior, cuando el abuso sexual consista en acceso carnal por vía vaginal, anal o bucal, o introducción de miembros corporales u objetos por alguna de las dos primeras vías, el responsable será castigado con la pena de prisión de cuatro a diez años.

2. La pena señalada en el apartado anterior se impondrá en su mitad superior cuando concurra la circunstancia 3.ª o la 4.ª de las previstas en el artículo 180.1 de este Código.

baten sexu-askatasun edo ukigabetasunaren aurka atentatu egiten duten egitateak gauzatzen baditu, sexu-abusuaren erantzule gisa, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra edo hemezortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, adostu gabeko sexu-abusutzat hartuko da hamahiru urte baino gutxiago dutenen aurkakoa, konorterik gabe dauden pertsonen aurkakoa edo euren buru-nahasteaz abusatuz gauzatzen dena.

3. Erantzuleak biktimaren adostasuna lortzen badu, biktima horri askatasuna murrizten dion nagusitasun-egoera nabariaz baliatuz, orduan, erantzuleari zigor berbera ezarriko zaio.

4. Artikulu honetako zigorrak goiko erdian ezarriko dira, kode honen 180. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako 3 edo 4. inguruabarra gertatzen bada.

182. artikulua

1. Aurreko artikuluaren kasu guztietan, sexu-abusua maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzea denean, erantzuleari lau urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Aurreko paragrafoan ezarritako zigorra goiko erdian ezarriko da, kode honen 180.1 artikuluan ezarritako 3 edo 4. inguruabarra gertatzen denean.

Artículo 183

1. El que, interviniendo engaño, cometiere abuso sexual con persona mayor de trece años y menor de dieciséis, será castigado con la pena de prisión de uno a dos años, o multa de doce a veinticuatro meses.

2. Cuando el abuso consista en acceso carnal por vía vaginal, anal o bucal, o introducción de miembros corporales u objetos por alguna de las dos primeras vías, la pena será de prisión de dos a seis años. La pena se impondrá en su mitad superior si concurriera la circunstancia 3.ª o la 4.ª de las previstas en el artículo 180.1 de este Código.

183. artikulua

1. Norbaitek, engainuaren bidez, hamahiru urtekoa baino nagusiagoa eta hamaseikoa baino gazteagoa den pertsona bati sexu-abusua egiten badio, orduan, urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Sexu-abusua maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzea denean, bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da. Zigor hori goiko erdian ezarriko da, kode honen 180.1 artikuluan ezarritako 3 edo 4. inguruabarra gertatzen bada.

CAPÍTULO III
Del acoso sexual

Artículo 184

1. El que solicitare favores de naturaleza sexual, para sí o para un tercero, en el ámbito de una relación laboral, docente o de prestación de servicios, continuada o habitual, y con tal comportamiento provocare a la víctima una situación objetiva y gravemente intimidatoria, hostil o humillante, será castigado, como autor de acoso sexual, con la pena de prisión de tres a cinco meses o multa de seis a diez meses.

2. Si el culpable del acoso sexual hubiera cometido el hecho prevaliéndose de una situación de superioridad laboral, docente o jerárquica, o con el

III. KAPITULUA
Sexu-jazarpena

184. artikulua

1. Norbaitek berarentzat edo beste batentzat sexu-mesedeak eskatzen baditu, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu--eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen eremuan, eta jokabide horrekin biktima jartzen badu larderiako, etsaigoko edo umilazioko egoera objektibo eta larrian, orduan, pertsona horri, sexu--jazarpenaren egile gisa, hiru hilabetetik bost arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio.

2. Sexu-jazarpenaren errudunak egitatea gauzatu badu, laneko, irakaskuntzako edo hierarkiako nagusitasun--egoeraz baliatuz, edo biktimari, esan-

anuncio expreso o tácito de causar a la víctima un mal relacionado con las legítimas expectativas que aquélla pueda tener en el ámbito de la indicada relación, la pena será de prisión de cinco a siete meses o multa de diez a catorce meses.

3. Cuando la víctima sea especialmente vulnerable, por razón de su edad, enfermedad o situación, la pena será de prisión de cinco a siete meses o multa de diez a catorce meses en los supuestos previstos en el apartado 1, y de prisión de seis meses a un año en los supuesto previstos en el apartado 2 de este artículo.

bidez edo isilbidez, harreman horien inguruan izan ditzakeen bidezko igurikimenei kalte eragingo diela mehatxu eginez, orduan, bost hilabetetik zazpi arteko espetxealdi-zigorra edo hamar hilabetetik hamalau arteko isuna ezarriko zaio.

3. Biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela eta, bereziki, ahula denean, bost hilabetetik zazpi arteko espetxealdi-zigorra edo hamar hilabetetik hamalau arteko isuna ezarriko da 1. paragrafoan ezarritako kasuetan, eta sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra artikulu honen 2. paragrafoko kasuetan.

CAPÍTULO IV

De los delitos de exhibicionismo y provocación sexual

Artículo 185

El que ejecutare o hiciere ejecutar a otra persona actos de exhibición obscena ante menores de edad o incapaces, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 186

El que, por cualquier medio directo, vendiere, difundiere, o exhibiere material pornográfico entre menores de edad o incapaces, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de doce a veinticuatro meses.

IV. KAPITULUA

Erakuts-zalekeria eta sexu-zirikatze delituak

185. artikulua

Norbaitek adingabe edo ezgaien aurrean erakuspen-egintza lizunak gauzatzen baditu, edo beste norbait behartzen badu egintza horiek gauzatzera, orduan, pertsona horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

186. artikulua

Norbaitek, zuzeneko edozein bide erabiliz, adingabeen edo ezgaien artean pornografiazko materiala saldu, hedatu edo erakusten badu, orduan, horri sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

CAPÍTULO V

De los delitos relativos a la prostitución y la corrupción de menores

Artículo 187

1. El que induzca, promueva, favorezca o facilite la prostitución de una persona menor de edad o incapaz será castigado con las penas de prisión de uno a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses.

2. Incurrirán en la pena de prisión indicada, en su mitad superior, y además en la de inhabilitación absoluta de seis a doce años, los que realicen los hechos prevaliéndose de su condición de autoridad, agente de ésta o funcionario público.

3. Se impondrán las penas superiores en grado a las previstas en los apartados anteriores, en sus respectivos casos, cuando el culpable perteneciere a una organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que se dedicare a la realización de tales actividades.

Artículo 188

1. El que determine, empleando violencia, intimidación o engaño, o abusando de una situación de superioridad o de necesidad o vulnerabilidad de la víctima, a persona mayor de edad a ejercer la prostitución o a mantenerse en ella, será castigado con las penas de prisión de dos a cuatro años y multa de 12 a 24 meses. En la misma pena incurrirá el que se lucre explotando la

V. KAPITULUA

Adingabeen prostituzio eta usteltzeari buruzko delituak

187. artikulua

1. Norbaitek adingabea edo ezgaia den pertsona prostituziora induzitu edo hura sustatu, faboratu edo errazten badu, urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, goiko erdian, bai eta erabateko desgaikuntza ere, sei urtetik hamabi artekoa, egitateok gauzatzen dituztenei, horretarako euren agintaritza-izaeraz edo agintaritza horren agente nahiz funtzionario publiko izateaz baliatzen badira.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritako zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira, kasuan-kasuan, erruduna jarduera horiek egiten dituen antolakunde edo elkarte baten bazkidea denean, antolakunde edo elkarte hori iragankorra bada ere.

188. artikulua

1. Norbaitek, indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun- zein beharrizan-egoeraz nahiz biktimaren ahuleziaz abusatuz, adin nagusikoa prostituzioan jardutera edo horretan irautera derrigortzen badu, orduan, pertsona horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaizkio. Zigor bera ezarriko

prostitución de otra persona, aun con el consentimiento de la misma.

2. Se impondrán las penas correspondientes en su mitad superior, y además la pena de inhabilitación absoluta de seis a 12 años, a los que realicen las conductas descritas en el apartado anterior prevaliéndose de su condición de autoridad, agente de ésta o funcionario público.

3. Si las mencionadas conductas se realizaran sobre persona menor de edad o incapaz, para iniciarla o mantenerla en una situación de prostitución, se impondrá al responsable la pena superior en grado a la que corresponda según los apartados anteriores.

4. Las penas señaladas se impondrán en sus respectivos casos sin perjuicio de las que correspondan por las agresiones o abusos sexuales cometidos sobre la persona prostituida.

Artículo 189

1. Será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años:

a) El que utilizare a menores de edad o a incapaces con fines o en espectáculos exhibicionistas o pornográficos, tanto públicos como privados, o para elaborar cualquier clase de material pornográfico, cualquiera que sea su soporte, o financiare cualquiera de estas actividades.

b) El que produjere, vendiere, distribuyere, exhibiere o facilitare la pro-

zaio inoren prostituzioa ustiatzetik irabaziak ateratzen dituenari, nahiz eta prostituzioan ari denak horretarako adostasuna eman.

2. Zigor egokiak beraien goiko erdian ezartzeaz gain, sei urtetik 12 arteko erabateko desgaikuntza ezarriko zaie, aurreko paragrafoan deskribatutako jokabideak egiteko, euren agintaritza-izaeraz edo agintaritza horren agente nahiz funtzionario publiko izateaz baliatzen direnei.

3. Jokabideok adingabearekin edo ezgaiarekin egiten badira, adingabe edo ezgai hori prostituzio-egoeran has dadin edo horretan iraun dezan, orduan, erantzuleari aurreko paragrafoen arabera dagokion zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko zaio.

4. Adierazitako zigorrak kasuan-kasuan ezarriko dira, baina horiek ez diete kalterik egingo prostituzioa nork jasan eta horren aurka egindako sexu-eraso edo -abusuen zigorrei.

189. artikulua

1. Urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio:

a) Adingabeak edo ezgaiak erabiltzen dituenari erakuts-zalekeriazko edo pornografiazko helburuekin edo halako ikuskizun publiko nahiz pribatuetan, edota edozein motatako pornografiazko materiala egiteko, horren euskarria edozein izanda, bai eta jarduera horietatik edozein finantzatzen duenari ere.

b) Pornografiazko materiala egin, saldu, banatu, erakutsi edota, edozein

ducción, venta, difusión o exhibición por cualquier medio de material pornográfico en cuya elaboración hayan sido utilizados menores de edad o incapaces, aunque el material tuviere su origen en el extranjero o fuere desconocido.

bide erabiliz, hori egitea, saltzea, hedatzea edo erakustea errazten duenari, betiere material hori egiteko adingabeak edo ezgaiak erabili direnean, nahiz eta materiala atzerrian egin edo jatorri ezezagunekoa izan.

2. El que para su propio uso posea material pornográfico en cuya elaboración se hubieran utilizado menores de edad o incapaces, será castigado con la pena de tres meses a un año de prisión o con multa de seis meses a dos años.

2. Norbaitek, bere erabilera pertsonalerako, pornografiazko materiala badauka, eta, material hori prestatzeko, adingabeak edo ezgaiak erabili izan badira, pertsona horri hiru hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik bi urte arteko isuna ezarriko zaio.

3. Serán castigados con la pena de prisión de cuatro a ocho años los que realicen los actos previstos en el apartado 1 de este artículo cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

3. Lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie artikulu honen 1. paragrafoan aipatu egintzak burutzen dituztenei, baldin eta honako inguruabarretatik bat pilatzen bada:

a) Cuando se utilicen a niños menores de 13 años.

a) 13 urtekoak baino gazteagoak diren umeak erabiltzea.

b) Cuando los hechos revistan un carácter particularmente degradante o vejatorio.

b) Egitateak, euren izaerarengatik, bereziki apalesgarri edo isekagarri gertatzea.

c) Cuando los hechos revistan especial gravedad atendiendo al valor económico del material pornográfico.

c) Pornografiazko materialaren balio ekonomikoa aintzakotzat hartuta, egitateak bereziki larriak izatea.

d) Cuando el material pornográfico represente a niños o a incapaces que son víctimas de violencia física o sexual.

d) Pornografiazko material horretan, umeak edo ezgaiak agertzea, eta ume edo ezgai horiek indarkeria fisikoaren edo sexu-indarkeriaren biktima izatea.

e) Cuando el culpable perteneciere a una organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que se dedicare a la realización de tales actividades.

e) Erruduna jarduera horiek burutzen dituen antolakunde edo elkarte bateko kidea izatea, antolakunde edo elkarte hori iragankorra bada ere.

f) Cuando el responsable sea ascendiente, tutor, curador, guardador, maestro o cualquier otra persona encargada, de hecho o de derecho, del menor o incapaz.

4. El que haga participar a un menor o incapaz en un comportamiento de naturaleza sexual que perjudique la evolución o desarrollo de la personalidad de éste, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año.

5. El que tuviere bajo su potestad, tutela, guarda o acogimiento, a un menor de edad o incapaz, y que, con conocimiento de su estado de prostitución o corrupción, no haga lo posible para impedir su continuación en tal estado, o no acuda a la autoridad para el mismo fin si carece de medios para la custodia del menor o incapaz, será castigado con la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a doce meses.

6. El Ministerio Fiscal promoverá las acciones pertinentes con objeto de privar de la patria potestad, tutela, guarda o acogimiento familiar, en su caso, a la persona que incurra en alguna de las conductas descritas en el apartado anterior.

7. Será castigado con la pena de prisión de tres meses a un año o multa de seis meses a dos años el que produjere, vendiere, distribuyere, exhibiere o facilitare por cualquier medio material pornográfico en el que no habiendo sido utilizados directamente menores o

f) Erantzulea adingabearen edo ezgaiaren aurrekoa, tutorea, kuradorea, zaintzailea, irakaslea edo egitez nahiz zuzenbidez horretaz arduratzen den pertsona izatea.

4. Norbaitek adingabeari edo ezgaiari sexu-izaerako jokabide batean parte harrarazten badio, eta jokabide horrek adingabe edo ezgai horren nortasunaren bilakaera edo garapenari kalte egiten badio, orduan, pertsona horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

5. Norbaitek bere ahal, tutoretza, zaintza edo harrerapean adingabea edo ezgaia badu, eta, adingabe edo ezgai horren prostituzio- edo usteltze-egoera zein den jakinda, ahal duena egiten ez badu egoera hura utzarazteko, edota egoera hori uzteko helburu berberarekin agintaritzarengana ez badoa, adingabea edo ezgaia zaintzeko baliabideak izan ezean, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdia edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio.

6. Fiskaltzak ekintza egokiak sustatuko ditu aurreko paragrafoan adierazitako jokabideetatik bat egiten duena, hala denean, guraso-ahalaz, tutoretzaz, zaintzaz edo familia-harreraz gabetzeko.

7. Hiru hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik bi urte arteko isuna ezarriko zaio edozein bidetatik pornografiazko materiala ekoitzi, saldu, banatu, erakutsi edo errazten duenari, baldin eta material horretan ez badira adingabeak edo ez-

incapaces, se emplee su voz o imagen alterada o modificada.

8. En los casos previstos en los apartados anteriores, se podrán imponer las medidas previstas en el artículo 129 de este Código cuando el culpable perteneciere a una sociedad, organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que se dedicare a la realización de tales actividades.

Artículo 190

La condena de un Juez o Tribunal extranjero, impuesta por delitos comprendidos en este Capítulo, será equiparada a las sentencias de los Jueces o Tribunales españoles a los efectos de aplicación de la circunstancia agravante de reincidencia.

gaiak eurak zuzenean erabili, baina haien ahotsa nahiz irudia aldatuta nahiz itxuraldatuta erabili bada.

8. Aurreko paragrafoek arautu kasuetan, kode honen 129. artikuluan aipatutako neurriak ezarri ahal izango dira, erruduna jarduera horiek burutzen dituen sozietate, antolakunde edo elkarte bateko kidea denean, sozietate, antolakunde edo elkarte hori iragankorra bada ere.

190. artikulua

Kapitulu honetara bildutako delituengatik atzerriko epaile edo auzitegiak ezartzen duen kondenak eta Espainiako epaile edo auzitegiek ematen dituzten epaiek balio bera izango dute, berrerortze-astungarria ezartzeko.

CAPÍTULO VI

Disposiciones comunes a los capítulos anteriores

Artículo 191

1. Para proceder por los delitos de agresiones, acoso o abusos sexuales, será precisa denuncia de la persona agraviada, de su representante legal o querella del Ministerio Fiscal, que actuará ponderando los legítimos intereses en presencia. Cuando la víctima sea menor de edad, incapaz o una persona desvalida, bastará la denuncia del Ministerio Fiscal.

2. En estos delitos el perdón del ofendido o del representante legal no

VI. KAPITULUA

Aurreko kapitulu guztietarako xedapenak

191. artikulua

1. Sexu-eraso, sexu-jazarpen edo sexu-abusuzko delituen kasuan, prozedurari hasiera emateko beharrezkoa izango da laidotuaren nahiz beraren lege-ordezkariaren salaketa, edo Fiskaltzaren kereila, Fiskaltzak bertan gertatzen diren bidezko interesak haztatuko baititu. Biktima adingabea, ezgaia edo babesgabea denean, Fiskaltzaren salaketa nahikoa izango da.

2. Delitu horietan, ofendituaren edo beraren lege-ordezkariaren barkame-

extingue la acción penal ni la responsabilidad de esa clase.

Artículo 192

1. Los ascendientes, tutores, curadores, guardadores, maestros o cualquier otra persona encargada de hecho o de derecho del menor o incapaz, que intervengan como autores o cómplices en la perpetración de los delitos comprendidos en este Titulo, serán castigados con la pena que les corresponda, en su mitad superior.

No se aplicará esta regla cuando la circunstancia en ella contenida esté específicamente contemplada en el tipo penal de que se trate.

2. El Juez o Tribunal podrá imponer razonadamente, además, la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de los derechos de la patria potestad, tutela, curatela, guarda, empleo o cargo público o ejercicio de la profesión u oficio, por el tiempo de seis meses a seis años.

Artículo 193

En las sentencias condenatorias por delitos contra la libertad sexual, además del pronunciamiento correspondiente a la responsabilidad civil, se harán, en su caso, los que procedan en orden a la filiación y fijación de alimentos.

Artículo 194

En los supuestos tipificados en los capítulos IV y V de este Título, cuando

nak ez du akzio penalik ezta erantzukizun penalik ere azkentzen.

192. artikulua

1. Aurrekoek, tutoreek, kuradoreek, zaintzaileek, irakasleek edo adingabeaz zein ezgaiaz, egitez nahiz zuzenbidez, arduratzen diren pertsonetatik edozeinek ere esku hartu badu titulu honetara bildutako delituak gauzatzean egile edo sopikun gisa, orduan, horiei zigor egokia ezarriko zaie, goiko erdian.

Erregela hori ez da aplikatuko tipo penal bakoitzak modu zehatzean arautzen duenean erregela hori aplikatzeko beharrezkoa den inguruabarra.

2. Horrezaz gain, epaile edo auzitegiak, horretarako arrazoiak emanez, desgaikuntza berezia ezar dezake, sei hilabetetik sei urte artekoa, guraso-ahalari, tutoretzari, kuradoretzari edo zaintzari buruzko eskubideak egikaritzeko, bai eta enplegu nahiz kargu publikoan edo lanbidean nahiz ogibidean aritzeko ere.

193. artikulua

Sexu-askatasunaren aurkako delituen ondorioz ezartzen diren epai kondenatzaileetan, erantzukizun zibilari buruz esan beharrekoaz gain, hala denean, seme-alabatasuna eta mantenua ezartzeko egoki dena ere adierazi ko da.

194. artikulua

Titulu honen IV eta V. kapituluetan tipifikatutako kasuetan, egintzak gau-

en la realización de los actos se utilizaren establecimientos o locales, abiertos o no al público, podrá decretarse en la sentencia condenatoria su clausura temporal o definitiva. La clausura temporal, que no podrá exceder de cinco años, podrá adoptarse también con carácter cautelar.

zatzeko jendaurrean zabalik edo itxita dauden establezimendu zein lokalak erabiltzen badira, epai kondenatzailean dekretatu ahal izango da horiek aldi baterako edo betiko ixtea. Aldi baterako itxiera, bost urte baino gehiago iraun ezin duena, kautela gisa ere ezarri ahal izango da.

TÍTULO IX
DE LA OMISIÓN DEL DEBER DE SOCORRO

Artículo 195

1. El que no socorriere a una persona que se halle desamparada y en peligro manifiesto y grave, cuando pudiere hacerlo sin riesgo propio ni de terceros, será castigado con la pena de multa de tres a doce meses.

2. En las mismas penas incurrirá el que, impedido de prestar socorro, no demande con urgencia auxilio ajeno.

3. Si la víctima lo fuere por accidente ocasionado fortuitamente por el que omitió el auxilio, la pena será de prisión de seis meses a dieciocho meses, y si el accidente se debiere a imprudencia, la de prisión de seis meses a cuatro años.

Artículo 196

El profesional que, estando obligado a ello, denegare asistencia sanitaria

IX. TITULUA
SOROSPEN-EGINBEHARRA EZ BETETZEA

195. artikulua

1. Norbaitek ez badu sorosten babesik gabe eta arrisku nabari eta larrian dagoen pertsona, eta pertsona hori sorosteak arriskurik ez badakar berarentzat, ezta besteentzat ere, orduan, horri hiru hilabetetik hamabi arteko isun-zigorra ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio sorosteko ezinduta dagoenari, presaz eskatzen ez badu beste baten laguntza.

3. Istripua halabeharrez eragin eta biktimari lagundu ez dionari ezarriko zaio sei hilabetetik hemezortzi arteko espetxealdi-zigorra; eta istripua zuhurtziagabekeriaren ondorioz eragin badu, sei hilabetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra.

196. artikulua

Profesionalak, behartuta egonik, osasun-laguntza emateari uko egiten

o abandonare los servicios sanitarios, cuando de la denegación o abandono se derive riesgo grave para la salud de las personas, será castigado con las penas del artículo precedente en su mitad superior y con la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, por tiempo de seis meses a tres años.

badio edo osasun-zerbitzuak bertan behera uzten baditu, ez emate edo uzte horren ondorioz pertsonen osasuna arrisku larrian jartzen denean, orduan, profesional horri aurreko artikuluko zigorrak goiko erdian ezarriko zaizkio eta, horiekin batera, enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, sei hilabetetik hiru urte artekoa.

TÍTULO X

DELITOS CONTRA LA INTIMIDAD, EL DERECHO A LA PROPIA IMAGEN Y LA INVIOLABILIDAD DEL DOMICILIO

X. TITULUA

BIZITZA PRIBATUAREN, NORBERAREN IRUDIRAKO ESKUBIDEAREN ETA EGOITZAREN BORTXAEZINTASUNAREN AURKAKO DELITUAK

CAPÍTULO I

Del descubrimiento y revelación de secretos

I. KAPITULUA

Sekretuak ezagutarazi eta agerraraztea

Artículo 197

1. El que, para descubrir los secretos o vulnerar la intimidad de otro, sin su consentimiento, se apodere de sus papeles, cartas, mensajes de correo electrónico o cualesquiera otros documentos o efectos personales o intercepte sus telecomunicaciones o utilice artificios técnicos de escucha, transmisión, grabación o reproducción del sonido o de la imagen, o de cualquier otra señal de comunicación, será casti-

197. artikulua

1. Norbaitek, beste baten sekretuak agerrarazteko edo beste horren bizitza pribatuaren aurka joateko, berorren adostasunik gabe, paperak, gutunak, posta elektronikoko mezuak edo beste edozein agiri nahiz efektu pertsonal harrapatzen badizkio, telekomunikazioen artean esku sartzen badio, edo trikimailu teknikoak erabiltzen baditu, soinua, irudia edo beste edozein komunikazio-seinale entzun, igorri, irarri edo kopia-

gado con las penas de prisión de uno a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses.

2. Las mismas penas se impondrán al que, sin estar autorizado, se apodere, utilice o modifique, en perjuicio de tercero, datos reservados de carácter personal o familiar de otro que se hallen registrados en ficheros o soportes informáticos, electrónicos o telemáticos, o en cualquier otro tipo de archivo o registro público o privado. Iguales penas se impondrán a quien, sin estar autorizado, acceda por cualquier medio a los mismos y a quien los altere o utilice en perjuicio del titular de los datos o de un tercero.

3. Se impondrá la pena de prisión de dos a cinco años si se difunden, revelan o ceden a terceros los datos o hechos descubiertos o las imágenes captadas a que se refieren los números anteriores.

Será castigado con las penas de prisión de uno a tres años y multa de doce a veinticuatro meses, el que, con conocimiento de su origen ilícito y sin haber tomado parte en su descubrimiento, realizare la conducta descrita en el párrafo anterior.

4. Si los hechos descritos en los apartados 1 y 2 de este artículo se realizan por las personas encargadas o responsables de los ficheros, soportes informáticos, electrónicos o telemáticos, archivos o registros, se impondrá la pena de prisión de tres a cinco años,

tzeko, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, baimenik gabe, beste baten kalterako, izaera pertsonaleko edo familiako inoren datu erreserbatuak harrapatu, erabili nahiz aldatzen dituenari, betiere erregistraturik daudenean fitxategi edo euskarri informatiko, elektroniko zein telematikoetan, edo beste edozein motatako artxibo nahiz erregistro publiko edo pribatuetan. Zigor berberak ezarriko zaizkie edozein bide erabilita datu erreserbatuak lortzen dituenari, baimenik gabe jokatzen badu, eta datu horiek aldatzen edo erabiltzen dituenari, datuen titularraren edo beste inoren kalterako.

3. Bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, baldin eta agerrarazitako datu zein egitateak edo hartutako irudiak gainerakoei hedatu, ezagutarazi edo lagatzen bazaizkie, eta datu, egitate edo irudi horiek aurreko paragrafoetan aipatutakoak badira.

Urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaizkio zilegi ez den jatorria jakinda eta agerrarazpenean parte hartu gabe aurreko lerrokadan azaldutako jokabidea egiten duenari.

4. Fitxategi, euskarri informatiko, elektroniko zein telematiko, artxibo nahiz erregistroen arduradun edo erantzuleek artikulu honen 1 eta 2. paragrafoetan azaldutako egitateak gauzatzen badituzte, orduan, horiei hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarri-

y si se difunden, ceden o revelan los datos reservados, se impondrá la pena en su mitad superior.

5. Igualmente, cuando los hechos descritos en los apartados anteriores afecten a datos de carácter personal que revelen la ideología, religión, creencias, salud, origen racial o vida sexual, o la víctima fuere un menor de edad o un incapaz, se impondrán las penas previstas en su mitad superior.

6. Si los hechos se realizan con fines lucrativos, se impondrán las penas respectivamente previstas en los apartados 1 al 4 de este artículo en su mitad superior. Si además afectan a datos de los mencionados en el apartado 5, la pena a imponer será la de prisión de cuatro a siete años.

Artículo 198

La autoridad o funcionario público que, fuera de los casos permitidos por la Ley, sin mediar causa legal por delito, y prevaliéndose de su cargo, realizare cualquiera de las conductas descritas en el artículo anterior, será castigado con las penas respectivamente previstas en el mismo, en su mitad superior y, además, con la de inhabilitación absoluta por tiempo de seis a doce años.

Artículo 199

1. El que revelare secretos ajenos, de los que tenga conocimiento por razón de su oficio o sus relaciones laborales, será castigado con la pena de prisión de uno a tres años y multa de seis a doce meses.

ko zaie, eta datu erreserbatuak hedatu, laga edo agerrarazten badira, zigorra goiko erdian ezarriko zaie.

5. Era berean, aurreko paragrafoetan azaldutako egitateek izaera pertsonaleko datuak ukitzen badituzte, ideologia, erlijioa, sinesmenak, osasuna, arraza-jatorria edo sexu-bizimodua ezagutarazten dituztenak, edota biktima adingabea edo ezgaia bada, zigor horiek goiko erdian ezarriko dira.

6. Egitateak gauzatzen badira irabaziak lortzeko helburuarekin, artikulu honen 1. paragrafotik 4.era bitartean ezarritako zigorrak goiko erdian ezarriko dira. Horrezaz gain, egitate horiek 5. paragrafoko datuak ukitzen badituzte, lau urtetik zazpi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

198. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, legeak baimentzen dituen kasuetatik kanpo, delituaren ondorioz legezko auzirik egon gabe eta bere karguaz baliatuz, aurreko artikuluan azaldutako jokabideetatik edozein egiten badu, orduan, horri artikulu horretan azaldutako zigorrak ezarriko zaizkio, hurrenez hurren, goiko erdian eta, horiekin batera, sei urtetik hamabi arteko desgaikuntza erabatekoa.

199. artikulua

1. Norbaitek, bere ogibide edo lan-harremanen ondorioz, inoren sekretuak badakizki, eta horiek ezagutarazten baditu, orduan, horri urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

2. El profesional que, con incumplimiento de su obligación de sigilo o reserva, divulgue los secretos de otra persona, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para dicha profesión por tiempo de dos a seis años.

Artículo 200

Lo dispuesto en este capítulo será aplicable al que descubriere, revelare o cediere datos reservados de personas jurídicas, sin el consentimiento de sus representantes, salvo lo dispuesto en otros preceptos de este Código.

Artículo 201

1. Para proceder por los delitos previstos en este capítulo será necesaria denuncia de la persona agraviada o de su representante legal. Cuando aquélla sea menor de edad, incapaz o una persona desvalida, también podrá denunciar el Ministerio Fiscal.

2. No será precisa la denuncia exigida en el apartado anterior para proceder por los hechos descritos en el artículo 198 de este Código, ni cuando la comisión del delito afecte a los intereses generales o a una pluralidad de personas.

3. El perdón del ofendido o de su representante legal, en su caso, extingue la acción penal o la pena impuesta, sin perjuicio de lo dispuesto en el segundo párrafo del número 4.º del artículo 130.

2. Profesionalak, bere isil-gordezko edo erreserbazko betebeharra hautsi eta beste pertsona baten sekretuak zabaltzen baditu, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, eta lanbide horretarako desgaikuntza berezia, bi urtetik sei artekoa.

200. artikulua

Kapitulu honetan xedatutakoa aplikatuko zaio, pertsona juridikoen ordezkarien adostasunik gabe, pertsona juridiko horien datu erreserbatuak agerrarazi, ezagutarazi edo lagatzen dituenari, kode honen beste manu batzuetan xedatutakoa salbu.

201. artikulua

1. Kapitulu honetan ezarritako delituen ondorioz prozedurari hasiera emateko, laidotuaren edo beraren lege-ordezkariaren salaketa beharrezkoa izango da. Fiskaltzak ere salaketa egin ahal izango du, laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean.

2. Aurreko paragrafoan galdatutako salaketa ez da beharrezkoa izango kode honen 198. artikuluan azaldutako egitateen kasuan, ezta delitua egiteak interes orokorrak edo pertsona franko ukitzen dituenean ere.

3. Ofendituaren barkamenak edo beraren lege-ordezkariarenak, hala denean, akzio penala edo ezarritako zigorra azkentzen du, 130. artikuluaren 4. zenbakiaren bigarren lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe.

CAPÍTULO II

Del allanamiento de morada, domicilio de personas jurídicas y establecimientos abiertos al público

Artículo 202

1. El particular que, sin habitar en ella, entrare en morada ajena o se mantuviere en la misma contra la voluntad de su morador, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

2. Si el hecho se ejecutare con violencia o intimidación la pena será de prisión de uno a cuatro años y multa de seis a doce meses.

Artículo 203

1. Será castigado con las penas de prisión de seis meses a un año y multa de seis a diez meses el que entrare contra la voluntad de su titular en el domicilio de una persona jurídica pública o privada, despacho profesional u oficina, o en establecimiento mercantil o local abierto al público fuera de las horas de apertura.

2. Será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años, el que con violencia o intimidación entrare o se mantuviere contra la voluntad de su titular en el domicilio de una persona jurídica pública o privada, despacho profesional u oficina, o en establecimiento mercantil o local abierto al público.

II. KAPITULUA

Bizilekua, pertsona juridikoen egoitza eta jendaurrean zabalik dauden establezimenduak bortxatzea

202. artikulua

1. Norbanakoa beste baten bizilekuan sartzen bada, bertan bizi gabe, edo beste baten bizileku barruan irauten badu bertako bizilagunaren borondatearen aurka, orduan, norbanako horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Egitatea indarkeria edo larderia erabiliz gauzatzen bada, urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

203. artikulua

1. Sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hamar arteko isuna ere, pertsona juridiko publiko zein pribatuaren egoitzan, lanbide-idazgelan nahiz bulegoan edota jendaurrean zabalik dagoen merkataritzako establezimenduan zein lokalean, zabalik dagoen orduetatik kanpo, titularraren borondatearen aurka sartzen denari.

2. Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, indarkeria edo larderia erabiliz, pertsona juridiko publiko edo pribatuaren egoitzan, lanbide-idazgelan nahiz bulegoan edota jendaurrean zabalik dagoen merkataritzako establezimenduan zein lokalean, titularraren borondatearen aurka sartu edo bertan irauten duenari.

Artículo 204

La autoridad o funcionario público que, fuera de los casos permitidos por la Ley y sin mediar causa legal por delito, cometiere cualquiera de los hechos descritos en los dos artículos anteriores, será castigado con la pena prevista respectivamente en los mismos, en su mitad superior, e inhabilitación absoluta de seis a doce años.

204. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, legeak baimentzen dituen kasuetatik kanpo eta delituaren ondorioz legezko auzirik egon gabe, aurreko bi artikuluetan azaldutako egitateetatik edozein gauzatzen badu, orduan, horri artikulu horietan ezarritako zigorra hurrenez hurren ezarriko zaio goiko erdian eta, horrekin batera, sei urtetik hamabi arteko desgaikuntza erabatekoa.

TÍTULO XI
DELITOS CONTRA EL HONOR

CAPÍTULO I
De la calumnia

Artículo 205

Es calumnia la imputación de un delito hecha con conocimiento de su falsedad o temerario desprecio hacia la verdad.

Artículo 206

Las calumnias serán castigadas con las penas de prisión de seis meses a dos años o multa de doce a veinticuatro meses, si se propagaran con publicidad, y, en otro caso, con multa de seis a doce meses.

Artículo 207

El acusado por delito de calumnia quedará exento de toda pena probando el hecho criminal que hubiere imputado.

XI. TITULUA
OHOREAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Kalumnia

205. artikulua

Kalumnia dago pertsona batek beste bati delitu bat egozten dionean faltsua dela jakinda edota egia ausartegi mespretxatuz.

206. artikulua

Kalumniak sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorrarekin edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isunarekin zigortuko dira, publizitatearen bidez zabaltzen badira eta, bestela, sei hilabetetik hamabi arteko isunarekin.

207. artikulua

Kalumnia-delitupeko akusatua zigorretik salbuetsita geratuko da, egotzi duen egitate kriminala frogatzen badu.

CAPÍTULO II
De la injuria

Artículo 208

Es injuria la acción o expresión que lesionan la dignidad de otra persona, menoscabando su fama o atentando contra su propia estimación.

Solamente serán constitutivas de delito las injurias que, por su naturaleza, efectos y circunstancias, sean tenidas en el concepto público por graves.

Las injurias que consistan en la imputación de hechos no se considerarán graves, salvo cuando se hayan llevado a cabo con conocimiento de su falsedad o temerario desprecio hacia la verdad.

Artículo 209

Las injurias graves hechas con publicidad se castigarán con la pena de multa de seis a catorce meses y, en otro caso, con la de tres a siete meses.

Artículo 210

El acusado de injuria quedará exento de responsabilidad probando la verdad de las imputaciones cuando éstas se dirijan contra funcionarios públicos sobre hechos concernientes al ejercicio de sus cargos o referidos a la comisión de faltas penales o de infracciones administrativas.

II. KAPITULUA
Iraina

208. artikulua

Iraina da beste pertsona baten duintasuna hausten duen ekintza edo adierazpena, pertsona horren ospeari kalte egiten diona edo beraren estimazioaren aurka atentatu egiten duena.

Irainak delitu izango dira, bakar-bakarrik, euren izaera, ondore eta inguruabarren arabera jendeak larritzat hartzen dituenean.

Irainak ez dira larritzat hartuko egitateak egozte hutsak badira, irainok egitateen faltsutasuna jakinda edota egia ausartegi mespretxatuz gauzatu direnean izan ezik.

209. artikulua

Irain larriak sei hilabetetik hamalau arteko isunarekin zigortuko dira, publizitatearen bidez egiten badira, eta, bestela, hiru hilabetetik zazpi artekoarekin.

210. artikulua

Irainaren ondoriozko akusatua erantzukizunetik salbuetsita geratuko da, egozpenak egiazkoak direla frogatzen bada, egozpenok funtzionario publikoen aurkakoak diren kasuetan, betiere, funtzionarioek euren karguetan aritzearekin zerikusia duten egitateei buruzkoak edo zigor-zuzenbideko falta edo administrazioko arau-haustea egiteari buruzkoak direnean.

CAPÍTULO III
Disposiciones generales

Artículo 211

La calumnia y la injuria se reputarán hechas con publicidad cuando se propaguen por medio de la imprenta, la radiodifusión o por cualquier otro medio de eficacia semejante.

Artículo 212

En los casos a los que se refiere el artículo anterior, será responsable civil solidaria la persona física o jurídica propietaria del medio informativo a través del cual se haya propagado la calumnia o injuria.

Artículo 213

Si la calumnia o injuria fueren cometidas mediante precio, recompensa o promesa, los Tribunales impondrán, además de las penas señaladas para los delitos de que se trate, la de inhabilitación especial prevista en los artículos 42 ó 45 del presente Código, por tiempo de seis meses a dos años.

Artículo 214

Si el acusado de calumnia o injuria reconociere ante la autoridad judicial la falsedad o falta de certeza de las imputaciones y se retractare de ellas, el Juez o Tribunal impondrá la pena inmediatamente inferior en grado y podrá dejar de imponer la pena de inhabilitación que establece el artículo anterior.

III. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

211. artikulua

Kalumnia eta iraina publizitatearen bidez egin direla ulertuko da, baldin eta inprimatze, irrati-hedatze edo horien antzeko eragingarritasuna duten bideetatik beste edozein erabiliz zabaltzen badira.

212. artikulua

Aurreko artikuluko kasuetan, kalumnia edo iraina zabaltzeko bide izan den informazio-enpresaren jabeak, pertsona fisiko nahiz juridikoa izan, erantzukizun zibil solidarioa izango du.

213. artikulua

Kalumnia edo iraina prezio, sari edo hitzematearen bidez egiten badira, auzitegiek, delitu bakoitzari dagozkion zigorrez gain, kode honen 42 edo 45. artikuluetan ezartzen den desgaikuntza berezia ezarriko dute, sei hilabetetik bi urte artekoa.

214. artikulua

Kalumnia edo irainaren ondoriozko akusatuak aitortzen badu, agintaritza judizialaren aurrean, egozpenak faltsuak direla edo egiazkoak ez direla, eta horietan atzera jotzen badu, epaile edo auzitegiak gradu bat gutxiagoko zigorra ezarriko du, eta aurreko artikuluko desgaikuntza-zigorra ez ezartzea erabaki ahal izango du.

El Juez o Tribunal ante quien se produjera el reconocimiento ordenará que se entregue testimonio de retractación al ofendido y, si éste lo solicita, ordenará su publicación en el mismo medio en que se vertió la calumnia o injuria, en espacio idéntico o similar a aquel en que se produjo su difusión y dentro del plazo que señale el Juez o Tribunal sentenciador.

Artículo 215

1. Nadie será penado por calumnia o injuria sino en virtud de querella de la persona ofendida por el delito o de su representante legal. Se procederá de oficio cuando la ofensa se dirija contra funcionario público, autoridad o agente de la misma sobre hechos concernientes al ejercicio de sus cargos.

2. Nadie podrá deducir acción de calumnia o injuria vertidas en juicio sin previa licencia del Juez o Tribunal que de él conociere o hubiere conocido.

3. El culpable de calumnia o injuria quedará exento de responsabilidad criminal mediante el perdón de la persona ofendida por el delito o de su representante legal, sin perjuicio de lo dispuesto en el segundo párrafo del número 4.º del artículo 130 de este Código.

Artículo 216

En los delitos de calumnia o injuria se considera que la reparación del daño comprende también la publicación o divulgación de la sentencia condenatoria,

Epaile edo auzitegiak, aitorpena beraren aurrean egin bada, atzera jotzeari buruzko lekukotza ofendituari emateko aginduko du. Ofendituak hala eskatuz gero, atzera jotzeari buruzko lekukotza kalumnia edo iraina egin den hedabide berean argitaratzeko aginduko du, hedatzeko erabili den saio berdin edo antzekoan, eta epaile edo auzitegi epai-emaileak ezartzen duen epean.

215. artikulua

1. Ofendituaren edo beraren lege-ordezkariaren kereila beharrezkoa izango da, kalumnia- edo irain-delituaren ondorioz inori zigorra ezartzeko. Ofizioz jardungo da, ofentsa funtzionario publiko, agintaritza edo agintaritzaren agentearen aurkakoa den kasuan eta euren karguetan aritzearekin zerikusia duten egitateei buruzkoa bada.

2. Inork ezingo du akziorik jarri epaiketan botatako kalumnia edo irainaren ondorioz, epaiketa horretan eskuduna den edota izan den epaile edo auzitegiaren lizentziarik gabe.

3. Kalumnia edo irainpeko erruduna erantzukizun kriminaletik salbuetsita geratuko da, baldin eta delituaren ondoriozko ofendituak edo beraren lege-ordezkariak barkatzen badio; horrek ez dio kalterik egingo kode honen 130. artikuluko 4. zenbakiaren bigarren lerrokadan xedatutakoari.

216. artikulua

Kalumnia- edo irain-delituetan kaltearen konponketak epai kondenatzailea argitaratzea edo zabaltzea ere barne hartzen duela ulertzen da. Delituenga-

a costa del condenado por tales delitos, en el tiempo y forma que el Juez o Tribunal consideren más adecuado a tal fin, oídas las dos partes.

tik kondenatua izan denaren kontura argitaratu edo zabalduko da epaia, epaile edo auzitegiaren ustez kaltea konpontzeko epe eta erarik egokienean, eta bi alderdiek esan beharrekoa entzun eta gero.

TÍTULO XII
DELITOS CONTRA LAS RELACIONES FAMILIARES

CAPÍTULO I
De los matrimonios ilegales

Artículo 217

El que contrajere segundo o ulterior matrimonio, a sabiendas de que subsiste legalmente el anterior, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año.

Artículo 218

1. El que, para perjudicar al otro contrayente, celebrare matrimonio inválido será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

2. El responsable quedará exento de pena si el matrimonio fuese posteriormente convalidado.

Artículo 219

1. El que autorizare matrimonio en el que concurra alguna causa de nulidad conocida o denunciada en el expediente, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años e in-

XII. TITULUA
FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Legearen aurkako ezkontzak

217. artikulua

Norbait bigarren edo hurrengo aldiz ezkontzen bada, aurreko ezkontzak legez dirauela jakinda, sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

218. artikulua

1. Norbaitek, bere ezkontideari kalte egiteko, ezkontza baliogabea egiten badu, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Hori egin ondoren ezkontza baliozkotzen bada, erantzulea zigorretik salbuetsita geratuko da.

219. artikulua

1. Norbaitek, ageriko edo espedientean salaturiko deuseztasun-arrazoia izanik, ezkontza baimentzen badu, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko

habilitación especial para empleo o cargo público de dos a seis años.

2. Si la causa de nulidad fuere dispensable, la pena será de suspensión de empleo o cargo público de seis meses a dos años.

zaio, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, bi urtetik sei artekoa.

2. Deuseztasun-arrazoia kentzeko modukoa bada, orduan, zigorra enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urtera etetea izango da.

CAPÍTULO II

De la suposición de parto y de la alteración de la paternidad, estado o condición del menor

Artículo 220

1. La suposición de un parto será castigada con las penas de prisión de seis meses a dos años.

2. La misma pena se impondrá al que ocultare o entregare a terceros un hijo para alterar o modificar su filiación.

3. La sustitución de un niño por otro será castigada con las penas de prisión de uno a cinco años.

4. Los ascendientes, por naturaleza o por adopción, que cometieran los hechos descritos en los tres apartados anteriores podrán ser castigados además con la pena de inhabilitación especial para el ejercicio del derecho de patria potestad que tuvieren sobre el hijo o descendiente supuesto, ocultado, entregado o sustituido, y, en su caso, sobre el resto de hijos o descendientes por tiempo de cuatro a diez años.

II. KAPITULUA

Erditzea gertatu dela sinestaraztea eta adingabearen gurasoak edota adingabe horren egoera nahiz izatea aldaraztea

220. artikulua

1. Erditzea gertatu dela sinestarazi duenak sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra jasoko du.

2. Zigor bera ezarriko zaio semea edo alaba ezkutatu edo besteren bati ematen dionari, beraren seme-alabatasuna aldatzeko edo aldarazteko.

3. Ume baten ordez beste bat jartzen denean, urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

4. Odolez edo adopzioz aurrekoak direnek aurreko hiru paragrafoek azaldutako egitateak gauzatzen badituzte, desgaikuntza berezia ere ezarri ahal izango zaie, lau urtetik hamar artekoa, sinestarazitako, ezkutatutako, emandako edo ordeztutako seme, alaba edo ondorengoaren gain guraso-ahalaren eskubidea egikaritzeko eta, hala denean, gainerako seme, alaba edo ondorengoen gain ere guraso-ahalaren eskubidea egikaritzeko.

5. Las sustituciones de un niño por otro que se produjeren en centros sanitarios o socio-sanitarios por imprudencia grave de los responsables de su identificación y custodia, serán castigadas con la pena de prisión de seis meses a un año.

Artículo 221

1. Los que, mediando compensación económica, entreguen a otra persona un hijo, descendiente o cualquier menor aunque no concurra relación de filiación o parentesco, eludiendo los procedimientos legales de la guarda, acogimiento o adopción, con la finalidad de establecer una relación análoga a la de filiación, serán castigados con las penas de prisión de uno a cinco años y de inhabilitación especial para el ejercicio del derecho de patria potestad, tutela, curatela o guarda por tiempo de cuatro a diez años.

2. Con la misma pena serán castigados la persona que lo reciba y el intermediario, aunque la entrega del menor se hubiese efectuado en país extranjero.

3. Si los hechos se cometieren utilizando guarderías, colegios u otros locales o establecimientos donde se recojan niños, se impondrá a los culpables la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de las referidas actividades por tiempo de dos a seis años y se podrá acordar la clausura temporal o definitiva de los establecimientos. En la clausura temporal, el plazo no podrá exceder de cinco años.

5. Gaixotegian edo gizarte-osasun zentroetan umeen identifikazio eta zaintzaren erantzuleei sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, baldin eta euren zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz ume baten ordez beste bat jartzen bada.

221. artikulua

1. Norbaitzuek, seme-alabatasunaren antzeko harremanak ezartzeko helburuarekin eta konpentsazio ekonomikoa dela medio, beste pertsona bati ematen badiote seme, alaba zein ondorengo bat edota, seme-alabatasun nahiz ahaidetasunezko harremanak izan ez arren, adingabe bat, eta horretarako zaintza, harrera edo adopziorako lege-prozedurei itzuri egiten badiete, orduan, halakoei urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie eta guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza edo zaintzaren eskubidea egikaritzeko desgaikuntza berezia, lau urtetik hamar artekoa.

2. Adingabea atzerrian ematen bada ere, zigor bera ezarriko zaie adingabea jasotzen duenari eta bitartekoari.

3. Egitateak gauzatzen badira haurtzaindegiak, ikastetxeak edo umeak jasotzen dituzten bestelako lokalak nahiz etxeak erabiliz, errudunei jarduera horiek gauzatzeko desgaikuntza berezia ezarriko zaie, bi urtetik sei artekoa. Horrezaz gain, epaileak haur-etxe horiek aldi baterako edo betiko ixtea erabaki dezake. Aldi baterako itxierak ezin izango du bost urte baino gehiago iraun.

Artículo 222

El educador, facultativo, autoridad o funcionario público que, en el ejercicio de su profesión o cargo, realice las conductas descritas en los dos artículos anteriores, incurrirá en la pena en ellos señalada y, además, en la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, de dos a seis años.

A los efectos de este artículo, el término facultativo comprende los médicos, matronas, personal de enfermería y cualquier otra persona que realice una actividad sanitaria o socio-sanitaria.

222. artikulua

Hezitzaile, aditu, agintari edo funtzionario publikoak, bere lanbidean edo karguan aritzean, aurreko bi artikuluetan azaldutako jokabideetatik bat egiten badu, orduan, horri artikuluotako zigorra ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publiko, lanbide zein ogibiderako desgaikuntza berezia, bi urtetik sei artekoa.

Artikulu honen ondoreetarako, aditu hitzak barne hartzen ditu osagileak, emaginak, erizaintzako langileak eta osasuneko edo gizarte-osasuneko jarduerak egiten dituzten pertsonetatik beste edozein.

CAPÍTULO III

De los delitos contra los derechos y deberes familiares

SECCIÓN I

III. KAPITULUA

Familia-eskubideen eta -eginbeharren aurkako delituak

I. ATALA

-

Artículo 223

El que, teniendo a su cargo la custodia de un menor de edad o un incapaz, no lo presentare a sus padres o guardadores sin justificación para ello, cuando fuere requerido por ellos, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años, sin perjuicio de que los hechos constituyan otro delito más grave.

223. artikulua

Norbaitek bere ardurapean adingabe edo ezgai baten zaintza badu eta, adingabearen gurasoek edo ezgaiaren zaintzaileek hala eskaturik eta arrazoirik gabe, adingabe edo ezgai hori aurkezten ez badie, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, egitateok beste delitu astunagoa ere izateari kalterik egin gabe.

Artículo 224

El que indujere a un menor de edad o a un incapaz a que abandone el domicilio familiar, o lugar donde resida con anuencia de sus padres, tutores o guardadores, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

En la misma pena incurrirá el progenitor que induzca a su hijo menor a infringir el régimen de custodia establecido por la autoridad judicial o admnistrativa.

Artículo 225

Cuando el responsable de los delitos previstos en los dos artículos anteriores restituya al menor de edad o al incapaz a su domicilio o residencia, o lo deposite en lugar conocido y seguro, sin haberle hecho objeto de vejaciones, sevicias o acto delictivo alguno, ni haber puesto en peligro su vida, salud, integridad física o libertad sexual, el hecho será castigado con la pena de prisión de tres meses a un año o multa de seis a veinticuatro meses, siempre y cuando el lugar de estancia del menor de edad o el incapaz haya sido comunicado a sus padres, tutores o guardadores, o la ausencia no hubiera sido superior a veinticuatro horas.

224. artikulua

Norbaitek adingabea edo ezgaia induzitzen badu familiaren egoitza edo bizilekua uztera edota guraso, tutore edo zaintzaileen adostasunarekin bizi den lekua uztera, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Gurasoari zigor bera ezarriko zaio, bere seme edo alaba adingabea induzitzen badu, horrek agintaritza judizialak edo administrazio-agintaritzak ezarritako zaintza-araubidea hauts dezan.

225. artikulua

Aurreko bi artikuluetan ezarritako delituen erantzuleak adingabea edo ezgaia beraren egoitza nahiz bizilekura itzultzen duenean, edo leku ezagun eta ziurrean uzten duenean, horri inolako isekarik, krudelkeriarik ez delitu-egintzarik gauzatu gabe, edo bizitza, osasuna, osotasun fisikoa nahiz sexu-askatasuna arriskuan jarri gabe, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, baldin eta guraso, tutore edo zaintzaileei adingabea edo ezgaia non egon den jakinarazi badie, edo absentziak ez badu hogeita lau ordu baino gehiago iraun.

SECCIÓN II

II. ATALA

Artículo 225bis

1. El progenitor que sin causa justificada para ello sustrajere a su hijo menor

225bis artikulua

1. Gurasoak bere seme edo alaba adingabea osten badu, horretarako bi-

será castigado con la pena de prisión de dos a cuatro años e inhabilitación especial para el ejercicio del derecho de patria potestad por tiempo de cuatro a diez años.

2. A los efectos de este artículo, se considera sustracción:

1.º El traslado de un menor de su lugar de residencia sin consentimiento del progenitor con quien conviva habitualmente o de las personas o instituciones a las cuales estuviese confiada su guarda o custodia.

2.º La retención de un menor incumpliendo gravemente el deber establecido por resolución judicial o administrativa.

3. Cuando el menor sea trasladado fuera de España o fuese exigida alguna condición para su restitución la pena señalada en el apartado 1 se impondrá en su mitad superior.

4. Cuando el sustractor haya comunicado el lugar de estancia al otro progenitor o a quien corresponda legalmente su cuidado dentro de las veinticuatro horas siguientes a la sustracción con el compromiso de devolución inmediata que efectivamente lleve a cabo, o la ausencia no hubiere sido superior a dicho plazo de veinticuatro horas, quedará exento de pena.

Si la restitución la hiciere, sin la comunicación a que se refiere el párrafo anterior, dentro de los quince días siguientes a la sustracción, le será im-

dezko arrazoirik izan gabe, guraso horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra eta guraso-ahalaren eskubidea egikaritzeko desgaikuntza berezia, lau urtetik hamar artekoa, ezarriko zaizkio.

2. Artikulu honen ondoreetarako, ostea izango da:

1.) Adingabea bere bizilekutik lekualdatzea, adingabe hori zein gurasorekin bizi ohi den eta guraso horren adostasunik gabe, edo adingabea zein pertsona edo erakunderen zaintza nahiz jagoletzapean egon eta horien adostasunik gabe.

2.) Adingabea atxikitzea, ebazpen judizialak edo administrazio-ebazpenak ezarritako eginbeharra modu larrian urratuz.

3. Adingabea Espainiatik kanpo lekualdatzen denean, edo, adingabea itzul dadin, baldintzaren bat eskatzen denean, 1. paragrafoan aipatu zigorra bere goiko erdian ezarriko da.

4. Adingabea ostu duen gurasoak, hori egin eta hurrengo hogeita lau orduetan, egonlekua komunikatzen badio beste gurasoari edo lege-aginduz haren gaineko zaintza duenari, eta, adingabea berehala itzultzeko konpromisoa harturik, hori benetan egiten badu, edota absentzia ez bada izan hogeita lau orduko epe hori baino luzeagoa, orduan, hura zigorretik salbuetsita geratuko da.

Gurasoak adingabea itzultzen badu hori ostu eta hurrengo hamabost egunetan, baina aurreko lerrokadak aipatzen duen komunikazioa egin gabe, or-

puesta la pena de prisión de seis meses a dos años.

Estos plazos se computarán desde la fecha de la denuncia de la sustracción.

5. Las penas señaladas en este artículo se impondrán igualmente a los ascendientes del menor y a los parientes del progenitor hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad que incurran en las conductas anteriormente descritas.

duan, guraso horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Epe horiek zenbatuko dira, ostearen inguruko salaketa egiten den egunetik.

5. Artikulu honetan aipatu zigorrak ezarriko zaizkie, orobat, adingabearen aurrekoei eta gurasoaren ahaideei, baldin eta odol edo ezkontza bidezko bigarren gradurainokoak badira, eta eurek burutu badituzte aurretiaz deskribatutako jokabideak.

SECCIÓN III

,

III. ATALA

,

Artículo 226

1. El que dejare de cumplir los deberes legales de asistencia inherentes a la patria potestad, tutela, guarda o acogimiento familiar o de prestar la asistencia necesaria legalmente establecida para el sustento de sus descendientes, ascendientes o cónyuge, que se hallen necesitados, será castigado con la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a doce meses.

2. El Juez o Tribunal podrá imponer, motivadamente, al reo la pena de inhabilitación especial para el ejercicio del derecho de patria potestad, tutela, guarda o acogimiento familiar por tiempo de cuatro a diez años.

226. artikulua

1. Norbaitek guraso-ahalari, tutoretzari, zaintzari edo familia-harrerari datxezkion laguntzeko lege-eginbeharrak betetzeari uzten badio, edo bere ondorengoak, aurrekoak edo ezkontidea mantentzeko legez ezarritako beharrezko laguntza emateari uzten badio, horiek behartsuak izanik, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio.

2. Epaile edo auzitegiak, zioak emanez, guraso-ahalaren, tutoretzaren, zaintzaren edo familia-harreraren eskubidea egikaritzeko, desgaikuntza berezia ezarri ahal izango dio errudunari, lau urtetik hamar artekoa.

Artículo 227

El que dejare de pagar durante dos meses consecutivos o cuatro meses no consecutivos cualquier tipo de prestación económica en favor de su cónyuge o sus hijos, establecida en convenio judicialmente aprobado o resolución judicial, en los supuestos de separación legal, divorcio, declaración de nulidad del matrimonio, proceso de filiación, o proceso de alimentos a favor de sus hijos, será castigado con la pena de prisión de tres meses a un año o multa de seis a 24 meses.

2. Con la misma pena será castigado el que dejare de pagar cualquier otra prestación económica establecida de forma conjunta o única en los supuestos previstos en el apartado anterior.

3. La reparación del daño procedente del delito comportará siempre el pago de las cuantías adeudadas.

Artículo 228

Los delitos previstos en los dos artículos anteriores, sólo se perseguirán previa denuncia de la persona agraviada o de su representante legal. Cuando aquélla sea menor de edad, incapaz o una persona desvalida, también podrá denunciar el Ministerio Fiscal.

Artículo 229

1. El abandono de un menor de edad o un incapaz por parte de la per-

227. artikulua

1. Norbaitek, ondoz ondoko bi hilabetetan zehar edo jarraigabeko lau hilabetetan zehar, ezkontide edo seme-alabentzat ezarritako prestazio ekonomikoetatik edozein ordaintzeari uzten badio, eta prestazio hori onespen judiziala duen hitzarmenaren bidez edo epaile-ebazpenaren bidez ezarri bada, legezko banantzean, dibortzioan, ezkontzaren deuseztasunari buruzko adierazpenean, seme-alabatasunari buruzko prozesuan edo seme-alabentzako mantenu prozesuko kasuan, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaio.

2. Zigor berbera ezarriko zaio batera edo bakarka ezarritako prestazio ekonomikoetatik beste edozein ordaintzeari uzten dionari, baldin eta prestazio ekonomiko hori aurreko paragrafoko kasuetan ezarrita badago.

3. Delituak sorrarazitako kaltea konpontzeko beti ordainduko dira zordundutako zenbatekoak.

228. artikulua

Aurreko bi artikuluetan ezarritako delituak pertsegitzeko, laidotuaren edo beraren lege-ordezkariaren salaketa beharrezkoa izango da. Fiskaltzak ere salaketa egin ahal izango du, laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean.

229. artikulua

1. Adingabearen edo ezgaiaren zaintzaz arduratzen denari urtebetetik

sona encargada de su guarda, será castigado con la pena de prisión de uno a dos años.

2. Si el abandono fuere realizado por los padres, tutores o guardadores legales, se impondrá la pena de prisión de dieciocho meses a tres años.

3. Se impondrá la pena de prisión de dos a cuatro años cuando por las circunstancias del abandono se haya puesto en concreto peligro la vida, salud, integridad física o libertad sexual del menor de edad o del incapaz, sin perjuicio de castigar el hecho como corresponda si constituyera otro delito más grave.

Artículo 230

El abandono temporal de un menor de edad o de un incapaz será castigado, en sus respectivos casos, con las penas inferiores en grado a las previstas en el artículo anterior.

Artículo 231

1. El que, teniendo a su cargo la crianza o educación de un menor de edad o de un incapaz, lo entregare a un tercero o a un establecimiento público sin la anuencia de quien se lo hubiere confiado, o de la autoridad, en su defecto, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses.

2. Si con la entrega se hubiere puesto en concreto peligro la vida, salud, integridad física o libertad sexual del

bi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, baldin eta adingabe edo ezgai hori bertan behera uzten badu.

2. Guraso, tutore edo legezko zaintzaileak badira adingabea edo ezgaia bertan behera uzten dutenak, hemezortzi hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

3. Bi urtetik lau arteko espetxealdi--zigorra ezarriko da, baldin eta bertan behera uzte horren inguruabarrak direla eta, adingabe edo ezgaiaren bizia, osasuna, osotasun fisikoa edo sexu-askatasuna arrisku zehatzean jarri bada; horrek ez dio kalterik egingo, egitatea delitu astunagoa bada, delitu horri dagokion zigorra ezartzeari.

230. artikulua

Adingabea edo ezgaia aldi baterako bertan behera uztea, kasuan-kasuan, aurreko artikuluan ezarritako zigorrak baino gradu bat gutxiagokoekin zigortuko da.

231. artikulua

1. Norbaitek, adingabe edo ezgai baten hazkuntza zein heziketa bere ardurapean duelarik, beste baten eskuetan edo establezimendu publiko batean uzten badu, adingabea edo ezgai hori bere esku utzi duenaren adostasunik gabe edo, hala denean, agintaritzaren adostasunik gabe, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hamabi arteko isun--zigorra ezarriko zaio.

2. Adingabea edo ezgaia emateak arrisku zehatzean jartzen badu haren bizitza, osasuna, osotasun fisikoa edo

menor de edad o del incapaz se impondrá la pena de prisión de seis meses a dos años.

Artículo 232

1. Los que utilizaren o prestaren a menores de edad o incapaces para la práctica de la mendicidad, incluso si ésta es encubierta, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a un año.

2. Si para los fines del apartado anterior se traficare con menores de edad o incapaces, se empleare con ellos violencia o intimidación, o se les suministrare sustancias perjudiciales para su salud, se impondrá la pena de prisión de uno a cuatro años.

Artículo 233

1. El Juez o Tribunal, si lo estima oportuno en atención a las circunstancias del menor, podrá imponer a los responsables de los delitos previstos en los artículos 229 al 232 la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la patria potestad o de los derechos de guarda, tutela, curatela o acogimiento familiar por tiempo de cuatro a diez años.

2. Si el culpable ostentare la guarda del menor por su condición de funcionario público, se le impondrá además la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

3. En todo caso, el Ministerio Fiscal instará de la autoridad competente las medidas pertinentes para la debida custodia y protección del menor.

sexu-askatasuna, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

232. artikulua

1. Norbaitzuek eskean aritzeko adingabe edo ezgaiak erabili edo inoren eskuetan uzten badituzte, sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, eskekotasuna estalia bada ere.

2. Aurreko paragrafoko helburuak lortzeko, adingabeak edo ezgaiak trafikagai hartzen dituztenei; horien aurka indarkeria edo larderia erabiltzen dutenei; edota osasunerako gai kaltegarriak ematen dizkietenei, urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

233. artikulua

1. Epaile edo auzitegiak, adingabearen inguruabarrak kontuan izanik egokia dela uste badu, 229. artikulutik 232.era bitartean ezarritako delituen erantzule direnei, guraso-ahala, edo zaintzako, tutoretzako, kuradoretzako zein familia-harrerako eskubideak egikaritzeko desgaikuntza berezia ezar diezaieke, lau urtetik hamar artekoa.

2. Erruduna funtzionario publikoa izateagatik adingabearen zaintzaz arduratzen bada, enplegu edo kargu publikoan aritzeko desgaikuntza berezia ere ezarriko zaio, bi urtetik sei artekoa.

3. Edozein kasutan, adingabea behar bezala zaindu eta babesteko neurri egokiak harraraziko dizkio Fiskaltzak agintaritza eskudunari.

TÍTULO XIII
DELITOS CONTRA EL PATRIMONIO Y CONTRA EL ORDEN SOCIOECONÓMICO

XIII. TITULUA
ONDAREAREN, ETA GIZARTE ETA EKONOMIAREN ORDENAREN AURKAKO DELITUAK

CAPÍTULO I
De los hurtos

Artículo 234

El que, con ánimo de lucro, tomare las cosas muebles ajenas sin la voluntad de su dueño, será castigado, como reo de hurto, con la pena de prisión de seis a dieciocho meses, si la cuantía de lo sustraído excede de 400 euros.

Con la misma pena se castigará al que en el plazo de un año realice cuatro veces la acción descrita en el artículo 623.1 de este Código, siempre que el montante acumulado de las infracciones sea superior al mínimo de la referida figura del delito.

Artículo 235

El hurto será castigado con la pena de prisión de uno a tres años:

1. Cuando se sustraigan cosas de valor artístico, histórico, cultural o científico.

2. Cuando se trate de cosas de primera necesidad o destinadas a un servicio público, siempre que la sustracción ocasionare un grave quebranto a éste, o una situación de desabastecimiento.

I. KAPITULUA
Ebasketak

234. artikulua

Norbaitek, irabaziak lortzeko asmoz, beste baten gauza higigarriak hartzen baditu jabearen borondaterik gabe, sei hilabetetik hemezortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, ebasketaren errudun gisa, baldin eta ostu duenaren zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa bada.

Zigor bera ezarriko zaio urtebeteko epean lau aldiz kode honen 623.1 artikuluan deskribatutako ekintza burutzen duenari, baldin eta arau-hausteen ondorioz pilatutako zenbatekoa aipatu delituaren gutxienekoa baino handiagoa bada.

235. artikulua

Ebasketa egiten duenari urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio hurrengo kasuetan:

1. Erti-, historia-, kultura- edo zientzia-balioa duten gauzak osten direnean.

2. Oinarrizko beharrizanetarako edo zerbitzu publikorako gauzak direnean, gauza horiek osteak zerbitzu publikoa modu larrian urratzen badu, edo hornidurarik ez izatea eragiten badu.

3. Cuando revista especial gravedad, atendiendo al valor de los efectos sustraídos, o se produjeren perjuicios de especial consideración.

4. Cuando ponga a la víctima o a su familia en grave situación económica o se haya realizado abusando de las circunstancias personales de la víctima.

Artículo 236

Será castigado con multa de tres a doce meses el que, siendo dueño de una cosa mueble o actuando con el consentimiento de éste, la sustrajere de quien la tenga legítimamente en su poder, con perjuicio del mismo o de un tercero, siempre que el valor de aquélla excediere de 400 euros.

3. Ostutako efektuen balioa kontuan izanik, ebasketa larritasun berezikoa denean, edo astuntasun bereziko kalteak sorrarazten direnean.

4. Ebasketak biktima edo beraren familia egoera ekonomiko larrian jartzen duenean, edo ebasketa biktimaren beraren inguruabarrez abusatuz egiten denean.

236. artikulua

Hiru hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio gauza higigarri baten jabea denari edo jabearen adostasunarekin jarduten duenari, gauza hori ostu badio bere eskuetan bidezko eran daukanari, pertsona horri edo beste inori kalte eginez; betiere gauza horren balioa 400 euro baino gehiagokoa denean.

CAPÍTULO II
De los robos

Artículo 237

Son reos del delito de robo los que, con ánimo de lucro, se apoderaren de las cosas muebles ajenas empleando fuerza en las cosas para acceder al lugar donde éstas se encuentran o violencia o intimidación en las personas.

Artículo 238

Son reos del delito de robo con fuerza en las cosas los que ejecuten el hecho cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

1.º Escalamiento.

II. KAPITULUA
Lapurretak

237. artikulua

Lapurreta-delitupeko errudunak dira, irabaziak lortzeko asmoz, beste baten gauza higigarriak harrapatzen dituztenak, baldin eta, gauza horiek dauden lekura sartzeko, gauzetan indarra erabiltzen badute edota pertsonen aurka indarkeria edo larderia.

238. artikulua

Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta-delituaren errudunak dira egitatea gauzatu dutenak hurrengo inguruabarretatik bat gertatzen denean:

1.) Eskalatzea.

2.º Rompimiento de pared, techo o suelo, o fractura de puerta o ventana.

3.º Fractura de armarios, arcas u otra clase de muebles u objetos cerrados o sellados, o forzamiento de sus cerraduras o descubrimiento de sus claves para sustraer su contenido, sea en el lugar del robo o fuera del mismo.

4.º Uso de llaves falsas.

5.º Inutilización de sistemas específicos de alarma o guarda.

Artículo 239

Se considerarán llaves falsas:

1.º Las ganzúas u otros instrumentos análogos.

2.º Las llaves legítimas perdidas por el propietario u obtenidas por un medio que constituya infracción penal.

3.º Cualesquiera otras que no sean las destinadas por el propietario para abrir la cerradura violentada por el reo.

A los efectos del presente artículo, se consideran llaves las tarjetas, magnéticas o perforadas, y los mandos o instrumentos de apertura a distancia.

Artículo 240

El culpable de robo con fuerza en las cosas será castigado con la pena de prisión de uno a tres años.

Artículo 241

1. Se impondrá la pena de prisión de dos a cinco años cuando concurra alguna de las circunstancias previstas

2.) Horma, sabaia edo lurzorua apurtzea, edo atea edo leihoa haustea.

3.) Lapurreta egiten den lekuan nahiz beste leku batean, armairuak, diru-kutxak edo bestelako altzari zein objektu itxi edo zigilatuak haustea, horien sarrailak bortxatzea edota horien kodeak asmatzea, euren edukia osteko.

4.) Giltza faltsuak erabiltzea.

5.) Alarma- edo zaintza-sistema bereziak deuseztatzea.

239. artikulua

Hurrengo hauek giltza faltsutzat hartzen dira:

1.) Gakordeak edo horien antzeko beste tresnak.

2.) Jabeak galdutako giltza bidezkoak, edo zigor-zuzenbideko arau bat hautsiz lortzen direnak.

3.) Errudunak bortxatutako sarraila irekitzeko, jabeak erabiltzen dituen giltzak ez, bestelako edozein.

Artikulu honen ondoreetarako, giltzatzat hartzen dira txartel magnetiko zein zulatuak, eta urrunetik irekitzeko agindte nahiz tresnak.

240. artikulua

Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretaren errudunari urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

241. artikulua

1. Bi urtetik bost arteko espetxealdi--zigorra ezarriko da, egitatean 235. artikuluan ezarritako inguruabarretatik bat

en el artículo 235, o el robo se cometa en casa habitada, edificio o local abiertos al público o en cualquiera de sus dependencias.

2. Se considera casa habitada todo albergue que constituya morada de una o más personas, aunque accidentalmente se encuentren ausentes de ella cuando el robo tenga lugar.

3. Se consideran dependencias de casa habitada o de edificio o local abiertos al público, sus patios, garajes y demás departamentos o sitios cercados y contiguos al edificio y en comunicación interior con él, y con el cual formen una unidad física.

Artículo 242

1. El culpable de robo con violencia o intimidación en las personas será castigado con la pena de prisión de dos a cinco años, sin perjuicio de la que pudiera corresponder a los actos de violencia física que realizase.

2. La pena se impondrá en su mitad superior cuando el delincuente hiciere uso de las armas u otros medios igualmente peligrosos que llevare, sea al cometer el delito o para proteger la huida y cuando el reo atacare a los que acudiesen en auxilio de la víctima o a los que le persiguieren.

3. En atención a la menor entidad de la violencia o intimidación ejercidas y valorando además las restantes circunstancias del hecho, podrá imponer-

gertatzen denean, edo lapurreta etxe biztanledunean, jendaurrean zabalik dagoen eraikin zein lokalean, edota horietako edozein gelatan egiten denean.

2. Etxe biztanleduntzat hartzen da edozein aterpe, pertsona bat edo gehiagoren bizilekua bada, nahiz eta lapurreta gertatzen denean, edozer dela eta, pertsona hori edo horiek etxebizitzatik kanpo egon.

3. Etxe biztanleduneko edo jendaurrean zabalik dauden eraikin zein lokaleko gelatzat hartzen dira euren patioak eta garajeak, bai eta gainerako atal edo lekuak ere, hesituak badira, eraikinaren ondoan eta barrutik lotuta badaude eta eraikinarekin batera batasun fisikoa osatzen badute.

242. artikulua

1. Pertsonen aurkako indarkeriaz edo larderiaz egindako lapurretaren errudunari bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio; horrek ez dio kalterik egingo bestelako zigorra ezarri ahal izateari, baldin eta zigor hori badagokie hark indarkeria fisikoa erabilita gauzatzen dituen egintzei.

2. Aurreko paragrafoko zigorra goiko erdian ezarriko da, baldin eta delitugileak aldean daramatzan armak edo arrisku bereko bitartekoak erabiltzen baditu, bai delitu egitean bai bere ihesa babesteko ere, eta errudunak biktima laguntzeko hurbiltzen direnei edota bere atzetik doazenei eraso egiten dienean.

3. Erabilitako indarkeria edo larderia astuntasun txikiagokoa dela kontuan hartuz, eta egitatearen gainerako inguruabarrak ere balioetsiz, artikulu

se la pena inferior en grado a la prevista en el apartado primero de este artículo.

honen lehenengo paragrafoan ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarri ahal izango da.

CAPÍTULO III
De la extorsión

Artículo 243

El que, con ánimo de lucro, obligare a otro, con violencia o intimidación, a realizar u omitir un acto o negocio jurídico en perjuicio de su patrimonio o del de un tercero, será castigado con la pena de prisión de uno a cinco años, sin perjuicio de las que pudieran imponerse por los actos de violencia física realizados.

III. KAPITULUA
Estortsioa

243. artikulua

Norbaitek, irabaziak lortzeko asmoz eta indarkeria edo larderia erabiliz, beste bat egintza edo negozio juridikoa egitera edo ez egitera behartzen badu, beraren edo beste inoren ondarearen kalterako, orduan, pertsona horri urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio; horrek ez dio kalterik egingo bestelako zigorrak ezarri ahal izateari, baldin eta zigor horiek badagozkie hark indarkeria fisikoa erabiliz gauzatzen dituen egintzei.

CAPÍTULO IV
Del robo y hurto de uso de vehículos

Artículo 244

1. El que sustrajere o utilizare sin la debida autorización un vehículo a motor o ciclomotor ajenos, cuyo valor excediere de 400 euros, sin ánimo de apropiárselo, será castigado con la pena de trabajos en beneficio de la comunidad de 31 a 90 días o multa de seis a doce meses si lo restituyere, directa o indirectamente, en un plazo no superior a cuarenta y ocho horas, sin que en ningún caso la pena impuesta pueda ser igual o superior a la que corresponde-

IV. KAPITULUA
Ibilgailua erabiltzeko lapurreta eta ebasketa

244. artikulua

1. Norbaitek beste baten ibilgailu motorduna edo motor-bizikleta, 400 euro baino gehiago balio duena, osten badu edo behar den bezalako baimenik gabe erabiltzen badu, jabetzeko asmorik gabe, orduan, horri 31 egunetik 90 arte gizartearentzako lan egitea ezarriko zaio, edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna, baldin eta, zuzenean edo zeharka, berrogeita zortzi ordu baino luzeagoa ez den epean bihurtzen badu. Edozein kasutan, ezarritako zigorra ezin da izan

ría si se apropiare definitivamente del vehículo.

Con la misma pena se castigará al que en el plazo de un año realice cuatro veces la acción descrita en el artículo 623.3 de este Código, siempre que el montante acumulado de las infracciones sea superior al mínimo de la referida figura del delito.

2. Si el hecho se ejecutare empleando fuerza en las cosas, la pena se aplicará en su mitad superior.

3. De no efectuarse la restitución en el plazo señalado, se castigará el hecho como hurto o robo en sus respectivos casos.

4. Si el hecho se cometiere con violencia o intimidación en las personas, se impondrán, en todo caso, las penas del artículo 242.

ibilgailuaz betiko jabetzeari dagokion zigorraren bestekoa, ezta zigor hori baino handiagoa ere.

Zigor bera ezarriko zaio urtebeteko epean lau aldiz kode honen 623.3 artikuluan deskribatutako ekintza burutzen duenari, baldin eta arau-hausteen ondorioz pilatutako zenbatekoa aipatu delituaren gutxienekoa baino handiagoa bada.

2. Egitatea gauzatzen bada gauzetan indarra erabiliz, zigorra goiko erdian ezarriko da.

3. Aipatu epean bihurketa egiten ez bada, kasuan-kasuan, egitatea ebasketa edo lapurreta gisa zigortuko da.

4. Egitatea pertsonen aurka indarkeria edo larderia erabiliz gauzatzen bada, edozein kasutan, 242. artikuluko zigorrak ezarriko dira.

CAPÍTULO V
De la usurpación

Artículo 245

1. Al que con violencia o intimidación en las personas ocupare una cosa inmueble o usurpare un derecho real inmobiliario de pertenencia ajena, se le impondrá, además de las penas en que incurriere por las violencias ejercidas, una multa de seis a dieciocho meses, que se fijará teniendo en cuenta la utilidad obtenida y el daño causado.

2. El que ocupare, sin autorización debida, un inmueble, vivienda o edifi-

V. KAPITULUA
Usurpazioa

245. artikulua

1. Pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz, beste baten gauza higiezina okupatzen edo ondasun higiezinen gaineko beste baten eskubide erreala usurpatzen duenari, berak erabiltzen dituen indarkerien ondorioz dagozkion zigorrez gain, sei hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaio, lortutako onura eta eragindako kaltea kontuan izanik.

2. Norbaitek, behar bezalako baimenik gabe, bizilekua ez den eta beste

cio ajenos que no constituyan morada, o se mantuviere en ellos contra la voluntad de su titular, será castigado con la pena de multa de tres a seis meses.

Artículo 246

El que alterare términos o lindes de pueblos o heredades o cualquier clase de señales o mojones destinados a fijar los límites de propiedades o demarcaciones de predios contiguos, tanto de dominio público como privado, será castigado con la pena de multa de tres a dieciocho meses, si la utilidad reportada o pretendida excede de 400 euros.

Artículo 247

El que, sin hallarse autorizado, distrajere las aguas de uso público o privativo de su curso, o de su embalse natural o artificial, será castigado con la pena de multa de tres a seis meses si la utilidad reportada excediere de 400 euros.

batena den ondasun higiezina, etxebizitza edo eraikina okupatzen badu, edota euren titularraren borondatearen aurka horietan irauten badu, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik sei arteko isun-zigorra ezarriko zaio.

246. artikulua

Norbaitek herri edo landen mugarteak nahiz mugak aldatzen baditu, edota elkarren ondoko jabetza edo lur-sail publiko nahiz pribatuen mugak edo mugapeak zedarritzeko seinaleak edo mugarriak aldatzen baditu, horiek edozein motakoak direla ere, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaio, baldin eta lortzen duen edo lortu nahi izan duen onura 400 eurokoa baino handiagoa bada.

247. artikulua

Norbaitek, baimenik gabe, erabilera publikoko nahiz pribatuko urak euren ibilbidetik edo euren urtegi natural zein artifizialetik ateratzen baditu, orduan, horri hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko zaio, 400 euro baino gehiagoko onura lortu badu.

CAPÍTULO VI
De las defraudaciones

SECCIÓN I

Artículo 248

1. Cometen estafa los que, con ánimo de lucro, utilizaren engaño bastante para producir error en otro, inducién-

VI. KAPITULUA
Iruzur egitea

I. ATALA

248. artikulua

1. Maula egiten dute irabaziak lortzeko asmoz beste bati okerra eragiteko engainu nahikoa erabiltzen dutenek,

dolo a realizar un acto de disposición en perjuicio propio o ajeno.

2. También se consideran reos de estafa los que, con ánimo de lucro, y valiéndose de alguna manipulación informática o artificio semejante consigan la transferencia no consentida de cualquier activo patrimonial en perjuicio de tercero.

3. La misma pena se aplicará a los que fabricaren, introdujeren, poseyeren o facilitaren programas de ordenador específicamente destinados a la comisión de las estafas previstas en este artículo.

Artículo 249

Los reos de estafa serán castigados con la pena de prisión de seis meses a tres años, si la cuantía de lo defraudado excediere de 400 euros. Para la fijación de la pena se tendrá en cuenta el importe de lo defraudado, el quebranto económico causado al perjudicado, las relaciones entre éste y el defraudador, los medios empleados por éste y cuantas otras circunstancias sirvan para valorar la gravedad de la infracción.

Artículo 250

1. El delito de estafa será castigado con las penas de prisión de uno a seis años y multa de seis a doce meses, cuando:

1.º Recaiga sobre cosas de primera necesidad, viviendas u otros bienes de reconocida utilidad social.

bere buruaren edo beste baten kaltean xedatze-egintzak gauzatzera induzituz.

2. Halaber, maularen erruduntzat hartzen dira, irabazia lortzeko asmoz edozein manipulazio informatikoz edo horren antzeko trikimailuz baliatuta, nolanahiko ondare-aktibo adostasunik gabe beste baten kaltean eskualdatzea lortzen dutenak.

3. Zigor bera ezarriko zaie ordenagailu-programak fabrikatu, sartu, eduki edo errazten dituztenei, programa horien helburu zehatza bada artikulu honetan ezarritako maulak egitea.

249. artikulua

Maulapeko errudunei sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, baldin eta iruzurraren zenbatekoa 400 eurokoa baino gehiagokoa bada. Zigorra ezartzeko, iruzurraren zenbatekoa hartuko da kontuan, bai eta kaltedunari eragindako galera ekonomikoa, kaltedunaren eta iruzurgilearen arteko harremanak, iruzurgileak erabiltzen dituen bideak, eta arau-haustearen astuntasuna balioesteko balio duten beste inguruabar guztiak ere.

250. artikulua

1. Maula delitua urtebetetik sei arteko espetxealdi-zigorrarekin zigortuko da, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isunarekin ere:

1.) Oinarrizko beharrizanetarako gauzen, etxebizitzen edo gizarte-onura aitortuta duten ondasunetatik beste edozeinen gainekoa denean.

2.º Se realice con simulación de pleito o empleo de otro fraude procesal.

3.º Se realice mediante cheque, pagaré, letra de cambio en blanco o negocio cambiario ficticio.

4.º Se perpetre abusando de firma de otro, o sustrayendo, ocultando o inutilizando, en todo o en parte, algún proceso, expediente, protocolo o documento público u oficial de cualquier clase.

5.º Recaiga sobre bienes que integren el patrimonio artístico, histórico, cultural o científico.

6.º Revista especial gravedad, atendiendo al valor de la defraudación, a la entidad del perjuicio y a la situación económica en que deje a la víctima o a su familia.

7.º Se cometa abuso de las relaciones personales existentes entre víctima y defraudador, o aproveche éste su credibilidad empresarial o profesional.

2. Si concurrieran las circunstancias 6.ª o 7.ª con la 1.ª del número anterior, se impondrán las penas de prisión de cuatro a ocho años y multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 251

Será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años:

1.º Quien, atribuyéndose falsamente sobre una cosa mueble o inmueble fa-

2.) Auzia dagoen itxura eginez edo prozesuko beste edozein iruzurren bidez egiten denean.

3.) Txeke, ordainduko, kanbio-letra zuri edo gezurrezko kanbio-negozioaren bidez egiten denean.

4.) Beste baten sinaduraz abusatuz, edo prozesua, espedientea, protokoloa edota edozein motatako agiri publiko zein ofizial, oso-osoan edo zati batean, ostu, ezkutatu edo deuseztatuz egiten denean.

5.) Erti-, historia-, kultura- edo zientzia-ondarea osatzen duten ondasunen gainekoa denean.

6.) Larritasun berezikoa denean, kontuan izanik egindako iruzurraren balioa, kaltearen garrantzia eta biktimari edo beraren familiari uzten dion egoera ekonomikoa.

7.) Biktimaren eta iruzurgilearen arteko harreman pertsonalez abusatzen denean, edo iruzurgilea beraren enpresa- edo lanbide-sinesgarritasunaz baliatzen denean.

2. Aurreko zenbakiaren 6 edo 7. inguruabarrak zenbaki horren 1. inguruabarrarekin pilatzen badira, lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

251. artikulua

Urtebetetik lau arteko espetxealdi--zigorra ezarriko zaio:

1.) Gauza higigarri edo higiezin baten gaineko xedatze-ahalmena, inoiz

cultad de disposición de la que carece, bien por no haberla tenido nunca, bien por haberla ya ejercitado, la enajenare, gravare o arrendare a otro, en perjuicio de éste o de tercero.

2.º El que dispusiere de una cosa mueble o inmueble ocultando la existencia de cualquier carga sobre la misma, o el que, habiéndola enajenado como libre, la gravare o enajenare nuevamente antes de la definitiva transmisión al adquirente, en perjuicio de éste, o de un tercero.

3.º El que otorgare en perjuicio de otro un contrato simulado.

izan ez duena edo jadanik egikaritu duena, bere buruarentzat faltsutasunez hartuz, gauzok beste bati berorren edo beste inoren kaltean besterendu, kargatu edo errentan ematen dizkionari.

2.) Gauza higigarri edo higiezina xedatzen duenari, horren gaineko zametatik edozein ezkutatuz, edo gauza aske gisa besterentzen duenari, baldin eta eskuratzaileari behin betiko eskualdatu baino lehen berriro kargatzen edo besterentzen badu, eskuratzaile horren edo beste inoren kaltean.

3.) Beste baten kaltean itxurazko kontratua egiten duenari.

SECCIÓN II

II. ATALA

Artículo 252

Serán castigados con las penas del artículo 249 ó 250, en su caso, los que en perjuicio de otro se apropiaren o distrajeren dinero, efectos, valores o cualquier otra cosa mueble o activo patrimonial que hayan recibido en depósito, comisión o administración, o por otro título que produzca obligación de entregarlos o devolverlos, o negaren haberlos recibido, cuando la cuantía de lo apropiado exceda de 400 euros. Dicha pena se impondrá en su mitad superior en el caso de depósito necesario o miserable.

252. artikulua

249 edo 250. artikuluko zigorrak ezarriko zaizkie beste baten kaltean diruaz, efektuez, baloreez nahiz beste edozein gauza higigarriz edo ondare-aktiboz jabetzen direnei edota horiek gaizpideratu edota jaso dituztela ukatzen dutenei, baldin eta horien guztien zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa bada, eta jasotzen badituzte gordetzeko, komisioan edo administratzeko; edota emateko edo itzultzeko betebeharra sorrarazten duen beste edozein tituluren ondorioz. Artikulu honen zigorra goiko erdian ezarriko da, beharrezko gordailuaren edo hondamendiaren zioz egindako gordailuaren kasuan.

Artículo 253

Serán castigados con la pena de multa de tres a seis meses los que, con ánimo de lucro, se apropiaren de cosa perdida o de dueño desconocido, siempre que en ambos casos el valor de lo apropiado exceda de 400 euros. Si se tratara de cosas de valor artístico, histórico, cultural o científico, la pena será de prisión de seis meses a dos años.

253. artikulua

Hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko zaie, irabaziak lortzeko asmoz, galdutako gauzaz edo jabe ezagunik ez duenaz jabetzen direnei, baldin eta bi kasu horietan gauzaren balioa 400 eurokoa baino gehiagokoa bada. Gauzok erti-, historia-, kultura- edo zientzia-balioa badute, espetxealdi-zigorra sei hilabetetik bi urte artekoa izango da.

Artículo 254

Será castigado con la pena de multa de tres a seis meses el que, habiendo recibido indebidamente, por error del transmitente, dinero o alguna otra cosa mueble, niegue haberla recibido o, comprobado el error, no proceda a su devolución, siempre que la cuantía de lo recibido exceda de 400 euros.

254. artikulua

Hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko zaio, eskualdatzailearen okerragatik, dirua edo gauza higigarri bat bidegabe jasotzen duenari, baldin eta jaso duela ukatzen badu edo okerra egiaztatu eta gero itzultzen ez badu, betiere jasotakoaren zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa denean.

SECCIÓN III

III. ATALA

Artículo 255

Será castigado con la pena de multa de tres a doce meses el que cometiere defraudación por valor superior a 400 euros, utilizando energía eléctrica, gas, agua, telecomunicaciones u otro elemento, energía o fluido ajenos, por alguno de los medios siguientes:

1.º Valiéndose de mecanismos instalados para realizar la defraudación.

2.º Alterando maliciosamente las indicaciones o aparatos contadores.

255. artikulua

Hiru hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio, beste baten elektrizitatea, gasa, ura, telekomunikazioak edo beste edozein gai, energia zein jariakin erabiliz, 400 euro baino gehiagoko iruzurra egiten duenari, hurrengo haueta-riko baten bidez:

1.) Iruzurra egiteko ezarritako mekanismoak erabiliz.

2.) Adierazpenak edo kontagailuak asmo gaiztoz aldatuz.

3.º Empleando cualesquiera otros medios clandestinos.

Artículo 256

El que hiciere uso de cualquier equipo terminal de telecomunicación, sin consentimiento de su titular, ocasionando a éste un perjuicio superior a 400 euros, será castigado con la pena de multa de tres a doce meses.

3.) Bestelako bide klandestinoak erabiliz.

256. artikulua

Norbaitek telekomunikaziorako ekipo terminaletatik edozein erabiltzen badu, beraren titularraren adostasunik gabe, eta ekipoaren titularrari 400 euro baino gehiagoko kaltea eragiten badio, orduan, pertsona horri hiru hilabetetik hamabi arteko isun-zigorra ezarriko zaio.

CAPÍTULO VII
De las insolvencias punibles

Artículo 257

1. Será castigado con las penas de prisión de uno a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses:

1.º El que se alce con sus bienes en perjuicio de sus acreedores.

2.º Quien con el mismo fin, realice cualquier acto de disposición patrimonial o generador de obligaciones que dilate, dificulte o impida la eficacia de un embargo o de un procedimiento ejecutivo o de apremio, judicial, extrajudicial o administrativo, iniciado o de previsible iniciación.

2. Lo dispuesto en el presente artículo será de aplicación cualquiera

VII. KAPITULUA
Zigortzekoak diren kaudimengabeziak

257. artikulua

1. Urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere:

1.) Hartzekodunen kaltean bere ondasunak ostentzen dituenari.

2.) Helburu berarekin, ondarea xedatzeko edo betebeharrak sorrarazteko edozein egintza gauzatzen duenari, baldin eta egintza horrek luzatu, zailago bihurtu edo eragozten badu enbargo baten edota betearazpen nahiz premiamenduko prozedura baten eragingarritasuna, betiere, enbargoa edo epaiketako nahiz epaiketatik kanpoko prozedura edo Administrazioarena hasita egonik edo horren hasiera aurreikusteko modukoa izanik.

2. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da, betetzea edo ordaintzea

que sea la naturaleza u origen de la obligación o deuda cuya satisfacción o pago se intente eludir, incluidos los derechos económicos de los trabajadores, y con independencia de que el acreedor sea un particular o cualquier persona jurídica, pública o privada.

3. Este delito será perseguido aun cuando tras su comisión se iniciara una ejecución concursal.

Artículo 258

El responsable de cualquier hecho delictivo que, con posterioridad a su comisión, y con la finalidad de eludir el cumplimiento de las responsabilidades civiles dimanantes del mismo, realizare actos de disposición o contrajere obligaciones que disminuyan su patrimonio, haciéndose total o parcialmente insolvente, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 259

Será castigado con las penas de uno a cuatro años de prisión y multa de doce a veinticuatro meses, el deudor que, una vez admitida a trámite la solicitud de concurso, sin estar autorizado para ello ni judicialmente ni por los administradores concursales, y fuera de los casos permitidos por la Ley, realice cualquier acto de disposición patrimonial o generador de obligaciones, destinado a pagar a uno o varios acreedores, privilegiados o no, con posposición del resto.

saihesten ahalegintzen den betebehar edo zorraren izaera edo jatorria edozein dela ere, langileen eskubide ekonomikoak barne daudelarik. Ez da kontuan hartuko, hartzekoduna norbanakoa edo pertsona juridikoa izatea, dela publikoa, dela pribatua.

3. Delitu hori pertsegitu egingo da, hura egin eta gero konkurtsoaren betearazpena hasi bada ere.

258. artikulua

Edozein delitu-egitatearen erantzuleak, egitate hori gauzatu ondoren eta horrek ondorioztatzen dituen erantzukizun zibilak ez betetzeko helburuarekin, bere ondarea gutxitzen duten xedatze-egintzak gauzatzen baditu edo betebeharrak hartzen baditu, oso-osoan edo zati batean kaudimengabe bihurtuz, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

259. artikulua

Urtebetetik lau arteko espetxealdi--zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, ondarea xedatzeko edo betebeharrak sorrarazteko edozein egintza gauzatzen duen zordunari, baldin eta egintza hori gauzatzen badu konkurtso-eskabidearen izapidetza onartu ondoren, epailearen edo konkurtsoko administratzaileen baimenik gabe, eta legeak baimentzen dituen kasuetatik kanpo, pribilegioa duen edo ez duen hartzekodun bati edo batzuei ordaintzeko, gainerakoen ordainketa atzeratuz.

Artículo 260

1. El que fuere declarado en concurso será castigado con la pena de prisión de dos a seis años y multa de ocho a veinticuatro meses, cuando la situación de crisis económica o la insolvencia sea causada o agravada dolosamente por el deudor o persona que actúe en su nombre.

2. Se tendrá en cuenta para graduar la pena la cuantía del perjuicio inferido a los acreedores, su número y condición económica.

3. Este delito y los delitos singulares relacionados con él, cometidos por el deudor o persona que haya actuado en su nombre, podrán perseguirse sin esperar a la conclusión del proceso civil y sin perjuicio de la continuación de éste. El importe de la responsabilidad civil derivada de dichos delitos deberá incorporarse, en su caso, a la masa.

4. En ningún caso, la calificación de la insolvencia en el proceso civil vincula a la jurisdicción penal.

Artículo 261

El que en procedimiento concursal presentare, a sabiendas, datos falsos relativos al estado contable, con el fin de lograr indebidamente la declaración de aquél, será castigado con la pena de prisión de uno a dos años y multa de seis a doce meses.

260. artikulua

1. Norbaitek konkurtso-adierazpena jasotzen badu, bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, baldin eta zordunak edo beraren izenean diharduenak doloz eragiten edo astuntzen badu krisi ekonomikoaren egoera edo kaudimengabezia.

2. Zigorra graduatzeko, kontuan hartuko da hartzekodunei eragindako kaltearen zenbatekoa, hartzekodunak zenbat diren eta euren egoera ekonomikoa zein den.

3. Delitu hori eta horri loturiko banakako delituak pertsegitu ahal izango dira prozesu zibilaren amaiera arte itxaron gabe eta prozesu zibilak aurrera egiteari kalterik egin gabe, delitu horiek zordunak edo beraren izenean jardun duenak egin baditu. Delitu horien ondoriozko erantzukizun zibilaren zenbatekoa, halakorik bada, masari erantsi beharko zaio.

4. Prozesu zibilean egindako kaudimengabeziaren kalifikazioak ez du inoiz jurisdikzio penala lotzen.

261. artikulua

Norbaitek, konkurtso-prozeduran, kontabilitate egoerari buruzko datu faltsuak aurkezten baditu jakinaren gainean egonik, eta beraren helburua bada harako adierazpena jasotzea, orduan, horri urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

CAPÍTULO VIII

De la alteración de precios en concursos y subastas públicas

Artículo 262

1. Los que solicitaren dádivas o promesas para no tomar parte en un concurso o subasta pública; los que intentaren alejar de ella a los postores por medio de amenazas, dádivas, promesas o cualquier otro artificio; los que se concertaren entre sí con el fin de alterar el precio del remate, o los que fraudulentamente quebraren o abandonaren la subasta habiendo obtenido la adjudicación, serán castigados con la pena de prisión de uno a tres años y multa de doce a veinticuatro meses, así como inhabilitación especial para licitar en subastas judiciales entre tres y cinco años. Si se tratara de un concurso o subasta convocados por las Administraciones o Entes públicos, se impondrá además al agente y a la persona o empresa por él representada la pena de inhabilitación especial que comprenderá, en todo caso, el derecho a contratar con las Administraciones Públicas por un período de tres a cinco años.

2. El juez o tribunal podrá imponer alguna o algunas de las consecuencias previstas en el artículo 129 si el culpable perteneciere a alguna sociedad, organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que se dedicare a la realización de tales actividades.

VIII. KAPITULUA

Jendaurreko lehiaketa eta enkanteetan prezioak aldatzea

262. artikulua

1. Norbaitzuek emariak edo hitzemateak eskatzen badituzte jendaurreko lehiaketa edo enkante batean parterik ez hartzeko; norbaitzuk eskaintzariak lehiaketa edo enkantetik urruntzen saiatzen badira mehatxu, emari, hitzemate edo beste edozein trikimailuren bidez; norbaitzuk errematearen prezioa aldatzeko helburuarekin, euren artean ados jartzen badira; edota norbaitzuek, adjudikazioa lortu ondoren, iruzur eginez enkantea urratzen edo uzten badute, orduan, halakoei urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, bai eta enkante judizialetan lehiatzeko desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik bost artekoa. Administrazioek edo herri-erakundeek deitutako lehiaketa edo enkantea bada, agenteari eta horrek ordezkatzen duen pertsona edo enpresari ere desgaikuntza berezia ezarriko zaie, eta desgaikuntza horrek, edozein kasutan, herri-administrazioekin kontratatzeko eskubidea barne hartuko du, hiru urtetik bost arteko epean.

2. Epaile edo auzitegiak 129. artikuluan aipatu ondorioetatik bat edo batzuk ezarri ahal izango ditu, baldin eta, erruduna sozietate, antolakunde edo elkarte bateko kidea izanik, sozietate, antolakunde edo elkarte hori, modu iragankorrean behintzat, halako jardueretan aritzen bada.

CAPÍTULO IX
De los daños

Artículo 263

El que causare daños en propiedad ajena no comprendidos en otros títulos de este Código, será castigado con la pena de multa de seis a veinticuatro meses, atendidas la condición económica de la víctima y la cuantía del daño, si éste excediera de 400 euros.

Artículo 264

1. Será castigado con la pena de prisión de uno a tres años y multa de doce a veinticuatro meses el que causare daños expresados en el artículo anterior, si concurriere alguno de los supuestos siguientes:

1.º Que se realicen para impedir el libre ejercicio de la autoridad o en venganza de sus determinaciones, bien se cometiere el delito contra funcionarios públicos, bien contra particulares que, como testigos o de cualquier otra manera, hayan contribuido o puedan contribuir a la ejecución o aplicación de las Leyes o disposiciones generales.

2.º Que se cause por cualquier medio infección o contagio de ganado.

3.º Que se empleen sustancias venenosas o corrosivas.

4.º Que afecten a bienes de dominio o uso público o comunal.

IX. KAPITULUA
Kalteak

263. artikulua

Norbaitek beste baten jabetzari eragiten badizkio kode honen beste titulu batzuetara bilduta ez dauden kalteak, orduan, horri sei hilabetetik hogeita lau arteko isun-zigorra ezarriko zaio, biktimaren egoera ekonomikoa eta kaltearen zenbatekoa kontuan harturik, azken hori 400 eurokoa baino handiagoa bada.

264. artikulua

1. Urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, aurreko artikuluan azaldutako kalteak eragiten dituenari, baldin eta hurrengo kasuetatik bat gertatzen bada:

1.) Kalteak egiten badira agintaritzaren erabilera askea eragozteko edo agintaritzaren aginduengatik mendekua hartzeko, bai delitua funtzionario publikoen aurka eginez, bai, lekuko gisa edo beste edozein modutan, legeak edo xedapen orokorrak betearazten edo aplikatzen lagundu duten edo lagundu dezaketen norbanakoen aurka eginez.

2.) Edozein bide erabilita azienda infektatu edo kutsatzen bada.

3.) Gai pozoitsuak edo hortzikagaiak erabiltzen badira.

4.) Eragindako kalteek herri- nahiz auzo-jabariko edo erabilerako ondasunak ukitzen badituzte.

5.º Que arruinen al perjudicado o se le coloque en grave situación económica.

2. La misma pena se impondrá al que por cualquier medio destruya, altere, inutilice o de cualquier otro modo dañe los datos, programas o documentos electrónicos ajenos contenidos en redes, soportes o sistemas informáticos.

Artículo 265

El que destruyere, dañare de modo grave, o inutilizare para el servicio, aun de forma temporal, obras, establecimientos o instalaciones militares, buques de guerra, aeronaves militares, medios de transporte o transmisión militar, material de guerra, aprovisionamiento u otros medios o recursos afectados al servicio de las Fuerzas Armadas o de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, será castigado con la pena de prisión de dos a cuatro años si el daño causado excediere de cincuenta mil pesetas.

Artículo 266

1. Será castigado con la pena de prisión de uno a tres años el que cometiere los daños previstos en el artículo 263, mediante incendio, o provocando explosiones o utilizando cualquier otro medio de similar potencia destructiva, o poniendo en peligro la vida o la integridad de las personas.

5.) Eragindako kalteen ondorioz kaltedunak porrot egiten badu, edo kalteduna egoera ekonomiko larrian geratzen bada.

2. Zigor bera ezarriko zaio edozein bide erabilita beste baten datu, programa edo agiri elektronikoak suntsitu, aldatu, deuseztatu edo beste edozein modutan horiei kalte egiten dienari, baldin eta horiek sare, euskarri edo sistema informatikoetara bilduta badaude.

265. artikulua

Norbaitek suntsitu, kalte larria egin edo zerbitzurako deuseztatzen baditu, aldi baterako bada ere, obra, establezimendu edo instalazio militarrak, gerraontziak, aireontzi militarrak, garraiobide edo igorgailu militarrak, gerrarako materiala, hornigaiak edota Indar Armatuen nahiz Segurtasun Indar edo Kidegoen zerbitzupeko bestelako bitarteko edo baliabideak, orduan, pertsona horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, baldin eta eragin duen kaltea berrogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa bada.

266. artikulua

1. Urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio 263. artikuluan azaldutako kalteak egiten dituenari, baldin eta sutearen bitartez, leherketak eraginez, horien antzeko ahalmen suntsitzailea duten bideetatik beste edozein erabiliz edota pertsonen bizia nahiz osotasuna arriskuan jarriz, egiten badu hori.

2. Será castigado con la pena de prisión de tres a cinco años y multa de doce a veinticuatro meses el que cometiere los daños previstos en el artículo 264, en cualquiera de las circunstancias mencionadas en el apartado anterior.

3. Será castigado con la pena de prisión de cuatro a ocho años el que cometiere los daños previstos en los artículos 265, 323 y 560, en cualquiera de las circunstancias mencionadas en el apartado 1 del presente artículo.

4. En cualquiera de los supuestos previstos en los apartados anteriores, cuando se cometieren los daños concurriendo la provocación de explosiones o la utilización de otros medios de similar potencia destructiva y, además, se pusiera en peligro la vida o integridad de las personas, la pena se impondrá en su mitad superior.

En caso de incendio será de aplicación lo dispuesto en el artículo 351.

Artículo 267

Los daños causados por imprudencia grave en cuantía superior a 80.000 euros, serán castigados con la pena de multa de tres a nueve meses, atendiendo a la importancia de los mismos.

Las infracciones a que se refiere este artículo sólo serán perseguibles previa denuncia de la persona agraviada o de su representante legal. El Ministerio Fiscal también podrá denunciar cuando aquélla sea menor de edad, incapaz o una persona desvalida.

2. Hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaizkio 264. artikuluan azaldutako kalteak egiten dituenari, aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarretatik edozeinetan egiten badu hori.

3. Lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio 265, 323 eta 560. artikuluan azaldutako kalteak egiten dituenari, artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako inguruabarretatik edozeinetan egiten badu hori.

4. Aurreko paragrafoetako kasuetatik edozeinetan, kalteak egiten badira leherketak eraginez edo horien antzeko ahalmen suntsitzailea duten bideetatik beste edozein erabiliz eta, horrez gain, arriskuan jartzen bada pertsonen bizia nahiz osotasuna, orduan, zigorra goiko erdian ezarriko da.

Sute kasuetan, 351. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

267. artikulua

Zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz eragindako kalteak 80.000 euro baino gehiagokoak badira, orduan, kalte horiei hiru hilabetetik bederatzi arteko isun-zigorra ezarriko zaie, beraien garrantzia kontuan harturik.

Artikulu honek aipatzen dituen arau-hausteak pertsegitzeko, beharrezkoa izango da laidotuaren edo beraren lege-ordezkariaren aurretiazko salaketa. Fiskaltzak ere salaketa egin ahal izango du, laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean.

En estos casos, el perdón de la persona agraviada o de su representante legal extinguirá la pena o la acción penal, sin perjuicio de lo dispuesto en el segundo párrafo del número 4.º del artículo 130 de este Código.

Aurreko kasu horietan, pertsona laidotuaren edo beraren lege-ordezkariaren barkamenak zigorra edo akzio penala azkenduko du, kode honen 130. artikuluko 4. zenbakiaren bigarren lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe.

CAPÍTULO X

Disposiciones comunes a los capítulos anteriores

Artículo 268

1. Están exentos de responsabilidad criminal y sujetos únicamente a la civil los cónyuges que no estuvieren separados legalmente o de hecho o en proceso judicial de separación, divorcio o nulidad de su matrimonio y los ascendientes, descendientes y hermanos por naturaleza o por adopción, así como los afines en primer grado si viviesen juntos, por los delitos patrimoniales que se causaren entre sí, siempre que no concurra violencia o intimidación.

2. Esta disposición no es aplicable a los extraños que participaren en el delito.

Artículo 269

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos de robo, extorsión, estafa o apropiación indebida, serán castigadas con la pena inferior en uno o dos grados a la del delito correspondiente.

X. KAPITULUA

Aurreko kapitulu guztietarako xedapenak

268. artikulua

1. Legez zein egitez banandurik dauden ezkontideak, edo banantzeko, dibortziatzeko nahiz ezkontzaren deuseztasuna lortzeko prozesu judizialean daudenak; odolez edo adopzioz aurrekoak, ondorengoak eta neba-arrebak direnak; edota elkarrekin bizi izanik, lehenengo graduan ezkontza bidezko ahaidetasuna dutenak, erantzukizun kriminaletik salbuetsita daude, elkarri eragindako ondare-delituen ondorioz, eta erantzukizun zibila bakarrik dute, baldin eta indarkeria edo larderiarik erabiltzen ez badute.

2. Aurreko xedapen hori ez zaie aplikatuko delituan parte hartzen duten kanpokoei.

269. artikulua

Lapurreta, estortsio, maula edo bidegabe jabetzeko delituen zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

CAPÍTULO XI

De los delitos relativos a la propiedad intelectual e industrial, al mercado y a los consumidores

SECCIÓN I

Artículo 270

1. Será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años o de multa de doce a veinticuatro meses quien, con ánimo de lucro y en perjuicio de tercero, reproduzca, plagie, distribuya o comunique públicamente, en todo o en parte, una obra literaria, artística o científica, o su transformación, interpretación o ejecución artística fijada en cualquier tipo de soporte o comunicada a través de cualquier medio, sin la autorización de los titulares de los correspondientes derechos de propiedad intelectual o de sus cesionarios.

2. Será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años y multa de doce a veinticuatro meses quien intencionadamente exporte o almacene ejemplares de las obras o producciones o ejecuciones a que se refiere el apartado anterior sin la referida autorización. Igualmente incurrirán en la misma pena los que importen intencionadamente estos productos sin dicha autorización, tanto si éstos tienen un origen lícito como ilícito en su país de procedencia; no obstante, la importación de los referidos productos de un Estado perteneciente a la Unión Europea no será punible

XI. KAPITULUA

Jabetza intelektualari eta industria-jabetzari, merkatuari eta kontsumitzaileei buruzko delituak

I. ATALA

270. artikulua

1. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, irabaziak lortzeko asmoz, inoren kaltean, jabetza intelektualeko eskubideen titularren edo lagapen-hartzaileen baimenik gabe, oso-osoan edo zati batean, literatura, erti edo zientziako lanen bat kopiatu, plagiatu, banatu edo jendaurrean zabaltzen duenari; edota, edozein motatako euskarrian edo jendaurrean edozein motatako bide erabilita zabaldurik, lan horren transformazio, interpretazio edo antzezpen artistikoaren inguruan gauza bera egiten duenari.

2. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaizkio, baimen hori eduki gabe eta hala nahita, aurreko paragrafoak aipatu lanen aleak edo ekoizpen edo antzezpenak esportatu edo biltzen dituenari. Halaber, zigor bera ezarriko zaie, hala nahita eta aipatu baimenik izan gabe, produktu horiek inportatzen dituztenei, jatorrizko herrian produktuon jatorria zilegia izan zein izan ez; dena den, produktuak Europar Batasuneko estatu batetik inportatzen badira, ez da zigorrik ezarriko, zuzenean eskuratu dire-

cuando aquellos se hayan adquirido directamente del titular de los derechos en dicho Estado, o con su consentimiento.

3. Será castigado también con la misma pena quien fabrique, importe, ponga en circulación o tenga cualquier medio específicamente destinado a facilitar la supresión no autorizada o la neutralización de cualquier dispositivo técnico que se haya utilizado para proteger programas de ordenador o cualquiera de las otras obras, interpretaciones o ejecuciones en los términos previstos en el apartado 1 de este artículo.

Artículo 271

Se impondrá la pena de prisión de un año a cuatro años, multa de doce a veinticuatro meses, e inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión relacionada con el delito cometido, por un período de dos a cinco años, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que el beneficio obtenido posea especial trascendencia económica.

b) Que los hechos revistan especial gravedad, atendiendo el valor de los objetos producidos ilícitamente o a la especial importancia de los perjuicios ocasionados.

c) Que el culpable perteneciere a una organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que tuviese como finalidad la realización de actividades infractoras de derechos de propiedad intelectual.

d) Que se utilice a menores de 18 años para cometer estos delitos.

nean estatu horretan eskubideen titularra denaren eskutik, edo horren adostasunarekin.

3. Halaber, zigor bera ezarriko zaio edozein bitarteko fabrikatu, inportatu, zirkulazioan jarri edo edukitzen duenari, baldin eta bitarteko horren helburu zehatza bada edozein eragingailu tekniko baimenik gabe ezaba edo neutraliza dadin erraztea, eta eragingailu hori erabili bada ordenagailu-programak edo bestelako lan, interpretazio nahiz antzezpenak babesteko, artikulu honen 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

271. artikulua

Urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta egindako delituari loturik dagoen lanbidean aritzeko bi urtetik bost arteko desgaikuntza berezia ere, hurrengo inguruabarretako bat gertatzen denean:

a) Lortutako irabaziak garrantzi ekonomiko berezia duenean.

b) Egitateak bereziki larriak direnean, zilegi ez den moduan ekoitzitako objektuen balioa kontuan hartuta, edo eragindako kalteen garrantzi berezia kontuan hartuta.

c) Erruduna antolakunde edo elkarte bateko kide denean, hori iragankorra izan arren, baldin eta antolakunde edo elkarte horrek xedetzat duenean industria-jabetzaren eskubideak urratzen dituzten jarduerak egitea.

d) Delitu horiek egiteko, 18 urtekoak baino gazteagoak erabiltzen direnean.

Artículo 272

1. La extensión de la responsabilidad civil derivada de los delitos tipificados en los dos artículos anteriores se regirá por las disposiciones de la Ley de Propiedad Intelectual relativas al cese de la actividad ilícita y a la indemnización de daños y perjuicios.

2. En el supuesto de sentencia condenatoria, el Juez o Tribunal podrá decretar la publicación de ésta, a costa del infractor, en un periódico oficial.

272. artikulua

1. Jabetza Intelektualari buruzko Legean zilegi ez den jarduera amaitzeari eta kalte-galeren ordaina emateari buruz ezarritako xedapenek eraenduko dute aurreko bi artikuluetan tipifikatutako delituen ondoriozko erantzukizun zibilaren hedapena.

2. Epai kondenatzailearen kasuan, epaile edo auzitegiak, araua hausten duenaren kontura, epaia aldizkari ofizial batean argitaratzeko dekretatu ahal izango du.

SECCIÓN II

II. ATALA

-

Artículo 273

1. Será castigado con las penas de prisión de seis meses a dos años y multa de doce a veinticuatro meses el que, con fines industriales o comerciales, sin consentimiento del titular de una patente o modelo de utilidad y con conocimiento de su registro, fabrique, importe, posea, utilice, ofrezca o introduzca en el comercio objetos amparados por tales derechos.

2. Las mismas penas se impondrán al que, de igual manera, y para los citados fines, utilice u ofrezca la utilización de un procedimiento objeto de una patente, o posea, ofrezca, introduzca en el comercio, o utilice el producto directamente obtenido por el procedimiento patentado.

273. artikulua

1. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, industria edo merkataritzako helburuak izanik, patentea edo baliagarritasun modeloa duen titularraren adostasunik gabe eta hori erregistraturik dagoela jakinda, eskubide horren babespeko objektuak egin, inportatu, eduki, erabili, eskaini edo merkatuan sartzen dituenari.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, modu berean eta helburu berberak lortzeko, patentepeko prozedura erabiltzen edo erabilera hori eskaintzen duenari, edota patentaturiko prozeduraren bidez zuzenean lortutako produktua eduki, eskaini, merkatuan sartu edo erabiltzen duenari.

3. Será castigado con las mismas penas el que realice cualquiera de los actos tipificados en el párrafo primero de este artículo concurriendo iguales circunstancias en relación con objetos amparados en favor de tercero por un modelo o dibujo industrial o artístico o topografía de un producto semiconductor.

Artículo 274

1. Será castigado con las penas de seis meses a dos años de prisión y multa de doce a veinticuatro meses el que, con fines industriales o comerciales, sin consentimiento del titular de un derecho de propiedad industrial registrado conforme a la legislación de marcas, y con conocimiento del registro, reproduzca, imite, modifique, o de cualquier otro modo utilice un signo distintivo idéntico o confundible con aquél, para distinguir los mismos o similares productos, servicios, actividades o establecimientos para los que el derecho de propiedad industrial se encuentra registrado. Igualmente, incurrirán en la misma pena los que importen intencionadamente estos productos sin dicho consentimiento, tanto si éstos tienen un origen lícito como ilícito en su país de procedencia; no obstante, la importación de los referidos productos de un Estado perteneciente a la Unión Europea no será punible cuando aquéllos se hayan adquirido directamente del titular de los derechos de dicho Estado, o con su consentimiento.

2. Las mismas penas se impondrán al que a sabiendas posea para su comercialización, o ponga en el comer-

3. Zigor berberak ezarriko zaizkio artikulu honen lehenengo paragrafoan tipifikatutako egintzetatik edozein gauzatzen duenari, baldin eta inguruabar berberak gertatzen badira, modelo edo marrazki industrial nahiz artistiko batek edo produktu erdieroale baten topografiak beste inoren mesederako babestutako objektuei dagokienez.

274. artikulua

1. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, industria edo merkataritzako helburuak izanik, marka-legeriaren arabera erregistraturik dagoen industria-jabetzako eskubide baten titularraren adostasunik gabe, eta eskubidea erregistraturik dagoela jakinda, zeinu bereizgarri bera edo berarekin nahastekoa den zeinu bereizgarria kopiatu, imitatu, aldatu edo beste edozein modutara erabiltzen duenari, erregistraturik dagoen industria-jabetzako produktu, zerbitzu, jarduera edo establezimendu berberak edo horien antzekoak ezberdintzeko. Halaber, zigor bera ezarriko zaie, hala nahita eta aipatu adostasuna izan gabe, produktu horiek inportatzen dituztenei, jatorrizko herrian produktuon jatorria zilegia izan zein izan ez; dena den, produktuak Europar Batasuneko estatu batetik inportatzen badira, ez da zigorrik ezarriko, zuzenean eskuratu direnean estatu horretan eskubideen titularra denaren eskutik, edo horren adostasunarekin.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, jakinaren gainean egonik, merkaturatzeko produktu edo zerbitzuak dituenari

cio, productos o servicios con signos distintivos que, de acuerdo con el apartado 1 de este artículo, suponen una infracción de los derechos exclusivos del titular de los mismos, aun cuando se trate de productos importados del extranjero.

edo horiek merkatuan sartzen dituenari, baldin eta, artikulu honen 1. paragrafoaren arabera, horien zeinu bereizgarriek euren titularren eskubide esklusiboak hausten badituzte, atzerritik inportatutako produktuak badira ere.

3. Será castigado con la misma pena quien, con fines agrarios o comerciales, sin consentimiento del titular de un título de obtención vegetal y con conocimiento de su registro, produzca o reproduzca, acondicione con vistas a la producción o reproducción, ofrezca en venta, venda o comercialice de otra forma, exporte o importe, o posea para cualquiera de los fines mencionados, material vegetal de reproducción o multiplicación de una variedad vegetal protegida conforme a la legislación sobre protección de obtenciones vegetales.

3. Zigor bera ezarriko zaio, nekazaritza nahiz merkataritzako helburuekin, landare-lorpenerako tituluaren titularraren adostasunik gabe, eta titulu hori erregistratuta dagoela jakinda, landare--materiala ekoitzi edo ugaltzen duenari, ekoizpen- nahiz ugalketa-helburuekin material hori egokitzen duenari, horren salmenta eskaintzen duenari, edozein modutan saldu edo merkaturatzen duenari, esportatu nahiz inportatzen duenari edota aipatu helburuetatik edozein lortzeko hori edukitzen duenari, baldin eta, landare-material hori bada landare-aldaki zehatz bat ugaldu edo bikoiztekoa, eta aldaki hori babestuta badago landare-lorpenen babesari buruzko legeriaren arabera.

4. Será castigado con la misma pena quien realice cualesquiera de los actos descritos en el apartado anterior utilizando, bajo la denominación de una variedad vegetal protegida, material vegetal de reproducción o multiplicación que no pertenezca a tal variedad.

4. Zigor bera ezarriko zaio aurreko paragrafoan deskribatutako egintzetatik edozein burutzen duenari, baldin eta, babestutako landare-aldakiaren izendaziopean, aldaki horri ez dagokion landare-materiala erabiltzen badu ugaltze- nahiz bikoizte-helburuekin.

Artículo 275

Las mismas penas previstas en el artículo anterior se impondrán a quien intencionadamente y sin estar autorizado para ello, utilice en el tráfico económico una denominación de origen o

275. artikulua

Aurreko artikuluko zigor berberak ezarriko zaizkio, baimenik gabe, nahita eta legez babesturik dagoela jakinda, ekonomia-trafikoan sor-marka edo adierazpen geografiko bat erabiltzen

una indicación geográfica representativa de una calidad determinada legalmente protegidas para distinguir los productos amparados por ellas, con conocimiento de esta protección.

Artículo 276

Se impondrá la pena de prisión de uno a cuatro años, multa de doce a veinticuatro meses, e inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión relacionada con el delito cometido, por un período de dos a cinco años, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias.

a) Que el beneficio obtenido posea especial trascendencia económica.

b) Que los hechos revistan especial gravedad, atendiendo al valor de los objetos producidos ilícitamente o a la especial importancia de los perjuicios ocasionados.

c) Que el culpable perteneciere a una organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que tuviese como finalidad la realización de actividades infractoras de derechos de propiedad industrial.

d) Que se utilice a menores de 18 años para cometer estos delitos.

Artículo 277

Será castigado con las penas de prisión de seis meses a dos años y multa de seis a veinticuatro meses, el que intencionadamente haya divulgado la invención objeto de una solicitud de patente secreta, en contravención con

duenari, baldin eta jatorrizko izendazio edo adierazpen geografiko hori kalitate berezi baten adierazgarria bada, eta legeak izendazio edo adierazpen hori babesten badu, babespeko produktuak bereizteko.

276. artikulua

1. Urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, bai eta egindako delituari loturik dagoen lanbidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, bi urtetik bost artekoa, hurrengo inguruabarretatik bat gertatuz gero:

a) Lortutako irabaziak garrantzi ekonomiko berezia izatea.

b) Egitateak bereziki larriak izatea, zilegi ez den moduan ekoitzitako objektuen balioa kontuan hartuta, edo eragindako kalteen garrantzi berezia kontuan hartuta.

c) Erruduna antolakunde edo elkarte bateko kide izatea, hori iragankorra izan arren, eta antolakunde edo elkarte horrek xedetzat edukitzea industria-jabetzaren eskubideak urratzen dituzten jarduerak egitea.

d) Delitu horiek egiteko, 18 urtekoak baino gazteagoak erabiltzea.

277. artikulua

Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, patente-legeriak xedatutakoa urratuz, patente-sekretuko eskabidearen gai den asmakuntza hala nahita zabal-

lo dispuesto en la legislación de patentes, siempre que ello sea en perjuicio de la defensa nacional.

tzen duenari, baldin eta zabalkuntza hori nazio-defentsaren kaltean bada.

Sección III

III. atala

Artículo 278

1. El que, para descubrir un secreto de empresa se apoderare por cualquier medio de datos, documentos escritos o electrónicos, soportes informáticos u otros objetos que se refieran al mismo, o empleare alguno de los medios o instrumentos señalados en el apartado 1 del artículo 197, será castigado con la pena de prisión de dos a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses.

2. Se impondrá la pena de prisión de tres a cinco años y multa de doce a veinticuatro meses si se difundieren, revelaren o cedieren a terceros los secretos descubiertos.

3. Lo dispuesto en el presente artículo se entenderá sin perjuicio de las penas que pudieran corresponder por el apoderamiento o destrucción de los soportes informáticos.

278. artikulua

1. Norbaitek, enpresaren sekretu bat ezagutarazteko, edozein bide erabiliz, sekretu horri buruzko datuak, agiri idatzi zein elektronikoak, euskarri informatikoak edo bestelako objektuak harrapatzen baditu, edo pertsona horrek 197. artikuluaren 1. paragrafoan adierazitako bide edo tresnetatik bat erabiltzen badu, orduan, horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

2. Hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, baldin eta besteei hedatu, agerrarazi edo lagatzen bazaizkie ezagutaraziko sekretuak.

3. Euskarri informatikoak harrapatzeagatik edo euskarri horiek suntsitzeagatik ezar daitezkeen zigorrei kalterik egin gabe ulertuko da artikulu honetan xedatutakoa.

Artículo 279

La difusión, revelación o cesión de un secreto de empresa llevada a cabo por quien tuviere legal o contractualmente obligación de guardar reserva,

279. artikulua

Legez edo kontratuz isilpea zaintzeko betebeharra izanik, enpresaren sekretu bat hedatu, agerrarazi edo lagatzen duenari bi urtetik lau arteko espetxeal-

se castigará con la pena de prisión de dos a cuatro años y multa de doce a veinticuatro meses.

Si el secreto se utilizara en provecho propio, las penas se impondrán en su mitad inferior.

Artículo 280

El que, con conocimiento de su origen ilícito, y sin haber tomado parte en su descubrimiento, realizare alguna de las conductas descritas en los dos artículos anteriores, será castigado con la pena de prisión de uno a tres años y multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 281

1. El que detrajere del mercado materias primas o productos de primera necesidad con la intención de desabastecer un sector del mismo, de forzar una alteración de precios, o de perjudicar gravemente a los consumidores, será castigado con la pena de prisión de uno a cinco años y multa de doce a veinticuatro meses.

2. Se impondrá la pena superior en grado si el hecho se realiza en situaciones de grave necesidad o catastróficas.

Artículo 282

Serán castigados con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de doce a dieciocho meses los fabricantes o comerciantes que, en sus ofertas o publicidad de productos o servicios, hagan alegaciones falsas o manifiesten características inciertas sobre los mis-

di-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

Sekretua norberaren onurarako erabiltzen bada, zigorrak beheko erdian ezarriko dira.

280. artikulua

Norbaitek, jatorria zilegia ez dela jakinda eta ezagutarazpenean parte hartu gabe, aurreko bi artikuluetan azaldutako jokabideetako bat egiten badu, orduan, horri urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

281. artikulua

1. Norbaitek, merkatuko lehengaiak edo oinarrizko beharrizanetarako produktuak murrizten baditu, merkatuaren arlo batean hornidurak ez izateko, prezioak aldarazteko edo kontsumitzaileei kalte larria egiteko asmoarekin, orduan, horri urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

2. Aurreko egitate hori beharrizan larriko edo hondameneko egoeretan gauzatzen bada, hari dagokion zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da.

282. artikulua

Sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaie fabrikatzaile edo merkatariei, baldin eta euren produktu edo zerbitzuak eskaintzean edo horiei buruz publizitatea egitean alegazio faltsuak egiten badi-

mos, de modo que puedan causar un perjuicio grave y manifiesto a los consumidores, sin perjuicio de la pena que corresponda aplicar por la comisión de otros delitos.

Artículo 283

Se impondrán las penas de prisión de seis meses a un año y multa de seis a dieciocho meses a los que, en perjuicio del consumidor, facturen cantidades superiores por productos o servicios cuyo costo o precio se mida por aparatos automáticos, mediante la alteración o manipulación de éstos.

Artículo 284

Se impondrá la pena de prisión de seis meses a dos años, o multa de doce a veinticuatro meses, a los que, difundiendo noticias falsas, empleando violencia, amenaza o engaño, o utilizando información privilegiada, intentaren alterar los precios que habrían de resultar de la libre concurrencia de productos, mercancías, títulos valores, servicios o cualesquiera otras cosas muebles o inmuebles que sean objeto de contratación, sin perjuicio de la pena que pudiera corresponderles por otros delitos cometidos.

Artículo 285

1. Quien de forma directa o por persona interpuesta usare de alguna información relevante para la cotización de cualquier clase de valores o instrumentuzte, edo ziurrak ez diren ezaugarriak adierazten badituzte, kontsumitzaileei kalte larri eta nabaria eragiteko moduan; horrek ez dio kalterik egingo bestelako delitua egiteagatik egokia izan daitekeen zigorra ezartzeari.

283. artikulua

Sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hemezortzi arteko isuna ere, kontsumitzailearen kaltean, produktu edo zerbitzuengatik behar baino kopuru handiagoak fakturatzen dituztenei, baldin eta horien prezio edo kostua aparatu automatikoen bidez neurtzen bada, aparatu horiek aldatu edo manipulatuz.

284. artikulua

Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie kontratagai diren produktu, merkatu--gai, balore-titulu, zerbitzu edo beste edozein gauza higigarri edo higiezinen lehia asketik aterako litzatekeen prezioa aldatzen saiatzen direnei, berri faltsuak hedatuz, indarkeria, mehatxua edo engainua erabiliz edota lehen eskuko informazioaz baliatuz; horrek ez dio kalterik egingo bestelako delitua egiteagatik egokia izan daitekeen zigorra ezartzeari.

285. artikulua

1. Edozein motatako balore edo agiri negoziatuak kotizatzeko, informazio garrantzitsu bat zuzenean edo pertsona baten bidez erabiltzen duenari merkatu

tos negociados en algún mercado organizado, oficial o reconocido, a la que haya tenido acceso reservado con ocasión del ejercicio de su actividad profesional o empresarial, o la suministrare obteniendo para sí o para un tercero un beneficio económico superior a 600.000 euros o causando un perjuicio de idéntica cantidad, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa de tanto al triplo del beneficio obtenido o favorecido e inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión o actividad de dos a cinco años..

Se aplicará la pena de prisión de cuatro a seis años, la multa del tanto al triplo del beneficio obtenido o favorecido e inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión o actividad de dos a cinco años, cuando en las conductas descritas en el apartado anterior concurra alguna de las siguientes circunstancias:

1.ª Que los sujetos se dediquen de forma habitual a tales prácticas abusivas.

2.ª Que el beneficio obtenido sea de notoria importancia.

3.ª Que se cause grave daño a los intereses generales.

Artículo 286

1. Será castigado con las penas de prisión de seis meses a dos años y multa de seis a 24 meses el que, sin consentimiento del prestador de servicios y con fines comerciales, facilite el acceso inteligible a un servicio de radiodifusión sonora o televisiva, a servi-

antolatu, ofizial edo aitortuan, edo informazio hori ematen duenari, bere buruarentzat edo beste batentzat 600.000 euro baino gehiagoko onura ekonomikoa lortuz edo kopuru bereko kalte ekonomikoa eginez, betiere informazio hori isilpean jaso duenean, bere lanbide edo enpresa jardueran aritzearen ondorioz, horri ezarriko zaizkio urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra, lortutako edo eragindako onura ekonomikotik horren hiru halako arteko isuna, eta lanbidean edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, bi urtetik bost artekoa.

Lau urtetik sei arteko espetxealdi--zigorra, lortutako edo eragindako onuratik horren hiru halako arteko isuna, eta lanbidean edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, bi urtetik bost artekoa, ezarriko dira, aurreko lerrokadan deskribatutako jokabideetan honako inguruabarretatik bat gertatzen denean:

1.) Subjektuengan ohikoa izatea abusuzko eginera horietan aritzea.

2.) Lortutako irabazia garrantzi handikoa izatea.

3.) Interes orokorrei kalte larria eragitea.

286. artikulua

1. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra eta sei hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaizkio, zerbitzu--emailearen adostasunik gabe eta merkataritzako helburuekin, soinuaren nahiz telebistaren irrati-hedapenerako zerbitzua edo bide elektronikoen bidez

cios interactivos prestados a distancia por vía electrónica, o suministre el acceso condicional a los mismos, considerado como servicio independiente, mediante:

1.º La fabricación, importación, distribución, puesta a disposición por vía electrónica, venta, alquiler, o posesión de cualquier equipo o programa informático, no autorizado en otro Estado miembro de la Unión Europea, diseñado o adaptado para hacer posible dicho acceso.

2.º La instalación, mantenimiento o sustitución de los equipos o programas informáticos mencionados en el párrafo 1.º

2. Con idéntica pena será castigado quien, con ánimo de lucro, altere o duplique el número identificativo de equipos de telecomunicaciones, o comercialice equipos que hayan sufrido alteración fraudulenta.

3. A quien, sin ánimo de lucro, facilite a terceros el acceso descrito en el apartado 1, o por medio de una comunicación pública, comercial o no, suministre información a una pluralidad de personas sobre el modo de conseguir el acceso no autorizado a un servicio o el uso de un dispositivo o programa, de los expresados en ese mismo apartado 1, incitando a lograrlos, se le impondrá la pena de multa en él prevista.

4. A quien utilice los equipos o programas que permitan el acceso no au-

urrunetik egindako zerbitzu interaktiboak modu ulergarrian eskuratzea errazten duenari, edo, zerbitzu independente moduan, horiek baldintzapean eskuratzeko aukera ematen duenari, betiere bide hauek erabilita:

1.) Edozein ekipo zein programa informatiko fabrikatzea, inportatzea, banatzea, bide elektronikoetatik edo salmenta nahiz alogeraren bidez eskura jartzea edota edukitzea, hori ez dagoenean baimenduta Europar Batasuneko beste estatu kide batean, eta hori lortzeko diseinatu edo egokitu denean.

2.) Lehenengo zenbakian aipatutako ekipo edo programa informatikoak instalatzea, mantentzea edo ordeztea.

2. Zigor bera ezarriko zaio, irabaziak lortzeko asmoarekin, telekomunikazio-ekipoen identifikazio-zenbakia aldarazi edo bikoizten duenari, bai eta iruzurrezko aldakuntza izan duten ekipoak merkaturatzen dituenari ere.

3. Norbaitek, irabaziak lortzeko asmorik gabe, beste inori errazten badio 1. paragrafoan deskribatutako eskuraketa, edo, jendaurreko komunikazioaren bidez, hori merkataritzakoa izan zein izan ez, zenbait pertsonari informazioa ematen badie zerbitzua baimenik gabe eskuratzeko moduari buruz edo 1. paragrafo horretan bertan aipatu eragingailu zein programetatik edozein erabiltzeari buruz, horiek lortzeko bultzatuz, orduan, horri paragrafo horretan agindu isuna ezarriko zaio.

4. Norbaitek ekipo edo programak erabiltzen baditu, eta, horien bidez,

torizado a servicios de acceso condicional o equipos de telecomunicación, se le impondrá la pena prevista en el artículo 255 de este Código con independencia de la cuantía de la defraudación.

baimenik gabe eskura badaitezke baldintzapeko sarrera duten zerbitzuak edo telekomunikazio-ekipoak, horri kode honen 255. artikuluan aipatu zigorra ezarriko zaio, iruzurraren zenbatekoa edozein izanik ere.

SECCIÓN IV

IV. ATALA

Artículo 287

1. Para proceder por los delitos previstos en la sección 3.ª de este capítulo será necesaria denuncia de la persona agraviada o de sus representantes legales. Cuando aquélla sea menor de edad, incapaz o una persona desvalida, también podrá denunciar el Ministerio Fiscal.

2. No será precisa la denuncia exigida en el apartado anterior cuando la comisión del delito afecte a los intereses generales o a una pluralidad de personas.

287. artikulua

1. Kapitulu honen 3. atalean ezarritako delituak pertsegitzeko laidotuaren edo beraren lege-ordezkarien salaketa beharrezkoa izango da. Fiskaltzak ere salaketa egin ahal izango du, laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean.

2. Aurreko paragrafoan galdatutako salaketa ez da beharrezkoa izango, egindako delituak interes orokorrak edo pertsona franko ukitzen dituenean.

Artículo 288

En los supuestos previstos en los artículos anteriores se dispondrá la publicación de la sentencia en los periódicos oficiales y, si lo solicitara el perjudicado, el Juez o Tribunal podrá ordenar su reproducción total o parcial en cualquier otro medio informativo, a costa del condenado.

Además, el Juez o Tribunal, a la vista de las circunstancias del caso, podrá adoptar las medidas previstas en el artículo 129 del presente Código.

288. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritako kasuetan, epaia aldizkari ofizialetan argitaratzeko aginduko da, eta epaile edo auzitegiak, kaltedunak hala eskatuz gero, epaia, oso-osoan edo zati batean, beste edozein hedabidetan sartzea agindu ahal izango du, kondenatuaren kontura.

Horrezaz gain, epaile edo auzitegiak, kasuaren inguruabarrak kontuan izanik, kode honen 129. artikuluko neurriak ezar ditzake.

CAPÍTULO XII

De la sustracción de cosa propia a su utilidad social o cultural

Artículo 289

El que por cualquier medio destruyera, inutilizara o dañara una cosa propia de utilidad social o cultural, o de cualquier modo la sustrajera al cumplimiento de los deberes legales impuestos en interés de la comunidad, será castigado con la pena de prisión de tres a cinco meses o multa de seis a diez meses.

XII. KAPITULUA

Norberaren gauza gizarte- edo kultura-onuratik itzuraraztea

289. artikulua

Norbaitek gizarte- edo kultura-onurako bere gauza bat suntsitu, deuseztatu edo apurtzen badu, edo komunitatearen intereserako ezarri diren lege-eginbeharrak betetzetik bere ondasun hori edozein modutan itzurarazten badu, orduan, horri hiru hilabetetik bost arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio.

CAPÍTULO XIII

De los delitos societarios

Artículo 290

Los administradores, de hecho o de derecho, de una sociedad constituida o en formación, que falsearen las cuentas anuales u otros documentos que deban reflejar la situación jurídica o económica de la entidad, de forma idónea para causar un perjuicio económico a la misma, a alguno de sus socios, o a un tercero, serán castigados con la pena de prisión de uno a tres años y multa de seis a doce meses.

Si se llegare a causar el perjuicio económico se impondrán las penas en su mitad superior.

Artículo 291

Los que, prevaliéndose de su situación mayoritaria en la Junta de accio-

XIII. KAPITULUA

Delitu sozietarioak

290. artikulua

Eratuta edo eratze-bidean dagoen sozietatearen egitezko edo zuzenbideko administratzaileek urteko kontuak edo erakundearen egoera juridiko zein ekonomikoa agertu behar duten bestelako agiriak faltsutzen badituzte, eta faltsutze hori egokia bada erakundeari, beraren bazkide bati, edo besteren bati kalte ekonomikoa eragiteko, orduan, halakoei urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

Kalte ekonomikoa eragiten bada, zigorrak goiko erdian ezarriko dira.

291. artikulua

Norbaitzuek, eratuta edo eratze-bidean dauden sozietateetatik edozeine-

nistas o el órgano de administración de cualquier sociedad constituida o en formación, impusieren acuerdos abusivos, con ánimo de lucro propio o ajeno, en perjuicio de los demás socios, y sin que reporten beneficios a la misma, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a tres años o multa del tanto al triplo del beneficio obtenido.

Artículo 292

La misma pena del artículo anterior se impondrá a los que impusieren o se aprovecharen para sí o para un tercero, en perjuicio de la sociedad o de alguno de sus socios, de un acuerdo lesivo adoptado por una mayoría ficticia, obtenida por abuso de firma en blanco, por atribución indebida del derecho de voto a quienes legalmente carezcan del mismo, por negación ilícita del ejercicio de este derecho a quienes lo tengan reconocido por la Ley, o por cualquier otro medio o procedimiento semejante, y sin perjuicio de castigar el hecho como corresponde si constituyese otro delito.

Artículo 293

Los administradores de hecho o de derecho de cualquier sociedad constituida o en formación, que sin causa legal negaren o impidieren a un socio el ejercicio de los derechos de información, participación en la gestión o control de la actividad social, o suscripción preferente de acciones reconocidos por

tan, abusuzko erabakiak ezartzen badituzte, akziodunen batzan edo administrazio organoan duten gehiengoaz baliatuz, eurentzat edo beste batentzat irabaziak lortzeko asmoarekin, beste bazkideen kaltean eta sozietateari onurarik ekarri gabe, orduan, halakoei sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, edo isuna, lortutako onuratik onura horren hiru halako artekoa.

292. artikulua

Aurreko artikuluko zigor bera ezarriko zaie, sozietatearen edo bazkideen baten kaltean, gezurrezko gehiengo batek hartutako erabaki kaltegarria ezartzen dutenei, edo erabaki horretatik eurentzat edo beste batentzat probetxua ateratzen dutenei, baldin eta gehiengo hori lortzen bada zurian egindako sinaduraz abusatuz, legearen arabera boto-eskubiderik ez dutenei eskubide hori bidegabe eratxikiz, eskubide hori legearen arabera aitortuta dutenei boto-eskubidearen egikaritza zilegi ez den moduan ukatuz edo horien antzeko beste edozein bide zein prozedura erabiliz; horrek ez dio kalterik egingo egitateari dagokion zigorra ezartzeari, egitate hori bestelako delitua bada.

293. artikulua

Eratuta edo eratze-bidean dauden sozietateetatik edozeinen egitezko edo zuzenbideko administratzaileek, legezko arrazoirik gabe, bazkide bati ukatzen edo eragozten badiote legeek aintzat hartzen dituzten informazio-eskubidearen egikaritza edo sozietate-jardueraren kudeaketan nahiz kontrolean parte har-

las Leyes, serán castigados con la pena de multa de seis a doce meses.

tzeko edo akzioak lehenespenez harpidetzeko eskubideen egikaritza, orduan, halakoei sei hilabetetik hamabi arteko isun-zigorra ezarriko zaie.

Artículo 294

Los que, como administradores de hecho o de derecho de cualquier sociedad constituida o en formación, sometida o que actúe en mercados sujetos a supervisión administrativa, negaren o impidieren la actuación de las personas, órganos o entidades inspectoras o supervisoras, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a tres años o multa de doce a veinticuatro meses.

294. artikulua

Norbaitzuek, eratuta edo eratze-bidean dauden sozietateetatik edozeinen egitezko edo zuzenbideko administratzaile gisa, pertsona, organo edo erakunde ikuskatzaile edo gainbegiraleen jarduna ukatzen edo eragozten badute, sozietate hori Administrazioak ikuskatu beharrekoa denean edo Administrazioak ikuskatu beharreko merkatuetan jarduten duenean, orduan, halakoei sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie.

Además de las penas previstas en el párrafo anterior, la autoridad judicial podrá decretar algunas de las medidas previstas en el artículo 129 de este Código.

Aurreko lerrokadan ezarritako zigorrez gain, agintaritza judizialak kode honen 129. artikuluan ezarritako neurrietatik bat dekreta dezake.

Artículo 295

Los administradores de hecho o de derecho o los socios de cualquier sociedad constituida o en formación, que en beneficio propio o de un tercero, con abuso de las funciones propias de su cargo, dispongan fraudulentamente de los bienes de la sociedad o contraigan obligaciones a cargo de ésta causando directamente un perjuicio económicamente evaluable a sus socios, depositarios, cuentapartícipes o titulares de los bienes, valores o capital que administren, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a cuatro

295. artikulua

Eratuta edo eratze-bidean dauden sozietateetatik edozeinen egitezko edo zuzenbideko administratzaile edo bazkideek, euren karguei dagozkien eginkizunez abusatuz, euren onurarako edo beste inoren onurarako, sozietatearen ondasunak iruzur eginez xedatzen badituzte edo sozietatearen kontura betebeharrak hartzen badituzte, zuzenean, diruz balioesteko modukoa den kaltea eragiten zaiela sozietatearen bazkideei, gordailuzainei, partaidetza-kontuak dituztenei edo administratzen dituzten ondasun, balore edo kapitalen titula-

años, o multa del tanto al triplo del beneficio obtenido.

Artículo 296

1. Los hechos descritos en el presente capítulo, sólo serán perseguibles mediante denuncia de la persona agraviada o de su representante legal. Cuando aquélla sea menor de edad, incapaz o una persona desvalida, también podrá denunciar el Ministerio Fiscal.

2. No será precisa la denuncia exigida en el apartado anterior cuando la comisión del delito afecte a los intereses generales o a una pluralidad de personas.

Artículo 297

A los efectos de este capítulo se entiende por sociedad toda cooperativa, Caja de Ahorros, mutua, entidad financiera o de crédito, fundación, sociedad mercantil o cualquier otra entidad de análoga naturaleza que para el cumplimiento de sus fines participe de modo permanente en el mercado.

CAPÍTULO XIV

De la receptación y otras conductas afines

Artículo 298

1. El que, con ánimo de lucro y con conocimiento de la comisión de un delito, o

rrei, orduan, halakoei sei hilabetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra, edo isuna ezarriko zaie, lortutako onuratik horren hiru halako artekoa.

296. artikulua

1. Kapitulu honetan azalduta dauden egitateak pertsegitzeko, beharrezkoa izango da laidotuaren edo beraren lege-ordezkariaren salaketa. Laidotua adingabea, ezgaia edo babesgabea denean, Fiskaltzak ere egin ahal izango du egitate horiei buruzko salaketa.

2. Aurreko paragrafoan galdatutako salaketa ez da beharrezkoa izango, egindako delituak interes orokorrak edo pertsona franko ukitzen dituenean.

297. artikulua

Kapitulu honen ondoreetarako, sozietate gisa hartzen da, edozein kooperatiba, aurrezki-kutxa, mutua, finantza-edo kreditu-erakunde, fundazio, merkataritzako sozietate, edo horien antzeko izaera duten erakundeetatik beste edozein, baldin eta merkatuan, bere helburuak lortzeko, modu iraunkorrean parte hartzen badu.

XIV. KAPITULUA

Errezibitzea eta horren antzeko beste jokabideak

298. artikulua

1. Norbaitek delituaren erantzule direnei delitu horren efektuez aprobe-

lito contra el patrimonio o el orden socioeconómico, en el que no haya intervenido ni como autor ni como cómplice, ayude a los responsables a aprovecharse de los efectos del mismo, o reciba, adquiera u oculte tales efectos, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

2. Esta pena se impondrá en su mitad superior a quien reciba, adquiera u oculte los efectos del delito para traficar con ellos. Si el tráfico se realizase utilizando un establecimiento o local comercial o industrial, se impondrá, además, la pena de multa de doce a veinticuatro meses. En estos casos los Jueces o Tribunales, atendiendo a la gravedad del hecho y a las circunstancias personales del delincuente, podrán imponer también a éste la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de su profesión o industria, por tiempo de dos a cinco años, y acordar la medida de clausura temporal o definitiva del establecimiento o local. Si la clausura fuese temporal, su duración no podrá exceder de cinco años.

3. En ningún caso podrá imponerse pena privativa de libertad que exceda de la señalada al delito encubierto. Si éste estuviese castigado con pena de otra naturaleza, la pena privativa de libertad será sustituida por la de multa de doce a veinticuatro meses, salvo que el delito encubierto tenga asignada pena igual o inferior a ésta; en tal caso, se impondrá al culpable la pena de aquel delito en su mitad inferior.

txa daitezen laguntza ematen badie edo efektu horiek jaso, eskuratu edo ezkutatzen baditu, irabaziak lortzeko asmoz, ondarearen edo gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurka delitu egin dela jakinda eta delitu horretan egile edo sopikun gisa parte hartu gabe, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Aurreko paragrafoaren zigorra goiko erdian, ezarriko zaio, delituaren efektuak trafikagai hartzeko, horiek jaso, eskuratu edo ezkutatzen dituenari. Trafikoa merkataritza edo industriako establezimendu zein lokala erabiliz egiten bada, hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isun-zigorra ere ezarriko da. Kasu horietan, epaile edo auzitegiek, egitatearen larritasuna eta delitugilearen beraren inguruabarrak kontuan izanik, delitugileari lanbidean edo industrian aritzeko desgaikuntza berezia ere ezarri ahal izango diote, bi urtetik bost artekoa, bai eta establezimendua edo lokala aldi baterako edo betiko ixteko erabaki ere. Itxierak ezin izango du bost urte baino gehiago iraun, aldi baterakoa izanez gero.

3. Inoiz ere ezin izango da zigor askatasun-gabetzaile handiagoa ezarri, estalitako deliturako adierazitakoa baino. Delitu horrek bestelako zigorra badu, zigor askatasun-gabetzailearen ordez, hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko da, estalitako delituak horrenbesteko zigorra edo txikiagoa duenean izan ezik. Kasu horretan, errudunari harako delituaren zigorra beheko erdian ezarriko zaio.

Artículo 299

1. El que, con ánimo de lucro y con conocimiento de la comisión de hechos constitutivos de falta contra la propiedad, habitualmente se aprovechara o auxiliara a los culpables para que se beneficien de los efectos de las mismas, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año.

2. Si los efectos los recibiere o adquiriere para traficar con ellos, se impondrá la pena en su mitad superior y, si se realizaren los hechos en local abierto al público, se impondrá, además, la multa de doce a veinticuatro meses. En estos casos los jueces o tribunales, atendiendo a la gravedad del hecho y a las circunstancias personales del delincuente, podrán imponer también a éste la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de su profesión o industria por tiempo de uno a tres años, y acordar la medida de clausura temporal o definitiva del establecimiento o local. Si la clausura fuese temporal, su duración no podrá exceder de cinco años.

Artículo 300

Las disposiciones de este capítulo se aplicarán aun cuando el autor o el cómplice del hecho de que provengan los efectos aprovechados fuera irresponsable o estuviera personalmente exento de pena.

Artículo 301

1. El que adquiera, convierta o transmita bienes, sabiendo que éstos

299. artikulua

1. Norbaitek, irabaziak lortzeko asmoz eta jabetzaren aurkako faltak diren egitateak gauzatu direla jakinda, ohikotasunez faltetatik probetxua ateratzen badu edo errudunei laguntzen badie, horiek falten ondoreetatik onura ateratzeko, orduan, pertsona horri sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Efektuak trafikagai izateko jaso edo eskuratzen baditu, zigorra bere goiko erdian ezarriko da, eta, egitateak jendaurrean zabalik dagoen lokalean gauzatzen badira, gainera, hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko da. Kasu horietan, epaile edo auzitegiek, egitatearen larritasuna eta delitugilearen inguruabar pertsonalak kontuan hartuta, horri ezarri ahal izango diote, halaber, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru urte artekoa, eta establezimendu edo lokala aldi baterako edo behin betiko ixteko neurria erabaki dezakete. Aldi baterako itxierak ezin izango du bost urte baino gehiago iraun.

300. artikulua

Kapitulu honetako xedapenak aplikatuko dira, aprobetxatutako efektuak dakartzan egitatearen egile edo sopikunak erantzukizunik izan ez arren, edo horrek zigor-salbuespen pertsonala izan arren.

301. artikulua

1. Norbaitek ondasunak eskuratu, itxuraldatu edo eskualdatzen baditu, on-

tienen su origen en un delito, o realice cualquier otro acto para ocultar o encubrir su origen ilícito, o para ayudar a la persona que haya participado en la infracción o infracciones a eludir las consecuencias legales de sus actos, será castigado con la pena de prisión de seis meses a seis años y multa del tanto al triplo del valor de los bienes. En estos casos, los jueces o tribunales, atendiendo a la gravedad del hecho y a las circunstancias personales del delincuente, podrán imponer también a éste la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de su profesión o industria por tiempo de uno a tres años, y acordar la medida de clausura temporal o definitiva del establecimiento o local. Si la clausura fuese temporal, su duración no podrá exceder de cinco años.

Las pena se impondrá en su mitad superior cuando los bienes tengan su origen en alguno de los delitos relacionados con el tráfico de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas descritos en los artículos 368 a 372 de este Código. En estos supuestos se aplicarán las disposiciones contenidas en el artículo 374 de este Código.

2. Con las mismas penas se sancionará, según los casos, la ocultación o encubrimiento de la verdadera naturaleza, origen, ubicación, destino, movimiento o derechos sobre los bienes o propiedad de los mismos, a sabiendas de que proceden de alguno de los delitos expresados en el apartado anterior o de un acto de participación en ellos.

dasunon jatorria delituan dagoela jakinda, edo beste edozein egitate gauzatzen badu ondasun horien jatorria zilegia ez dela ezkutatu edo estaltzeko, edo arau-haustean edo arau-hausteetan parte hartu duenari bere egintzen legezko ondorioetatik itzuri egiten laguntzeko, orduan, horri sei hilabetetik sei urte arteko espetxealdi-zigorra eta ondasunen baliotik horren hiru halako arteko isuna ezarriko zaizkio. Kasu horietan, epaile edo auzitegiek, egitatearen larritasuna eta delitugilearen inguruabar pertsonalak kontuan hartuta, horri ezarri ahal izango diote, halaber, lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia, urtebetetik hiru urte artekoa, eta establezimendu edo lokala aldi baterako edo behin betiko ixteko neurria erabaki dezakete. Aldi baterako itxierak ezin izango du bost urte baino gehiago iraun.

Zigorra goiko erdian ezarriko da, ondasunek jatorria dutenean kode honen 368. artikulutik 372.erakoetan azaldutako delitu batean, hots, droga toxiko, sorgorgarri edo gai psikotropikoak trafikagai izatearekin zerikusia dutenetatik batean. Kasu horietan, kode honen 374. artikuluan jasotako xedapenak aplikatuko dira.

2. Zigor berberekin zigortuko da, kasuen arabera, ondasunen benetako izaera, jatorria, kokalekua, destinoa, mugimendua, ondasunen gaineko eskubideak edo jabetza ezkutatze edo estaltzea, hori egiten bada ondasunak aurreko paragrafoan adierazitako delituetatik baten ondorio direla edo delitu horietan egiten den parte-hartze egintzaren ondorio direla jakinda.

3. Si los hechos se realizasen por imprudencia grave, la pena será de prisión de seis meses a dos años y multa del tanto al triplo.

3. Egitateak zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz gauzatzen badira, espetxealdi-zigorra sei hilabetetik bi urte artekoa izango da, eta isuna, ondasunen baliotik horren hiru halako artekoa.

4. El culpable será igualmente castigado aunque el delito del que provinieren los bienes, o los actos penados en los apartados anteriores hubiesen sido cometidos, total o parcialmente, en el extranjero.

4. Era berean, errudunari zigorra ezarriko zaio, nahiz eta delitua dakarten ondasunak edota aurreko paragrafoetan zigortutako egitateak, oso-osorik edo zati batez, atzerrian egin.

5. Si el culpable hubiera obtenido ganancias, serán decomisadas conforme a las reglas del artículo 127 de este Código.

5. Errudunak irabaziak lortu baditu, horiek konfiskatu egingo dira, kode honen 127. artikuluko erregelen arabera.

Artículo 302

1. En los supuestos previstos en el artículo anterior se impondrán las penas privativas de libertad en su mitad superior a las personas que pertenezcan a una organización dedicada a los fines señalados en los mismos, y la pena superior en grado a los jefes, administradores o encargados de las referidas organizaciones.

302. artikulua

1. Aurreko artikuluan ezarritako kasuetan, zigor askatasun-gabetzaileak goiko erdian ezarriko zaizkie kasuotan adierazitako helburuak dituen antolakundeko pertsonei, eta aurreko artikuluan adierazitako zigorra baino gradu bat gehiagokoa, antolakundeon buru, administratzaile edo arduradunei.

2. En tales casos, los Jueces o Tribunales impondrán, además de las penas correspondientes, la de inhabilitación especial del reo para el ejercicio de su profesión o industria por tiempo de tres a seis años, el comiso de los bienes objeto del delito y de los productos y beneficios obtenidos directa o indirectamente del acto delictivo, y podrán decretar, asimismo, alguna de las medidas siguientes:

2. Kasu horietan, epaile edo auzitegiek errudunari, berari dagozkion zigorrez gain, lanbidean edo industrian aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko diote, hiru urtetik sei artekoa, bai eta delituaren gai izan diren ondasunen eta delitu-egintzatik zuzenean nahiz zeharka lortutako produktu eta irabazien konfiskazioa ere. Gainera, hurrengo neurrietatik bat dekretatu ahal izango dute:

a) La aplicación de cualquiera de las medidas previstas en el artículo 129 de este Código.

b) La pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas y del derecho a gozar de beneficios o incentivos fiscales o de la Seguridad Social, durante el tiempo que dure la mayor de las penas privativas de libertad impuesta.

a) Kode honen 129. artikuluan aipatutako neurrietatik edozein ezartzea.

b) Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera eta zerga-onurak, pizgarri fiskalak nahiz Gizarte Segurantzakoak izateko eskubidea galtzea, ezarritako zigor askatasun-gabetzaileen artean handienak dirauen bitartean.

Artículo 303

Si los hechos previstos en los artículos anteriores fueran realizados por empresario, intermediario en el sector financiero, facultativo, funcionario público, trabajador social, docente o educador, en el ejercicio de su cargo, profesión u oficio, se le impondrá, además de la pena correspondiente, la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, industria o comercio, de tres a diez años. Se impondrá la pena de inhabilitación absoluta de diez a veinte años cuando los referidos hechos fueren realizados por autoridad o agente de la misma.

A tal efecto, se entiende que son facultativos los médicos, psicólogos, las personas en posesión de títulos sanitarios, los veterinarios, los farmacéuticos y sus dependientes.

303. artikulua

Enpresaburuak, finantza-arloko bitartekoak, adituak, funtzionario publikoak, lan-harremanetako langileak, irakasleak edo hezitzaileak, bere kargu, lanbide edo ogibidean aritzean, gauzatzen baditu aurreko artikuluetan ezarritako egitateak, berari dagokion zigorraz gain, enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibide zein industria edo merkataritzan aritzeko desgaikuntza berezia jasoko du, hiru urtetik hamar artekoa. Hamar urtetik hogei arteko desgaikuntza erabatekoa ezarriko da egitate horiek agintaritzak edo beraren agenteak gauzatzen baditu.

Horretarako, medikuak, psikologoak, osasun-tituluak dituzten pertsonak, albaitariak, farmazialariak eta euren mendekoak adituak direla ulertzen da.

Artículo 304

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos previstos en los artículos 301 a 303 se castigará, respectivamente, con la pena inferior en uno o dos grados.

304. artikulua

301. artikulutik 303.era bitarteko artikuluetan ezarritako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, delitu bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

TÍTULO XIV

DE LOS DELITOS CONTRA LA HACIENDA PÚBLICA Y CONTRA LA SEGURIDAD SOCIAL

Artículo 305

1. El que por acción u omisión, defraude a la Hacienda Pública estatal, autonómica, foral o local, eludiendo el pago de tributos, cantidades retenidas o que se hubieran debido retener o ingresos a cuenta de retribuciones en especie obteniendo indebidamente devoluciones o disfrutando beneficios fiscales de la misma forma, siempre que la cuantía de la cuota defraudada, el importe no ingresado de las retenciones o ingresos a cuenta o de las devoluciones o beneficios fiscales indebidamente obtenidos o disfrutados exceda de 120.000 euros, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de la citada cuantía.

Las penas señaladas en el párrafo anterior se aplicarán en su mitad superior cuando la defraudación se cometiere concurriendo alguna de las circunstancias siguientes:

a) La utilización de persona o personas interpuestas de manera que quede oculta la identidad del verdadero obligado tributario.

b) La especial trascendencia y gravedad de la defraudación atendiendo al importe de lo defraudado o a la existencia de una estructura organizativa que afecte o pueda afectar a una pluralidad de obligados tributarios.

XIV. TITULUA

HERRI OGASUNAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN AURKAKO DELITUAK

305. artikulua

1. Norbaitek, egitez edo ez-egitez, estatuko, autonomia erkidegoko, foru aldundiko edo tokiko herri-ogasunari iruzur egiten badio, zergen ordainketari, atxikitako edo atxiki beharreko kopuruen ordainketari, edo gauzez egindako ordainsarien konturako sarreren ordainketari itzuri eginez edo bidegabe itzulketak lortuz, edo zerga-onurak ere bidegabe hartuz, betiere 120.000 euro baino gehiagokoa denean iruzurpeko kuotaren zenbatekoa, edo bidegabe lortu nahiz hartutako atxikipenen, konturako sarreren, itzulketen edo zerga-onuren ordaindu gabeko zenbatekoa, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta hamabost milioitik horren sei halako arteko isuna.

Aurreko lerrokadan adierazitako zigorrak goiko erdian ezarriko dira, iruzur egiten denean inguruabar hauetako bat gertatzen delarik:

a) Beste pertsona bat edo batzuk tartean jartzea, zergapekoa benetan nor den ezkutaturik geratzeko moduan.

b) Iruzurra garrantzi eta larritasun berezikoa izatea, kontuan izanik iruzurpeko zenbatekoa edo zergapeko asko ukitzen dituen edo uki ditzakeen antolaketa-egitura.

Además de las penas señaladas, se impondrá al responsable la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas y del derecho a gozar de beneficios o incentivos fiscales o de la Seguridad Social durante un período de tres a seis años.

2. A los efectos de determinar la cuantía mencionada en el apartado anterior, si se trata de tributos, retenciones, ingresos a cuenta o devoluciones, periódicos o de declaración periódica, se estará a lo defraudado en cada período impositivo o de declaración, y si éstos son inferiores a doce meses, el importe de lo defraudado se referirá al año natural. En los demás supuestos, la cuantía se entenderá referida a cada uno de los distintos conceptos por los que un hecho imponible sea susceptible de liquidación.

3. Las mismas penas se impondrán cuando las conductas descritas en el apartado primero de este artículo se cometan contra la Hacienda de la Comunidad Europea, siempre que la cuantía defraudada excediere de 50.000 euros.

4. Quedará exento de responsabilidad penal el que regularice su situación tributaria, en relación con las deudas a que se refiere el apartado primero de este artículo, antes de que se le haya notificado por la Administración tributaria la iniciación de actuaciones de comprobación tendentes a la determinación de las deudas tributarias objeto de regularización, o en el caso de que tales actuaciones no se hubieran producido, antes de que el Ministerio Fiscal, el Abogado del Estado o el represen-

Adierazitako zigorrez gain, erantzuleari kendu egingo zaio diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera eta zerga-onurak, pizgarri fiskalak edota Gizarte Segurantzakoak izateko eskubidea, hiru urtetik sei arteko epean.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa zehazteko, zergak, atxikipenak, kontura egiten diren diru-sarrerak edo itzulketak aldizkakoak badira edo aldizka aitortzen badira, zergaldi edo aitorpenaldi bakoitzean egin den iruzurra izango da kontuan, eta aldiok hamabi hilabete baino gutxiago irauten badute, iruzurraren zenbatekoa zehazteko egutegiko urtea hartuko da kontuan. Gainerako kasuetan, zenbateko hori zehazteko, kontuan hartuko da zerga-egitatea likidatzeko balio duen kontzeptu ezberdin bakoitza.

3. Zigor berberak ezarriko dira, artikulu honen lehenengo paragrafoan azaldutako jokabideak Europar Batasuneko Ogasunaren aurka egiten direnean, betiere iruzurraren zenbatekoa 50.000 euro baino gehiagokoa denean.

4. Erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da bere zerga-egoera zuzentzen duena, artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatzen diren zorren inguruan, Zerga Administrazioak jakinarazi aurretik egiaztapen-jarduna hasiko duela, zuzendu behar diren zerga horiek zehazteko. Jardun hori gertatu ezean, pertsona hori erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da, baldin eta zerga-egoera zuzentzen badu, beraren aurka Fiskaltzak, estatuaren abokatuak edo autonomia erkidegoaren, foru al-

tante procesal de la Administración autonómica, foral o local de que se trate, interponga querella o denuncia contra aquél dirigida, o cuando el Ministerio Fiscal o el Juez de Instrucción realicen actuaciones que le permitan tener conocimiento formal de la iniciación de diligencias.

La exención de responsabilidad penal contemplada en el párrafo anterior alcanzará igualmente a dicho sujeto por las posibles irregularidades contables u otras falsedades instrumentales que, exclusivamente en relación a la deuda tributaria objeto de regularización, el mismo pudiera haber cometido con carácter previo a la regularización de su situación tributaria.

dundiaren edo tokiko administrazioaren ordezkari prozesalak kereila edo salaketa jarri aurretik, edota zerga-egoera zuzentzen badu Fiskaltzak edo instrukzioko epaileak jarduna egin aurretik, betiere jardunak ahalbideratzen dionean eginbideak hasi direla modu formalean jakitea.

Era berean, aurreko lerrokadan bezala, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da subjektu hori, zerga-egoera zuzendu aurretik egindako kontabilitateko irregulartasunengatik edo bestelako faltsutze instrumentalengatik, baldin eta horiek zuzenduko den zerga--zorraren ingurukoak baino ez badira.

Artículo 306

El que por acción u omisión defraude a los presupuestos generales de la Comunidad Europea u otros administrados por ésta, en cuantía superior a cincuenta mil euros, eludiendo el pago de cantidades que se deban ingresar, o dando a los fondos obtenidos una aplicación distinta de aquella a que estuvieren destinados, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de la citada cuantía.

306. artikulua

Norbaitek, egitez edo ez-egitez, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrei edo Europar Batasunak administratzen dituen beste aurrekontuei iruzur egiten badie, aurrekontuetan sartu behar diren kopuruei itzuri eginez, edo lortutako funtsak euren helbururako ez beste baterako erabiliz, betiere iruzur horren zenbatekoa berrogeita hamar mila euro baino gehiagokoa denean, orduan, pertsona horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, urtebetetik lau artekoa, bai eta isuna ere, berrogeita hamar mila eurotik horren sei halako artekoa.

Artículo 307

1. El que, por acción u omisión, defraude a la Seguridad Social para eludir el pago de las cuotas de ésta y conceptos de recaudación conjunta, obtenien-

307. artikulua

1. Norbaitek, egitez edo ez-egitez, Gizarte Segurantzari iruzur egiten badio horren kuoten eta baterako bilketa--kontzeptuen ordainketari itzuri egiteko,

do indebidamente devoluciones de las mismas o disfrutando de deducciones por cualquier concepto asimismo de forma indebida, siempre que la cuantía de las cuotas defraudadas o de las devoluciones o deducciones indebidas exceda de 120.000 euros será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de la citada cuantía.

Las penas señaladas en el párrafo anterior se aplicarán en su mitad superior cuando la defraudación se cometa concurriendo alguna de las circunstancias siguientes:

a) La utilización de persona o personas interpuestas de manera que quede oculta la identidad del verdadero obligado frente a la Seguridad Social.

b) La especial trascendencia y gravedad de la defraudación atendiendo al importe de lo defraudado o a la existencia de una estructura organizativa que afecte o pueda afectar a una pluralidad de obligados frente a la Seguridad Social.

2. A los efectos de determinar la cuantía mencionada en el apartado anterior, se estará a lo defraudado en cada liquidación, devolución o deducción, refiriéndose al año natural el importe de lo defraudado cuando aquéllas correspondan a un período inferior a doce meses.

3. Quedará exento de responsabilidad penal el que regularice su situación ante la Seguridad Social, en relación con las deudas a que se refiere el apartado primero de este artículo, antes de que se le haya notificado la ini-

kuota horien itzulketak bidegabe lortuz edota edozein kontzepturengatik kenkariak erdietsiz, hori ere bidegabe, betiere 120.000 euro baino gehiagokoa denean iruzurpeko kuoten edo bidegabeko itzulketen nahiz kenkarien zenbatekoa, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta zenbateko horretatik horren sei halako arteko isuna.

Aurreko lerrokadan adierazitako zigorrak goiko erdian ezarriko dira, iruzurra egiten denean inguruabar hauetako bat gertatzen delarik:

a) Gizarte Segurantzari begira, beste pertsona bat edo batzuk tartean jartzea, zergapekoa benetan nor den ezkutaturik geratzeko moduan.

b) Iruzurra garrantzi eta larritasun berezikoa izatea, kontuan izanik iruzurpeko zenbatekoa edo Gizarte Segurantzari begira betebeharpeko asko ukitzen dituen edo uki ditzakeen antolaketa-egitura.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa zehazteko, likidazio, itzulketa edo kenkari bakoitzean egin den iruzurra hartuko da kontuan. Likidazio, itzulketa edo kenkari horien epealdia hamabi hilabete baino gutxiagokoa denean, iruzurraren zenbatekoa egutegiko urteari dagokio.

3. Erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da Gizarte Segurantzarekin egoera zuzentzen duena, artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatzen diren zorren inguruan, zorrok zehazteko ikuskapen-jardunaren hasierari bu-

ciación de actuaciones inspectoras dirigidas a la determinación de dichas deudas o, en caso de que tales actuaciones no se hubieran producido, antes de que el Ministerio Fiscal o el Letrado de la Seguridad Social interponga querella o denuncia contra aquél dirigida.

La exención de responsabilidad penal contemplada en el párrafo anterior alcanzará igualmente a dicho sujeto por las posibles falsedades instrumentales que, exclusivamente en relación a la deuda objeto de regularización, el mismo pudiera haber cometido con carácter previo a la regularización de su situación.

ruzko jakinarazpena jaso aurretik, edo, halako jardunik gertatu ezean, beraren aurka Fiskaltzak edo Gizarte Segurantzaren legelariak kereila edo salaketa jarri aurretik.

Era berean, subjektu hori aurreko lerrokadan bezala, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da egoera zuzendu aurretik egindako faltsutze instrumentalengatik, baldin eta horiek zuzenduko den zorraren ingurukoak baino ez badira.

Artículo 308

1. El que obtenga una subvención, desgravación o ayuda de las Administraciones públicas de más de 80.000 euros falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de su importe.

2. Las mismas penas se impondrán al que en el desarrollo de una actividad subvencionada con fondos de las Administraciones públicas cuyo importe supere los 80.000 euros, incumpla las condiciones establecidas alterando sustancialmente los fines para los que la subvención fue concedida.

3. Además de las penas señaladas, se impondrá al responsable la pérdida

308. artikulua

1. Norbaitek herri-administrazioetatik 80.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntza lortzen badu, hori eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak faltsutuz, edo hori eskuratzea eragozten duten baldintzak ezkutatuz, orduan, pertsona horri ezarriko zaio urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra, bai eta isuna ere, diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntzaren zenbatekotik horren sei halako artekoa.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio ezarritako baldintzak betetzen ez dituenari, baldin eta, jarduera garatzean, berak funtsez aldatzen baditu diru-laguntzaren oinarri izan ziren helburuak, betiere garatutako jarduerak jaso duenean herri-administrazioen funtsetako diru-laguntza, eta diru-laguntzaren zenbatekoa 80.000 euro baino gehiagokoa denean.

3. Adierazitako zigorrez gain, erantzuleari kendu egingo zaio diru-laguntza

de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas y del derecho a gozar de beneficios o incentivos fiscales o de la Seguridad Social durante un período de tres a seis años.

4. Quedará exento de responsabilidad penal, en relación con las subvenciones, desgravaciones o ayudas a que se refieren los apartados primero y segundo de este artículo, el que reintegre las cantidades recibidas, incrementadas en un interés anual equivalente al interés legal del dinero aumentado en dos puntos porcentuales, desde el momento en que las percibió, antes de que se le haya notificado la iniciación de actuaciones de inspección o control en relación con dichas subvenciones, desgravaciones o ayudas o, en el caso de que tales actuaciones no se hubieran producido, antes de que el Ministerio Fiscal, el Abogado del Estado o el representante de la Administración autonómica o local de que se trate interponga querella o denuncia contra aquél dirigida.

La exención de responsabilidad penal contemplada en el párrafo anterior alcanzará igualmente a dicho sujeto por las posibles falsedades instrumentales que, exclusivamente en relación a la deuda objeto de regularización, el mismo pudiera haber cometido con carácter previo a la regularización de su situación.

Artículo 309

El que obtenga indebidamente fondos de los presupuestos generales de la Comunidad Europea u otros administrados por ésta, en cuantía superior a cincuenta mil euros, falseando las con-

edo laguntza publikoak lortzeko aukera edo zerga-onurak, pizgarri fiskalak edota Gizarte Segurantzakoak izateko eskubidea, hiru urtetik sei arteko epean.

4. Erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da, artikulu honen lehenengo eta bigarren paragrafoetan aipatzen diren diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntzen inguruan, jasotako kopuruak, hartu zituen unetik, urteko korrituarekin itzultzen dituena, baldin eta urteko korritu hori diruaren lege-korritua gehi ehuneko bi puntukoa bada, betiere diru-laguntza, zerga-arinketa edo laguntza horien inguruan egiten diren ikuskatze edo kontroleko jardunaren hasierari buruzko jakinarazpena jaso aurretik itzultzen dituenean, edota, jardun hori gertatu ezean, kopuruak itzultzen dituenak, beraren aurka Fiskaltzak, estatuaren abokatuak edo autonomia erkidego nahiz toki-administrazioko ordezkariak kereila edo salaketa jarri aurretik itzultzen dituenean.

Era berean, subjektu hori aurreko lerrokadan bezala, erantzukizun penaletik salbuetsita geratuko da egoera zuzendu aurretik egindako faltsutze instrumentalengatik, baldin eta horiek zuzenduko den zorraren ingurukoak baino ez badira.

309. artikulua

Norbaitek Europar Batasunaren aurrekontu orokorretatik edo Europar Batasunak administratzen dituen beste aurrekontuetatik, bidegabe, berrogeita hamar mila euro baino zenbateko han-

diciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubieren impedido, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa del tanto al séxtuplo de la citada cuantía.

diagoko funtsak lortzen baditu, hori lortzeko beharrezkoak diren baldintzak faltsutuz edo funtsak lortzen eragozten duten baldintzak ezkutatuz, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta isuna ere, berrogeita hamar mila euroko zenbatekotik zenbateko horren sei halako artekoa.

Artículo 310

Será castigado con la pena de prisión de cinco a siete meses el que estando obligado por ley tributaria a llevar contabilidad mercantil, libros o registros fiscales:

a) Incumpla absolutamente dicha obligación en régimen de estimación directa de bases tributarias.

b) Lleve contabilidades distintas que, referidas a una misma actividad y ejercicio económico, oculten o simulen la verdadera situación de la empresa.

c) No hubiere anotado en los libros obligatorios negocios, actos, operaciones o, en general, transacciones económicas, o los hubiere anotado con cifras distintas a las verdaderas.

d) Hubiere practicado en los libros obligatorios anotaciones contables ficticias.

La consideración como delito de los supuestos de hecho, a que se refieren las letras c) y d) anteriores, requerirá que se hayan omitido las declaraciones tributarias o que las presentadas fueren

310. artikulua

Bost hilabetetik zazpi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hiru hilabetetik hamar arteko isuna ere, zerga-legearen ondorioz merkataritzako kontabilitatea, liburuak edo zerga-erregistroak eramatera behartuta dagoenari:

a) Zerga-oinarrien zuzeneko zenbatespeneko eraentzan aurreko betebehar hori inola ere betetzen ez badu.

b) Jarduera eta ekonomia-ekitaldi berberari buruzko kontabilitate ezberdinak badaramatza, eta kontabilitate horiek enpresaren benetako egoera ezkutatu edo beste bat delako itxura egiten badute.

c) Nahitaezko liburuetan negozioen, egintzen, eragiketen edo, orokorrean, tratu ekonomikoen idatzoharrak egin ez baditu, edo benetakoak ez diren zenbakiekin egin baditu.

d) Nahitaezko liburuetan kontabilitateko gezurrezko idatzoharrak egin baditu.

Aurreko c) eta d) idatz-zatiek aipatu egitatezko kasuak delitutzat hartzeko, beharrezko da zerga-aitorpenik ez egitea edo aurkeztutako zerga-aitorpenek kontabilitate faltsua agertzea.

reflejo de su falsa contabilidad y que la cuantía, en más o menos, de los cargos o abonos omitidos o falseados exceda, sin compensación aritmética entre ellos, de 240.000 euros por cada ejercicio económico.

Horrezaz gain, egin ez diren edo faltsututako kargu edo abonamenduen zenbatekoa, dela gehiagokoa, dela gutxiagokoa, ekonomia-ekitaldi bakoitzeko 240.000 euro baino gehiagokoa izan behar da, euren artean konpentsazio aritmetikorik egiteke.

TÍTULO XV
DE LOS DELITOS CONTRA LOS DERECHOS DE LOS TRABAJADORES

Artículo 311

Serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses:

1.º Los que, mediante engaño o abuso de situación de necesidad impongan a los trabajadores a su servicio condiciones laborales o de Seguridad Social que perjudiquen, supriman o restrinjan los derechos que tengan reconocidos por disposiciones legales, convenios colectivos o contrato individual.

2.º Los que en el supuesto de transmisión de empresas, con conocimiento de los procedimientos descritos en el apartado anterior, mantengan las referidas condiciones impuestas por otro.

3.º Si las conductas reseñadas en los apartados anteriores se llevaren a cabo con violencia o intimidación se impondrán las penas superiores en grado.

XV. TITULUA
LANGILEEN ESKUBIDEEN AURKAKO DELITUAK

311. artikulua

Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere:

1.) Zerbitzupeko langileak, engainuaren bidez edo inoren beharrizan-egoeraz abusatuz, laneko edo Gizarte Segurantzako baldintza txarretan jartzen dituztenei, baldintzok kalte egiten badiete legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo banakako kontratuaren bidez langileentzat aitortutako eskubideei, edo eskubideok ezabatu edo murrizten badituzte.

2.) Enpresak eskualdatzen direnetan, aurreko kasuan azaldutako prozedurak zeintzuk diren jakinda, beste batek ezarritako baldintza horiei eusten dietenei.

3.) Aurreko kasuetan aipatutako jokabideak indarkeria edo larderiaren bidez egiten badira, beraiei dagozkienak baino gradu bat gehiagoko zigorrak ezarriko dira.

Artículo 312

1. Serán castigados con las penas de prisión de dos a cinco años y multa de seis a doce meses, los que trafiquen de manera ilegal con mano de obra.

2. En la misma pena incurrirán quienes recluten personas o las determinen a abandonar su puesto de trabajo ofreciendo empleo o condiciones de trabajo engañosas o falsas, y quienes empleen a súbditos extranjeros sin permiso de trabajo en condiciones que perjudiquen, supriman o restrinjan los derechos que tuviesen reconocidos por disposiciones legales, convenios colectivos o contrato individual.

312. artikulua

1. Bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere, legearen aurka lan-indarra trafikagai hartzen dutenei.

2. Zigor berbera ezarriko zaie, enplegua edo engainuzkoak zein faltsuak diren lan-baldintzak eskainiz, pertsonak biltzen dituztenei edo euren lanpostua uztera bultzatzen dituztenei, edota lan-baimenik ez duten atzerritarrak enplegatzen dituztenei, baldin eta enpleguaren baldintzek kalte egiten badiete legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edota banakako kontratuaren bidez pertsona horiek aitortuta dituzten eskubideei, edo eskubideok ezabatu edo murrizten badituzte.

Artículo 313

1. El que promoviere o favoreciere por cualquier medio la inmigración clandestina de trabajadores a España, será castigado con la pena prevista en el artículo anterior.

2. Con la misma pena será castigado el que, simulando contrato o colocación, o usando de otro engaño semejante, determinare o favoreciere la emigración de alguna persona a otro país.

313. artikulua

1. Norbaitek Espainiara langileen inmigrazio klandestinoa sustatzen edo faboratzen badu, edozein bide erabiliz, aurreko artikuluko zigorra ezarriko zaio.

2. Zigor berbera ezarriko zaio norbaiten emigrazioa bultzatu edo faboratzen duenari, kontratua edo lanpostua badela itxura eginez, edota horren antzeko beste engainuren bat erabiliz.

Artículo 314

Los que produzcan una grave discriminación en el empleo, público o privado, contra alguna persona por razón de su ideología, religión o creencias, su pertenencia a una etnia, raza o nación, su sexo, orientación sexual, situación familiar, enfermedad o minusvalía, por

314. artikulua

Norbaitzuek, enplegu publiko nahiz pribatuan, pertsona baten aurka bereizkeria larria sorrarazi eta, administrazio-agindei edo -zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badute, horrek ondorioztatu dituen kalte ekonomikoak kon-

ostentar la representación legal o sindical de los trabajadores, por el parentesco con otros trabajadores de la empresa o por el uso de alguna de las lenguas oficiales dentro del Estado español, y no restablezcan la situación de igualdad ante la ley tras requerimiento o sanción administrativa, reparando los daños económicos que se hayan derivado, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a dos años o multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 315

1. Serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses los que mediante engaño o abuso de situación de necesidad, impidieren o limitaren el ejercicio de la libertad sindical o el derecho de huelga.

2. Si las conductas reseñadas en el apartado anterior se llevaren a cabo con fuerza, violencia o intimidación se impondrán las penas superiores en grado.

3. Las mismas penas del apartado segundo se impondrán a los que, actuando en grupo, o individualmente pero de acuerdo con otros, coaccionen a otras personas a iniciar o continuar una huelga.

Artículo 316

Los que con infracción de las normas de prevención de riesgos laborales y estando legalmente obligados, no faciliten los medios necesarios para que

ponduz, hain zuzen, bereizkeriaren arrazoi direla pertsonaren ideologia, erlijioa nahiz sinesmenak; edo etnia, arraza nahiz nazio batekoa izatea; edo sexua, sexu-joera, familia-egoera nahiz gaixotasun edo elbarritasunen bat izatea; edo langileen lege-ordezkaria zein ordezkari sindikala izatea; edo enpresaren beste langile batzuekin ahaidetasuna izatea edo Espainiako estatuaren hizkuntza ofizialen bat erabiltzea, orduan, halakoei sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie.

315. artikulua

1. Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere, askatasun sindikalaren edo grebarako eskubidearen egikaritza eragozten edo mugatzen dutenei, engainuaren bidez edo inoren beharrizan-egoeraz abusatuz.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako jokabideak egiten badira indarra, indarkeria edo larderia erabiliz, beraiei dagozkien zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira.

3. Bigarren paragrafoko zigor berberak ezarriko zaizkie, dela taldeka, dela bakarka, baina beste batzuekin ados egonik, beste pertsona batzuk derrigortzen dituztenei greba bat hasteko edo jarraitzeko.

316. artikulua

Norbaitzuek, laneko arriskuei aurrea hartzeko arauak hautsiz eta legez horretarako betebeharra izanik, beharrezko bideak ez badituzte errazten, langileek

los trabajadores desempeñen su actividad con las medidas de seguridad e higiene adecuadas, de forma que pongan así en peligro grave su vida, salud o integridad física, serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses.

Artículo 317

Cuando el delito a que se refiere el artículo anterior se cometa por imprudencia grave, será castigado con la pena inferior en grado.

Artículo 318

Cuando los hechos previstos en los artículos de este título se atribuyeran a personas jurídicas, se impondrá la pena señalada a los administradores o encargados del servicio que hayan sido responsables de los mismos y a quienes, conociéndolos y pudiendo remediarlo, no hubieran adoptado medidas para ello. En estos supuestos la autoridad judicial podrá decretar, además, alguna o algunas de las medidas previstas en el artículo 129 de este Código.

euren jarduera egikari dezaten segurtasun eta higieneko neurri egokiekin, betiere langileen bizia, osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jartzen dutenean, orduan, halakoei sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

317. artikulua

Aurreko artikuluan aipatzen den delitua zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz egiten denean, berari dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

318. artikulua

Titulu honen artikuluetan ezarri egitateak pertsona juridikoei eratxikitzen zaizkienean, adierazitako zigorra ezarriko zaie administratzaileei edo zerbitzuaz arduratzen direnei, egitate horien ondorioz erantzule izan badira, bai eta, egitate horiek jakinda, eta konponbidea bila dezaketelarik, horretarako neurririk hartu ez dutenei ere. Kasu horietan, agintaritza judizialak dekretatu ahal izango ditu, orobat, kode honen 129. artikuluan aipatutako neurrietatik bat edo batzuk.

TÍTULO XV BIS

DELITOS CONTRA LOS DERECHOS DE LOS CIUDADANOS EXTRANJEROS

Artículo 318bis

1. El que, directa o indirectamente, promueva, favorezca o facilite el tráfi-

XV BIS TITULUA

ATZERRIKO HERRITARREN ESKUBIDEEN AURKAKO DELITUAK

318bis artikulua

1. Norbaitek, zuzenean edo zeharka, pertsonak legearen aurka trafikagai

co ilegal o la inmigración clandestina de personas desde, en tránsito o con destino a España, será castigado con la pena de cuatro a ocho años de prisión.

2. Si el propósito del tráfico ilegal o la inmigración clandestina fuera la explotación sexual de las personas, serán castigados con la pena de cinco a 10 años de prisión.

3. Los que realicen las conductas descritas en cualquiera de los dos apartados anteriores con ánimo de lucro o empleando violencia, intimidación, engaño, o abusando de una situación de superioridad o de especial vulnerabilidad de la víctima, o siendo la víctima menor de edad o incapaz o poniendo en peligro la vida, la salud o la integridad de las personas, serán castigados con las penas en su mitad superior.

4. En las mismas penas del apartado anterior y además en la de inhabilitación absoluta de seis a 12 años, incurrirán los que realicen los hechos prevaliéndose de su condición de autoridad, agente de ésta o funcionario público.

5. Se impondrán las penas superiores en grado a las previstas en los apartados 1 a 4 de este artículo, en sus respectivos casos, e inhabilitación especial para profesión, oficio, industria o comercio por el tiempo de la condena, cuando el culpable perteneciera a una organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que se dedicase a la realización de tales actividades.

hartzea edo pertsonen inmigrazio klandestinoa sustatu, faboratu edo errazten badu, Espainiatik edota Espainia iraganbide zein helmuga izanik, horri lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Legez aurkako trafikoaren edo inmigrazio klandestinoaren xedea pertsonen sexu-ustiapena bada, haiei bost urtetik 10 arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

3. Norbaitzuek aurreko bi paragrafoetatik edozeinetan deskribatutako jokabideak gauzatzen badituzte, irabaziak lortzeko asmoarekin, edo indarkeria, larderia nahiz engainua erabiliz, edo nagusitasun-egoeraz nahiz biktimaren ahulezia bereziaz abusatuz, edo biktima adingabea zein ezgaia izanik, edota pertsonen bizitza, osasuna edo osotasuna arriskuan jarriz, orduan, zigorrak euren goiko erdian ezarriko dira.

4. Aurreko paragrafoan ezarritako zigor berberak, eta, gainera, erabateko desgaikuntza, sei urtetik 12 artekoa, ezarriko zaizkie, egitate horiek burutzeko, euren agintaritza-izaeraz edo agintaritza horren agente nahiz funtzionario publiko izateaz baliatzen direnei.

5. Artikulu honen 1. paragrafotik 4.erakoetan ezarri zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira, kasuan-kasuan, eta, gainera, kondenak dirauen bitartean, lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan aritzeko desgaikuntza berezia, baldin eta, erruduna antolakunde edo elkarte bateko kidea izanik, antolakunde edo elkarte hori, modu iragankorrean behintzat, halako jardueretan aritzen bada.

Cuando se trate de los jefes, administradores o encargados de dichas organizaciones o asociaciones, se les aplicará la pena en su mitad superior, que podrá elevarse a la inmediatamente superior en grado.

En los supuestos previstos en este apartado la autoridad judicial podrá decretar, además, alguna o algunas de las medidas previstas en el artículo 129 de este Código.

6. Los tribunales, teniendo en cuenta la gravedad del hecho y sus circunstancias, las condiciones del culpable y la finalidad perseguida por éste, podrán imponer la pena inferior en un grado a la respectivamente señalada.

Antolakunde edo elkarte horietako buru, administratzaile edo arduradunen kasuan, horiei zigorra bere goiko erdian ezarriko zaie; zigor hori baino gradu bat gehiagokoa ere ezarri ahal izango da.

Paragrafo honek arautu kasuetan, agintaritza judizialak dekretatu ahal ditu, halaber, kode honen 129. artikuluan aipatutako neurrietatik bat edo batzuk.

6. Auzitegiek, egitatearen larritasuna eta horren inguruabarrak, errudunaren baldintzak eta errudun horrek lortu nahi duen helburua kontuan hartuta, kasuan-kasuan ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarri ahal izango dute.

TÍTULO XVI

DE LOS DELITOS RELATIVOS A LA ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y LA PROTECCIÓN DEL PATRIMONIO HISTÓRICO Y DEL MEDIO AMBIENTE

CAPÍTULO I

De los delitos sobre la ordenación del territorio

Artículo 319

1. Se impondrán las penas de prisión de seis meses a tres años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para profesión u oficio por tiempo de seis meses a tres años, a

XVI. TITULUA

LURRALDEAREN ANTOLAMENDUARI, ETA HISTORIA-ONDAREAREN ETA INGURUMENAREN BABESARI BURUZKO DELITUAK

I. KAPITULUA

Lurraldearen antolamenduari buruzko delituak

319. artikulua

1. Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, sei hi-

los promotores, constructores o técnicos directores que lleven a cabo una construcción no autorizada en suelos destinados a viales, zonas verdes, bienes de dominio público o lugares que tengan legal o administrativamente reconocido su valor paisajístico, ecológico, artístico, histórico o cultural, o por los mismos motivos hayan sido considerados de especial protección.

2. Se impondrá la pena de prisión de seis meses a dos años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para profesión u oficio por tiempo de seis meses a tres años, a los promotores, constructores o técnicos directores que lleven a cabo una edificación no autorizable en el suelo no urbanizable.

3. En cualquier caso, los Jueces o Tribunales, motivadamente, podrán ordenar, a cargo del autor del hecho, la demolición de la obra, sin perjuicio de las indemnizaciones debidas a terceros de buena fe.

Artículo 320

1. La autoridad o funcionario público que, a sabiendas de su injusticia, haya informado favorablemente proyectos de edificación o la concesión de licencias contrarias a las normas urbanísticas vigentes será castigado con la pena establecida en el artículo 404 de este Código y, además, con la de prisión de seis meses a dos años o la de multa de doce a veinticuatro meses.

2. Con las mismas penas se castigará a la autoridad o funcionario público

labetetik hiru urte artekoa, sustatzaile, eraikitzaile edo zuzendari teknikoei, baldin eta baimendu gabeko eraikuntza egiten badute bideetarako, berdeguneetarako edo jabari publikoko ondasunetarako lurzoruetan, legez edo administrazioaren bidez, paisaia, ekologia, erti, historia edo kultura aldetik balioa aitortuta duten lekuetan, edota zio berberengatik babes berezikotzat hartu diren lekuetan.

2. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta lanbide edo ogibidean aritzeko desgaikuntza berezia ere, sei hilabetetik hiru urte artekoa, sustatzaile, eraikitzaile edo zuzendari teknikoei, baldin eta lurzoru urbanizaezinean baimendu ezineko eraikuntza egiten badute.

3. Edozein kasutan, epaile edo auzitegiek, zioak emanez, obra errausteko agindu ahal izango dute, egitatea gauzatzen duenaren kontura; horrek ez die kalterik egingo hirugarren onustedunen mesedetan zor diren kalte-ordainei.

320. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, zuzen jarduten ez duela jakinda, txostena egiten badu eraikuntza proiektuen alde edo indarrean dauden hirigintza-arauen aurkako lizentzien alde, orduan, horri, kode honen 404. artikuluan ezarritako zigorraz gain, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio agintari edo funtzionario publikoari,

que por sí mismo o como miembro de un organismo colegiado haya resuelto o votado a favor de su concesión a sabiendas de su injusticia.

baldin eta, zuzen jarduten ez duela jakinda, bere kabuz edo kide anitzeko erakundearen kide gisa, ebazpena edo botoa ematen badu lizentzia horiek ematearen alde.

CAPÍTULO II

De los delitos sobre el patrimonio histórico

Artículo 321

Los que derriben o alteren gravemente edificios singularmente protegidos por su interés histórico, artístico, cultural o monumental serán castigados con las penas de prisión de seis meses a tres años, multa de doce a veinticuatro meses y, en todo caso, inhabilitación especial para profesión u oficio por tiempo de uno a cinco años.

En cualquier caso, los Jueces o Tribunales, motivadamente, podrán ordenar, a cargo del autor del hecho, la reconstrucción o restauración de la obra, sin perjuicio de las indemnizaciones debidas a terceros de buena fe.

Artículo 322

Los que ejecuten actos de cultivo, elaboración o tráfico, o de otro modo promuevan, favorezcan o faciliten el consuno ilegal de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas, o las posean con aquellos fines, serán castigados con las penas de prisión de tres a nueve años y multa del tanto al triplo del valor de la droga objeto del delito si se tratare de sustancias o productos que causen grave daño a la salud, y de prisión de uno a tres años y multa del tanto al duplo en los demás casos.

edo elikagaiak pozoitu edo andeatzen dituenari, baldin eta ur edo elikagai horiek erabilera publikorako edo giza taldeen kontsumorako badira.

366. artikulua

Aurreko artikuluetako kasuan, establezimendu, fabrika, laborategi edo lokala, gehienez, bost urte arteko itxi ahal izango da eta, kasurik larrienetan, betiko ixteko dekretatu ahal izango da, 129. artikuluan ezarritakoaren arabera.

367. artikulua

Aurreko artikulu guztietan ezarritako egitateak zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz gauzatzen badira, kasuan-kasuan, gradu bat gutxiagoko zigorrak ezarriko dira.

368. artikulua

Norbaitzuek droga toxiko, sorgorgarri edo gai psikotropikoak landu, egin edo trafikagai hartzen badituzte, edo beste modu batera horien legez aurkako kontsumoa sustatu, faboratu edo errazten badute, edo aurreko helburuak lortzeko eurok edukitzen badituzte, orduan, halakoei espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, hiru urtetik bederatzi artekoa, bai eta isuna ere, delituaren gai den drogaren baliotik horren hiru halako artekoa, baldin eta osasunari kalte larria egiten dioten gai edo produktuak badira; eta, gainerako kasuetan, espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, urtebetetik hiru artekoa, bai eta isuna ere, drogaren baliotik horren bi halako artekoa.

Artículo 369

1. Se impondrán las penas superiores en grado a las señaladas en el artículo anterior y multa del tanto al cuádruplo cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

1.ª El culpable fuere autoridad, funcionario público, facultativo, trabajador social, docente o educador y obrase en el ejercicio de su profesión, oficio o cargo.

2.ª El culpable perteneciere a una organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que tuviere como finalidad difundir tales sustancias o productos aun de modo ocasional.

3.ª El culpable participare en otras actividades organizadas o cuya ejecución se vea facilitada por la comisión del delito.

4.ª Los hechos fueren realizados en establecimientos abiertos al público por los responsables o empleados de los mismos.

5.ª Las sustancias a que se refiere el artículo anterior se faciliten a menores de 18 años, a disminuidos psíquicos o a personas sometidas a tratamiento de deshabituación o rehabilitación.

6.ª Fuere de notoria importancia la cantidad de las citadas sustancias objeto de las conductas a que se refiere el artículo anterior.

7.ª Las referidas sustancias se adulteren, manipulen o mezclen entre sí o con otras, incrementando el posible daño a la salud.

369. artikulua

1. Aurreko artikuluan adierazi zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira eta, horiekin batera, drogaren baliotik balio horren lau halako arteko isuna, hurrengo inguruabarretatik bat gertatuz gero:

1.) Erruduna agintari, funtzionario publiko, aditu, lan-harremanetako langile, irakasle edo hezitzailea denean, bere lanbide, ogibide edo karguan diharduela.

2.) Erruduna antolakunde edo elkarte baten bazkidea denean, hori iragankorra izan arren, baldin eta antolakunde edo elkarte horren helburua bada, noizean behin bederen, halako gai edo produktuak hedatzea.

3.) Errudunak parte hartzen duenean bestelako jarduera antolatuetan, edo delitu egitearen bidez errazago gauzatzen diren delitu-jardueretan.

4.) Egitateak jendaurrean zabalik dauden establezimenduetan gauzatzen dituztenean establezimendu horietako arduradun nahiz enplegatuek.

5.) Aurreko artikuluak aipatzen dituen gaiak ematen bazaizkie 18 urtekoak baino gazteagoak direnei, adimen-urrituei edo mendekotasuna gainditu edo bizkortzeko sendabidean daudenei.

6.) Aipatu gaien kopurua garrantzi handikoa denean aurreko artikuluak aipatzen dituen jokabideen barnean

7.) Aipatu gaiak andeatu, manipulatu edo elkarrekin nahiz beste batzuekin nahasten direnean, osasunaren aurka gerta daitekeen kaltea handituz.

8.ª Las conductas descritas en el artículo anterior tengan lugar en centros docentes, en centros, establecimientos o unidades militares, en establecimientos penitenciarios o en centros de deshabituación o rehabilitación, o en sus proximidades.

8.) Aurreko artikuluan deskribatutako jokabideak ikastegietan, zentro, establezimendu nahiz etxe militarretan, espetxeetan edo mendekotasuna gainditzeko zein bizkortzeko zentroetan burutzen direnean, edota horietatik hurbil.

9.ª El culpable empleare violencia o exhibiere o hiciese uso de armas para cometer el hecho.

9.) Errudunak, egitatea burutzeko, indarkeria erabiltzen duenean, edota armak erakusten nahiz erabiltzen dituenean.

10.ª El culpable introdujera o sacare ilegalmente las referidas sustancias o productos del territorio nacional, o favoreciese la realización de tales conductas.

10.) Errudunak, legearen aurka, nazio-lurraldean sartu edo bertatik ateratzen dituenean aipatu gai edo produktuak, edota halako jokabideak gauzatzea errazten duenean.

2. En los supuestos previstos en las circunstancias 2.ª, 3.ª y 4.ª del apartado anterior de este artículo, se impondrá a la organización, asociación o persona titular del establecimiento una multa del tanto al triplo del valor de la droga objeto del delito, el comiso de los bienes objeto del delito y de los productos y beneficios obtenidos directa o indirectamente del acto delictivo y, además, la autoridad judicial podrá decretar alguna de las siguientes medidas:

2. Artikulu honen aurreko paragrafoko 2, 3 eta 4. inguruabarrek aipatu kasuetan, antolakundeari, elkarteari edo establezimenduaren titularrari ezarriko zaizkio delituaren gai den drogaren baliotik horren hiru halako arteko isuna, delituaren gai izan diren ondasunen eta delitu-egintzatik zuzenean nahiz zeharka lortutako produktu eta irabazien konfiskazioa, eta, gainera, agintaritza judizialak honako neurrietatik edozein dekreta dezake:

1.ª La pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas y del derecho a gozar de beneficios o incentivos fiscales o de la Seguridad Social, durante el tiempo que dure la mayor de las penas privativas de libertad impuesta.

1) Diru-laguntza zein laguntza publikoak lortzeko aukera eta zerga-onurak, pizgarri fiskalak edo Gizarte Segurantzakoak izateko eskubidea galtzea, ezarritako zigor askatasun-gabetzaileen artean handienak dirauen bitartean.

2.ª La aplicación de las medidas previstas en el artículo 129 de este Código.

2.) Kode honen 129. artikuluan aipatu neurriak ezartzea.

Artículo 370

Se impondrá la pena superior en uno o dos grados a la señalada en el artículo 368 cuando:

1.º Se utilice a menores de 18 años o a disminuidos psíquicos para cometer estos delitos.

2.º Se trate de los jefes, administradores o encargados de las organizaciones a que se refieren las circunstancias 2.ª y 3.ª del apartado 1 del artículo anterior.

3.º Las conductas descritas en el artículo 368 fuesen de extrema gravedad.

Se consideran de extrema gravedad los casos en que la cantidad de las sustancias a que se refiere el artículo 368 excediere notablemente de la considerada como de notoria importancia, o se hayan utilizado buques o aeronaves como medio de transporte específico, o se hayan llevado a cabo las conductas indicadas simulando operaciones de comercio internacional entre empresas, o se trate de redes internacionales dedicadas a este tipo de actividades, o cuando concurrieren tres o más de las circunstancias previstas en el artículo 369.1.

En los supuestos de los anteriores números 2.º y 3.º se impondrá a los culpables, además, una multa del tanto al triplo del valor de la droga objeto del delito.

370. artikulua

368. artikuluak agindu zigorra baino gradu bat edo bi gehiagokoa ezarriko da hurrengo kasuetan:

1.) 18 urtekoak baino gazteagoak edo adimen-urrituak erabiltzen direnean delitu horiek egiteko.

2.) Aurreko artikuluko 1. paragrafoko 2.a eta 3.a inguruabarrek aipatu antolakundeen kasuan, antolakunde horien buru, administratzaile edo arduradunak direnean.

3.) 368. artikuluak deskribatutako jokabideek muturreko larritasuna dutenean.

Kasuek muturreko larritasuna dute, 368. artikuluak aipatu gaien kopurua garrantzi handikotzat hartzen dena baino askoz handiagoa denean; edo ontziak nahiz aireontziak garraiobide zehatz gisa erabili direnean; edo, aipatu jokabideak burutzeko, nazioarteko merkataritza-eragiketen itxura egin denean enpresen artean; edo jarduera-mota horretan diharduten nazioarteko sareek parte hartu dutenean; edota 369.1 artikuluan ezarritako inguruabarretatik hiru edo gehiago pilatzen direnean.

Aurreko 2 eta 3. zenbakietako kasuetan, errudunei ezarriko zaie, gainera, delituaren gai den drogaren baliotik horren hiru halako arteko isuna.

Artículo 371

1. El que fabrique, transporte, distribuya, comercie o tenga en su poder

371. artikulua

1. Norbaitek Nazio Batuen Vienako 1988ko abenduaren 20ko Itunean, sor-

equipos, materiales o sustancias enumeradas en el cuadro I y cuadro II de la Convención de Naciones Unidas, hecha en Viena el 20 de diciembre de 1988, sobre el tráfico ilícito de estupefacientes y sustancias psicotrópicas, y cualesquiera otros productos adicionados al mismo Convenio o que se incluyan en otros futuros Convenios de la misma naturaleza, ratificados por España, a sabiendas de que van a utilizarse en el cultivo, la producción o la fabricación ilícitas de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas, o para estos fines, será castigado con la pena de prisión de tres a seis años y multa del tanto al triplo del valor de los géneros o efectos.

2. Se impondrá la pena señalada en su mitad superior cuando las personas que realicen los hechos descritos en el apartado anterior pertenezcan a una organización dedicada a los fines en él señalados, y la pena superior en grado cuando se trate de los jefes, administradores o encargados de las referidas organizaciones o asociaciones.

En tales casos, los Jueces o Tribunales impondrán, además de las penas correspondientes, la de inhabilitación especial del reo para el ejercicio de su profesión o industria por tiempo de tres a seis años, y las demás medidas previstas en el artículo 369.2.

Artículo 372

Si los hechos previstos en este capítulo fueran realizados por empresario, intermediario en el sector financiero, facultativo, funcionario público, traba-

gorgarri eta gai psikotropikoen legez aurkako trafikoari buruzkoan, I eta II. tauletan sartuta dauden ekipo, material edo gaiak, eta itun berari erantsitako produktuetatik beste edozein edo Espainiak etorkizunean berresten dituen izaera bereko beste hitzarmenetan sartzen direnak fabrikatu, garraiatu, banatu, eurekin merkataritzan aritu edo bere eskuetan baditu, droga toxiko, sorgorgarri edo gai psikotropikoak legearen aurka landu, ekoitzi edo fabrikatzeko edo helburu horietarako erabiliko direla jakinda, orduan, pertsona horri hiru urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta gai edo efektuen baliotik horren hiru halako arteko isuna.

2. Aipatu zigorra goiko erdian ezarriko da, aurreko paragrafoan azaldutako egitateak zeintzuk izan, eta egitate horiek gauzatzen dituzten pertsonak paragrafo horretako helburuak dituen antolakunde baten bazkideak badira; gradu bat gehiagoko zigorra ezarriko zaie antolakunde edo elkarte horien buru, administratzaile edo arduradunei.

Kasu horietan, epaile edo auzitegiek lanbide edo industrian aritzeko desgaikuntza berezia, hiru urtetik sei artekoa, ezarriko diote errudunari, bai eta 369.2 artikuluaren gainerako neurriak ere, berari dagozkion zigorrez gain.

372. artikulua

Enpresaburu, finantza arloko bitarteko, aditu, funtzionario publiko, lan-harremanetako langile, irakasle edo hezitzaileak gauzatzen baditu kapitulu

jador social, docente o educador, en el ejercicio de su cargo, profesión u oficio, se le impondrá, además de la pena correspondiente, la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, industria o comercio, de tres a diez años. Se impondrá la pena de inhabilitación absoluta de diez a veinte años cuando los referidos hechos fueren realizados por autoridad o agente de la misma, en el ejercicio de su cargo.

A tal efecto, se entiende que son facultativos los médicos, psicólogos, las personas en posesión de título sanitario, los veterinarios, los farmacéuticos y sus dependientes.

Artículo 373

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer los delitos previstos en los artículos 368 al 372, se castigarán con la pena inferior en uno a dos grados a la que corresponde, respectivamente, a los hechos previstos en los preceptos anteriores.

Artículo 374

1. En los delitos previstos en los artículos 301.1, párrafo segundo, y 368 a 372, además de las penas que corresponda imponer por el delito cometido, serán objeto de decomiso las drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas, los equipos, materiales y sustancias a que se refiere el artículo 371, así como los bienes, medios, instrumentos y ganancias con sujeción a lo dispuesto en el artículo 127 de este Código y a las siguientes normas especiales:

honetan ezarritako egitateak, bere kargu, lanbide edo ogibidean aritzean, dagokion zigorraz gain, enplegu edo kargu publiko, lanbide edo ogibide, industria zein merkataritzarako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, hiru urtetik hamar artekoa. Hamar urtetik hogei arteko desgaikuntza erabatekoa ezarriko da, agintaritzak edo beraren agenteak karguan aritzean gauzatzen baditu egitate horiek.

Ondore horretarako, medikuak, psikologoak, osasun-tituluak dituzten pertsonak, albaitariak, farmazialariak eta euren mendekoak adituak direla ulertzen da.

373. artikulua

368. artikulutik 372.erakoetan ezarritako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, aurreko manuetan ezarritako egitateei dagokien zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin.

374. artikulua

1. 301.1 artikuluko bigarren lerrokadan, eta 368. artikulutik 372.erakoetan ezarritako delituei dagokienez, egindako delituari dagozkion zigorrak ezartzeaz gain, konfiskatu egingo dira droga toxiko, sorgorgarri edo gai psikotropikoak, 371. artikuluan aipatzen diren ekipo, material eta gaiak, bai ondasunak, bitartekoak, tresnak eta irabaziak ere, kode honen 127. artikuluan xedatutakoa eta hurrengo arau bereziak kontuan hartuta:.

1.ª Las drogas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas serán destruidas por la autoridad administrativa bajo cuya custodia se encuentren, una vez realizados los informes analíticos pertinentes y guardadas muestras bastantes de las mismas, salvo que la autoridad judicial competente haya ordenado su conservación íntegra. Una vez que la sentencia sea firme, se procederá a la destrucción de las muestras que se hubieran apartado, o a la destrucción de la totalidad de lo incautado, en el caso de que el órgano judicial competente hubiera ordenado su conservación.

1.) Administrazio-agintaritzak drogak, sorgorgarriak eta gai psikotropikoak suntsituko ditu, horien gaineko jagoletza duen heinean, eta behin txosten analitiko egokiak egin eta haien lagin nahikoa gorde ondoren, salbu eta agintaritza judizial eskudunak agintzen duenean haiek oso-osorik artatzea. Epaia irmoa izanda, baztertutako laginak suntsituko dira, edo, organo judizial eskudunak haiek artatzea agindu badu, konfiskatutako guztia suntsituko da.

2.ª A fin de garantizar la efectividad del decomiso, los bienes, medios, instrumentos y ganancias podrán ser aprehendidos o embargados y puestos en depósito por la autoridad judicial desde el momento de las primeras diligencias.

2.) Konfiskazioaren eragingarritasuna bermatzeko, agintaritza judizialak ondasun, bitarteko, tresna eta irabaziak atzeman edo enbargatu eta gordailuan jarri ahal izango ditu, lehenengo eginbideak egiten diren unetik.

3.ª La autoridad judicial podrá acordar que, con las debidas garantías para su conservación y mientras se sustancia el procedimiento, el objeto del decomiso, si fuese de lícito comercio, pueda ser utilizado provisionalmente por la Policía Judicial encargada de la represión del tráfico ilegal de drogas.

3.) Konfiskazioaren objektua merkataritza zilegikoa bada, agintaritza judizialak erabaki dezake, objektu hori artatzeko beharrezkoak diren bermeekin, eta prozedura gauzatzen den bitartean, polizia judizialak objektu hori behin-behinean erabili ahal izatea, polizia horren ardura drogen legez aurkako trafikoa zapaltzea den heinean.

4.ª Si, por cualquier circunstancia, no fuera posible el decomiso de los bienes y efectos señalados en el párrafo anterior, podrá acordarse el de otros por un valor equivalente.

4.) Edozein inguruabarren ondorioz, aurreko paragrafoan aipatu ondasun eta efektuak ezin badira konfiskatu, balio bera duten beste batzuk konfiska daitezke.

5.ª Cuando los bienes, medios, instrumentos y ganancias del delito hayan desaparecido del patrimonio de los presuntos responsables, podrá acordarse el decomiso de su valor sobre otros

5.) Delitupeko ondasun, bitarteko, tresna eta irabaziak ustezko erantzuleen ondaretik desagertu badira, horien balioa konfiskatzeko erabakia har daiteke, beste ondasun batzuen gainean,

bienes distintos incluso de origen lícito, que pertenezcan a los responsables.

2. Los bienes decomisados podrán ser enajenados, sin esperar el pronunciamiento de firmeza de la sentencia, en los siguientes casos:

a) Cuando el propietario haga expreso abandono de ellos.

b) Cuando su conservación pueda resultar peligrosa para la salud o seguridad públicas, o dar lugar a una disminución importante de su valor, o afectar gravemente a su uso y funcionamiento habituales. Se entenderán incluidos los que sin sufrir deterioro material se deprecien por el transcurso del tiempo.

Cuando concurran estos supuestos, la autoridad judicial ordenará la enajenación, bien de oficio o a instancia del Ministerio Fiscal, el Abogado del Estado o la representación procesal de las comunidades autónomas, entidades locales u otras entidades públicas, y previa audiencia del interesado.

El importe de la enajenación, que se realizará por cualquiera de las formas legalmente previstas, quedará depositado a resultas del correspondiente proceso legal, una vez deducidos los gastos de cualquier naturaleza que se hayan producido.

3. En los delitos a que se refieren los apartados precedentes, los jueces y tribunales que conozcan de la causa podrán declarar la nulidad de los actos

nahiz eta ondasun horien jatorria zilegia izan, baldin eta ondasunok erantzuleenak badira.

2. Konfiskatutako ondasunak besteren daitezke, epaiaren irizpena irmoa izateari itxaron gabe, hurrengo kasuetan:

a) Jabeak beren beregi bertan behera uzten dituenean ondasun horiek.

b) Ondasunok artatzea arriskutsu izan daitekeenean herri-osasun edo -segurtasunarentzat, edo artatzea dela-eta haien balioa asko gutxitu daitekeenean edota artatzeak eragin larria duenean ondasunen ohiko erabilera eta funtzionamenduan. Halako ondasunen artean sartuko dira, narriadura materialik jasan gabe, denboraren poderioz balioa galtzen dutenak.

Kasu horiek gertatzen direnean, agintaritza judizialak besterentzea aginduko du, ofizioz edo Fiskaltzak, Estatuaren Abokatuak nahiz autonomia-erkidegoetako, toki-erakundeetako zein bestelako erakunde publikoetako prozesu-ordezkaritzak hala eskatuta, eta aurretiaz interesdunari entzunaldia eginez.

Besterentzea legez onartutako bideetatik edozein erabilita gauzatuko da, eta haren zenbatekoa gordailuan geratuko da, lege-prozesu egokiaren emaitzaren zain, kasuan-kasuan gertatu diren izaera guztietako gastuak kenduta, halako gasturik izan bada bederen.

3. Aurreko paragrafoek aipatzen dituzten delituetan, auziaren gaineko eskumena duten epaile eta auzitegiek egintza edo negozio juridikoen deusez-

o negocios jurídicos en virtud de los cuales se hayan transmitido, gravado o modificado la titularidad real o derechos relativos a los bienes y efectos señalados en los apartados anteriores.

4. Los bienes, medios, instrumentos y ganancias definitivamente decomisados por sentencia, que no podrán ser aplicados a la satisfacción de las responsabilidades civiles derivadas del delito ni de las costas procesales, serán adjudicados íntegramente al Estado.

Artículo 375

Las condenas de Jueces o Tribunales extranjeros por delitos de la misma naturaleza que los previstos en los artículos 368 al 372 de este capítulo producirán los efectos de reincidencia, salvo que el antecedente penal haya sido cancelado o pueda serlo con arreglo al Derecho español.

Artículo 376

En los delitos previstos en los artículos 368 al 372, los Jueces o Tribunales, razonándolo en la sentencia, podrán imponer la pena inferior en uno o dos grados a la señalada por la Ley para el delito de que se trate, siempre que el sujeto haya abandonado voluntariamente sus actividades delictivas y haya colaborado activamente con las autoridades o sus agentes, bien para impedir la producción del delito, bien para obtener pruebas decisivas para la identificación o captura de otros responsables o para impedir la actuación

tasuna adierazi ahal izango dute, egintza edo negozio horien bidez eskualdatu, zamatu edo aldarazi badira aurreko paragrafoetan aipatu ondasun eta efektuen gaineko titulartasun errealak edo eskubideak.

3. Epai bidez behin betiko konfiskatutako ondasun, bitarteko, tresna eta irabaziak ezin izango dira erabili delituaren ondoriozko erantzukizun zibilei aurre egiteko, ezta prozesuko kostuak ordaintzeko ere; Estatuari adjudikatuko zaizkio oso-osorik.

375. artikulua

Atzerriko epaile edo auzitegien kondenek berrerortze-ondoreak sorrarazi ko dituzte, baldin eta delituen izaera eta kapitulu honetako 368. artikulutik 372.erakoetan ezarritako delituen izaera berbera bada, salbu eta Espainiako zuzenbidearen arabera zigor-aurrekaria ezereztu izan denean edo ezereztu daitekeenean.

376. artikulua

368. artikulutik 372.erakoetan ezarritako delituak zigortzeko, epaile edo auzitegiek, epaian horretarako arrazoiak emanez, delitu bakoitzari legeak adierazitako zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoa ezarri ahal izango dute, betiere subjektuak, bere borondatez, delitu-jarduerak bertan behera utzi eta agintaritzarekin nahiz horien agenteekin egitez elkarlanean aritu denean, egitateak eta egitate horietan parte hartu duela aitortuz, eta agintaritzarekin egitez elkarlanean aritzen denean, bai delitua gerta dadin eragozte-

o el desarrollo de las organizaciones o asociaciones a las que haya pertenecido o con las que haya colaborado.

Igualmente, en los casos previstos en los artículos 368 a 372, los jueces o tribunales podrán imponer la pena inferior en uno o dos grados al reo que, siendo drogodependiente en el momento de comisión de los hechos, acredite suficientemente que ha finalizado con éxito un tratamiento de deshabituación, siempre que la cantidad de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas no fuese de notoria importancia o de extrema gravedad.

Artículo 377

Para la determinación de la cuantía de las multas que se impongan en aplicación de los artículos 368 al 372, el valor de la droga objeto del delito o de los géneros o efectos intervenidos será el precio final del producto o, en su caso, la recompensa o ganancia obtenida por el reo, o que hubiera podido obtener.

Artículo 378

Los pagos que se efectúen por el penado por uno o varios de los delitos a que se refieren los artículos 368 al 372 se imputarán por el orden siguiente:

1.º A la reparación del daño causado e indemnización de perjuicios.

ko, bai beste erantzule batzuen identifikazio edo harrapaketarako froga erabakigarriak lortzeko, edota bera kide edo laguntzaile izan duten antolakunde edo elkarteen jarduna edo garapena eragozteko.

Era berean, 368. artikulutik 372.erakoek ezarritako kasuetan, epaile edo auzitegiek gradu bat edo bi gutxiagoko zigorra ezarri ahal izango diote errudunari, baldin eta errudun horrek, egitateak burutzeko unean droga-mendekoa izanik, behar bezala egiaztatzen badu mendekotasuna gainditzeko sendabidea arrakastarekin bukatu duela, betiere droga toxiko, sorgorgarri edo gai psikotropikoen kopurua garrantzi handikoa ez denean edo muturreko larritasunik eragiten ez duenean.

377. artikulua

368. artikulutik 372.erakoak aplikatzearen ondorioz ezartzen diren isunen zenbatekoa zehazteko, delituaren gai den drogaren baliotzat edo agintaritzak hartutako genero nahiz efektuen baliotzat hartuko da produktuaren azken prezioa edo, kasuan-kasuan, errudunak lortu duen edo lortuko zukeen sari edo irabazia.

378. artikulua

Zigortuak ordainketak egiten baditu 368. artikulutik 372.erakoetan aipatzen diren delituetatik baten edo batzuen ondorioz, orduan, ordainketok hurrengo hurrenkeraren arabera egotziko dira:

1.) Eragindako kaltea konpondu eta galeren ordaina emateko.

2.º A la indemnización del Estado por el importe de los gastos que se hayan hecho por su cuenta en la causa.

3.º A la multa.

4.º A las costas del acusador particular o privado cuando se imponga en la sentencia su pago.

5.º A las demás costas procesales, incluso las de la defensa del procesado, sin preferencia entre los interesados.

2.) Estatuari dagokion kalte-ordaina emateko, auzian beraren kontura egin diren gastuen zenbatekoan.

3.) Isunerako.

4.) Akusatzaile partikular edo pribatuaren kostuetarako, epaian kostu horien ordainketa ezartzen bada.

5.) Prozesuko gainerako kostuetarako, bai eta prozesupekoaren defentsakoetarako ere, interesdunen artean lehenespenik egon barik.

CAPÍTULO IV

De los delitos contra la seguridad del tráfico

Artículo 379

El que condujere un vehículo a motor o un ciclomotor bajo la influencia de drogas tóxicas, estupefacientes, sustancias psicotrópicas o de bebidas alcohólicas, será castigado con la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a doce meses y, en su caso, trabajos en beneficio de la comunidad de 31 a 90 días, y, en cualquier caso, privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores, respectivamente, por tiempo superior a uno y hasta cuatro años.

Artículo 380

El conductor que, requerido por el agente de la autoridad, se negare a someterse a las pruebas legalmente establecidas para la comprobación de los hechos descritos en el artículo anterior,

IV. KAPITULUA

Trafiko-segurtasunaren aurkako delituak

379. artikulua

Norbaitek ibilgailu motorduna edo motor-bizikleta droga toxiko, sorgorgarri, gai psikotropiko edo edari alkoholdunen eraginpean gidatzen badu, orduan, horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna, eta, hala denean, 31 egunetik 90 arte gizartearentzako lan egitea, eta, edozein kasutan, hurrenez hurren, ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetua izango da, urtebetekoa baino denbora luzeagotik lau urte arteko aldian.

380. artikulua

Gidariak ukatzen badu legez ezarritako probak egitea, betiere aurreko artikuluan azaldutako egitateak egiaztatzeko helburua dutenean eta agintaritzaren agenteak horiek egiteko eskatzen dio-

será castigado como autor de un delito de desobediencia grave, previsto en el artículo 556 de este Código.

Artículo 381

El que condujere un vehículo a motor o un ciclomotor con temeridad manifiesta y pusiera en concreto peligro la vida o la integridad de las personas, será castigado con las penas de prisión de seis meses a dos años y privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores por tiempo superior a uno y hasta seis años.

En todo caso, se considerará que existe temeridad manifiesta y concreto peligro para la vida o la integridad de las personas en los casos de conducción bajo los efectos de bebidas alcohólicas con altas tasas de alcohol en sangre y con un exceso desproporcionado de velocidad respecto de los límites establecidos.

Artículo 382

Será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años o multa de doce a veinticuatro meses el que origine un grave riesgo para la circulación de alguna de las siguientes formas:

1.º Alterando la seguridad del tráfico mediante la colocación en la vía de obstáculos imprevisibles, derramamiento de sustancias deslizantes o inflamables, mutación o daño de la señalización, o por cualquier otro medio.

nean, orduan, horri kode honen 556. artikuluaren arabera dagokion zigorra ezarriko zaio, desobeditze larriaren delituaren egile gisa.

381. artikulua

Norbaitek ibilgailu motorduna edo motor-bizikleta ausarkeria nabariaz gidatu eta pertsonen bizitza edo osotasuna arrisku zehatzean jartzen badu, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, eta ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetua izango da, urtebetekoa baino denbora luzeagotik sei urte arteko aldian.

Edozein kasutan ere, ausarkeria nabaria eta pertsonen bizitza edo osotasunaren aurkako arrisku zehatza dagoela ulertuko da, edari alkoholdunen eraginpean gidatzen bada, odolean alkohol-tasa handiak izanik, eta, ezarritako mugei begira, abiadura gehiegizkoa eta proportziorik gabekoa bada.

382. artikulua

Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio zirkulaziorako arrisku larria sorrarazten duenari, bide hauetako bat erabiltzen badu:

1.) Bidean ustekabeko oztopoak jarriz edo gai labaingarri zein sukoiak isuriz, seinalizazioa aldatuz nahiz seinalizazioari kalte eginez, edo beste edozein bide erabiliz, trafiko-segurtasunari nahasmendua eragiten badio.

2.º No restableciendo la seguridad de la vía, cuando haya obligación de hacerlo.

Artículo 383

Cuando con los actos sancionados en los artículos 379, 381 y 382 se ocasionara, además del riesgo prevenido, un resultado lesivo, cualquiera que sea su gravedad, los Jueces y Tribunales apreciarán tan sólo la infracción más gravemente penada, condenando en todo caso al resarcimiento de la responsabilidad civil que se haya originado.

En la aplicación de las penas establecidas en los citados artículos, procederán los Jueces y Tribunales según su prudente arbitrio, sin sujetarse a las reglas prescritas en el artículo 66.

Artículo 384

Será castigado con las penas de prisión de uno a cuatro años, multa de seis a doce meses y privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores por tiempo superior a seis y hasta diez años, el que, con consciente desprecio por la vida de los demás, incurra en la conducta descrita en el artículo 381.

Cuando no se haya puesto en concreto peligro la vida o la integridad de las personas, la pena de prisión será de uno a dos años, manteniéndose el resto de las penas.

Artículo 385

El vehículo a motor o el ciclomotor utilizado en los hechos previstos en el

2.) Bidearen segurtasuna berrezartzeko betebeharra egonik, hori betetzen ez badu.

383. artikulua

379, 381 eta 382. artikuluetako egintzengatik aurretik ohartemandako arriskuaz gain emaitza kaltegarria eragiten denean, emaitzaren larritasuna edozein izanda ere, epaile edo auzitegiek zigor astunena jasotzen duen arau-haustea bakarrik hartuko dute aintzakotzat. Edozein kasutan, sortutako erantzukizun zibilaren ordaina ematera kondenatuko dute erruduna.

Artikulu horietako zigorrak ezartzeko, epaile eta auzitegiek euren sen onaren arabera jokatuko dute, 66. artikuluan ezarritako erregelei lotu barik.

384. artikulua

Urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere, eta ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetua izango da, sei urte baino denbora luzeagotik hamar arteko aldian, gainerakoen bizitza kontzientziaz mespretxatzen duela, 381. artikuluan azaldutako jokabidea egiten duenari.

Pertsonen bizitza edo osotasuna arrisku zehatzean jartzen ez denean, espetxealdi-zigorra urtebetetik bi artekoa izango da, eta gainerako zigorrak mantendu egingo dira.

385. artikulua

Kode honen 127. artikuluaren ondoreetarako, aurreko artikuluan ezarri-

artículo anterior, se considerará instrumento del delito a los efectos del artículo 127 de este Código.

tako egitateetan erabili den ibilgailu motordun edo motor-bizikleta delituaren tresnatzat hartuko da.

TÍTULO XVIII
DE LAS FALSEDADES

CAPÍTULO I
De la falsificación de moneda y efectos timbrados

Artículo 386

Será castigado con la pena de prisión de ocho a doce años y multa del tanto al décuplo del valor aparente de la moneda:

1.º El que altere la moneda o fabrique moneda falsa.

2.º El que introduzca en el país o exporte moneda falsa o alterada.

3.º El que transporte, expenda o distribuya en connivencia con el falsificador, alterador o introductor, moneda falsa o alterada.

La tenencia de moneda falsa para su expendición o distribución será castigada con la pena inferior en uno o dos grados, atendiendo al valor de aquélla y al grado de connivencia con los autores mencionados en los números anteriores. La misma pena se impondrá al que, sabiéndola falsa, adquiera moneda con el fin de ponerla en circulación.

XVIII. TITULUA
FALTSUTZEAK

I. KAPITULUA
Dirua eta efektu tinbredunak faltsifikatzea

386. artikulua

Zortzi urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta diruaren ageriko baliotik horren hamar halako arteko isuna:

1.) Diru faltsua egiten duenari edo dirua aldatzen duenari.

2.) Diru faltsu edo aldatua Espainian sartzen duenari edo hori esportatzen duenari.

3.) Faltsifikatzailearekin, aldatzailearekin edo dirua Espainian sartzen dutenekin ados jarrita, diru faltsu edo aldatua garraiatzen, saltzen edo banatzen duenari.

Diru faltsua edukitzea, saltzeko edo banatzeko, gradu bat edo bitan txikiagoa den zigorrarekin zigortuko da, kontuan hartuz diru faltsuaren balioa eta aurreko zenbakietan aipatutako egileekin dagoen ados-jartze maila. Zigor berbera ezarriko zaio, dirua faltsua dela jakinda, hori eskuratzen duenari, beraren helburua bada dirua zirkulazioan jartzea.

El que habiendo recibido de buena fe moneda falsa, la expenda o distribuya después de constarle su falsedad será castigado con la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a 24 meses, si el valor aparente de la moneda fuera superior a 400 euros.

Si el culpable perteneciere a una sociedad, organización o asociación, incluso de carácter transitorio, que se dedicare a la realización de estas actividades, el juez o tribunal podrá imponer alguna o algunas de las consecuencias previstas en el artículo 129 de este Código.

Artículo 387

A los efectos del artículo anterior se entiende por moneda la metálica y papel moneda de curso legal. A los mismos efectos, se considerarán moneda las tarjetas de crédito, las de débito y las demás tarjetas que puedan utilizarse como medio de pago, así como los cheques de viaje. Igualmente, se equipararán a la moneda nacional las de otros países de la Unión Europea y las extranjeras.

Artículo 388

La condena de un Tribunal extranjero, impuesta por delito de la misma naturaleza de los comprendidos en este capítulo, será equiparada a las sentencias de los Jueces o Tribunales españoles a los efectos de reincidencia, salvo que el antecedente penal haya sido cancelado o pudiese serlo con arreglo al Derecho español.

Norbaitek, diru faltsua onustez jaso eta faltsua dela jakin ondoren, diru hori saldu edo banatzen badu, horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik 24 lau arteko isuna ezarriko zaio, diruaren ageriko balioa 400 euro baino handiagoa bada.

Erruduna sozietate, antolakunde edo elkarte bateko kidea bada, eta sozietate, antolakunde edo elkarte horrek, modu iragankorrean bada ere, halako jarduerak egiten baditu, epaile edo auzitegiak ezar ditzake kode honen 129. artikuluan agindutako ondorioetatik bat edo batzuk.

387. artikulua

Aurreko artikuluaren ondoreetarako, dirutzat hartzen dira legezko txanpon eta diru-papera. Ondore berberei dagokienez, dirutzat hartzen dira kreditu-txartelak, zordunketa-txartelak eta ordainbide moduan erabil daitezkeen gainerako txartelak, bai eta bidaia-txekeak ere. Era berean, nazio-diruarekin parekatuko dira Europar Batasuneko beste herri batzuetakoak eta atzerrikoak ere bai.

388. artikulua

Berrerortze-ondoreetarako, atzerriko auzitegi batek ezarritako kondena eta Espainiako epaile edo auzitegiek emandako epaia baliobestekoak dira, baldin eta delituaren izaera eta kapitulu honetan dauden delituen izaera berdinak badira. Ez dago baliobestekotasunik, zigor-aurrekaria ezereztu bada, edo ezereztu badaiteke Espainiako zuzenbidearen arabera.

Artículo 389

El que falsificare, o expendiere, en connivencia con el falsificador, sellos de correos o efectos timbrados, o los introdujera en España conociendo su falsedad, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años.

El adquirente de buena fe de sellos de correos o efectos timbrados que, conociendo su falsedad, los distribuyera en cantidad superior a 400 euros, será castigado con la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a veinticuatro meses.

389. artikulua

Norbaitek, faltsifikatzailearekin ados jarririk, posta-zigilu nahiz efektu tinbredunak faltsifikatu edo saldu, edota, faltsuak direla jakinda, Espainian sartzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Norbaitek posta-zigilu edo efektu tinbredunak onustez erosten baditu, eta, faltsuak direla jakinda, 400 euro baino gehiagoko zenbatekoa banatzen badu, orduan, horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

CAPÍTULO II
De las falsedades documentales

SECCIÓN I

,

II. KAPITULUA
Agiri-faltsutzeak

I. ATALA

, ,
-
-

Artículo 390

1. Será castigado con las penas de prisión de tres a seis años, multa de seis a veinticuatro meses e inhabilitación especial por tiempo de dos a seis años, la autoridad o funcionario público que, en el ejercicio de sus funciones, cometa falsedad:

1.º Alterando un documento en alguno de sus elementos o requisitos de carácter esencial.

390. artikulua

1. Espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, hiru urtetik sei artekoa, agintari edo funtzionario publikoari, bai eta isuna, sei hilabetetik hogeita lau artekoa, eta desgaikuntza berezia ere, bi urtetik sei arteko denboran, bere eginkizunak betetzean faltsutzea egiten badu:

1.) Agiri baten oinarrizko osagai edo betekizunen bat aldatuz.

2.º Simulando un documento en todo o en parte, de manera que induzca a error sobre su autenticidad.

3.º Suponiendo en un acto la intervención de personas que no la han tenido, o atribuyendo a las que han intervenido en él declaraciones o manifestaciones diferentes de las que hubieran hecho.

4.º Faltando a la verdad en la narración de los hechos.

2. Será castigado con las mismas penas a las señaladas en el apartado anterior el responsable de cualquier confesión religiosa que incurra en alguna de las conductas descritas en los números anteriores, respecto de actos y documentos que puedan producir efecto en el estado de las personas o en el orden civil.

Artículo 391

La autoridad o funcionario público que por imprudencia grave incurriere en alguna de las falsedades previstas en el artículo anterior o diere lugar a que otro las cometa, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a un año.

Artículo 392

El particular que cometiere en documento público, oficial o mercantil, alguna de las falsedades descritas en los tres primeros números del apartado 1 del artículo 390, será castigado con las

2.) Agiri baten itxura oso-osoan edo zati batean sortuz, baldin eta itxura sortze horrek agiriaren kautotasunari buruzko okerra eragiten badu.

3.) Egintza batean pertsona batzuek esku hartu ez arren, horiek esku hartu dutela aditzera emanez; edota egintza horretan esku hartu duten pertsonei eurek egin ez dituzten adierazpenak edo agerpenak eratxikiz.

4.) Egitateak kontatzean egia esan gabe.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako zigorrak ezarriko zaizkio edozein erlijiotako arduradunari, aurreko zenbakietan azaltzen diren jokabideetatik bat egiten badu, jokabide horiek pertsonen egoeran edo ordena zibilean ondoreak sor ditzaketen egintza edo agiriei buruzkoak izanda.

391. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz, aurreko artikuluan ezarritako faltsutze bat egiten badu, edo bide ematen badio beste bati faltsutze horiek egiteko, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio, eta enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik urtebete arte etengo zaio.

392. artikulua

Norbanakoak egiten badu 390. artikuluko 1. idatz-zatiaren lehenengo hiru zenbakietan azaltzen diren faltsutzeetatik bat, agiri publikoan, agiri ofizialean nahiz merkataritza-agirian, orduan,

penas de prisión de seis meses a tres años y multa de seis a doce meses.

Artículo 393

El que, a sabiendas de su falsedad, presentare en juicio o, para perjudicar a otro, hiciere uso de un documento falso de los comprendidos en los artículos precedentes, será castigado con la pena inferior en grado a la señalada a los falsificadores.

Artículo 394

1. La autoridad o funcionario público encargado de los servicios de telecomunicación que supusiere o falsificare un despacho telegráfico u otro propio de dichos servicios, incurrirá en la pena de prisión de seis meses a tres años e inhabilitación especial por tiempo de dos a seis años.

2. El que, a sabiendas de su falsedad, hiciere uso del despacho falso para perjudicar a otro, será castigado con la pena inferior en grado a la señalada a los falsificadores.

hari sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna.

393. artikulua

Norbaitek epaiketan aurkezten badu edo, beste bati kalte egiteko, erabili egiten badu aurreko artikuluetara bildutako agiri faltsuetatik bat, agiri hori faltsua dela jakinda, orduan, pertsona horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

394. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, telekomunikazio-zerbitzuetako arduraduna izanik, idatzagiri telegrafiko bat edo zerbitzu horietako beste edozein agiri asmatu edo faltsifikatzen badu, orduan, horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta bi urtetik sei arteko desgaikuntza berezia.

2. Norbaitek, beste bati kalte egiteko, idatzagiri faltsua erabiltzen badu, faltsua dela jakinda, orduan, horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

SECCIÓN II

II. ATALA

Artículo 395

El que, para perjudicar a otro, cometiere en documento privado alguna de las falsedades previstas en los tres

395. artikulua

Norbaitek, beste bati kalte egiteko, agiri pribatuan 390. artikuluko 1. paragrafoaren lehenengo hiru zenbakietan

primeros números del apartado 1 del artículo 390, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años.

Artículo 396

El que, a sabiendas de su falsedad, presentare en juicio o, para perjudicar a otro, hiciere uso de un documento falso de los comprendidos en el artículo anterior, incurrirá en la pena inferior en grado a la señalada a los falsificadores.

ezartzen diren faltsutzeetatik bat egiten badu, orduan, horri espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, sei hilabetetik bi urte artekoa.

396. artikulua

Norbaitek epaiketan aurkezten badu edo, beste bati kalte egiteko, erabili egiten badu aurreko artikulura bildutako agiri faltsuetatik bat, agiri hori faltsua dela jakinda, orduan, horri faltsifikatzaileei dagokien zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

SECCIÓN III

III. ATALA

Artículo 397

El facultativo que librare certificado falso será castigado con la pena de multa de tres a doce meses.

Artículo 398

La autoridad o funcionario público que librare certificación falsa será castigado con la pena de suspensión de seis meses a dos años.

Artículo 399

1. El particular que falsificare una certificación de las designadas en los artículos anteriores será castigado con la pena de multa de tres a seis meses.

2. La misma pena se aplicará al que hiciere uso, a sabiendas, de la certificación falsa.

397. artikulua

Adituak ziurtagiri faltsua ematen badu, aditu horri isuna ezarriko zaio, hiru hilabetetik hamabi artekoa.

398. artikulua

Ziurtagiri faltsua agintari edo funtzionario publikoak ematen badu, horri enplegu edo kargualdi publikoa sei hilabetetik bi urte arte etengo zaio.

399. artikulua

1. Norbanakoak faltsifikatzen badu aurreko artikuluetan adierazitako ziurtagirietatik bat, isuna ezarriko zaio, hiru hilabetetik sei artekoa.

2. Zigor berbera ezarriko zaio, jakinaren gainean egonik, ziurtagiri faltsua erabiltzen duenari.

CAPÍTULO III

Disposición general

Artículo 400

La fabricación o tenencia de útiles, materiales, instrumentos, sustancias, máquinas, programas de ordenador o aparatos, específicamente destinados a la comisión de los delitos descritos en los capítulos anteriores, se castigarán con la pena señalada en cada caso para los autores.

III. KAPITULUA

Xedapen orokorra

400. artikulua

Lanabesak, materialak, tresnak, gaiak, makinak, ordenagailuen programak edo aparatuak fabrikatu edo edukitzea zigortu egingo da, egileei kasuan-kasuan dagokien zigorrarekin, baldin eta horiek guztiak zehazki erabiltzekoak badira aurreko kapituluetan azaldutako delituak egiteko.

CAPÍTULO IV

De la usurpación del estado civil

Artículo 401

El que usurpare el estado civil de otro será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años.

IV. KAPITULUA

Egoera zibilaren usurpazioa

401. artikulua

Norbaitek beste baten egoera zibila usurpatzen badu, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

CAPÍTULO V

De la usurpación de funciones públicas y del intrusismo

Artículo 402

El que ilegítimamente ejerciere actos propios de una autoridad o funcionario público atribuyéndose carácter oficial, será castigado con la pena de prisión de uno a tres años.

V. KAPITULUA

Eginkizun publikoen usurpazioa eta intrusismoa

402. artikulua

Norbaitek bidezko ez den eran gauzatzen baditu agintari edo funtzionario publikoei dagozkien egintzak, eta hori egitean izaera ofiziala berarentzat hartzen badu, orduan, horri urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Artículo 403

El que ejerciere actos propios de una profesión sin poseer el correspondiente título académico expedido o re-

403. artikulua

Norbaitek lanbide bati dagozkion egintzak gauzatzen baditu, Espainian indarrean dagoen legeriaren arabera

conocido en España de acuerdo con la legislación vigente, incurrirá en la pena de multa de seis a doce meses. Si la actividad profesional desarrollada exigiere un título oficial que acredite la capacitación necesaria y habilite legalmente para su ejercicio, y no se estuviere en posesión de dicho título, se impondrá la pena de multa de tres a cinco meses.

Si el culpable, además, se atribuyese públicamente la cualidad de profesional amparada por el título referido, se le impondrá la pena de prisión de seis meses a dos años.

eman edo aitortutako titulu akademikorik gabe, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio. Lanbide-jardueran aritzeko titulu ofiziala beharrezkoa bada, titulu horrek behar besteko gaikuntza egiaztatzen eta, lanbidean aritzeko, legearen arabera gaitzen duelako, orduan, titulu ofizialik izan ezean hiru hilabetetik bost arteko isun-zigorra ezarriko da.

Horrezaz gain, titulu horrek babesten duen profesionaltasuna berarentzat hartzen badu jendaurrean, orduan errudun horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

TÍTULO XIX
DELITOS CONTRA LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

CAPÍTULO I
De la prevaricación de los funcionarios públicos y otros comportamientos injustos

Artículo 404

A la autoridad o funcionario público que, a sabiendas de su injusticia, dictare una resolución arbitraria en un asunto administrativo se le castigará con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de siete a diez años.

Artículo 405

A la autoridad o funcionario público que, en el ejercicio de su competen-

XIX. TITULUA
HERRI ADMINISTRAZIOAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Funtzionario publikoen prebarikazioa eta zuzenak ez diren beste portaera batzuk

404. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, zuzen jarduten ez duela jakinda, administrazioko gai batean nahierarako ebazpena ematen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikoan aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko zaio, zazpi urtetik hamar artekoa.

405. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, bere eskumena erabiltzean, legearen

cia y a sabiendas de su ilegalidad, propusiere, nombrare o diere posesión para el ejercicio de un determinado cargo público a cualquier persona sin que concurran los requisitos legalmente establecidos para ello, se le castigará con las penas de multa de tres a ocho meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

Artículo 406

La misma pena de multa se impondrá a la persona que acepte la propuesta, nombramiento o toma de posesión mencionada en el artículo anterior, sabiendo que carece de los requisitos legalmente exigibles.

1. Aurreko artikuluan ezarritako zigor berbera ezarriko zaio epaile, magistratu edo idazkari judizialari, Justizia Administrazioan asmoz gaiztoz gertatutako atzerapenaren erruduna bada. Atzerapena asmo gaiztoz gertatu dela ulertuko da, baldin eta bidezko ez den helburua lortzeko eragin bada.

2. Atzerapena aurreko paragrafoan aipatzen diren funtzionarioez besteko bati egotzi behar zaionean, funtzionario horri zigor hori beheko erdian ezarriko zaio.

CAPÍTULO II

De la omisión de los deberes de impedir delitos o de promover su persecución

Artículo 450

1. El que, pudiendo hacerlo con su intervención inmediata y sin riesgo propio o ajeno, no impidiere la comi-

II. KAPITULUA

Delituak eragozteko edo delituen pertsekuzioa sustatzeko eginbeharren ez-betetzea

450. artikulua

1. Norbaitek pertsonen bizitzaren, osotasun edo osasunaren, askatasunaren edo sexu-askatasunaren aurkako

sión de un delito que afecte a las personas en su vida, integridad o salud, libertad o libertad sexual, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años si el delito fuera contra la vida, y la de multa de seis a veinticuatro meses en los demás casos, salvo que al delito no impedido le correspondiera igual o menor pena, en cuyo caso se impondrá la pena inferior en grado a la de aquél.

2. En las mismas penas incurrirá quien, pudiendo hacerlo, no acuda a la autoridad o a sus agentes para que impidan un delito de los previstos en el apartado anterior y de cuya próxima o actual comisión tenga noticia.

delitua egitea eragozten ez badu, nahiz eta delitu hori eragotzi ahal izan, berehala esku hartuz eta berarentzat edo inorentzat arriskurik izan gabe, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio pertsonen bizitzaren aurkako delituen kasuan, eta sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna gainerako kasuetan, salbu eta eragozten ez den delituari zigor hori edo txikiagoa dagokionean. Kasu horretan, delitu horri dagokion zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, aurreko paragrafoan ezarritako delituetatik bat egingo dela edo egiten ari dela jakinda, agintaritza edo beraren agenteengana delitu hori eragotz dezaten jotzen ez duenari, betiere horiengana jo ahal duenean.

CAPÍTULO III
Del encubrimiento

Artículo 451

Será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años el que, con conocimiento de la comisión de un delito y sin haber intervenido en el mismo como autor o cómplice, interviniere con posterioridad a su ejecución, de alguno de los modos siguientes:

1.º Auxiliando a los autores o cómplices para que se beneficien del provecho, producto o precio del delito, sin ánimo de lucro propio.

2.º Ocultando, alterando o inutilizando el cuerpo, los efectos o los ins-

III. KAPITULUA
Estaltzea

451. artikulua

Sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio delitu egin dela jakinda eta delitu horretan egile edo sopikun gisa parte hartu gabe, delitu hori gauzatu eta gero modu hauetako batean esku hartzen duenari:

1.) Berarentzat irabazia lortzeko asmorik gabe, egile edo sopikunei laguntza ematen dienari, horiek delituaren probetxu, produktu edo preziotik onura atera dezaten.

2.) Delitu baten gorputza, efektuak edo tresnak ezkutatu, aldatu edo deu-

trumentos de un delito, para impedir su descubrimiento.

3.º Ayudando a los presuntos responsables de un delito a eludir la investigación de la autoridad o de sus agentes, o a sustraerse a su busca o captura, siempre que concurra alguna de las circunstancias siguientes:

a) Que el hecho encubierto sea constitutivo de traición, homicidio del Rey, de cualquiera de sus ascendientes o descendientes, de la Reina consorte o del consorte de la Reina, del Regente o de algún miembro de la Regencia, o del Príncipe heredero de la Corona, genocidio, delito de lesa humanidad, delito contra las personas y bienes protegidos en caso de conflicto armado, rebelión, terrorismo u homicidio.

b) Que el favorecedor haya obrado con abuso de funciones públicas. En este caso se impondrá, además de la pena de privación de libertad, la de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a cuatro años si el delito encubierto fuere menos grave, y la de inhabilitación absoluta por tiempo de seis a doce años si aquél fuera grave.

Artículo 452

En ningún caso podrá imponerse pena privativa de libertad que exceda de la señalada al delito encubierto. Si éste estuviera castigado con pena de otra naturaleza, la pena privativa de libertad será sustituida por la de multa de seis a veinticuatro meses, salvo que el delito encubierto tenga asignada

seztatzen dituenari, delitu horren ezagutarazpena eragozteko.

3.) Delitu baten ustezko erantzuleei laguntza ematen dienari agintaritza zein beraren agenteen ikerketa saihesteko, edo horien bilaketa edo harrapaketatik ihes egiteko, hurrengo inguruabarren bat gertatzen bada:

a) Egitate estalia traizioa edo Erregearen, beraren edozein aurrekoren nahiz ondorengoren giza hilketa bada; Erregina-ezkontidearen edo Erreginaren ezkontidearen giza hilketa bada; Erregeordearen, Erregeordetzaren kide baten edo Koroaren printze jaraunslearen giza hilketa bada; genozidioa, gizateriaren aurkako delitua, gatazka armatuaren kasuan babesturiko ondasun eta pertsonen aurka egindako delitua, asaldaketa, terrorismoa edo giza hilketa bada.

b) Ahalbideratzaileak funtzio publikoez abusatuz jarduten badu. Kasu horretan, zigor askatasun-gabetzaileaz gain, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko da, bi urtetik lau artekoa, delitu estalia astuntasun txikiagokoa bada, eta erabateko desgaikuntza ezarriko da, sei urtetik hamabi artekoa, delitu estali hori astuna bada.

452. artikulua

Ezin izango da inoiz ezarri delitu estaliari dagokion zigor askatasun-gabetzailea baino handiagoa dena. Delitu horren zigorra beste izaera batekoa baldin bada, zigor askatasun-gabetzailearen ordez, sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko da, salbu eta delitu estaliari dagokion zigorra isun hori

pena igual o inferior a ésta, en cuyo caso se impondrá al culpable la pena de aquel delito en su mitad inferior.

Artículo 453

Las disposiciones de este capítulo se aplicarán aun cuando el autor del hecho encubierto sea irresponsable o esté personalmente exento de pena.

Artículo 454

Están exentos de las penas impuestas a los encubridores los que lo sean de su cónyuge o de persona a quien se hallen ligados de forma estable por análoga relación de afectividad, de sus ascendientes, descendientes, hermanos, por naturaleza, por adopción, o afines en los mismos grados, con la sola excepción de los encubridores que se hallen comprendidos en el supuesto del número 1.º del artículo 451.

berori edo zigor txikiagoa denean; kasu horretan, delitu estaliari dagokion zigorra beheko erdian ezarriko zaio errudunari.

453. artikulua

Kapitulu honen xedapenak aplikatuko dira, nahiz eta egitate estalia gauzatzen duenak erantzukizunik ez izan edo zigorretik era pertsonalean salbuetsita egon.

454. artikulua

Estaltzaileei dagozkien zigorretatik salbuetsita daude euren ezkontidea edo antzeko maitasun-harremanen bidez era iraunkorrean eurekin lotuta dagoen pertsona, odol nahiz adopzio bidezko aurreko, ondorengo zein neba-arrebak, edota gradu berberetan ezkontza bidezko ahaide direnak estaltzen dituztenak; horiek guztiak salbuetsita daude, 451. artikuluko 1. zenbakian daudenak izan ezik.

CAPÍTULO IV

De la realización arbitraria del propio derecho

Artículo 455

1. El que, para realizar un derecho propio, actuando fuera de las vías legales, empleare violencia, intimidación o fuerza en las cosas, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses.

2. Se impondrá la pena superior en grado si para la intimidación o violencia se hiciera uso de armas u objetos peligrosos.

IV. KAPITULUA

Norberaren eskubidea nahierara egikaritzea

455. artikulua

1. Norbaitek, bere eskubidea egikaritzeko, legezko bideetatik kanpo jardunez, indarkeria, larderia, edo gauzetan indarra erabiltzen badu, sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio.

2. Aurreko paragrafoko zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da, larderia edo indarkeriarako arma edo objektu arriskutsuak erabiltzen badira.

CAPÍTULO V

De la acusación y denuncia falsas y de la simulación de delitos

Artículo 456

1. Los que, con conocimiento de su falsedad o temerario desprecio hacia la verdad, imputaren a alguna persona hechos que, de ser ciertos, constituirían infracción penal, si esta imputación se hiciera ante funcionario judicial o administrativo que tenga el deber de proceder a su averiguación, serán sancionados:

1.º Con la pena de prisión de seis meses a dos años y multa de doce a veinticuatro meses, si se imputara un delito grave.

2.º Con la pena de multa de doce a veinticuatro meses, si se imputara un delito menos grave.

3.º Con la pena de multa de tres a seis meses, si se imputara una falta.

2. No podrá procederse contra el denunciante o acusador sino tras sentencia firme o auto también firme, de sobreseimiento o archivo del Juez o Tribunal que haya conocido de la infracción imputada. Estos mandarán proceder de oficio contra el denunciante o acusador siempre que de la causa principal resulten indicios bastantes de la falsedad de la imputación, sin perjuicio de que el hecho pueda también perseguirse previa denuncia del ofendido.

V. KAPITULUA

Akusazio eta salaketa faltsuak, eta delituen itxura egitea

456. artikulua

1. Norbaitzuek pertsona bati egitate faltsuak egozten badizkiote, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, eta egitateok, egiazkoak izanez gero, arau-hauste penal izango liratekeen horietakoak badira, eta egozpen hori egiten bada egitateok ikertzeko betebeharra duen funtzionario judizialaren edo administrazioko funtzionarioaren aurrean, orduan, zigor hauek ezarriko zaizkie harakoei:

1.) Sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, delitu astuna egozten badute.

2.) Hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna; astuntasun txikiagoko delitua egozten badute.

3.) Hiru hilabetetik sei arteko isuna, falta bat egozten badute.

2. Salatzaile edo akusatzailearen aurka joateko, egotzitako arau-haustearen eskumena izan duen epaile edo auzitegiak epai irmoa eman behar du edo, bestela, largespen edo artxibatze auto irmoa. Epaile edo auzitegiok ofizioz aginduko dute salatzaile edo akusatzailearen aurka jarduteko, auzi nagusiak nahikoa zantzu ondorioztatzen baditu egozpenaren faltsutasunari buruz; horrek ez dio kalterik egingo egitatea pertsegitu ahal izateari ofendituak egiten duen salaketaren bidez.

Artículo 457

El que, ante alguno de los funcionarios señalados en el artículo anterior, simulare ser responsable o víctima de una infracción penal o denunciare una inexistente, provocando actuaciones procesales, será castigado con la multa de seis a doce meses.

457. artikulua

Norbaitek, aurreko artikuluan adierazitako funtzionarioetatik baten aurrean, arau-hauste penal baten ondorioz erantzule edo biktima dela itxura egiten badu, edota gertatu gabeko arau-hauste penalari buruzko salaketa egiten badu, eta prozesuko jarduna sorrarazten badu, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio.

CAPÍTULO VI
Del falso testimonio

VI. KAPITULUA
Lekukotza faltsua

Artículo 458

1. El testigo que faltare a la verdad en su testimonio en causa judicial, será castigado con las penas de prisión de seis meses a dos años y multa de tres a seis meses.

2. Si el falso testimonio se diera en contra del reo en causa criminal por delito, las penas serán de prisión de uno a tres años y multa de seis a doce meses. Si a consecuencia del testimonio hubiera recaído sentencia condenatoria, se impondrán las penas superiores en grado.

3. Las mismas penas se impondrán si el falso testimonio tuviera lugar ante Tribunales Internacionales que, en virtud de Tratados debidamente ratificados conforme a la Constitución Española, ejerzan competencias derivadas de ella, o se realizara en España al declarar en virtud de comisión rogatoria remitida por un Tribunal extranjero.

458. artikulua

1. Lekukoak auzi judizialean bere lekukotzaz egia esaten ez badu, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hiru hilabetetik sei arteko isuna ere.

2. Erruztatuaren aurka eta delituaren ondoriozko auzi kriminalean ematen bada lekukotza faltsua, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere. Lekukotzaren ondorioz epai kondenatzailea eman bada, gradu bat gehiagoko zigorrak ezarriko dira.

3. Zigor berberak ezarriko dira lekukotza faltsua nazioarteko auzitegietan ematen denean, baldin eta auzitegi horiek Espainiako Konstituziotik ateratzen diren eskumenak erabiltzen badituzte, Espainiako Konstituzioaren arabera behar bezala berretsitako itunak direla bide; edota lekukotza faltsua Espainian gertatzen denean, atzerriko auzitegiak bidalitako erreguzko eskaera dela bide.

Artículo 459

Las penas de los artículos precedentes se impondrán en su mitad superior a los peritos o intérpretes que faltaren a la verdad maliciosamente en su dictamen o traducción, los cuales serán, además, castigados con la pena de inhabilitación especial para profesión u oficio, empleo o cargo público, por tiempo de seis a doce años.

459. artikulua

Aurreko artikuluko zigorrak, goiko erdian, ezarriko zaizkie aditu edo interpreteei, euren irizpen edo itzulpenean, asmo gaiztoz, egia esaten ez badute. Horrezaz gain, lanbide edo ogibide, enplegu nahiz kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaie, sei urtetik hamabi artekoa.

Artículo 460

Cuando el testigo, perito o intérprete, sin faltar sustancialmente a la verdad, la alterare con reticencias, inexactitudes o silenciando hechos o datos relevantes que le fueran conocidos, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses y, en su caso, de suspensión de empleo o cargo público, profesión u oficio, de seis meses a tres años.

460. artikulua

Lekuko, aditu edo interpreteak, funtsean egia esaten duelarik, egia hori aldatzen duenean itzulinguru edo zehaztugabetasunen bidez edo berak dakizkien egitate edo datu garrantzitsuak isilpean gordez, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio eta, hala badagokio, enplegu edo kargu publiko, lanbide nahiz ogibidearen etenaldia gertatuko da, sei hilabetetik hiru urte arte.

Artículo 461

1. El que presentare a sabiendas testigos falsos o peritos o intérpretes mendaces, será castigado con las mismas penas que para ellos se establecen en los artículos anteriores.

2. Si el responsable de este delito fuese abogado, procurador, graduado social o representante del Ministerio Fiscal, en actuación profesional o ejercicio de su función, se impondrá en cada caso la pena en su mitad superior y la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, por tiempo de dos a cuatro años.

461. artikulua

1. Norbaitek lekuko faltsuak edo aditu nahiz interprete gezurtiak aurkezten baditu, jakinaren gainean egonik, berari ere lekuko edo aditu horiei aurreko artikuluetan ezartzen zaizkien zigor berberak ezarriko zaizkio.

2. Delitu horren erantzulea abokatua, prokuradorea, lan-harremanetako graduduna edo Fiskaltzaren ordezkaria bada, lanbidean diharduenean edo bere funtzioan aritzean, kasuan-kasuan, delitu horri dagokion zigorra goiko erdian ezarriko da eta enplegu edo kargu publiko, lanbide nahiz ogibiderako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

Artículo 462

Quedará exento de pena el que, habiendo prestado un falso testimonio en causa criminal, se retracte en tiempo y forma, manifestando la verdad para que surta efecto antes de que se dicte sentencia en el proceso de que se trate. Si a consecuencia del falso testimonio, se hubiese producido la privación de libertad, se impondrán las penas correspondientes inferiores en grado.

462. artikulua

Zigorretik salbuetsita geratuko da, auzi kriminalean lekukotza faltsua eman eta gero, garaiz eta behar den moduan lekukotza faltsuan atzera jo eta egia esaten duena, epaia eman aurretik, horrek ondorioak sor ditzan prozesuan. Lekukotza faltsuaren ondorioz askatasunaz gabetu bada, hari dagozkion zigorrak baino gradu bat gutxiagokoak ezarriko dira.

CAPÍTULO VII

De la obstrucción a la Justicia y la deslealtad profesional

VII. KAPITULUA

Justiziari oztopo egitea eta lanbide-desleialtasuna

Artículo 463

1. El que, citado en legal forma, dejare voluntariamente de comparecer, sin justa causa, ante un Juzgado o Tribunal en proceso criminal con reo en prisión provisional, provocando la suspensión del juicio oral, será castigado con la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a veinticuatro meses. En la pena de multa de seis a diez meses incurrirá el que, habiendo sido advertido, lo hiciera por segunda vez en causa criminal sin reo en prisión, haya provocado o no la suspensión.

2. Si el responsable de este delito fuese abogado, procurador o representante del Ministerio Fiscal, en actuación profesional o ejercicio de su fun-

463. artikulua

1. Norbaitek, zitazioa legezko forman jaso arren, borondatez ez badu bere burua aurkezten epaitegi edo auzitegira, horretarako arrazoi zuzenik izan gabe, prozesu kriminal horretako erruztatua behin-behineko espetxealdi-zigorra betetzen egonik, eta horren ondorioz ahozko epaiketa eteten bada, orduan, horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio. Norbaitek, ohartarazpena jaso arren, ez badu bere burua bigarren aldian aurkezten auzi kriminalean, erruztatua espetxean egon barik, orduan, hari sei hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio, ahozko epaiketa eten zein eten ez.

2. Delitu horren erantzulea abokatua, prokuradorea, gizarte graduduna edo Fiskaltzaren ordezkaria bada, lanbidean diharduenean edo bere funtzioan aritzean, orduan, delituari dagokion zi-

ción, se le impondrá la pena en su mitad superior y la de inhabilitación especial para empleo o cargo público, profesión u oficio, por tiempo de dos a cuatro años.

3. Si la suspensión tuviera lugar, en el caso del apartado 1 de este artículo, como consecuencia de la incomparecencia del Juez o miembro del Tribunal o de quien ejerza las funciones de Secretario Judicial, se impondrá la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a veinticuatro meses y, en cualquier caso, inhabilitación especial por tiempo de dos a cuatro años.

Artículo 464

1. El que con violencia o intimidación intentare influir directa o indirectamente en quien sea denunciante, parte o imputado, abogado, procurador, perito, intérprete o testigo en un procedimiento para que modifique su actuación procesal, será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa de seis a veinticuatro meses.

Si el autor del hecho alcanzara su objetivo se impondrá la pena en su mitad superior.

2. Iguales penas se impondrán a quien realizare cualquier acto atentatorio contra la vida, integridad, libertad, libertad sexual o bienes, como represalia contra las personas citadas en el apartado anterior, por su actuación en procedimiento judicial, sin perjuicio de la pena correspondiente a la infracción de que tales hechos sean constitutivos.

gorra goiko erdian ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publiko, lanbide nahiz ogibiderako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

3. Artikulu honen 1. paragrafoaren kasuan, epaileak, auzitegiaren kide batek edo idazkari judizialaren funtzioan aritzen denak bere burua aurkezten ez duelako eteten bada epaiketa, orduan, hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko da, eta, edozein kasutan, bi urtetik lau arteko desgaikuntza berezia.

464. artikulua

1. Norbait saiatzen bada prozedura batean salatzailea, alderdi edo egotzia, abokatua, prokuradorea, aditua, interpretea edo lekukoa denari zuzenean edo zeharka eragiten, beraren prozesuko jarduna aldarazteko, indarkeria edo larderia erabiliz, orduan, pertsona horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

Egitatearen egileak bere helburua lortzen badu, aurreko zigor hori goiko erdian ezarriko zaio.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio bizitzaren, osotasunaren, askatasunaren, sexu-askatasunaren edo ondasunen aurka edozein egintza gauzatzen duenari, berori gauzatzen bada aurreko paragrafoan aipatutako pertsonen aurkako errepresalia gisa, eurok prozedura judizialean izan duten jardunaren ondorioz; horrek ez dio kalterik egingo halako egitateek dakarten zigorrari, egitateok arau-haustea sorraraziz gero.

Artículo 465

1. El que, interviniendo en un proceso como abogado o procurador, con abuso de su función, destruyere, inutilizare u ocultare documentos o actuaciones de los que haya recibido traslado en aquella calidad, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años, multa de siete a doce meses e inhabilitación especial para su profesión, empleo o cargo público de tres a seis años.

2. Si los hechos descritos en el apartado primero de este artículo fueran realizados por un particular, la pena será de multa de tres a seis meses.

Artículo 466

1. El abogado o procurador que revelare actuaciones procesales declaradas secretas por la autoridad judicial, será castigado con las penas de multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo, cargo público, profesión u oficio de uno a cuatro años.

2. Si la revelación de las actuaciones declaradas secretas fuese realizada por el Juez o miembro del Tribunal, representante del Ministerio Fiscal, Secretario Judicial o cualquier funcionario al servicio de la Administración de Justicia, se le impondrán las penas previstas en el artículo 417 en su mitad superior.

3. Si la conducta descrita en el apartado primero fuere realizada por

465. artikulua

1. Norbaitek abokatu edo prokuradore gisa prozesu batean esku hartzen badu, eta gisa horretan jasotzen dituen agiriak edo jarduna, bere funtzioaz abusatuz, suntsitu, deuseztatu edo ezkutatzen baditu, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta zazpi hilabetetik hamabi arteko isuna, bai eta bere lanbide, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik sei artekoa.

2. Artikulu honen lehenengo paragrafoko egitateak norbanako batek gauzatzen baditu, hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko da.

466. artikulua

1. Abokatu edo prokuradoreak prozesuko jarduna kanporatzen badu, agintaritza judizialak jardun hori sekretua dela adierazi duelarik, orduan, hari hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu, kargu publiko, lanbide edo ogibiderako desgaikuntza berezia, urtebetetik lau artekoa.

2. Epaile edo auzitegiaren kide batek, Fiskaltzaren ordezkariak, idazkari judizialak edo Justizia Administrazioaren zerbitzupean dauden funtzionarioetatik edozeinek agerrarazten badu sekretu gisa adierazitako jarduna, 417. artikuluko zigorrak goiko erdian ezarriko zaizkio.

3. Lehenengo paragrafoan azaldutako jokabidea prozesuan esku hartzen

cualquier otro particular que intervenga en el proceso, la pena se impondrá en su mitad inferior.

Artículo 467

1. El abogado o procurador que, habiendo asesorado o tomado la defensa o representación de alguna persona, sin el consentimiento de ésta defienda o represente en el mismo asunto a quien tenga intereses contrarios, será castigado con la pena de multa de seis a doce meses e inhabilitación especial para su profesión de dos a cuatro años.

2. El abogado o procurador que, por acción u omisión, perjudique de forma manifiesta los intereses que le fueren encomendados será castigado con las penas de multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo, cargo público, profesión u oficio de uno a cuatro años.

Si los hechos fueran realizados por imprudencia grave, se impondrán las penas de multa de seis a doce meses e inhabilitación especial para su profesión de seis meses a dos años.

duten norbanakoetatik beste batek egiten badu, zigorra beheko erdian ezarriko da.

467. artikulua

1. Abokatu edo prokuradoreak, norbaiti aholku eman ondoren edo norbaiten defentsa egiteko edo hura ordezkatzeko ardura hartu ondoren, pertsona horren adostasunik gabe, kasu berean aurkako interesak dituenaren defentsa egiten edo hura ordezkatzen badu, orduan, horri sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaio eta lanbiderako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

2. Abokatu edo prokuradoreak, egitez edo ez-egitez, modu nabarian egiten badie kalte bere ardurapean dituen interesei, orduan, horri hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu, kargu publiko, lanbide edo ogibiderako desgaikuntza berezia, urtebetetik lau artekoa.

Egitateak zuhurtziagabekeria astunaren ondorioz gauzatzen badira, sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko da, bai eta bere lanbiderako desgaikuntza berezia ere, sei hilabetetik bi urte artekoa.

CAPÍTULO VIII
Del quebrantamiento de condena

Artículo 468

1. Los que quebrantaren su condena, medida de seguridad, prisión, medida cautelar, conducción o custodia,

VIII. KAPITULUA
Kondena urratzea

468. artikulua

1. Norbaitzuek urratzen badute ezarritako kondena, segurtasun-neurria, espetxealdia, kautela-neurria edo era-

serán castigados con la pena de prisión de seis meses a un año si estuvieran privados de libertad.

2. En los demás supuestos, se impondrá multa de 12 a 24 meses, salvo que se quebrantaran las prohibiciones a que se refiere el apartado 2 del artículo 57 de este Código, en cuyo caso se podrá imponer la pena de prisión de tres meses a un año o la de trabajos en beneficio de la comunidad de 90 a 180 días.

Artículo 469

Los sentenciados o presos que se fugaren del lugar en que estén recluidos, haciendo uso de violencia o intimidación en las personas o fuerza en las cosas o tomando parte en motín, serán castigados con la pena de prisión de seis meses a cuatro años.

Artículo 470

1. El particular que proporcionare la evasión a un condenado, preso o detenido, bien del lugar en que esté recluido, bien durante su conducción, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año y multa de doce a veinticuatro meses.

2. Si se empleara al efecto violencia o intimidación en las personas, fuerza en las cosas o soborno, la pena será de prisión de seis meses a cuatro años.

3. Si se tratara de alguna de las personas citadas en el artículo 454, se les castigará con la pena de multa de tres a

matea zein zaintza, orduan, halakoei sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, askatasunaz gabetuak badaude.

2. Gainerako kasuetan, 12 hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko da, salbu eta kode honen 57. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako debekuak urratzen direnean; kasu horretan, hiru hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo 90 egunetik 180 arte gizartearentzako lan egitea ezarri ahal izango da.

469. artikulua

Epaituek edo presoek giltzapean sartuta dauden lekutik ihes egiten badute, pertsonen aurka indarkeria nahiz larderia edo gauzetan indarra erabiliz edota matxinadan parte hartuz, orduan, halakoei sei hilabetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

470. artikulua

1. Norbanakoak kondenatu, preso edo atxilotu bati ihes egitea ahalbideratzen badio, bai giltzapean dagoen lekutik, bai eta bera eraman bitartean ere, orduan, norbanako horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

2. Horretarako, pertsonen aurka indarkeria edo larderia, gauzetan indarra, edo eroskeria erabiltzen bada, sei hilabetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

3. 454. artikuluan aipatutako pertsonen kasuan, horiei hiru hilabetetik sei arteko isuna ezarriko zaie. Kasu ho-

seis meses, pudiendo en este caso el Juez o Tribunal imponer tan sólo las penas correspondientes a los daños causados o a las amenazas o violencias ejercidas.

Artículo 471

Se impondrá la pena superior en grado, en sus respectivos casos, si el culpable fuera un funcionario público encargado de la conducción o custodia de un condenado, preso o detenido. El funcionario será castigado, además, con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público de seis a diez años si el fugitivo estuviera condenado por sentencia ejecutoria, y con la inhabilitación especial para empleo o cargo público de tres a seis años en los demás casos.

rretan, epaile edo auzitegiak ezarri ahal izango ditu eragindako kalte edo egindako mehatxu zein indarkeriei dagozkien zigorrak bakarrik.

471. artikulua

Kasuan-kasuan, gradu bat gehiagoko zigorra ezarriko da, baldin eta kondenatua, presoa edo atxilotua eramateaz edo zaintzeaz arduratzen den funtzionario publikoa bada erruduna. Horrezaz gain, funtzionarioari enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, sei urtetik hamar artekoa, iheslaria epai betearazlearen bidez kondenatua bada, eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, hiru urtetik sei artekoa gainerako kasuetan.

CAPÍTULO IX

De los delitos contra la Administración de Justicia de la Corte Penal Internacional

Artículo 471bis

1. El testigo que, intencionadamente, faltare a la verdad en su testimonio ante la Corte Penal Internacional, estando obligado a decir verdad conforme a las normas estatutarias y reglas de procedimiento y prueba de dicha Corte, será castigado con prisión de seis meses a dos años. Si el falso testimonio se diera en contra del acusado, la pena será de prisión de dos a cuatro años. Si a consecuencia del testimonio se dictara un fallo condenatorio,

IX. KAPITULUA

Justizia Administrazioaren aurkako delituak, Nazioarteko Zigor Gorteari dagokionez

471bis artikulua

1. Lekuko batek, hala nahita, egia esaten ez badu bere lekukotza Nazioarteko Zigor Gorteari azaltzean, estatutuetako arauek, eta gorte horretako prozedura- eta froga-erregelek egia esateko betebeharra ezartzen diotenean, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Lekukotza faltsua akusatuaren aurka eginez gero, zigorra bi urtetik lau arteko espetxealdia izango da. Lekukotzaren ondorioz epaitza kondena-

se impondrá pena de prisión de cuatro a cinco años.

2. El que presentare pruebas ante la Corte Penal Internacional a sabiendas de que son falsas o han sido falsificadas será castigado con las penas señaladas en el apartado anterior de este artículo.

3. El que intencionadamente destruya o altere pruebas, o interfiera en las diligencias de prueba ante la Corte Penal Internacional será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años y multa de siete a 12 meses.

4. El que corrompiera a un testigo, obstruyera su comparecencia o testimonio ante la Corte Penal Internacional o interfiriera en ellos será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa de seis a 24 meses.

5. Será castigado con prisión de uno a cuatro años y multa de seis a 24 meses quien pusiera trabas a un funcionario de la Corte, lo corrompiera o intimidara, para obligarlo o inducirlo a que no cumpla sus funciones o a que lo haga de manera indebida.

6. El que tomara represalias contra un funcionario de la Corte Penal Internacional en razón de funciones que haya desempeñado él u otro funcionario será castigado con la pena de prisión de uno a cuatro años y multa de seis a 24 meses. En la misma pena incurrirá quien tome represalias contra

tzailea emanez gero, lau urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

2. Norbaitek frogak aurkezten baditu Nazioarteko Zigor Gortean, froga horiek faltsuak edo faltsifikatuak izan direla jakinda, horri artikulu honen aurreko paragrafoan aipatu zigorrak ezarriko zaizkio.

3. Norbaitek, hala nahita, frogak suntsitu edo aldarazten baditu, edota froga-eginbideetan eskua sartzen badu, Nazioarteko Zigor Gortean, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi--zigorra eta zazpi hilabetetik 12 arteko isuna ezarriko zaizkio.

4. Norbaitek lekuko bat usteltzen badu, horren agerraldiari edo lekukotzari oztopo egiten badio Nazioarteko Zigor Gortean, edota halakoak aldarazten baditu, horri urtebetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra eta sei hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaizkio.

5. Urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra eta sei hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaizkio, Gorteko funtzionario batek bere eginkizunak bete ez ditzan edo bidegabe bete ditzan behartzeko edo induzitzeko, funtzionario horri trabak jartzen dizkionari, bai eta hori usteltzen edo beraren kontra larderia erabiltzen duenari ere.

6. Norbaitek errepresaliak hartzen baditu Nazioarteko Zigor Gorteko funtzionario baten aurka, funtzionario horrek edo beste batek burutu dituen eginkizunak direla eta, orduan, hari urtebetetik lau urte arteko espetxealdi-zigorra eta sei hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaizkio. Zigor bera ezarriko

un testigo por su declaración ante la Corte.

7. El que solicitara o aceptara un soborno en calidad de funcionario de la Corte y en relación con sus funciones oficiales incurrirá en la pena de prisión de dos a cinco años y multa del tanto al triplo del valor de la dádiva solicitada o aceptada.

zaio, lekuko batek Gortean egindako adierazpenaren ondorioz, horren aurka errepresaliak hartzen dituenari.

7. Norbaitek, Gorteko funtzionario gisa eta bere eginkizun ofizialak direla medio, eroskeriazko emaria eskatu edo onartzen badu, horri bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra, eta isuna, eskatu edo onartutako emaritik emari horren hiru halako artekoa, ezarriko zaizkio.

TÍTULO XXI
DELITOS CONTRA LA CONSTITUCIÓN

CAPÍTULO I
Rebelión

Artículo 472

Son reos del delito de rebelión los que se alzaren violenta y públicamente para cualquiera de los fines siguientes:

1.º Derogar, suspender o modificar total o parcialmente la Constitución.

2.º Destituir o despojar en todo o en parte de sus prerrogativas y facultades al Rey o al Regente o miembros de la Regencia, u obligarles a ejecutar un acto contrario a su voluntad.

3.º Impedir la libre celebración de elecciones para cargos públicos.

4.º Disolver las Cortes Generales, el Congreso de los Diputados, el Senado

XXI. TITULUA
KONSTITUZIOAREN AURKAKO DELITUAK

I. KAPITULUA
Asaldatzea

472. artikulua

Asaldatzearen delitupeko errudunak dira jendaurrean indarkeria erabiliz altxatzen direnak, helburu hauetatik edozein lortzeko:

1.) Konstituzioa indargabetu, horren indarraldia eten edo, oso-osoan nahiz zati batean, aldaraztea.

2.) Errege, Erregeorde edo Erregeordetzaren kideak euren karguetatik kentzea; horiei, oso-osoan edo zati batean, onurabide eta ahalmenak kentzea, edota horiek behartzea, euren borondatearen aurkako egintza gauzatzera.

3.) Kargu publikoak hautatzeko hauteskunde askeak eragoztea.

4.) Gorte Nagusiak, Diputatuen Kongresua, Senatua edota edozein autono-

o cualquier Asamblea Legislativa de una Comunidad Autónoma, impedir que se reúnan, deliberen o resuelvan, arrancarles alguna resolución o sustraerles alguna de sus atribuciones o competencias.

5.º Declarar la independencia de una parte del territorio nacional.

6.º Sustituir por otro el Gobierno de la Nación o el Consejo de Gobierno de una Comunidad Autónoma, o usar o ejercer por sí o despojar al Gobierno o Consejo de Gobierno de una Comunidad Autónoma, o a cualquiera de sus miembros de sus facultades, o impedirles o coartarles su libre ejercicio, u obligar a cualquiera de ellos a ejecutar actos contrarios a su voluntad.

7.º Sustraer cualquier clase de fuerza armada a la obediencia del Gobierno.

Artículo 473

1. Los que, induciendo a los rebeldes, hayan promovido o sostengan la rebelión, y los jefes principales de ésta, serán castigados con la pena de prisión de quince a veinticinco años e inhabilitación absoluta por el mismo tiempo; los que ejerzan un mando subalterno, con la de prisión de diez a quince años e inhabilitación absoluta de diez a quince años, y los meros participantes, con la de prisión de cinco a diez años e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis a diez años.

2. Si se han esgrimido armas, o si ha habido combate entre la fuerza de

mia erkidegoren legebiltzarra desegitea; horiei biltzen, eztabaidatzen edo ebazpenak ematen eragoztea; ebazpenen bat ematera derrigortzea edo aginpide zein eskumenen bat kentzea.

5.) Nazio-lurraldearen zati baten independentzia aldarrikatzea.

6.) Nazioaren Gobernuaren edo autonomia erkidego baten Gobernu Kontseiluaren ordez beste bat jartzea; Gobernuaren nahiz autonomia erkidego baten Gobernu Kontseiluaren edo horietako edozein kideren ahalmenak bere kabuz erabili, egikaritu edo kentzea, ahalmenen egikaritza askea eragoztea zein murriztea, edo haien borondatearen aurkako egitateak gauzatzera behartzea.

7.) Edonolako indar armatu Gobernuaren obedientziatik itzuraraztea.

473. artikulua

1. Norbaitzuek, asaldatuak induzituz, asaldatzea bera sustatu badute edo bultzatzen badute, edota asaldatzearen buru nagusiak badira, orduan, horiei hamabost urtetik hogeita bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta denbora bereko erabateko desgaikuntza ere; menpeko agintea dutenei hamar urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra, eta hamar urtetik hamabost arteko erabateko desgaikuntza; eta parte-hartzaile hutsei bost urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra, eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei urtetik hamar artekoa.

2. Armak azalarazi badira, edo asaldatuaren agindupeko indarraren eta bi-

su mando y los sectores leales a la autoridad legítima, o la rebelión hubiese causado estragos en propiedades de titularidad pública o privada, cortado las comunicaciones telegráficas, telefónicas, por ondas, ferroviarias o de otra clase, ejercido violencias graves contra las personas, exigido contribuciones o distraído los caudales públicos de su legítima inversión, las penas de prisión serán, respectivamente, de veinticinco a treinta años para los primeros, de quince a veinticinco años para los segundos y de diez a quince años para los últimos.

Artículo 474

Cuando la rebelión no haya llegado a organizarse con jefes conocidos, se reputarán como tales los que de hecho dirijan a los demás, o lleven la voz por ellos, o firmen escritos expedidos a su nombre, o ejerzan otros actos semejantes de dirección o representación.

Artículo 475

Serán castigados como rebeldes con la pena de prisión de cinco a diez años e inhabilitación absoluta por tiempo de seis a doce años los que sedujeren o allegaren tropas o cualquier otra clase de fuerza armada para cometer el delito de rebelión.

Si llegara a tener efecto la rebelión, se reputarán promotores y sufrirán la pena señalada en el artículo 473.

dezko agintaritzaren alderdi leialen artean borroka egon bada edota asaldatzeak kalte handiak eragin baditu titulartasun publiko edo pribatuko jabetzetan; telegrafo, telefono, uhin, burdinbide edo bestelako komunikabideak eten badira, pertsonen aurka indarkeria larria erabili bada, edota kontribuzioak galdatu edo herri-ondasunak beren legebidezko inbertsioetatik desbideratu badira, orduan, halakoei ezarritako espetxealdi-zigorrak izango dira, hurrenez hurren, hogeita bost urtetik hogeita hamar artekoa lehenengoentzat, hamabost urtetik hogeita bost artekoa bigarrenentzat eta hamar urtetik hamabost artekoa azkenekoentzat.

474. artikulua

Asaldatzea buru ezagunekin antolatzera heldu ez denean, buru ezaguntzat hartuko dira egitez besteak gidatu edo horien izenean hitz egiten dutenak, beren izenean luzatutako idazkiak izenpetzen dituztenak, edo horien antzeko zuzendaritza edo ordezkaritzako beste egintza batzuk gauzatzen dituztenak.

475. artikulua

Asaldatu gisa, bost urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei urtetik hamabi arteko erabateko desgaikuntza ere, asaldatze-delitua egiteko guda-taldeak edo bestelako indar armatu erakarri edo biltzen dituztenei.

Asaldatzea gauzatzera iristen bada, aurreko horiek sustatzailetzat hartuko dira eta 473. artikuluko zigorra ezarriko zaie.

Artículo 476

1. El militar que no empleare los medios a su alcance para contener la rebelión en las fuerzas de su mando, será castigado con las penas de prisión de dos a cinco años e inhabilitación absoluta de seis a diez años.

2. Será castigado con las mismas penas previstas en el apartado anterior en su mitad inferior el militar que, teniendo conocimiento de que se trata de cometer un delito de rebelión, no lo denuncie inmediatamente a sus superiores o a las autoridades o funcionarios que, por razón de su cargo, tengan la obligación de perseguir el delito.

476. artikulua

1. Militarrak, bere agindupeko indarren asaldatzeari eusteko, eskura dituen bideak erabiltzen ez baditu, bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta sei urtetik hamar arteko erabateko desgaikuntza ere.

2. Aurreko paragrafoan ezarritako zigor berberak ezarriko zaizkio, beheko erdian, asaldatze-delitua egin nahi dela dakien militarrari, berehala horri buruzko salaketa egiten ez badie bere nagusiei edo euren karguen zioz delitu hori pertsegitzeko betebeharra duten agintari edo funtzionarioei.

Artículo 477

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer rebelión serán castigadas, además de con la inhabilitación prevista en los artículos anteriores, con la pena de prisión inferior en uno o dos grados a la del delito correspondiente.

477. artikulua

Asaldatzeko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, aurreko artikuluetan ezarritako desgaikuntzaz gain, delitu bakoitzari dagokiona baino gradu bat edo bi gutxiagoko espetxealdi-zigorrarekin.

Artículo 478

En el caso de hallarse constituido en autoridad el que cometa cualquiera de los delitos previstos en este capítulo, la pena de inhabilitación que estuviese prevista en cada caso se sustituirá por la inhabilitación absoluta por tiempo de quince a veinte años, salvo que tal circunstancia se halle específicamente contemplada en el tipo penal de que se trate.

478. artikulua

Kapitulu honetan ezarritako delituetatik edozein egiten duenak agintaritzan jardunez gero, kasuan-kasuan ezarritako desgaikuntza-zigorraren ordez erabateko desgaikuntza ezarriko da, hamabost urtetik hogei artekoa, salbu eta inguruabar hori modu zehatzean araututa dagoenean tipo penal bakoitzean.

Artículo 479

Luego que se manifieste la rebelión, la autoridad gubernativa intimará

479. artikulua

Asaldatzea azaleratu bezain laster, gobernu-agintaritzak altxatuei agindu-

a los sublevados a que inmediatamente se disuelvan y retiren.

Si los sublevados no depusieran su actitud inmediatamente después de la intimación, la autoridad hará uso de la fuerza de que disponga para disolverlos.

No será necesaria la intimación desde el momento en que los rebeldes rompan el fuego.

Artículo 480

1. Quedará exento de pena el que, implicado en un delito de rebelión, lo revelare a tiempo de poder evitar sus consecuencias.

2. A los meros ejecutores que depongan las armas antes de haber hecho uso de ellas, sometiéndose a las autoridades legítimas, se les aplicará la pena de prisión inferior en grado. La misma pena se impondrá si los rebeldes se disolvieran o sometieran a la autoridad legítima antes de la intimación o a consecuencia de ella.

Artículo 481

Los delitos particulares cometidos en una rebelión o con motivo de ella serán castigados, respectivamente, según las disposiciones de este Código.

Artículo 482

Las autoridades que no hayan resistido la rebelión, serán castigadas con la pena de inhabilitación absoluta de doce a veinte años.

ko die berehala sakabanatu eta atzera egiteko.

Agindeia egin ondoren, altxatuek berehala euren jarrera uzten ez badute, agintaritzak bere esku duen indarra erabiliko du altxatuak sakabanatzeko.

Agindeia ez da beharrezkoa izango, behin asaldatuek tiro egin ondoren.

480. artikulua

1. Zigorretik salbuetsita geratuko da, asaldatze-delituan nahasirik egonda, delituaren ondorioak galarazteko, hori garaiz agerrarazten duena.

2. Delitua gauzatu besterik egin ez dutenei armak, erabili aurretik, uzten badituzte eta bidezko agintaritzaren menpe jartzen badira, dagokien espetxealdi-zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko zaie. Zigor berbera ezarriko da, asaldatuak sakabanatzen badira edo legebidezko agintaritzaren menpe jartzen badira, bai agintaritza horren agindeia jaso aurretik, bai eta agindei horren ondorioz ere.

481. artikulua

Asaldatze batean edo asaldatze baten ondorioz norberak egindako delitu guztiak, kasuan-kasuan, kode honen xedapenen arabera zigortuko dira.

482. artikulua

Agintariak asaldatzeari jarkitzen ez bazaizkio, hamabi urtetik hogei arteko erabateko desgaikuntza ezarriko zaie.

Artículo 483

Los funcionarios que continúen desempeñando sus cargos bajo el mando de los alzados o que, sin habérseles admitido la renuncia de su empleo, lo abandonen cuando haya peligro de rebelión, incurrirán en la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público de seis a doce años.

Artículo 484

Los que aceptaren empleo de los rebeldes, serán castigados con la pena de inhabilitación absoluta de seis a doce años.

483. artikulua

Funtzionarioek altxatuen agindupean euren karguetan jarduten irauten badute edo, enpleguari uko egin eta uko horren onarpenik jasotzeke, euren enplegua uzten badute, asaldatze-arriskua dagoelarik, orduan, halakoei enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaie, sei urtetik hamabi artekoa.

484. artikulua

Norbaitzuek onartzen badute asaldatuek eskainitako enplegua, orduan, sei urtetik hamabi arteko desgaikuntza erabatekoa ezarriko zaie.

CAPÍTULO II
Delitos contra la Corona

Artículo 485

1. El que matare al Rey, o a cualquiera de sus ascendientes o descendientes, a la Reina consorte o al consorte de la Reina, al Regente o a algún miembro de la Regencia, o al Príncipe heredero de la Corona, será castigado con la pena de prisión de veinte a veinticinco años.

2. La tentativa del mismo delito se castigará con la pena inferior en un grado.

3. Si concurrieran en el delito dos o más circunstancias agravantes, se impondrá la pena de prisión de veinticinco a treinta años.

II. KAPITULUA
Koroaren aurkako delituak

485. artikulua

1. Norbaitek hiltzen badu Erregea, beraren edozein aurreko nahiz ondorengo, Erregina-ezkontidea edo Erreginaren ezkontidea edota Erregeordea zein Erregeordetzaren kide bat, edo Koroaren printze jaraunslea, orduan, horri hogei urtetik hogeita bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Delitu bera egiteko saiakuntza zigortzeko, aurreko idatz-zatian ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarriko da.

3. Delitura inguruabar astungarri bi edo gehiago biltzen badira, hogeita bost urtetik hogeita hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

Artículo 486

1. El que causare al Rey, o a cualquiera de sus ascendientes o descendientes, a la Reina consorte o al consorte de la Reina, al Regente o a algún miembro de la Regencia, o al Príncipe heredero de la Corona, lesiones de las previstas en el artículo 149, será castigado con la pena de prisión de quince a veinte años.

Si se tratara de alguna de las lesiones previstas en el artículo 150, se castigará con la pena de prisión de ocho a quince años.

2. El que les causare cualquier otra lesión, será castigado con la pena de prisión de cuatro a ocho años.

Artículo 487

Será castigado con la pena de prisión de quince a veinte años el que privare al Rey, o a cualquiera de sus ascendientes o descendientes, a la Reina consorte o al consorte de la Reina, al Regente o a algún miembro de la Regencia, o al Príncipe heredero de la Corona, de su libertad personal, salvo que los hechos estén castigados con mayor pena en otros preceptos de este Código.

Artículo 488

La provocación, la conspiración y la proposición para los delitos previstos en los artículos anteriores se castigará con la pena inferior en uno o dos grados a las respectivamente previstas.

486. artikulua

1. Norbaitek eragiten badio 149. artikuluan ezarritako lesio bat Erregeari, beraren edozein aurreko nahiz ondorengori, Erregina-ezkontideari edo Erreginaren ezkontideari edota Erregeordeari edo Erregeordetzaren kide bati, orduan, horri hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Ostera, 150. artikuluan ezarritako lesio bat eragiten bada, zortzi urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

2. Norbaitek beste edozein lesio eragiten badie, lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

487. artikulua

Hamabost urtetik hogei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio Erregea, beraren edozein aurreko nahiz ondorengo, Erregina-ezkontidea edo Erreginaren ezkontidea edota Erregeordea, Erregeordetzaren kideen bat edo Koroaren printze jaraunslea askatasun pertsonalaz gabetzen duenari, salbu eta kode honen beste manu batzuek zigor handiagoa ezartzen dietenean egitate horiei.

488. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritako delituak egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoarekin.

Artículo 489

El que con violencia o intimidación grave obligare a las personas referidas en los artículos anteriores a ejecutar un acto contra su voluntad, será castigado con la pena de prisión de ocho a doce años.

En el caso previsto en el párrafo anterior, si la violencia o la intimidación no fueran graves, se impondrá la pena inferior en grado.

Artículo 490

1. El que allanare con violencia o intimidación la morada de cualquiera de las personas mencionadas en los artículos anteriores será castigado con la pena de prisión de tres a seis años. Si no hubiere violencia o intimidación la pena será de dos a cuatro años.

2. Con la pena de prisión de tres a seis años será castigado el que amenazare gravemente a cualquiera de las personas mencionadas en el apartado anterior, y con la pena de prisión de uno a tres años si la amenaza fuera leve.

3. El que calumniare o injuriare al Rey o a cualquiera de sus ascendientes o descendientes, a la Reina consorte o al consorte de la Reina, al Regente o a algún miembro de la Regencia, o al Príncipe heredero de la Corona, en el ejercicio de sus funciones o con motivo u ocasión de éstas, será castigado con la pena de prisión de seis meses a dos años si la calumnia o injuria fueran

489. artikulua

Norbaitek, indarkeria edo larderia larria erabiliz, behartzen baditu aurreko artikuluetan aipatutako pertsonak euren borondatearen aurka egintza bat gauzatzera, orduan, horri zortzi urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Aurreko lerrokadan ezarritako kasuan, indarkeria edo larderia larria ez bada, gradu bat gutxiagoko zigorra ezarriko da.

490. artikulua

1. Norbaitek, indarkeria edo larderia erabiliz, bortxatzen badu aurreko artikuluetan aipatutako pertsonetatik edozeinen bizilekua, orduan, horri hiru urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Indarkeria edo larderia erabiltzen ez bada, bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da.

2. Hiru urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio aurreko paragrafoan aipatutako pertsonetatik edozein modu larrian mehatxatzen duenari; eta urtebetetik hiru arteko espetxealdi--zigorra ezarriko zaio, mehatxua arina bada.

3. Norbaitek kalumniatu edo irain-tzen badu Erregea, beraren edozein aurreko zein ondorengo, Erregina-ezkontidea edo Erreginaren ezkontidea edota Erregeordea zein Erregeordetzaren kide bat, edo Koroaren printze jaraunslea, beraren funtzioan aritzean edo funtzio hori dela eta, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, kalumnia edo irainak

graves, y con la de multa de seis a doce meses si no lo son.

Artículo 491

1. Las calumnias e injurias contra cualquiera de las personas mencionadas en el artículo anterior, y fuera de los supuestos previstos en el mismo, serán castigadas con la pena de multa de cuatro a veinte meses.

2. Se impondrá la pena de multa de seis a veinticuatro meses al que utilizare la imagen del Rey o de cualquiera de sus ascendientes o descendientes, o de la Reina consorte o del consorte de la Reina, o del Regente o de algún miembro de la Regencia, o del Príncipe heredero, de cualquier forma que pueda dañar el prestigio de la Corona.

larriak badira; eta sei hilabetetik hamabi arteko isun-zigorra ezarriko zaio, larriak ez badira.

491. artikulua

1. Aurreko artikuluan aipaturiko pertsonetatik edozeinen aurkako kalumnia eta irainak lau hilabetetik hogei arteko isunarekin zigortuko dira, artikulu horretan ezarritako kasuetatik kanpo gauzatzen badira.

2. Norbaitek, Koroaren ospeari kalte egin ahal dioten moduetatik edozeinetan, Koroaren ospeari kalte egiteko moduan erabiltzen badu Erregearen, beraren edozein aurreko nahiz ondorengoren edo Erregina-ezkontidearen zein Erreginaren ezkontidearen irudia edota Erregeordearena zein Erregeordetzaren kide batena edo Koroaren printze jaraunslearena, orduan, sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

CAPÍTULO III

De los delitos contra las Instituciones del Estado y la división de poderes

SECCIÓN I

III. KAPITULUA

Estatuaren erakundeen eta botere-banaketaren aurkako delituak

I. ATALA

Artículo 492

Los que, al vacar la Corona o quedar inhabilitado su Titular para el ejercicio de su autoridad, impidieren a las Cortes Generales reunirse para nombrar la Regencia o el tutor del Titular menor de edad, serán sancionados con

492. artikulua

Norbaitzuek, Koroa titularrik gabe geratzean edo Koroaren titularra bere agintea erabiltzeko desgaitua izatean, Gorte Nagusiei biltzen eragozten badiete, Erregeordetza edo adingabe titularraren tutorea izendatzeko, orduan, hala-

la pena de prisión de diez a quince años e inhabilitación absoluta por tiempo de diez a quince años, sin perjuicio de la pena que pudiera corresponderles por la comisión de otras infracciones más graves.

Artículo 493

Los que, sin alzarse públicamente, invadieren con fuerza, violencia o intimidación las sedes del Congreso de los Diputados, del Senado o de una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma, si están reunidos, serán castigados con la pena de prisión de tres a cinco años.

Artículo 494

Incurrirán en la pena de prisión de seis meses a un año o multa de doce a veinticuatro meses los que promuevan, dirijan o presidan manifestaciones u otra clase de reuniones ante las sedes del Congreso de los Diputados, del Senado o de una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma, cuando estén reunidos, alterando su normal funcionamiento.

Artículo 495

1. Los que, sin alzarse públicamente, portando armas u otros instrumentos peligrosos, intentaren penetrar en las sedes del Congreso de los Diputados, del Senado o de la Asamblea Legislativa de una Comunidad Autónoma, para presentar en persona o colectivamente peticiones a los mismos, incurrirán en la pena de prisión de tres a cinco años.

koei, beste arau-hauste astunagoak egiteagatik legokiekeen zigorrari kalterik egin gabe, hamar urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie eta hamar urtetik hamabost arteko desgaikuntza erabatekoa.

493. artikulua

Norbaitzuk, indarra, indarkeria edo larderia erabiliz eta jendaurrean altxatu gabe, Diputatuen Kongresuko, Senatuko edo autonomia erkidego baten legebiltzarraren egoitzan sartzen badira, horiek bilduta daudenean, orduan, halakoei hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

494. artikulua

Sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie Diputatuen Kongresuko, Senatuko edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren egoitzen aurrean, haiek bileran daudela, eta haien ohiko jardunbidea aldaraziz, kale-agerraldiak edo bestelako bilerak sustatu edo zuzentzen dituztenei edo horien buru direnei.

495. artikulua

1. Norbaitzuk, jendaurrean altxatu gabe eta arma edo bestelako tresna arriskutsuak aldean daramatzatela, Diputatuen Kongresuko, Senatuko edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren egoitzan sartzen ahalegintzen badira, banaka edo taldeka eskaerak aurkezteko, orduan, halakoei hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

2. La pena prevista en el apartado anterior se aplicará en su mitad superior a quienes promuevan, dirijan o presidan el grupo.

Artículo 496

El que injuriare gravemente a las Cortes Generales o a una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma, hallándose en sesión, o a alguna de sus Comisiones en los actos públicos en que las representen, será castigado con la pena de multa de doce a dieciocho meses.

El imputado de las injurias descritas en el párrafo anterior quedará exento de pena si se dan las circunstancias previstas en el artículo 210.

Artículo 497

1. Incurrirán en la pena de prisión de seis meses a un año quienes, sin ser miembros del Congreso de los Diputados, del Senado o de una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma, perturben gravemente el orden de sus sesiones.

2. Cuando la perturbación del orden de las sesiones a que se refiere el apartado anterior no sea grave, se impondrá la pena de multa de seis a doce meses.

Artículo 498

Los que emplearen fuerza, violencia, intimidación o amenaza grave para impedir a un miembro del Congreso de los Diputados, del Senado o de una Asamblea Legislativa de Comunidad

2. Aurreko paragrafoan ezarritako zigorra goiko erdian ezarriko zaie taldea sustatu edo zuzentzen dutenei edota horren buru direnei.

496. artikulua

Norbaitek modu larrian iraintzen baditu Gorte Nagusiak edo autonomia erkidegoko legebiltzarra, halakoak bilduta daudenean, edota gorte nahiz biltzar horietako batzorde bat iraintzen badu, batzorde horrek haien ordezkari gisa gauzatzen dituen egintza publikoetan, orduan, horri hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaio.

Aurreko lerrokadan azaldutako irainak direla eta, egotzia zigorretik salbuetsita geratuko da, 210. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen badira.

497. artikulua

1. Sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, Diputatuen Kongresuko, Senatuko edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren kide izan gabe, horien bileren ordenari nahasmendu larria eragiten diotenei.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den nahasmendua, bileren ordenari eragiten diona, larria ez denean, sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko da.

498. artikulua

Norbaitzuek indarra, indarkeria, larderia edo mehatxu larria erabiltzen badute Diputatuen Kongresuko, Senatuko edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren kide bati horien bileretara joatea

Autónoma asistir a sus reuniones, o, por los mismos medios, coartaren la libre manifestación de sus opiniones o la emisión de su voto, serán castigados con la pena de prisión de tres a cinco años.

Artículo 499

La autoridad o funcionario público que quebrantare la inviolabilidad de las Cortes Generales o de una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma, será castigado con las penas de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de diez a veinte años, sin perjuicio de las que pudieran corresponderle si el hecho constituyera otro delito más grave.

Artículo 500

La autoridad o funcionario público que detuviere a un miembro de las Cortes Generales o de una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma fuera de los supuestos o sin los requisitos establecidos por la legislación vigente incurrirá, según los casos, en las penas previstas en este Código, impuestas en su mitad superior, y además en la de inhabilitación especial para empleo o cargo público de seis a doce años.

Artículo 501

La autoridad judicial que inculpare o procesare a un miembro de las Cortes Generales o de una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma sin los requisitos establecidos por la legislación vigente, será castigada con la pena de inhabilitación especial para

eragozteko, edota modu berean horietako kide bati beraren iritziak agertzeko edo botoa emateko askatasuna murrizten badiote, orduan, halakoei hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.

499. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak Gorte Nagusien edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren bortxaezintasuna urratzen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, hamar urtetik hogei artekoa; horrek ez dio kalterik egingo, egitatea beste delitu astunago bat bada, berari legozkiokeen zigorrak ezartzeari.

500. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak Gorte Nagusien edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren kideetako bat atxilotzen badu, indarreko legeriak ezarritako kasuetatik kanpo edo eskatzen dituen betekizunak bete gabe, orduan, horri, kasuan-kasuan, kode honetako zigorrak goiko erdian ezarriko zaizkio, eta, horrezaz gain, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei urtetik hamabi artekoa.

501. artikulua

Agintaritza judizialak Gorte Nagusien edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren kide bat erruztatzen edo prozesupean jartzen badu, indarreko legeriak ezarritako betekizunak izan gabe, orduan, agintaritza horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia

empleo o cargo público de diez a veinte años.

Artículo 502

1. Los que, habiendo sido requeridos en forma legal y bajo apercibimiento, dejaren de comparecer ante una Comisión de investigación de las Cortes Generales o de una Asamblea Legislativa de Comunidad Autónoma, serán castigados como reos del delito de desobediencia. Si el reo fuera autoridad o funcionario público, se le impondrá además la pena de suspensión de empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

2. En las mismas penas incurrirá la autoridad o funcionario que obstaculizare la investigación del Defensor del Pueblo, Tribunal de Cuentas u órganos equivalentes de las Comunidades Autónomas, negándose o dilatando indebidamente el envío de los informes que éstos solicitaren o dificultando su acceso a los expedientes o documentación administrativa necesaria para tal investigación.

3. El que convocado ante una comisión parlamentaria de investigación faltare a la verdad en su testimonio, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 503

Incurrirán en la pena de prisión de dos a cuatro años:

1.º Los que invadan violentamente o con intimidación el local donde esté

ezarriko zaio, hamar urtetik hogei artekoa.

502. artikulua

1. Norbaitzuk, agindeia legez eta ohartarazpena eginda jaso dutelarik, agertzen ez badira Gorte Nagusien edo autonomia erkidegoko legebiltzarraren ikerketa batzordera, orduan, halakoak desobeditze-delitupeko erruztatu gisa zigortuko dira. Erruztatu agintari edo funtzionario publikoa bada, horri enplegu edo kargualdi publikoa etengo zaio, sei hilabetetik bi urte arte.

2. Agintari edo funtzionarioari zigor berberak ezarriko zaizkio, baldin eta Herri Defendatzailearen, Kontu Auzitegiaren edo autonomia erkidegoen organo baliokideen ikerketa oztopatzen badu, nahiz horiek eskatutako txostenak bidaltzeari uko eginez edo bidaltze hori bidegabe luzatuz, nahiz horiei trabak jarriz, ikerketa egiteko beharrezkoak diren administrazio-espediente nahiz agiriak eskuratzeko.

3. Norbaitek, Parlamentuko ikerketa-batzorde baterako deialdia jaso duelarik, lekukotza faltsua ematen badu, sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

503. artikulua

Bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie:

1.) Ministroen Kontseilua edo autonomia erkidegoko Gobernu Kontseilua

constituido el Consejo de Ministros o un Consejo de Gobierno de Comunidad Autónoma.

2.º Los que coarten o por cualquier medio pongan obstáculos a la libertad del Gobierno reunido en Consejo o de los miembros de un Gobierno de Comunidad Autónoma, reunido en Consejo, salvo que los hechos sean constitutivos de otro delito más grave.

Artículo 504

1. Incurrirán en la pena de multa de doce a dieciocho meses los que calumnien, injurien o amenacen gravemente al Gobierno de la Nación, al Consejo General del Poder Judicial, al Tribunal Constitucional, al Tribunal Supremo, o al Consejo de Gobierno o al Tribunal Superior de Justicia de una Comunidad Autónoma.

El culpable de calumnias o injurias conforme a lo dispuesto en el párrafo anterior quedará exento de pena si se dan las circunstancias previstas, respectivamente, en los artículos 207 y 210 de este Código.

Se impondrá la pena de prisión de tres a cinco años a los que empleen fuerza, violencia o intimidación para impedir a los miembros de dichos Organismos asistir a sus respectivas reuniones.

2. Los que injuriaren o amenazaren gravemente a los Ejércitos, Clases o Cuerpos y Fuerzas de Seguridad, serán castigados con la pena de multa de doce a dieciocho meses.

batzarturik dagoen lokalean indarrez sartzen direnei indarkeria edo larderia erabiliz.

2.) Kontseiluan bilduta dagoen Gobernuaren edo autonomia erkidegoko Gobernuko kideen askatasuna murrizten dutenei edota, edozein bide erabiliz, oztopatzen dutenei, salbu eta egitateak beste delitu astunago bat direnean.

504. artikulua

1. Hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaie hurrengo hauek modu larrian kalumniatu, iraindu edo mehatxatzen dituztenei: Nazioko Gobernua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Konstituzio Auzitegia, Auzitegi Gorena, edo autonomia erkidego baten Gobernu Kontseilua edo Auzitegi Nagusia.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren arabera, kalumnia edo irainen ondoriozko erruduna, zigorretik salbuetsita geratuko da, baldin eta kode honen 207 eta 210. artikuluetan hurrenez hurren ezarritako inguruabarrak gertatzen badira.

Hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie indarra, indarkeria edo larderia erabiltzen dutenei, erakunde horietako kideei euren bileretara joaten eragozteko.

2. Norbaitzuek modu larrian iraindu edo mehatxatzen badituzte armadak eta segurtasuneko gorputz edo kidegoak eta indarrak, orduan, halakoei hamabi hilabetetik hemezortzi arteko isuna ezarriko zaie.

El culpable de las injurias previstas en el párrafo anterior quedará exento de pena si se dan las circunstancias descritas en el artículo 210 de este Código.

Aurreko lerrokadan ezarritako irainen erruduna zigorretik salbuetsita geratuko da, baldin eta kode honetako 210. artikuluan azaldutako inguruabarrak gertatzen badira.

Artículo 505

1. Incurrirán en la pena de prisión de seis meses a un año quienes, sin ser miembros de la corporación local, perturben de forma grave el orden de sus plenos impidiendo el acceso a los mismos, el desarrollo del orden del día previsto, la adopción de acuerdos o causen desórdenes que tengan por objeto manifestar el apoyo a bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas.

2. Quienes, amparándose en la existencia de bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas, calumnien, injurien, coaccionen o amenacen a los miembros de corporaciones locales, serán castigados con la pena superior en grado a la que corresponda por el delito cometido.

505. artikulua

1. Sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, toki-korporazioaren kide izan gabe, korporazio horren osoko bilkuretako ordena modu larrian nahasten dutenei, bertara sartzea, egun horretako gai-zerrendaren garapena edo erabakiak hartzea eragotziz, bai eta desordenak eragiten dituztenei ere, desordena horien helburua bada banda armatu, antolakunde edo talde terroristei laguntza erakustea.

2. Norbaitzuek, banda armatu, antolakunde edo talde terroristen izatea babes moduan hartuz, toki korporazioen kideak kalumniatu, iraindu, derrigortu edo mehatxatzen badituzte, egindako delituari dagokion zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko zaie.

SECCIÓN II

II. ATALA

Artículo 506

La autoridad o funcionario público que, careciendo de atribuciones para ello, dictare una disposición general o suspendiere su ejecución, será castigado con la pena de prisión de uno a tres años, multa de seis a doce meses e inhabilitación especial para empleo o

506. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak xedapen orokor bat ematen badu edo xedapen horren betearazpena eteten badu, horretarako aginpiderik ez duelarik, orduan, horri urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna,

cargo público por tiempo de seis a doce años.

Artículo 506bis

1. La autoridad o funcionario público que, careciendo manifiestamente de competencias o atribuciones para ello, convocare o autorizare la convocatoria de elecciones generales, autonómicas o locales o consultas populares por vía de referéndum en cualquiera de las modalidades previstas en la Constitución, será castigado con la pena de prisión de tres a cinco años e inhabilitación absoluta por un tiempo superior entre tres y cinco años al de la duración de la pena de privación de libertad impuesta.

2. La autoridad o funcionario público que, sin realizar la convocatoria o autorización a que se refiere el apartado anterior, facilite, promueva o asegure el proceso de elecciones generales, autonómicas o locales o consultas populares por vía de referéndum en cualquiera de las modalidades previstas en la Constitución convocadas por quien carece manifiestamente de competencia o atribuciones para ello, una vez acordada la ilegalidad del proceso será castigado con la pena de prisión de uno a tres años e inhabilitación absoluta por un tiempo superior entre uno y tres años al de la duración de la pena de privación de libertad impuesta.

Artículo 507

El Juez o Magistrado que se arrogare atribuciones administrativas de las

bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, sei urtetik hamabi artekoa.

506bis artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak, horretarako eskumen edo aginpiderik ageri-agerian ez duelarik, hauteskunde orokorretarako, autonomia-erkidegoko hauteskundeetarako edo toki hauteskundeetarako nahiz, erreferendum bidez, Konstituzioak araututako modalitateetatik edozeinetan, herri-kontsultetarako deialdia egin edo deialdi hori baimentzen badu, orduan, horri hiru urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra, eta erabateko desgaikuntza, askatasunaz gabetzeko ezarri den zigorra baino hiru urtetik bost arte luzeagoa, ezarriko zaizkio.

2. Agintari edo funtzionario publikoak, aurreko paragrafoan aipatu deialdia egin edo baimendu gabe, hauteskunde orokorretarako, autonomia-erkidegoko hauteskundeetarako edo toki hauteskundeetarako nahiz, erreferendum bidez, Konstituzioak araututako modalitateetatik edozeinetan, herri-kontsultetarako prozesua egitea erraztu, sustatu edo ziurtatzen badu, horietarako deialdia egin duenak ageri-agerian horretarako eskumen edo aginpiderik ez duenean, orduan, behin prozesuaren lege-aurkakotasuna erabaki eta gero, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra, eta erabateko desgaikuntza, askatasunaz gabetzeko ezarri den zigorra baino urtebetetik hiru arte luzeagoa, ezarriko zaizkio.

507. artikulua

Epaile edo magistratuak berari ez dagozkion administrazio-aginpideak

que careciere, o impidiere su legítimo ejercicio por quien las ostentare, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año, multa de tres a seis meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

bere buruarentzat hartzen baditu, edota aginpide horiek dituenari halakoak bidezko eran erabiltzea eragozten badio, orduan, horri sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hiru hilabetetik sei arteko isuna ere, eta enplegu edo kargualdi publikoa urtebetetik hiru arte etengo zaio.

Artículo 508

1. La autoridad o funcionario público que se arrogare atribuciones judiciales o impidiere ejecutar una resolución dictada por la autoridad judicial competente, será castigado con las penas de prisión de seis meses a un año, multa de tres a ocho meses y suspensión de empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años.

2. La autoridad o funcionario administrativo o militar que atentare contra la independencia de los Jueces o Magistrados, garantizada por la Constitución, dirigiéndoles instrucción, orden o intimación relativas a causas o actuaciones que estén conociendo, será castigado con la pena de prisión de uno a dos años, multa de cuatro a diez meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

508. artikulua

1. Agintari edo funtzionario publikoak epailearen aginpideak bere buruarentzat hartzen baditu edo agintaritza judizial eskudunak emandako ebazpena betearaztea eragozten badu, orduan, horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hiru hilabetetik zortzi arteko isuna ere, eta enplegu edo kargualdi publikoa urtebetetik hiru arte etengo zaio.

2. Agintari edo funtzionarioak, administraziokoa nahiz militarra izan, Konstituzioak bermatutako epaile edo magistratuen independentziaren aurka erasotzen badu, horiei erabaki behar dituzten auzi edo jardunaren inguruan jarraibide nahiz aginduak emanez edo agindeiak eginez, orduan, horri urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio eta lau hilabetetik hamar arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, bi urtetik sei artekoa.

Artículo 509

El Juez o Magistrado, la autoridad o el funcionario público que, legalmente requerido de inhibición, continuare procediendo sin esperar a que se decida el correspondiente conflicto juris-

509. artikulua

Epaile edo magistratu, agintari nahiz funtzionario publikoak, legeak onartzen dituen kasuetan izan ezik, eskumena baliatzeari uzteko agindeia legez jaso eta prozedurarekin aurrera egiten

diccional, salvo en los casos permitidos por la Ley, será castigado con la pena de multa de tres a diez meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis meses a un año.

badu, jurisdikzio-gatazkaren inguruan erabaki arte zain egon gabe, orduan, horri hiru hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei hilabetetik urtebete artekoa.

CAPÍTULO IV

De los delitos relativos al ejercicio de los derechos fundamentales y libertades públicas

SECCIÓN I

IV. KAPITULUA

Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen egikaritzari buruzko delituak

I. ATALA

Artículo 510

1. Los que provocaren a la discriminación, al odio o a la violencia contra grupos o asociaciones, por motivos racistas, antisemitas u otros referentes a la ideología, religión o creencias, situación familiar, la pertenencia de sus miembros a una etnia o raza, su origen nacional, su sexo, orientación sexual, enfermedad o minusvalía, serán castigados con la pena de prisión de uno a tres años y multa de seis a doce meses.

2. Serán castigados con la misma pena los que, con conocimiento de su falsedad o temerario desprecio hacia la verdad, difundieren informaciones injuriosas sobre grupos o asociaciones en relación a su ideología, religión o creencias, la pertenencia de sus miem-

510. artikulua

1. Norbaitzuek talde edo elkarteen aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragiten badute arrazakeria nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz elkarte horietako kideen ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunarengatik, orduan, halakoei urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere.

2. Zigor bera ezarriko zaie talde edo elkarteen inguruan, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, informazio iraingarriak hedatzen dituztenei, baldin eta informaziook horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, edota beren kideen etnia, arraza, nazio-

bros a una etnia o raza, su origen nacional, su sexo, orientación sexual, enfermedad o minusvalía.

Artículo 511

1. Incurrirá en la pena de prisión de seis meses a dos años y multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de uno a tres años el particular encargado de un servicio público que deniegue a una persona una prestación a la que tenga derecho por razón de su ideología, religión o creencias, su pertenencia a una etnia o raza, su origen nacional, su sexo, orientación sexual, situación familiar, enfermedad o minusvalía.

2. Las mismas penas serán aplicables cuando los hechos se cometan contra una asociación, fundación, sociedad o corporación o contra sus miembros por razón de su ideología, religión o creencias, la pertenencia de sus miembros o de alguno de ellos a una etnia o raza, su origen nacional, su sexo, orientación sexual, situación familiar, enfermedad o minusvalía.

3. Los funcionarios públicos que cometan alguno de los hechos previstos en este artículo, incurrirán en las mismas penas en su mitad superior y en la de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a cuatro años.

Artículo 512

Los que en el ejercicio de sus actividades profesionales o empresariales denegaren a una persona una prestación a

-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoak badira.

511. artikulua

1. Sei hilabetetik urte bi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, urtebetetik hiru artekoa, herri-zerbitzu batez arduratzen den norbanakoari, baldin eta pertsona bati, beraren ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasuna dela eta, prestazio bat ukatzen badio, pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea izanik.

2. Zigor berberak ezarriko dira, baldin eta egitateak elkarte, fundazio, sozietate edo korporazioen aurka edo horien kideen aurka gauzatzen badira, kideen ideologia, erlijio edo sinesmenengatik, kideen edo horietako baten etnia edo arrazarengatik, edo euren nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo elbarritasunarengatik.

3. Funtzionario publikoek artikulu honetan ezarritako egitateetako bat gauzatzen badute, zigor berberak, goiko erdian ezarriko zaizkie eta, horiekin batera, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, bi urtetik lau artekoa.

512. artikulua

Norbaitzuek, lanbide edo enpresa jarduerak gauzatzean, pertsona bati prestazio bat emateari uko egiten badio-

la que tenga derecho por razón de su ideología, religión o creencias, su pertenencia a una etnia, raza o nación, su sexo, orientación sexual, situación familiar, enfermedad o minusvalía, incurrirán en la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de profesión, oficio, industria o comercio, por un período de uno a cuatro años.

Artículo 513

Son punibles las reuniones o manifestaciones ilícitas, y tienen tal consideración:

1.º Las que se celebren con el fin de cometer algún delito.

2.º Aquellas a las que concurran personas con armas, artefactos explosivos u objetos contundentes o de cualquier otro modo peligroso.

Artículo 514

1. Los promotores o directores de cualquier reunión o manifestación comprendida en el número 1.º del artículo anterior y los que, en relación con el número 2.º del mismo, no hayan tratado de impedir por todos los medios a su alcance las circunstancias en ellos mencionadas, incurrirán en las penas de prisión de uno a tres años y multa de doce a veinticuatro meses. A estos efectos, se reputarán directores o promotores de la reunión o manifestación los que las convoquen o presidan.

2. Los asistentes a una reunión o manifestación que porten armas u otros medios igualmente peligrosos serán castigados con la pena de prisión de

te, beraren ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo elbarritasunaren zioz, eta pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea izanik, orduan, halakoei lanbidea, ogibidea, industria edo merkataritzan aritzeko desgaikuntza berezia ezarriko zaie, urtebetetik lau artekoa.

513. artikulua

Zigortzekoak dira zilegi ez diren bilera edo kale-agerraldiak eta halakotzat hartzen dira:

1.) Delituren bat egiteko helburuarekin egiten direnak.

2.) Armak, lehergailuak, objektu makatzaileak edota bestelako objektu arriskutsuak daramatzaten pertsonen bidez osatuak.

514. artikulua

1 Aurreko artikuluaren 1. zenbakira bildutako bilera edo kale-agerraldietatik edozeinen sustatzaile edo zuzendariei eta artikulu horren 2. zenbakian aipatutako inguruabarrak eragozten ahalegindu ez direnei, eskura dituzten bide guztiak erabiliz, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaie. Ondore horietarako, bilera edo kale-agerraldiaren zuzendari edo sustatzailetzat hartuko dira horretarako dei egiten dutenak edo horren buru direnak.

2. Armak edo arrisku bereko bideak eramaten dituztela, bilera edo kale-agerraldi batera azaltzen direnei urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra ezarri-

uno a dos años y multa de seis a doce meses. Los Jueces o Tribunales, atendiendo a los antecedentes del sujeto, circunstancias del caso y características del arma o instrumento portado, podrán rebajar en un grado la pena señalada.

3. Las personas que, con ocasión de la celebración de una reunión o manifestación, realicen actos de violencia contra la autoridad, sus agentes, personas o propiedades públicas o privadas, serán castigadas con la pena que a su delito corresponda, en su mitad superior.

4. Los que impidieren el legítimo ejercicio de las libertades de reunión o manifestación, o perturbaren gravemente el desarrollo de una reunión o manifestación lícita serán castigados con la pena de prisión de dos a tres años si los hechos se realizaran con violencia, y con la pena de prisión de tres a seis meses o multa de seis a doce meses si se cometieren mediante vías de hecho o cualquier otro procedimiento ilegítimo.

5. Los promotores o directores de cualquier reunión o manifestación que convocaren, celebraren o intentaren celebrar de nuevo una reunión o manifestación que hubiese sido previamente suspendida o prohibida, y siempre que con ello pretendieran subvertir el orden constitucional o alterar gravente la paz pública, serán castigados con multa de seis a doce meses, sin perjuicio de la pena que pudiera corresponder,

ko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere. Epaile edo auzitegiek gradu bat jaitsi ahal izango diote adierazitako zigorrari, subjektuaren aurrekariak, kasuaren inguruabarrak eta eramandako arma edo tresnaren ezaugarriak kontuan izanik.

3. Pertsonek, bilera edo kale-agerraldi bat egiten dela eta, indarkeriazko egintzak gauzatzen badituzte agintaritzaren aurka, agintaritzaren agenteen aurka nahiz pertsonen aurka edo jabetza publiko zein jabetza pribatuen aurka, euren delituari dagokion zigorra goiko erdian ezarriko zaie.

4. Norbaitzuek biltzeko edo kale-agerraldia egiteko eskubideak zuzenbidearen arabera egikaritzea eragozten badute, edo bilera nahiz kale-agerraldi zilegiaren ibilera modu larrian nahasten badute, orduan, halakoei bi urtetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, egitateak indarkeria erabiliz gauzatzen badira, eta hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamabi arteko isuna, egitateok egitezko jardunbidez edo bidezkoak ez diren jardunbideetatik beste edozeinez gauzatzen badira.

5. Edozein bilera edo kale-agerraldiren sustatzaile edo zuzendariek, aurretik eten edo debekatu izan den bilera edo kale-agerraldi baterako deialdia egiten badute, edo bilera edo kale-agerraldi hori berriro egiten badute edo egiten ahalegintzen badira, betiere konstituzio-ordena edo herri-bakea, modu larrian, aldarazteko helburuarekin dihardutela, orduan, halakoei sei hilabetetik hamabi arteko isuna ezarri-

en su caso, conforme a los apartados precedentes.

Artículo 515

Son punibles las asociaciones ilícitas, teniendo tal consideración:

1.º Las que tengan por objeto cometer algún delito o, después de constituidas, promuevan su comisión, así como las que tengan por objeto cometer o promover la comisión de faltas de forma organizada, coordinada y reiterada.

2.º Las bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas.

3.º Las que, aun teniendo por objeto un fin lícito, empleen medios violentos o de alteración o control de la personalidad para su consecución.

4.º Las organizaciones de carácter paramilitar.

5.º Las que promuevan la discriminación, el odio o la violencia contra personas, grupos o asociaciones por razón de su ideología, religión o creencias, la pertenencia de sus miembros o de alguno de ellos a una etnia, raza o nación, su sexo, orientación sexual, situación familiar, enfermedad o minusvalía, o inciten a ello.

Artículo 516

En los casos previstos en el número 2.º del artículo anterior, se impondrán las siguientes penas:

1.º A los promotores y directores de las bandas armadas y organizaciones

ko zaie, aurreko paragrafoen arabera ezar daitekeen zigorrari kalterik egin gabe.

515. artikulua

Zigortzekoak dira zilegi ez diren elkarteak, eta halakotzat hartzen dira:

1.) Delituren bat egitea helburu dutenak, edo, eratu ondoren, delituren bat egitea sustatzen dutenak, bai eta, modu antolatu eta koordinatuan, behin eta berriz, faltak egitea edo egin daitezen sustatzea helburu dutenak ere.

2.) Banda armatu, antolakunde edo talde terroristak.

3.) Helburu zilegia badute ere, helburu hori lortzeko indarkeriazko bideak edo nortasuna aldarazteko nahiz kontrolatzeko bideak erabiltzen dituztenak.

4.) Izaera paramilitarreko antolakundeak.

5.) Pertsona, talde edo elkarteen aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria sustatzen dutenak, horien ideologia, erlijio edo sinesmenen zioz, edo horien kideen edo horietako baten etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo elbarritasunaren zioz.

516. artikulua

Aurreko artikuluaren 2. zenbakiaren kasuetan, zigor hauek ezarriko dira:

1.) Banda armatu eta antolakunde terroristen sustatzaile eta zuzendariei

terroristas, y a quienes dirijan cualquiera de sus grupos, las de prisión de ocho a catorce años y de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de ocho a quince años.

2.º A los integrantes de las citadas organizaciones, la de prisión de seis a doce años, e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis a catorce años.

Artículo 517

En los casos previstos en los números 1.º y 3.º al 6.º del artículo 515 se impondrán las siguientes penas:

1.º A los fundadores, directores y presidentes de las asociaciones, las de prisión de dos a cuatro años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis a doce años.

2.º A los miembros activos, las de prisión de uno a tres años y multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 518

Los que con su cooperación económica o de cualquier otra clase, en todo caso relevante, favorezcan la fundación, organización o actividad de las asociaciones comprendidas en los números 1.º y 3.º al 6.º del artículo 515, incurrirán en las penas de prisión de uno a tres años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial

eta banda edo horietako taldeetatik edozein zuzentzen dutenei zortzi urtetik hamalau arteko espetxealdi-zigorra eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, zortzi urtetik hamabost artekoa.

2.) Antolakunde horien kideei sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia, sei urtetik hamalau artekoa.

517. artikulua

515. artikuluaren 1. zenbakian, eta 3. zenbakitik 6.erakoen kasuetan zigor hauek ezarriko dira:

1.) Elkarteen eratzaile, zuzendari eta buruei bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, sei urtetik hamabi artekoa.

2.) Jardunean dauden kideei urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

518. artikulua

Norbaitzuek, edozein kasutan garrantzitsua den laguntza ekonomiko edo bestelako laguntzaren bidez, faboratzen badute 515. artikuluaren 1. zenbakira, eta 3. zenbakitik 6.erakoetara bildutako elkarteen eraketa, antolaketa edo jarduera, orduan, halakoei urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie eta hamabi hilabetetik

para empleo o cargo público por tiempo de uno a cuatro años.

Artículo 519

La provocación, la conspiración y la proposición para cometer el delito de asociación ilícita se castigarán con la pena inferior en uno o dos grados a la que corresponda, respectivamente, a los hechos previstos en los artículos anteriores.

Artículo 520

Los Jueces o Tribunales, en los supuestos previstos en el artículo 515, acordarán la disolución de la asociación ilícita y, en su caso, cualquier otra de las consecuencias accesorias del artículo 129 de este Código.

Artículo 521

En el delito de asociación ilícita, si el reo fuera autoridad, agente de ésta o funcionario público, se le impondrá, además de las penas señaladas, la de inhabilitación absoluta de diez a quince años.

Artículo 521bis

Los que, con ocasión de un proceso de elecciones generales, autonómicas o locales o consultas populares por vía de referéndum en cualquiera de las modalidades previstas en la Constitución convocadas por quien carece manifiestamente de competencias o atribuciones para ello, participen como interventores o faciliten, promuevan o aseguren su realización una vez

hogeita lau arteko isuna, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ere, urtebetetik lau artekoa.

519. artikulua

Zilegi ez den elkartearen delitua egiteko zirikatzea, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, aurreko artikuluetan ezarritako egitate bakoitzari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagokoarekin.

520. artikulua

Epaile edo auzitegiek, 515. artikuluan ezarritako kasuetan, zilegi ez den elkartea desegitea erabakiko dute eta, egoki denean, kode honen 129. artikuluaren ondorio erantsietatik beste edozein ezartzea.

521. artikulua

Zilegi ez den elkartearen delituan, errudunari, adierazitako zigorrez gain, erabateko desgaikuntza ere ezarriko zaio, hamar urtetik hamabost artekoa, agintaria, agintaritzaren agentea edo funtzionario publikoa bada.

521bis artikulua

Norbaitzuek, hauteskunde orokorretarako, autonomia-erkidegoko hauteskundeetarako edo toki hauteskundeetarako nahiz, erreferendum bidez, Konstituzioak araututako modalitateetatik edozeinetan, herri-kontsultetarako prozesua egiten denean, horietarako deialdia egin duenak ageri-agerian horretarako eskumen edo aginpiderik izan gabe, kontu-hartzaile gisa esku

acordada la ilegalidad del proceso serán castigados con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de 12 a 24 meses.

hartzen badute, edota prozesua egitea erraztu, sustatu edo ziurtatzen badute, orduan, behin prozesuaren lege-aurkakotasuna erabaki eta gero, horiei sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo 12 hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaie.

SECCIÓN II

,

II. ATALA

- , -
-

Artículo 522

Incurrirán en la pena de multa de cuatro a diez meses:

1.º Los que por medio de violencia, intimidación, fuerza o cualquier otro apremio ilegítimo impidan a un miembro o miembros de una confesión religiosa practicar los actos propios de las creencias que profesen, o asistir a los mismos.

2.º Los que por iguales medios fuercen a otro u otros a practicar o concurrir a actos de culto o ritos, o a realizar actos reveladores de profesar o no profesar una religión, o a mudar la que profesen.

522. artikulua

Lau hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaie:

1.) Erlijio baten kide bati edo batzuei euren sinesmenei dagozkien egintzak gauzatzea edo egintza horietara azaltzea eragozten dietenei, horretarako indarkeria, larderia, indarra edo bidezkoak ez diren derrigortzeetatik beste edozein erabiltzen badute.

2.) Bide berberak erabiliz, beste bat edo beste batzuk behartzen dituztenei kultu edo errito egintzak gauzatzera, horietan parte hartzera, erlijio batekoa izatea edo ez izatea agerrarazten duten egintzak gauzatzera, edo erlijioa aldatzera.

Artículo 523

El que con violencia, amenaza, tumulto o vías de hecho, impidiere, interrumpiere o perturbare los actos, funciones, ceremonias o manifestaciones de las confesiones religiosas inscritas en el correspondiente registro público

523. artikulua

Norbaitek erlijioen egintzak, eginkizunak, zeremoniak edo kale-agerraldiak, indarkeria, mehatxu, nahasmendu edo egitezko jardunbidez eragotzi, geldiarazi edo nahasten baditu, betiere erlijio horiek inskribatuta daudenean Jus-

del Ministerio de Justicia e Interior, será castigado con la pena de prisión de seis meses a seis años, si el hecho se ha cometido en lugar destinado al culto, y con la de multa de cuatro a diez meses si se realiza en cualquier otro lugar.

Artículo 524

El que en templo, lugar destinado al culto o en ceremonias religiosas, ejecutare actos de profanación en ofensa de los sentimientos religiosos legalmente tutelados, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año o multa de doce a veinticuatro meses.

Artículo 525

1. Incurrirán en la pena de multa de ocho a doce meses los que, para ofender los sentimientos de los miembros de una confesión religiosa, hagan públicamente, de palabra, por escrito o mediante cualquier tipo de documento, escarnio de sus dogmas, creencias, ritos o ceremonias, o vejen, también públicamente, a quienes los profesan o practican.

2. En las mismas penas incurrirán los que hagan públicamente escarnio, de palabra o por escrito, de quienes no profesan religión o creencia alguna.

Artículo 526

El que, faltando al respeto debido a la memoria de los muertos, violare los sepulcros o sepulturas, profanare un cadáver o sus cenizas o, con ánimo de

tizia eta Barne Arazoetako Ministerioaren erregistro publiko egokian, orduan, pertsona horri sei hilabetetik sei urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, egitatea kultu-leku batean gauzatu bada, eta lau hilabetetik hamar arteko isuna, egitatea beste edozein lekutan gauzatu bada.

524. artikulua

Norbaitek tenpluan, kultu-lekuan edo zeremonia erlijiosoetan, legez babesturiko sentimendu erlijiosoak ofenditzen dituzten donauste-egintzak gauzatzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

525. artikulua

1. Zortzi hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie erlijio baten kideen sentimenduak ofenditzearren, haren dogma, sinesmen, errito edo zeremoniei jendaurrean eskarnio egiten dietenei, hitzez, idatziz nahiz edozein agiriren bidez, edota, jendaurrean, iseka egiten dutenei aurreko dogma zein sinesmen horiek dituztenekiko edo errito nahiz zeremonia horiek egiten dituztenekiko.

2. Zigor berbera ezarriko zaie erlijio edo sinesmenik ez dutenekiko, hitzez edo idatziz, jendaurrean eskarnio egiten dutenei.

526. artikulua

Norbaitek, hildakoen oroimenari zor zaion begirunea urratuz, hobiak nahiz hilobiak bortxatzen, edo gorpu bat nahiz beraren errautsak donausten

ultraje, destruyere, alterare o dañare las urnas funerarias, panteones, lápidas o nichos, será castigado con la pena de arresto de prisión de tres a cinco meses o multa de seis a diez meses.

baditu edota, idoi egiteko asmoz, errauts-kutxatilak, panteoiak, hilarriak zein horma-hilobiak, suntsitu, aldarazi edo horiei kalte egiten badie, orduan, horri hiru hilabetetik bost arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio.

SECCIÓN III

III. ATALA

-

Artículo 527

Suprimido por la Ley Orgánica 3/2002, de 22 de mayo (BOE núm. 123, de 23 de mayo).

527. artikulua

Ezabatuta, maiatzaren 22ko 3/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 123. zk., maiatzaren 23koa).

Artículo 528

Derogado por la disposición derogatoria única.

528. artikulua

Xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetutakoa.

CAPÍTULO V

De los delitos cometidos por los funcionarios públicos contra las garantías constitucionales

V. KAPITULUA

Konstituzio-bermeen aurka funtzionario publikoek egindako delituak

SECCIÓN I

I. ATALA

Artículo 529

1. El Juez o Magistrado que entregare una causa criminal a otra autoridad o funcionario, militar o administrativo, que ilegalmente se la reclame,

529. artikulua

1. Epaile edo magistratuak auzi kriminal bat uzten badu beste agintari edo funtzionario administrazioko nahiz militar baten esku, azken horrek legearen

será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de seis meses a dos años.

2. Si además entregara la persona de un detenido, se le impondrá la pena superior en grado.

Artículo 530

La autoridad o funcionario público que, mediando causa por delito, acordare, practicare o prolongare cualquier privación de libertad de un detenido, preso o sentenciado, con violación de los plazos o demás garantías constitucionales o legales, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de cuatro a ocho años.

Artículo 531

La autoridad o funcionario público que, mediando causa por delito, decretare, practicare o prolongare la incomunicación de un detenido, preso o sentenciado, con violación de los plazos o demás garantías constitucionales o legales, será castigado con la pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público por tiempo de dos a seis años.

Artículo 532

Si los hechos descritos en los dos artículos anteriores fueran cometidos por imprudencia grave, se castigarán con la pena de suspensión de empleo o cargo

aurka auzi kriminal hori erreklamatu diolako, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, sei hilabetetik bi urte artekoa.

2. Horrezaz gain, atxilotua agintari edo funtzionario horren esku uzten badu, aurreko zigor hori baino gradu bat gehiagokoa ezarriko zaio.

530. artikulua

Agintari edo funtzionario publikoak, delituaren ondorioz auzia dagoelarik eta epeak edo konstituzioaren nahiz legearen gainerako bermeak urratuz, atxilotu, preso edo epaitu bat askatasunaz gabetzea erabakitzen, askatasunaz gabetzen edo askatasun-gabetze hori luzatzen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezia ezarriko zaio, lau urtetik zortzi artekoa.

531. artikulua

